

**Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian** da tesiaren izenburua. Euskalkiaren eta euskara batuaren arteko korapiloa askatzen da. U. Weinreich-en Hizkuntzen Ukipenaren Paradigma harturik, baieztatzen da, euskara batua eta euskalkia –zein heteronomoa den; Mitxelena *dialecto de*– ukipenean direla, pertsona berak behin banan darabiltzanez gero.

Gertatzen den diglosiarako, C. A. Ferguson-en definizioa jotzen da: *Hizkuntzaren dialekto desberdinen aldamean, aldaki oso kualifikatu bat* dela dioenera. Euskal Herrian den endoglosia (Txillardegi) diglosia irazi legez lantzen da, –ulertuz, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia direla irazirik–.

Irakaskuntzari begira, D. P. Ausubel-ek dakarren ikuspegi aldaketa erabiltzen da Ikasketak Esanguratsua bideratzeko, hortxe bertan kokaturik Labayru Ikastegiaren lema: *Dakigunetik ez dakigunera*.

Teoria eskuan, euskalkiaren araketa egiten da irakaskuntzan eta Curriculum jorratu, beti ere bereiztuz, atxikitze-eredua –etxetik euskaldun datozenena– eta murgiltze-eredua –familiaratik erdaldun datozenena–.

Ordorion artean, baieztatzen da, atxikitze-eredukoekin euskara batua euskalkiaren –etxetik dakartenaren– arartekotasunez ikastea dela egoki, beraz, etxetik euskalkia –bizkaiera, zuberera...– dakitenentzat atxikitze-eredua dela irakasbide zuzena.

\* \* \*

**Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara.** Así reza el título de la tesis, la cual comienza con la clarificación de la mutua influencia entre el dialecto y la lengua unificada. El Paradigma del Contacto de Lenguas de U. Weinreich da pie para afirmar que el euskara unificado y el dialecto –al cual calificamos como heterónimo, *dialecto de* en palabras de Luis Mitxelena– se hallan en contacto, en la medida en que los utiliza la misma persona.

Para el presente caso de diglosia, acudimos a la definición de C. A. Ferguson: *Junto a los diferentes dialectos de la lengua, una variedad muy cualificada*. La endoglosia (Txillardegi) del País Vasco la estudiamos como diglosia entramada –urdida entre el euskara unificado, el dialecto literario y los subdialectos–.

En su relación con la enseñanza, la tesis se nutre del cambio de perspectiva que ofrece D. P. Ausubel en la consecución de la Enseñanza Significativa, donde situamos el lema ya común del Instituto Labayru, *De lo conocido a lo desconocido*.

Una vez definido el marco teórico, se investiga el estado del dialecto en la enseñanza con el consiguiente análisis del curriculum, distinguiendo entre *el modelo de mantenimiento* –alumnos/as cuyo idioma familiar es el euskara– y *el modelo de inmersión* –alumnas/os cuyo idioma familiar es el castellano o el francés–.

Entre las conclusiones, destacamos la necesidad de que a los alumnos/as del *modelo de mantenimiento* se les imparta la enseñanza de la lengua unificada por medio del dialecto y que, por tanto, a los alumnos/as de cualquiera de los dialectos corresponde tal *modelo de mantenimiento*.

\* \* \*

**Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage dysglosique de l'euskara (langue basque).** Voilà le titre de la thèse qui commence avec la clarification de l'influence mutuelle entre le dialecte et la langue unifiée. Le paradigme du Contact Linguistique de U. Weinrich permet d'affirmer que l'euskara unifié et le dialecte –qui est qualifié d'hétéronome, *dialecte de* en voix de Luis Mitxelena– se trouvent en contact, dans la mesure où c'est la même personne qui les emploie.

Devant le cas présent de dysglosie, nous prenons la définition de C.A. Ferguson : *Avec les divers dialectes d'une langue, une variété très qualifiée*. L'endoglosie (Txillardegi) du Pays Basque, nous l'étudions comme une dysglosie en tramage –tramée entre le basque unifié, le dialecte littéraire et les sous-dialectes–.

Quant à sa relation avec l'enseignement, la thèse s'alimente du changement de perspective que nous offre D.P. Ausubel avec l'Enseignement Significatif, où nous situons l'emblème maintenant commun, *du connu vers l'inconnu*.

Une fois défini le cadre théorique, l'investigation porte sur l'état du dialecte dans l'enseignement en analysant pour cela le curriculum, et nous différencions *le modèle de maintien* –les élèves qui ont l'euskara comme langue au sein de la famille– et *le modèle d'inmersion* –les élèves pour qui la langue en famille est le castillan ou le français–.

Dans les conclusions, nous remarquons le besoin pour les élèves du *modèle de maintien* d'avoir un enseignement de la langue unifiée par le biais du dialecte et donc aux élèves de chaque dialecte correspond un certain *modèle de maintien*.

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 1

*Euskalarien nazioarteko jardunaldiak / Bascologist international meetings / Encuentros internacionales de vascólogos / Rencontres internationales de bascologues.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

IKER 2

*Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Pierre Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

IKER 3

*Erizkizundi irukoitza / Triple cuestionario / Triple questionnaire (euskara 1925).* Ana M<sup>e</sup> Echaide Itartek paratua, 2 t., Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

IKER 4

*Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa / Correspondencia entre R.M. de Azkue y P. Broussain / Correspondance entre R.M. de Azkue et P. Broussain. (1897-1920).* Piarres Charrittonek paratua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IKER 5

*ZUAZO, K. Euskararen batasuna / La unificación de la lengua vasca / L'unification de la langue basque.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.

IKER 6

*Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante / Hommage à Luis Villasante.* J.A. Arana eta R. Badiolak prestatua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 7

*Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak / Actas del Congreso Internacional de Dialectología / Actes du Congrès International de Dialectologie / Proceedings of International Congress on Dialectology.* G. Aurrekoetxea eta X. Videgainek prestatua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 8

*Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quatrième centenaire d'Oyhenart.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

IKER 9

*Euskararen tratamenduak: erabilera / Uso de los tratamientos alocutivos en euskara / Emploi des traitements allocutivos en basque.* Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.

IKER 10

*Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico Krutwig / Hommage à Federico Krutwig.* Ricardo Badiola Uriartek prestatua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.

IKER 11

*Vasconiana.* Jean Haritschelhar Dualde eta Piarres Charritton-ek paratua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1999.

IKER 12

*Jose Ignacio Arana: Egunaria.* Patxi Altunak paratua, Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.

IKER 13

*Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian / Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara / Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage dysglosique de l'euskara (langue basque) / Dialect and education. From the known to the unknown inside the diglossia interwoven connections of euskara (basque language).* Juan Luis Goikoetxea Arrietak prestatua, Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA  
DIALECTO Y EDUCACION  
DIALECTE ET EDUCATION  
DIALECT AND EDUCATION**



**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSSIA IRAZIAN**  
DIALECTO Y EDUCACION. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO  
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA  
DIALECTE ET EDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE  
TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)  
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE  
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSSIA IRAZIAN**

DIALECTO Y EDUCACION. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO  
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA

DIALECTE ET EDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE  
TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)

DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE  
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)



**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSSIA IRAZIAN**


DIALECTO Y EDUCACION. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO  
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA

DIALECTE ET EDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE  
TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)

DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE  
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSSIA IRAZIAN**  
DIALECTO Y EDUCACION. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO  
DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA  
DIALECTE ET EDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE  
TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)  
DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE  
THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

ISBN 84-95438-10-0



9 788495 438102

**iker**  
**13**

**iker - 13**

JUAN LUIS GOIKOETXEA ARRIETA

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA.  
DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN**



EUSKALTZAINDIA  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Académie de la Langue Basque

BILBO

2003



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Cultura

Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren laguntza jaso du.



© Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO  
E. posta: info@euskaltzaindia.net

ISBN: 84-95438-10-0

Legezko gordailua: BI-697-03

Fotokonposizioa: RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10. 48010 BILBO

Elkar Gráficas, Sdad. Coop. inprimategia  
Larrondo Beheko Etorbidea - LOIU (Bizkaia)

Izenburua: EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA.  
DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA  
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN.

Egilea: Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Zuzendaria: Jon Kortazar Uriarte.

Epaimahaia:

Zuzendaria: Jean Haritschelhar Duhalde.  
Idazkaria: Iñaki Gaminde Terraza.  
Epaimahaikoak: Gotzon Garate Goiarzun.  
Beñat Oyharcabal Bidegorri.  
Adolfo Arejita Oñare-Etxebarria.

Defentsarako egoitza: Bilboko Irakasle-eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea.

# AURKEZPENA

**Euskalkia eta hezkuntza:** Euskararen kanpo-historiak eta bere barrukoak eraginik, ikerketa-lan nahiz doktore tesi ugari argitaratu da azken urteotan euskalkien gainean. Euskalkia irakaskuntzan gaitzat hartuta, ostera, oso gutxi, baina ez gure artean bakarrik, Europa zabalean ere aurrerakuntza franko oraintsu-oraintsukoa baita. Euskalkia eta Hezkuntzaren gaia, beraz, azterketa arlo berrien artean sailka genezake.

Badakigu D Eredua bikoiztu egiten dela, lehen hizkuntza euskara duten ikasleentzat atxikitze-eredu bilakatuz, eta lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dutenentzat murgiltze-eredu bihurtuz. Tesi honen helburua irakaskuntzako atxikitze-ereduaren barruan kokatzen dugu, etxetik euskaradun izanik –euskalkidun oraingoan–, eskolaratzen diren neska-mutilen berbakeran. Eta horien artean –Euskal Herri osokoak hartzen diren arren–, bizkaiera zein bizkaieradun ikaslea da nagusiki aztergaitzat hartzen duguna.

Tesia **dakigunetik ez dakigunera** doa. Mikel Zaratek eta Ander Manterolak sortutako eslogan hau Labayru Ikastegiak erabili ohi du 1973.urtea ezkerre, berez, ikastaroak hasi 1970.ean egin baziren ere. **Dakigunetik ez dakigunera** –metodo legez– ez zaio inongo euskalkiri lotzen, berdin dio euskalki literarioa duen edo Nafarroako kasuan ez duen. Planteamendu honetan etxetik euskara dakarren oro da aintzat hartua, jadanik dakien euskara Zegamakoa izan nahiz Mungiakoa zein Sarakoa.

**(Euskal Diglosia) Irazia** deritzagu, ehundegian ehuna egitean bezala gauzatzen delako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Azkue, Resurrección María [Diccionario vasco-español-francés] *Diccionario vasco-español-francés* / por Resurrección María de Azkue; prólogo de Juan de Gorostiaga; presentación de Jaime de Querexeta. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969: **irazi**: urdir el lienzo en el telar; ourdir le tissu sur le métier. AN-b-lez, B-a-o-ts, G-ber.

# AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
AITZIN SOLASA.....	XI
BERBAURREKOA .....	XIII
SARRERA .....	1
ESKER ONA.....	9
I. ATALA: EUSKAL DIGLOSIA IRAZIA .....	11
1. HIZKUNTZAREN UKIPENA ETA ELEBITASUNA .	13
1.1. Ukipen-linguistikoko egoera desberdinak .....	16
1.1.1. Arkipelago linguistikoa .....	16
1.1.2. Familia linguistikoen arteko egoera erdi-egon- korrak .....	16
1.1.3. Europako zabalkunde koloniala .....	16
1.1.4. Euskararen egoera .....	17
1.1.5. Hirugarren munduko migrazioa .....	17
1.2. Ikerketa arlo honetara ekarria egiten duten dizipli- nak .....	17
2. EUSKARA ESTANDARRA ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UKIPENA .....	20
2.1. Dialektoa, autonomia falta zaion barietatea .....	20
2.2. Ikuspegi prospektiboa .....	21
2.3. Euskararen jatorriaz .....	22
2.4. Euskararen euskalkiak .....	22
2.5. Euskalkiak eta euskara estandarra .....	24
2.6. Ukipenean diren hizkuntzen desberdintasunak ....	24

	<u>Orr.</u>
2.7. Bizkaiera eta gainerako euskalkiak .....	26
2.8. Bizkaieraren nortasuna .....	31
2.9. Bizkaieraren berezitasunak .....	39
2.9.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak .....	39
2.9.2. Berezitasun morfologiko eta sintaktikoak .....	41
2.10. Zergatik bizkaiera literarioa eta ez euskara batua eta lekuan lekukoa bakarrik? .....	43
2.11. Bizkaieraren planifikazio linguistikoa .....	45
3. DIGLOSIA .....	50
3.1. Charles A. FERGUSONen ekarria .....	50
4. DIGLOSIA IRAZIA .....	56
4.1. Zeri deritzagun irazia .....	56
4.2. L. J. CALVETen irakatsia .....	58
5. EUSKAL DIGLOSIA IRAZIA .....	60
5.1. Txillardegiren iradokizuna .....	60
5.2. Hiztunaren aukeraketa binarioa .....	62
<b>II. ATALA: IKASKETA ESANGURATSUA HEZKUNTZA PSIKOLOGIAN .....</b>	<b>71</b>
1. AUSUBEL-EN ETA BERONEN LANKIDEEN FOR- MULAZIOA .....	73
2. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA .....	75
<b>III. ATALA: EUSKALKIAREN ARAKETA IRAKASKUN- TZAN .....</b>	<b>83</b>
1. IKERKETAREN IRUDIZTATZEA, DISEINUA .....	85
1.1. Helburua .....	85
1.2. Hipotesia .....	86
2. GALDEKETAREN EZAUGARRIAK .....	86
3. GALDEKETAK .....	90
3.1. Galdeketen mailak .....	91
3.1.1. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean .....	91
3.1.2. BBBko 3. mailan eta Kanboko Lizeoko 3.ean ..	91
3.2. Behatutako ikasle eta ikastetxeen karakteristikak ..	92
3.2.1. OHOkoko inkesta idatzietarako .....	92
3.2.2. BBBko inkesta idatzietarako .....	92



	Orr.
<b>4. ERABILIRIKO GALDEKETAK .....</b>	93
4.1. OHOKo Bermeoko 'Eleizalde' ikastolakoa .....	93
4.2. Batxilerreko ikasleentzakoia .....	93
4.3. Kanboko 'Xalbador' Ikastegirakoa .....	93
<b>5. GALDEKETAK SORTZEKO IRIZPIDEAK .....</b>	94
<b>6. GALDEKETEN EMAITZAK ETA AZTERKETA .....</b>	97
6.1. Eskolako berbeta eta etxekoa .....	98
6.2. Euskara batuaren izaera .....	108
6.3. Euskalki literarioaren izaera .....	112
6.4. Etxeko euskararen izaera .....	125
6.5. Euskara batuaren eta euskalkiaren kontzeptua .....	129
6.6. Interferentziak euskara batuaren bizkaiera literarioa- ren eta azpieuskalkiaren artean .....	139
6.6.1. Lexikoan .....	139
6.6.2. Morfologian .....	140
6.6.3. Sintaxian .....	143
6.7. Eskolaren eragina .....	151
6.8. Euskararen erregistroak .....	161
<b>IV. ATALA: EUSKALKIRAKO CURRICULUMA .....</b>	167
<b>1. BIZKAIERAREN IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA- RAKO OINARRIZKO CURRICULUM DISEINUA ..</b>	169
1.1. Oinarria .....	169
1.2. Euskalkiaren edukiak .....	173
1.2.1. Marka bako maila .....	174
1.2.2. Maila markatuak .....	175
1.3. Oinarrizko mailaren garapena .....	175
1.3.1. Berbetaren ikasketako ardatzak .....	175
1.3.2. Edukien multzoak .....	177
1.4. Hizkuntza arloko helburuen ebaluaziorako irizpi- deak .....	183
1.4.1. Frogarik aproposenak .....	183
1.5. Hizkuntza arloaren berariazko jarduera eta estra- tegia metodologikoak .....	186
1.5.1. Ikasgela .....	186
1.5.2. Irakasleen eginkizuna .....	187
1.5.3. Ikasleen eginkizuna .....	188
1.5.4. Ikasgelaz kanpoko mundua .....	188

	<u>Orr.</u>
<b>1.6. Orientazio orokorrak</b> .....	189
1.6.1. Ahozko komunikazioa .....	189
1.6.2. Idatzizko ekoizpena .....	190
1.6.3. Irakurketa .....	191
1.6.4. Testu literarioen irakurketa .....	192
<b>1.7. Estrategia eta jardueren diseinua</b> .....	193
1.7.1. Irizpide orokorrak hizkuntza arloekin duten ha- rremana .....	193
1.7.2. Material eta baliabide didaktikoak .....	194
<b>1.8. Sekuentziazioko irizpideak</b> .....	195
<b>1.9. Aniztasunaren trataera</b> .....	196
<b>1.10. Ebaluaziorako orientabideak</b> .....	197
<b>V. ATALA: GARAPENERAKO IRUZKINA</b> .....	199
<b>1. TEORIAREN PRAKTIKOTASUNA</b> .....	201
<b>2. EUSKAL DIGLOSIAKO OSAGAIEN LEKUA</b> .....	209
<b>3. ETXEKO BERBETARAKO IRAKASKUNTZA ESAN-         GURATSUA</b> .....	212
<b>4. EUSKAL DIGLOSIAKO ZER IRAKATSI ETA ZELAN</b>	225
<b>5. ATALAREN AMAIERAKO IRAKATSIK</b> .....	229
<b>VI. ATALA: ONDORIOAK</b> .....	231
<b>VII. ATALA: BIBLIOGRAFIA</b> .....	237
<b>VIII. ATALA: ERANSKINAK</b> .....	263

# AINTZIN SOLASA

Poz handirekin jakin dut Juan Luis Goikoetxea Arrieta jaunaren tesia argitaratzera doala eta bozkario gehiagorekin idazten ditut berak galdegin dizkidan sarrera-berbak edo hitzak. *Euskalkia eta hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera euskal diglosia irazian* da tesiaren izenburua.

Duela 35 urte hain zuzen Euskaltzaindiak Arantzazuko biltzar nagusian (1968) erabaki zuen beharrezkoa zela euskara literario bat euskaldun guztien arteko lokarria izan zitekeena. Aspaldiko asmoa: alabaina sortu zelarik 1918-1919an, orduko arautegiko 6. artikulua hauxe zioen:

*Ekingo du euskalgi oroen azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa.*

Urre-eztei kariatara 1968ko euskaltzainek bereganatu zuten lehenbiziko euskaltzainen xedea errepikatuz oraiko arautegian:

1. art. d) *Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere literatur hizkera batura heltzeko lan egitean.*

Geroztik egin da lan Euskaltzaindian, bai sortu dituen batzordeetan eta bai biltzar nagusietan ere. Bidea urraturik behar ziren erabakiak hartu ditu, sekulan ukatu gabe euskalkien eremua eta bizia, argi eta garbi erranez Bergaran 1978ko irailaren 8an azaldu zuen adierazpenean:

*5- Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.*

Lekuko dira berrargitaratu dituen Bonaparte printzearen lanak; argitara eman dituen Yrizar jaunak euskalki guztietako aditz laguntzaileen azterketak, hamalau liburukitan; E.H.H.A. deritzan hizkuntz Atlasa, aurten agertuko delarik lehenbiziko liburukia.

Horiek hola, ikusirik hor daudela, alde batetik euskara batua eta bertetik euskalkiak, beharrezkoa da aztertzea nola jokatu behar den irakaskuntzan. Epaimahaiburu nintzela Juan Luis Goikoetxea Arrietak tesia irakurri zuelarik, berriz ere errepikatuko dut Iparraldean segitu den bidea, hain zuzen dakigunetik ez dakigunera joatea. Adibide baten emateko hartuko dut zuberera. Haurra etxean derabilaten euskalkian heziketarako eskolara. Euskalkian behar zaio “hunki jin” egin eta ez bertzela. Zubereran behar ditu egin lehenbiziko ikasketak eta, ene us-tez, lehenbiziko maila guztian, erakutsiz euskalkiaren balioa, baina, denbora berean, azalduz ez direla euskaldun guztiak zubereraz mintzo, beste euskalkiak ere badirela Euskal Herrian eta badela bereziki elkarren lokarri den hizkuntza amankomuna, euskara batua. Bigarren mailan irakasleari dagokio urrats horren egitea. Hola, emeki-emeki, poliki-poliki, deus minik egin gabe, eramaten da ikaslea dakienetik ez dakienera, irekitzen zaizkio gogo-bihotzak, hori baita, azkenean, hezkuntzaren eginbidea.

Pentsa dezagun ere ez dela euskara batua hizkuntza bakarra. Bigarren mailan eta unibertsitatean euskal literatura aztertzean irakurri beharko da pastoralara edo Etxahun zubereraz, Axular lapurteraz, Lizardi gipuzkeraz, Lauaxeta bizkaieraz, eta Larreko nafarreraz, holakoa baita daukagun ondarea.

Ez daiteke pedagogia berdina erabili Euskal Herri osoan, eremu ez euskaldunetan euskara batua baliatuz, eremu euskaldunetan aldiz etxetik euskalkia jakinik datorren ikaslea dakienetik ez dakienera eskolak behar du eraman.

Horretarako Juan Luis Goikoetxea Arrietaren tesia lagungarri izanen da irakasle guztientzat sakonki aztertu baitu irakaskuntzak daukan arrazoiak euskal ikasleen onerako.

Jean HARITSCHELHAR,  
euskaltzainburua

## BERBAURREKOA

Deus gutxi aberasgarriagorik, azken urteotako elebitasunaren alorrean, diglosia kontzeptua baino. Harako Fergusonek asmatu zuenetik (1959), makina bat ikerle lotu da haren uztarrira, bi mintzodun herriaren eta gizabanako askoren egoera azaldu nahian.

Euskalgintzaren esparruan ere, erreskada luzea beteko lukete diglosiaren inguruko arakatzailleek. Izenez izeneko hurrenkera horretara dator, oraingoan eta eskura daukazu liburu egoki honen bidez, Juan Luis Goikoetxea Arrieta irakasle eta adiskidea. Zerrendaren azkena izateak, kronologiari dagokionez behintzat, ez dio kentzen pisu eta garrantzirik Goikoetxearen ekarriari. *Last but not least* ohi dute esana anglosaxoniarrak. Gurean ere, antzeko zer bait, Goikoetxearen lana jasotzean.

Izan ere, doktorego-tesia da —*cum laude* eta guzti, jakina— orrialde hauetara batu den ikerketa berezi eta erabatekoa. Ohikoa izaten da halakoetan gai berberaren gainean idatzi eta aztertu dena aipuan jarri eta xehe-xehe azaltzea. Nire aldetik, alabaina, zilegi bekit datu jakingarri bat gogora ekartzea, horrek eman diezagukeelako gerogarreneko giltzarria.

Bada soziolinguistikaren sailean aita ponteko aitortu eta laudatua. Uriel Weinreich duzu hori, aspalditik zendua eta *Languages in contact* (1953) liburu erabakigarriaren egilea. Liburu esanguratsua, soziolinguistikaren adituek behin eta berriro alderatzen dutena. Horra dakar hark, besteak beste, euskaldunen hizkuntza muturreko egoera: *... an accidental Basque immigrant in an American town form practically unique points of language contact...* Horra, hitz gutxitan esanda, euskarari arrotz zaion hizkuntza batekin izan dezakeen lantzean behingo ukitua.

Askoz sakonago eta sarkorragoa, ez bairik gabe, euskarak aldame-neko eta bertako mintzairekin izan duen eta duen ukitua, eta, zeresanik ez, etxebarne duena, euskalkien tradizioan eta garaiotako euskara batuan mamitu dena. Bi-biok dira diglosia-egoeraren barruan ikusteko modukoak. Izatez, bi-biotan gauzatzen da gertaera berbera, hau da, hizkuntza-zereginak modu bestelakoetan agertzea, bi hizkuntzak nahiz hizkuntza beraren aldaerak tartean direla.

Hartara, bi diglosia bereizi beharrean ibili gara euskararen esparruan. Lehena, kanporako diglosia, euskarak beste erdal hizkuntzekin batera bizi duena, zeregin eta testuinguru desberdinetako erabilerak direla eta. Bestea, aldiz, barne diglosia delako hori, euskararen euskalkiek eta euskara batuak osatzen dutena.

Bigarren diglosia horretan aritu da Goikoetxea, bertara ekarri baititu, egitasmo teorikoa ez ezik, jarduneko eskarmentua ere. Esan gabe doa, eta irakurle ohartuak berehala sumatuko du, alfer-alferrik datorrela egundoko kontzeptu eta idazle iritzi-bilketa, hizkuntza bakoitzaren errealitateak bere baldintza bereziak ezartzen dituenen.

Euskaraz ere, beste horrenbeste. Hortxe dago, nire ustez, Juan Luis Goikoetxearen lanak erakusten duen gailentasuna. Hain zuzen, euskarari ezinbesteko zaion irakaskuntza-prozesuan, Goikoetxeak nabarmendu du nola estekatu behar diren euskaldungoaren iturburu biok, euskaldun zein erdaldun aldeetatik datozenak.

Izan ditu horretarako, bistan da, aldez aurretiko abiapuntuak. Mendebaldeko euskaratik egin du lan Goikoetxeak, eta gogoan izan du Mikel Zarate zenaren *Dakigunetik ez dakigunera*. Ospe handitan dabil hori oraingokoan, egoki laburbiltzen baititu askoren nahia eta gogoa, alegia, norberaren euskara bazter utzi gabe, euskaldun guztiontzat tresna egokia izan daitekeen hizkuntza batu horren bila joatea. Norberaren erroak ahaztu barik, besteenak ere kausitzea, bide erkidea denon aurrean moldatzeko.

Horixe da, beste batzuen artean, Euskaltzaindiaren eginkizuna, sortze-sortzetik izan duena. Horretan dihardu, aspaldi-aspalditik, erakunde horren Jagon Sailak eta, bereziki, Euskalkien Lantaldeak. Bertoko kide dugu Juan Luis Goikoetxea, euskaltzain urgazlea, eta Txorierrri Institutuko katedraduna. Lantalde horren eskuetan dago, Euskal Akademiaren barnean, halako formulazioa egitea, esparru batzuetan (hala nola, irakaskuntza, administrazio eta komunikabideetan) azken boladetako kontu berriak bideratu eta biltzeko, alegia, euskara batua eta

euskalkiak, hizkuntza beraren adierazle izan eta elkarren arteko zelaijokoa zedarriztatzeko gauza izan gaitezten.

Zedarriztatzeko asmoa, besterik gabe, funsgabeko gerta daiteke, berezko bizi-indarra duena ez baita horma itxietan giltzaperatzeko modukoa. Gurea, aldiz, bestetik dator, euskara giltzaperatu beharrean, libre eta aske nahi dugulako, eta giltzarri guztien jabe, batik bat, mundu honek eskatzen duen gako ororen jakile eta eroale. Horra garamatza, zalantzarik gabe, informatika eta informazioaren gizarte honek.

Kontu berriak, bai, inoiz ez inon ez baititu izan euskarak, aldiotan bezalaxe, aparteko aukerak bere barnean eroso kokatzeko euskaldun guztiok, geure jatorri geografiko, linguistiko nahiz osterantzekoa edozein izanda ere.

Adierazgarria da bidegintza horretan Juan Luis Goikoetxearen ekarria. Azpimarratu egin digu egileak, berriro ere, eskolak etxetik euskalkia jakinik datorren ikaslea *dakienetik ez dakienera* eraman behar duela eta, horretarako, familiako berbeta landu behar dela irakaskuntzan, bera izan dadin euskara batuaren atariko eta sarrera nagusia.

Gogo eta jakin-min handiarekin barruratzen dugu, hortaz, Euskaltzaindiaren argitalpenetan honako hau. Inon izatekotan, halakoetan izan behar du gure Akademiak abegi, txera eta arreta berebizikoa, euskaltzainkideen lana aintzat hartu eta plazaratzeko.

Bada, alabaina, prozesu horretan desbideratzeko arriskurik. Azken hogeita hamabost urteotan erdietsitakoa ere ez da batetik bestera kareletik jaurtikitzekoa, aldikada horretan ezer ere gertatu ez balitz legez. Aitzitik, horko esperientzia izan behar dugu baliagarri, euskara horren barruan guztiok aise eta erraz bizi gaitezten.

Horixe da, menturaz, oraingo egitekorik premiatsuenen artean berehalakoenetarikoa. Zernahi gisaz, nahitaezko baldintza euskararen hedatze- eta zabaltze-ekinean artez aitzinatzen.

Betor, beraz, bidegintza horretan argi ziburra den Juan Luis Goikoetxearen ikerketa-lana, eta egin dezagun kontu, bide-bazterrean une batez geldirik gaudela, argi horren gainean. Beharbada, argi hutsa baino, euskararentzat norabide berriak erakutsiko dizkigu horrek, behar den arreta jarritz gero. Ni neu, behintzat, asmo horretakoa nauzue.

Andres M. Urrutia,  
Jagon Sailburua.  
Euskaltzaindia.

# SARRERA

Tesi honen big-bang-a euskara batuaren 25. urteurrenean kokatzen da. Norbera bidaide duela gaurdaino etorri den euskara batuari gibelera begiratzeak euskararen barne-historiari buruzko panoramika diafanoa eskaintzen du. Bizipozerako, euskaldunok Herri modura badaukagu elkarrekin komunikatzeko mintzaira komuna, baina, era batera, ebatzi bako auziak ere bai. Batetik, euskara batua gero eta estandarizatuago aurkezten zaigu, arautuago, eta horrek, euskalki guztietako ekarria aintzat harturik eraikizun zen eredua, erdialdekoen esparruetara mugatu izan du ia beti, ondorioz, bizkaiera gero eta kanporago, baztertuago utzirik. Bestetik, ostera, euskalkien aldeko mugimendu zabalaren ibilbidean bizkaierak zein lekuan lekuko euskarek orbizte agerikoa ezagutu dute. Aski da horren lekukotzarako, Juan Luis Goikoeaxeak idatzirik “Bizkaieraren orbiztea” deritzan *Karmel* aldizkariko (1999-2) artikulua irakurtea.

Bestalde, hizkuntzaren erabakiguneetatik at, bizkaiera entzuten zen leku batzuetan, orain desagertu bada, ez da ordezko euskara batuarik entzuten, askok eta askok jakin badakiten arren. Beste inguru batzuetan entzuten da, baina entzuten den hori ez da, hain zuzen, eskolan ikasia, liburuetakoa, eta izan bada inoiz, erabiliaren erabiliaz moldatu egin da, irazi lekuan lekukoagaz. Halako egoeran, ikasgelan euskara batua irakastea, erdaratik datozenak murgiltzeko metodo egokia izan daitekeela dirudi, akademikotasunean gelditzen ez bada. Geldi ez dadin, ordea, euskaldun berriari aldameneko hiztunen berbeta teilakatuz joango bazaio, ez ote da euskalkia ere eskolan landu behar? Euskara formalari ments zaion malgutasun, egokitze, erregistro ezagutza, neurri handian euskalkiak eskura badiezaio, Maulekoak zuberera eta Lekeitiokoak bizkaiera ez dute jorratu behar?



Halaber, familia eskalduneko neska edo mutila eskolaratzean, barruan dakarren euskara hori ez da aintzat hartzekoa? Euskara batuan murgilduko dugu erdal familietakoen moduan? Ez al da ba, atxikitze-eredua eskaldun direnei dagokiena? Gainera, etxetik eskaldun izanik eskolaratzen diren umeak euskara batua jasotze hutsaz alfabetaturik geratzen dira euren lekuan lekuko euskaran? Itaun ugari erantzun oinarrituen zain.

Ingelesaren ispiluan begiratuko bagenu, ikusiko genuke, euskarena ez den bideari jarraitzen gatzaizkiola ikasterakoan. Euskara ikasleen artean ingeleserako metodoa erabil bageneza, herri eskaldunak, eskaldunen familiak eskaldun berriz bete-beterik aurkituko lirateke. Gertatzen ez dena. Akademietara eta akademietatik Ingalaterra, Irlanda nahiz Ipar Ameriketara ehunkak joan ohi dira, behin elkarrizketarako mailaz jabetu direnean, eskolan ikasia praktikatzeko. Ikaslearen harridurarako, Londresera heltzerakoan ez du Oxford Street-eko berbeta ulertzen. Uda bukaeran horko hizkerara ohitu denean, Tamesi hegoalderantz gurutzatu eta Brixton-ekoekin elkartzen denean, berriro ere ez duela aditzen konturatzen da. *H*-a ez dutela ahoskatzen, silabak jaten dituztela, bokalak aldatu, fonetikako sistema desberdina erabili, berea ulertzen diotela, baina berak ez euren. Hor apur baten bizirik egokitu denean, Manchesterrera badoa, hangoa ere ez hasieran. Hala ere, ingelesko ikasleak ez dio errurik ingelesari egotziko berak ez ulertzeagatik, ekin egiten dio harik eta jakitea lortzen duen arte.<sup>2</sup> *Mutatis mutandis*, alemanaren lurraldeetara joko bagenu, arestian aipatuak are nabarmenago azalduko lirateke.

Euskararen irakaskuntzan mende laurdena garandu dugunok, geure ikasleen berbeta entzunik, ohartzen gara liburuetakoa euskara, ikasgeletakoa ikasi ostean bizi egin behar dela hizkuntza, eta bizi ere ohituraz darabiltenekin. Ohiturazkoon artean badira euskara estandarrean bizi direnak –gaurkoz gura genukeen baino urriagoak kopuruetan– baita betiriko euskara moldean segitzen dutenak. Eta, finean, baieztatzakeguna da, eskaldunen komunitatean integratzeko bide bi baino ez direla; familia eskaldun baten jaio eta euskara gurasoengandik jasotzea, eta bigarrena, eskaldunen gune baten behar beste denboran bizitzea euskara entzun eta erabiliz, harik eta inguruko tankerako bilaka

<sup>2</sup> Ingelesari buruzkoa sakondu gura duenak, bibliografian dakardan Basterrechea, J. “Oskillaso”ren liburura jo dezake. (Ikus VII. Atala: bibliografia).

zaitezen arte. Beste bideak funtzio jakin batzuetarako hizkera baino ez dizute ematen, ordu batzuetarako, erdararen menpe-menpekoa. Lehenago literarioa eta gero euskalkia edo azpieuskalkia barnera zenitzake, edo literarioa erabili eta azpieuskalkia, bizi zaren ingurukoena, lekukoa ulertu, zeozelan zeure sentitu.

Tesia *dakigunetik ez dakigunera* doa. Mikel Zaratek eta Ander Manterolak sortutako eslogan hau Labayru Ikastegiak erabili ohi du 1973. urtea ezkeror. (Berez, ikastaroak hasi 1970.ean egin ziren). **Dakigunetik ez dakigunera** –metodo legez– ez zaio inongo euskalkiri lotzen, berdin dio euskalki literarioa duen edo Nafarroako kasuan ez duen. Planteamendu honetan etxetik euskara dakarren oro da aintzat hartua, jadanik dakien euskara Zegamakoa izan nahiz Mungiakoa zein Sarakoa.

Dakigunetik ez dakigunera, filosofian Ontologiako irakasle izan nuen Juan Maria Iasik aipatu ohi zuen metodoaz baliatzen gara, alegia, **argitik ilunera** doana. Hastapenetik beretik hizkuntza idatzia eta mintzatua bereizten ditugu, geure tesi hau idatziaren gainean finkatuz. Ezagut ditzakegu pertsonak liburuaren pare mintzatzen direnak, baita berba egiten duten moduan idazten dutenak. Bizkaiera dakiten ikasleen artean, liburuak bezala berba egiten dutenak, euskara batuan egiten dute, hartan idatzirik datoz liburuak eta. Gutxi dira hitz egiten duten moduan –bizkaieraz– idazten dutenak, beti ere onarturik, kodigo idatziaz jabetzea, ahozkoaz bestelako kodigoa ikastea dela, kodigo berria.

Guk kodigo idatziko galdeketak zuzendu dizkiegu ikasleei, baina, beti ere, ahotik belarrira korritzen duen kodigoa lehenesten dugula –hortxe baita aldaki dialektalen erabilerarik handiena–, euskara batua, euskalkia, azpieuskalkia ikergaitzat hartuta. Batez ere berezitasun testualei egin diegu so, kontestualak ahaztu ez baditugu ere zelanbait esateko, ezen ez da komunikazio egoerarik kodigo idatzizkoa soilik edo ahozkoa soilik denik, zeren gaur egun azken aldiko garapen teknologikoak kodigo biok berdindu baititu, jadanik telefonoz idatziz bezala *te-leosera* komunika baikaitezke edo E-mail-*ez* ahozkoaren bat-batekotasunez egiten garen modura.

Berba baten, ahozko kodigoa eta idatzizkoa erkatzen baditugu, berehala ohartuko gara euron arteko desberdintasun itzelez. Idatzizko komunikaziorik arruntenak, ahozkoetatik substantzialki desberdinak dira, horrexegatik behar ditu erabili idazleak errekurtsio linguistikoak: adekuazioa, koherentzia, kohesioa eta zuzenketa gramatikala.

Erdi Aroan testu idatzia, latina, ahozko erromantzeak baino askoz garrantzitsuagoa izan bazen ere, badoakigun XX. mende honetan ahozko kodigoa izan da linguistika estrukturalista eta generatibistaren helburu bakarra. Gérard Vigner-ek (1982) hizkuntzaren didaktikatik behatuta aho-idatziaren arteko harremanetarako hiru eredu eskaintzen ditu guk geure tesirako jasoko ditugunak.

Lehena, tradizionala, idatzia duena helburu bakar eta irakatsi gramatika zein itzulpenen bidez egiten dena.

Hurrengoan –zeinetan idatzia bigarren kodigoa den–, ahozkoa da lehenesten dena eta berau ikus-entzuneke metodo bidez irakasten da. Hirugarrena, idatzia, hizkuntza, zeinetan ahozko kodigoa eta idatzia autonomoak diren, enfoke komunikatiboz ezagutzen da.

Euskara batuaren izenean, sarritan, ia-ia pentsaera tradizionalera jo izan da, idatzia ipinita jarraitu eta ikasi beharreko eredu arauemaile legez. Hor hizkuntza, zerbait monolitiko eta neutrotzat jotzen da. Aldaiki dialektalak ez dira aintzat hartzen, ez eta erregistroak ere.

Guretzat –Vigner-i jarraiturik– ahozkoa eta idatzizkoa kodigo autonomo bi dira, hizkuntza bera bideratzen dutenak. Diskurtoaren gramatikak ederto nabarmendu ditu bi kodigoon arteko desberdintasun testualak eta kontestualak:

*Según Vigner, estos argumentos justifican la autonomía de los dos códigos y la conveniencia de tratarlos de forma equitativa y por separado en el aprendizaje de las lenguas. Cassany (1991: 42).*

Badakigu, ordea, Scinto-k dioenez, ahozko eta idatzizko kodigoak elkarren arteko dituztela bai berezitasun gramatikalak zein lexiko arrunta.

Ez, edonola ere, kasualitatez, ezen bitarteko urteetan hizkuntzalaritzan ahozkoa prestigioatu da; Euskaltzaindiak, adibidez, ikerkuntza erraldoia burutu du dialektologian; ikus-entzuneke medioetan nahiz telefonian berbazkoaren aurreratze itzela ezagutu da, eta idatziko zikloaren amaiera antzean –giza espiritua beti moda berberagaz nekatu egiten da eta– euskaldun zaharrak joan eta berri erdizkakoak agertzean, ahozkoa jagotera itzuli gara.

Horrenbestez, testuinguruaren habeak ezarri ostean, jo genezake tesi honetako ardatz nagusiak irudizatzerara:

Lehena, Uriel Weinreich-ek eskaintzen digun hizkuntza-ukipenei buruzkoa da. Berak dioskunez, berbetak ukipenean dira, pertsona be-

rak berbete biak behin banan darabiltzanean. Horri esker jar genezake euskara batua eta bizkaieraren ukipen gunea norbanakoarengan, bizkaiera eta euskara batua darabiltzan euskaldunarengan.

Gure tesian, gainera, ikaslea indibiduo legez aintzat hartzea da hezkuntzaren aldetako helburu oinarritzkoa, ez ikasgela hartzea hezkuntza prozesuko unitate funtzional erara.

Hizkuntzen kontaktuari buruzko teorizazioa, bestalde, hizkuntza biren artean ematen dela baieztatu daiteke, oro har. Hala ere, zilegitzat jo dugu euskalkiaren eta estandararen arteko ere hartaz baliatzea Uriel Weinreich-i berari jarraikiz.

Honekin guztionekin ere, ezinbesteko iritzi diogu bai euskara estandarri zein euskalkiari dagokien izaera zimentatzeari, erabakitze-ko, dialektoek ez dutela autonomiarik eta heteronomoak direla, dialekto nozioa norma edo estandar nozioarekin loturik doala.

Arterago aipatuak ez du galarazten bizkaieraren nortasunaz mintza gaitzen eta geure galdeketak hortixe bidera ditzagun. Edozelan ere, eskatu bai egiten du argitzea –dagigun moduan– zergatik finkatzen garen bizkaieraren barruan literario deritzanean, azpieuskalkian oinarritu ordez.

Bizkaiera eta euskara batuaren arteko harremanen gainean dihardugula planteatzen zaigun auzia da ea noraino litzaigukeen zilegi elebarkatasunaz, elebitasunaz edo diglosiaz berba egitea. Guk Charles A. Ferguson-i jaramon eginik, diglosiaren arlo teorikoan bilatu dugu abarua.

Diglosia horri euskaltasuna propietatez ezartzerakoan Jose Luis Alvaren Enparantza/“Txillardegia”-k iradokiriko euskal endoglosiara jo dugu.

Azkenik, azpieuskalkiaren, euskalki literarioaren eta euskara batuaren ehundegian irazia kontzeptua gehitu dugu, **Euskal diglosia irazira** heltzeko.

\* \* \*

Bestalde, tesiko *dakigunetik ez dakigunerako* garapena eskolaren esparruan gauzatzean, David P. Ausubel-engana jo dugu ikasketaren esanguratsuz baliatu gaitzen, jakinik berak dioskula ikasketaren gainean eraginik garrantzitsuenaren duen faktorea, ikasleak jadanik badaukan ezagutzen kantitatea, argitasuna eta antolamendua dela. Ahaztu barik, irakaskuntzara zuzenduko ditugun ahaleginak ahalegin, eskola ezin daitekeela ikaslearen bizitza osoko euskarara, ez eta gizarteko funtzio guz-

teiei erantzutera iritsi. Hara Itziar Idiazabal eta Begoña Ociok zera diote, alegia: (1990: 208):

*La regresión constante de las zonas geográficas en las que es posible desarrollar el total de las actividades en euskara, a pesar del aumento permanente, tanto del número de neoparlantes como de los vasco parlantes alfabetizados también en euskara, pone en evidencia que la escolarización en si no es un factor desencadenante de los mecanismos que motivan el uso. Fishman, llega a la conclusión de que el ámbito del trabajo es el más decisivo para asegurar el uso, en situaciones de lenguas minorizadas, (1986).*

Gure hipotesia –eskolan euskalkia ezagutzeak, ikasteak, erabateko eragina eta eragin neurgarria duela– froga bidez azaltzeko galdeketa multzo adierazgarria erabili dugu Euskal Herri zabaleko ikastetxeetan, hala euskalkia irakasten denetan nola ez denetan. Eskuratu ditugun emaitzen urratsez urratseko iruzkinetan ematen dira adieraztera, itaunetan planteaturiko auziaren froga zehatzak.

Gure proposamenak OCD/Oinarrizko Curriculum Diseinuaren moldera isuriko ditugu, DBH/Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako forma erabilgarria har dezaten.

Eta latinoen *Finis coronat opus*aren oihartzunean jartzen dira tesiko errunaldiaren ondorioak. Gure ekarria tesi osoaren eraikuntza bada ere, ondorioak ikerketaren hasieran jarritako itaunen nondik norakoa aztertu eta hausnartu ostean harturiko erabakiak dira.

Hipotesia frogatutzat laga dugularik, euskalkiaren auziari irteera emateko ezarri ditugun jokabideak praktikatzerakoan, Popper-ek (1963) eskaintzen digun *The method of trial and error*en jokabideari jarraiki beharko gatzazkio gura nahiz ez. Tesian zehar eraiki dugun teoria ontzat hartzekoa izan daiteke, hurrengo beste garatuago batek ordezkatu bitartean, horretatik etorriko delarik euskara batua eta euskalkien arteko gatazkaren aurrerakuntza. Konturatzen gara, euskara batuak bakarrean bereganatuta daukan paradigma-estatusarekin, nekez lor dezakeela euskalkia-batua bikoteak antzerako aintzat hartzerik. Beti ere, halaxe diosku Popper-ek (163: 123):

*Paradigma berriak gidaturik, zientifikoak tresneria berriaz baliatzen dira eta gauza berriak bilatzen dituzte. (...), jadanik ezaguna den tresneria erabilirik, berriz miazten dute noizbait so egindako lekuetan (...), objektu ezagunak argi berriaren azpian agertzen dira eta beste ezezagun batzuk batzen zaizkie horiei. Eta hala gertatzea ez litzateke gutxiestekoa.*

Kuhn-ek (1962: 168) ere horrelaxe dio:

*Ez da bilatzen egia absolutoki objektiboa, baizik eta baldintzapeko egia objektiboa: diren moduan izanik ikuspegiak eta aldagaiak definigabeak, gerta liteke egotea errealitate bakarraren eredu, proiektu, metodo eta ikuspegietan ere kopuru definigabea. Errealitate horrek, jakina, berataz egin daitezkeen baieztapenik zehatzenak baino infinitoki aberatsago eta konplexuago izaten segituko du.*

*(...) Eredu zaharraren defendatzaileak eta berriarenak, ia beti dira, hasiera beretik, eztabaida razional eta zientifiko oinarrituak baino aurkaria aldatzeko, konbentzitzeko, irabazteko saio trebeak, aurkari horrek norbere uste hain diafanoak onar ditzan. Parte hartzaileen nortasunak, bizitzak eta jatorriak hainbeste eragin dute nola nazionalitateak, prestigioak eta berritzailearen maisuak eurak. (...) Edonola ere, eztabaida objektiboa zaila da.*

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Derio, 2002.eko urria.

# ESKER ONA

Behin hona etorritz gero, nik neure bihotz barruaren barrenetiko esker ona tesirako lau urte bidean lagun izan ditudan guzti-guztientzat.

**Galdeketetarako:** Mauleko Ikastolako Margarita Etxart eta Odette Etxegoinberri; Xalbador Ikastegiko Gillermo Etxebarria; Bergarako ‘Aranzadi’ Ikastolako Justina Elexpuru; Bermeoko ‘Eleizalde’ Ikastolako Jose Muruaga eta Aintzane Egaña; ‘Askartza’ Ikastetxeko Bego Garaizar; ‘Kirikiño’ Ikastolako Sebas Angoitia eta Miguel Angel Gaztelu; Getxo III Institutuko Joseba Butron; Bermeoko Institutuko *Euskarako Mintegia*.

\* \* \*

**Elkarrizketa teorikoen erantzunetarako:** Xabier Amuriza; Itziar Idiazabal; Miquel Siguan; Xabier Isasi; Jazinto Iturbe; Aita Fermin Iralagoitia; Itziar Garaizar eta Jean-Louis Davant.

\* \* \*

**Ordenagailuaren programarako:** Iñaki Gaminde.

**Testuaren gainbegiraketarako:** Ricardo Badiola eta Iñaki Gaminde. Eta azkenik, *–The last but not least–* aipamen berezia gogo-adore etengabea eman didan Jon Kortazar tesiko zuzendariari baita Mendebalde Kultur Alkarteko kideei, lankidetzako saioetan eskainitako iradokizunengatik, eta zelan ez nire neure familiari, murgilguneetarako ura jariatu didatelako eta hegalaldietarako airea, harik eta su pil-pilean ikerketa egosi dudan arte.

Esker mila.

Derion, 2002.eko urria.



I. ATALA

---

**EUSKAL DIGLOSIA IRAZIA**

---

## 1. HIZKUNTZAREN UKIPENA ETA ELEBITASUNA

Hastapenetik beretik galde genezake, ea zeintzuk diren arrazoiak hizkuntzen ukipenaren ikasketari ekiteko. Badakigu, hala gizartearen aldetik nola ikerketa linguistikoenetik, bultzada berria suma daitekeela. Belgika edo Kanada bezalako estatuek elebitasunerako ikerketa zentroak sortu dituzte; gainera, honelako ikerketek erabateko garrantzia izan dute Indiaren tankerako ukipen linguistiko ezin aberatsagoetan; oro har, Mendebalde industrializatu guztiak ezagutzen du inmigrazioaren eta nazioen askapenaren arlo honetarako eragina.

Bestalde, munduko Mendebaldearen hirurogeigarren hamarkadako aurrerakuntza kulturek ama-hizkuntzen ikerketa ere bultzatu zuten, ahaztu barik hirurogeita hamargarren hamarkadako beltzen eta amerindioen gaineko aitzinatzeak. Ondorioz, hizkuntzen ukipenari buruzko ikasketak bultzada handia ezagutu dute.

Linguistikari bertan, hizkuntzen ukipena entitate osoko paradigma bilakatu da soziolinguistikaren barruan. Erkidego elebarrerako ikasketak soziolinguistikaren gai nagusiak ere, zabaldu eta gehiturik agertzen dira hizkuntzen ukipenean.

Hori horrela, J. M. Sánchez Carrión “Txepetx”-ek gure artean daukan izen eta izanari jaramon eginik, beronen gidaritzara jo dugu abiamenean:

*En 1950 escribía E. Lozovan: “Sans courir le risque d’exagérer, on peut reconnaître au bilinguisme une place de premier or-*

*dre dans les recherches linguistiques.” Hoy día el lugar preeminente de los estudios sobre bilingüismo, tanto por la voluminosidad del corpus que constituyen ya estos estudios, como por la importancia de los trabajos que crecientemente se publican sobre el tema, ha hecho que éste haya llegado a constituir una nueva disciplina (catalogada en los congresos bajo el epígrafe de “Languages in Contact”) de las que integran el ya poblado campo de los estudios lingüísticos. Sánchez Carrión “Txepetx” (1976: 3).*

Uriel Weinreich da elebitasunaren semantika hedatuz, jatorrizko esanguratik harago doana haren *Languages in Contact*en. Hark eskaintzen digu hizkuntza ukipenei buruzko lehen panoramika osoa berrogeita hamargarren hamarkadako hasiera urteetan, ahaztu barik, jakina, sasoi bereko Haugen-en *Norwegian language in America*:

*In the present study, two or more languages will be said to be IN CONTACT if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact.*

*The practice of alternately using two languages will be called BILINGUALISM, and the persons involved, BILINGUAL. Unless otherwise specified, all remarks about bilingualism apply as well to multilingualism, the practice of using alternately three or more languages. Weinreich (1979: 1).*

Weinreich-ek dioenaren haritik, beraz, euskalkia eta batuaren arteko ukipen gunea norbanakoarengan jarriko dugu, hau da, bizkaiera eta euskara batua darabiltzan euskaldunarengan –Sanchez Carriónek dagion *particularismo terminologico*an erortzearen kritikak hor dirauen arren–. Ez dugu horrekin esan gura ez dela beharrezko bizkaieraren euskalkitasuna aztertzea edo euskara batuaren izaera jorratuko ez dugunik. Dioguna da, azken baten, euskalkien arteko definizio geografikoa eta euskara batuaren eraikitze jokabidea, metodoak eskatzen digulako lantzen dugun arren, kontaktu horrek pertsonarengana dakarren eragina ikertzeari eragingarriago iritzi diogu.

Gure tesian, gainera, ikasgelan kokatuko dugularik, ezingo da ahantzi:

*Ikasle bakoitzaren egitura kognoszitiboa bakarra dela, jaso-ko dituen esanahi berriak bakarrak direla. Ausubel (1993: 46).*

*Hezkuntzako aldaketako helburu oinarrizkoetan sartzen da ikaslea indibiduo legez aintzat hartzea, hartu beharrean ikasgela hezkuntza prozesuko unitate funtzional moduan... Ausubel (1993: 329).*

Hizkuntzen kontaktuari buruzko teorizazioa, bestalde, hizkuntza biren artean ematen dela baieztatu daiteke, oro har. Hala ere, zilegitzat jo dugu euskalkiaren eta estandarraren arteko ere hartaz baliatzea, Uriel Weinreich-ek (1979: 3) berak dioskunak lagundurik:

*Language contact and bilingualism will be considered here in the broadest sense, without qualifications as to the degree of difference between the two languages. For the purposes of the present study, it is immaterial whether the two systems are “languages”, “dialects of the same language,” or “varieties of the same dialect.” The greater the difference between the systems, i.e. the more numerous the mutually exclusive forms and patterns in each, the greater is the learning problem and the potential area of interference. But the mechanisms of interference, abstracted from the amount of interference, would appear to be the same whether the contact is between Chinese and French or between two sub-varieties of English used by neighbouring families. And while control of two such similar systems is not ordinarily called bilingualism, the term in its technical sense might easily be extended to cover these cases of contact as well.*

Hori guztiori, ordea, ez dugu aski izango, jakinik dakigun moduan, hizkuntzen gaineko teoria euren arteko ukipen naturalerako pentsatuta dagoela, ez bereziki, behintzat, ikasgelan agertzen den bizkaiera eta estandarraren arteko ukipenera. Hala eta guztiz ere, inguru fisikoa baino ikaslea bera izango denez ukipen leku, nahiko izan daiteke telebistan zein euskaldun berrien artean ezagutzen duen hartu-emanaz landa, ikasgelako irakasle, liburu nahiz elkarrizketez duen erabilera arakatzea:

*“The language-using individuals are the locus of the contact” hori argitu badugu ere, eta jakin arren “it is immaterial whether the two systems are “languages”, “dialects of the same language”, or “varieties of the same dialect”, argitu beharko dugu corpus zein estatuserako, ea bizkaiera-batuaren arteko dinamika bi hizkuntzen artekoen parean ezarriko dugun, ala berbeta bakarraren maila birenean.*

Puntu hau era batera edo bestera erabakitzetik ondorio guztiz desberdinak erator daitezke irakaskuntzarako, ezen irakatsi egitetik *curriculum*ean sartu ere ez egitera hel baikintezke.

3. Hirugarrenik, bidea urratzerakoan teoriak eskaintzen diguten tresneria mugatua landuko dugu.

*En cuanto a la lingüística propiamente dicha, el estudio del contacto de lenguas se ha convertido en un paradigma de la sociolingüística como entidad global. La sociolingüística como disciplina ha enfatizado la diversidad del uso lingüística. Es evidente que el estudio de la diversidad conduce al análisis de su más claro ejemplo: el plurilingüismo. Todos los temas básicos del estudio sociolingüístico en las llamadas comunidades monolingües reaparecen ampliados en el estudio del contacto de lenguas: la alternancia de estilo, el cambio lingüístico, la elección y el repertorio lingüístico, las actitudes y quizás la variación. Tanto las presiones sociales como las tendencias propias de nuestra percepción cultural y propias de la lingüística han apoyado el estudio del contacto de lenguas desde diferentes perspectivas. R. Appel eta P. Muysken (1996: 14).*

### 1.1. Ukipen-linguistikoko egoera desberdinak

Labur bada ere, oraintsuko historian gertatu eta gertatzen diren hizkuntzen arteko ukipenik ezagunenak deskribatu gura genituzke jarraian, oharturik beti ere, oso eskuragarri dugun bibliografia oparotik tesiaren hariari jarraitzeko beharrezko zaiguna baino ez dugula jasotzen.

#### 1. Arkipelago linguistikoa:

Hizkuntza ugari, harreman genetikorik gabeak, hiztun gutxirekin, eta ekosfera berean mintzatzen direnak. Adibidetzat Amazonasen Arroa. Soziolinguistikoki, sail hauek elebitasun oso hedatuko dira; linguistikoki, berbeta batetik bestera zabalduko berba eta gramatikako elementu anitz dute.

2. Familia linguistikoen arteko egoera gutxi gora behera egonkorak.

Bigarren hizkuntza-ukipen honetan mugetariko bat berbeta erromaniko eta germanikoen artean ezartzen da, hala Suitzan nola Belgikan.

#### 3. Europako zabalkunde koloniala.

Ukipen linguistikoko hirugarren egoera honetan, batetik sortu den egoeran Europako berbeta handiak kolonizatutako hizkuntzekin bizi

dira; bestetik hizkuntza kolonial berriak ere sortu ditu, Karibe edo Pazifikoko adibideak, kasurako.

#### 4. Euskararen egoera.

Gure egoeran hizkuntza minorizatueta hitzunok inguru ko estatu-hizkuntzak isolaturik gaude. Egoera bertsuan aipa genitzake *galesa* eta Eskoziako *gaelikoa* Britainia Handian, *frisiera* Holandan. Euskaldunak eta euskarak baziren, herri berriak hizkuntza berriekin sartu aitzinetik.

#### 5. Hirugarren mundutiko migrazioa.

Hirugarren mundutik lurralde industrializatueta etorritako migrazioa. Hala Ertamerikako biztanleek Estatu Batuetara edo Mediterraneoko lurraldeetakoak Mendebaldeko Europara.

Ondorioz hizkuntza anitzetako eta multikulturetako gizarteak bizi dira, alde batetik aberastasun kultural itzelekin, eta bestetik, hizkuntza zein hezkuntza-arazo izugarriekaz.

## 1.2. Ikerketa arlo honetara ekarria egiten duten diziplinak

Eurez, hizkuntzen kontaktua eta elebitasuna ez dira diziplina zientifikoak. Izan gaiak dira, materiak edo ikasketa sailak, zeinetara diziplina desberdinek egin dezaketen euren ekarria. Diziplinok elkarreragin dezakete edo modu independentean funtzionatu ikuspegi terminologia edo metodoen arabera.

Gizarte jakin baten hizkuntzak kontaktuan daudenean, fenomeno honek interesa diezaieke bai soziologoei zein antropologo sozialei. Orokorrean, elebitasunari egiten zaion hurreratzean hizkuntzak osotasuneko eragina jasotzen du, aintzat hartu barik barietateak, barruko aldaketa prozesuak edo aspektu estrukturalak.

Guk, jakina, gai orokorrez gain, hizkuntza eta identitatea, euskalkia eta estandarraren arteko harremana, euskalkiaren tratamendua irakaskuntzan eta euskalkia eta estandarraren erabilerak dakartzan ondorioak jorratuko ditugu, batik bat.

Horretarako, aurretiaz, elebitasun soziala eta indibiduala bereizten ditugu, uste izanik, beti ere, norbanako elebiduna egoki azter daitekeela ikuspegi psikologikotik.

Horrez gain, komunitate elebidunak egiten dituen erabilera linguistikoak ere landuko ditugu. Hala nola interakzio egoeretan hiztunek aukeratzen dituzten berbetak edo zelan saihesten duten aukeratu beharra.

Linguistikak bere diziplinatasunean har dezake parte, ikertzen lagunduz hizkuntzen estrukturan zer gertatzen den, eurak elkarrekin kontaktuan jartzen direnean. Guk, dagokigunean, ikasleei zuzenduriko inkesten bidez bilatuko dugu erantzuna.

Ez gara ahaleginduko bereizten elebitasunaren estudioa garatzera-koan, ekarri soziologiko, psikologiko, soziolinguistiko linguistikoaren artean, ezen alferreko eta artifizial gerta daiteke, zeren guztiak baitaude irazi-irazirik. Ezinezkoa da gai psikologikoaren analisia –elebitasun indibidualaren ondorio kognitiboak, esate baterako–, kontuan izan barik zenbait gizarte-faktore, hala nola hizkuntzaren estatus maila. Modu beretsuan, ezinezko gertatzen da interferentzien fenomenoak bigarren hizkuntzak jasotzean, erkatze doitua gauzatu barik bi sistema linguistikoaren artean. Gaia bera konplexua da, maila abstraktuan baino bana ezin daitezkeen aspektu sozial, psikologiko eta (sozio)linguistikoekin.

Hizkuntzen ukipenaz, dena dela, hutsune ugari nabari dezakegu ikerketetan, hots:

Mantentze linguistikoaz ez daukagu oraindainokoan teoria osorik, ikerketarik gehienak *post hoc* baizik ez dira eta deskriptiboak. Hala ere, metodo moduan parte hartzeko behaketa erabili izan dugunez, –hau da, araketa objektu izan den giza-multzoan bizi naiz eta neska-mutilen eguneroko jardunean parte hartu dut–, baieztapen asko frogatu dezaket. Adibiderako, euskara berbeta minorizatu izanik, ume euskaldunak gurasoak baino okerrago baliatzen direla taldeko hizkuntzaz, edo estandarren eragina euskalkiarengan –baita euskalkiarena estandarrengan–, oso inportantea dela egoera ukipen linguistiko luze eta sistematikoa denean.

Gogamen elebidunaren antolatze semantiko eta kontzeptualaz alde ilun ugari da oraindik.

*... uno se atrevería a afirmar que las bases teóricas de la dialectología no han mejorado, ni mucho menos, en la misma medida (que las técnicas de encuesta). Así no se está hoy más cerca que hace cien años por lo que respecta a la definición y medida de la divergencia dialectal...* L. Michelena (1985: 81).

*The extent of the internal regional variation that exists in some of the areas posed serious difficulties for some of the authors of the booklets, as did the distinction between the original broad dialect and the varieties that are spoken today; these difficulties were not always satisfactorily resolved, and some of the booklets, it seems, are more difficult for teachers to read and to use than need have been the case. Ammon (1989: 237).*

Beti ere argi bezain garbi laga beharrekoa da, ez dela gure asmoa bigarren hizkuntzei buruzko ikerketen gainean panoramika oso edo erdi osoa eskaintzea, baizik eta gaiok eztabaidatzea kontaktu linguistikoari dagokionean soilik.

Hizkuntzen ukipenari buruzko ikerketa arloan, hau da, bigarren berbeta inguru naturalean jaso denean, lehen hizkuntzaren eragina ez da inoiz modu sistematikoan ikertu. Weinreich-ek (1953) zalantzan ere jartzen du lehen hizkuntzak bigarrenean eragin ditzakeen interferentziak.

Bigarren hizkuntzen ikasteaz eta faktore sozio-psikologikoez esan daiteke, jarriz alde batetik faktore sozialak eta psikologikoak, eta bestetik, bigarren berbetaren ikastea, erlazio hau kausalki interpretatzen dela, hau da, haiek eragin dezaketela, baina determinatu ere bigarren berbetaren ikastea. Uste hori, ostera, hipotesizat baizik ezin har daiteke, ezen ikerlariak ez baitira gauza izan lotura kausalaren norabidea aurkitzeko. Dakiguna da, lotura jakina dutela aldagarri sozialek eta psikologikoez bigarren hizkuntzen ikasketaz, baina lotura honetan ez da gehiegizko indarririk egin behar. Gainera, ez da bilatu behar aldaki hauek ikaslearen karakteristika indibidualak adieraz ditzan. Ikaslearen eta ikasiko duen hizkuntzako komunitatearen arteko distantzia sozial, psikologiko eta kulturalaren indikadore moduan kontsideratu behar dira. Azken finean aipatu behar dena da, berbeta bi batera ikasteaz egiten diren baieztapen guzti-guztiak behin-behinekoak direla, praktikak darakusiguna izan ezik, hots, umeek badaukatela apendizaiarako hainbat ahalmen non bi hizkuntza simultaneoki ikas ditzaketela inolako arazorik espermentatu gabe.

Elebitasuna baloratzeko dauden arazoak ez dira oraindik modurik hobereanean bideratu eta zalantzatan jartzen da etorkizunean egingo diren. Badakigu, ostera, bilinguismotik monolinguisimora aldatzeak ez dituela arazoak konpontzen.



Edozelan ere beti izan beharko genuke aurrean baieztapen hau:

*La sociolingüística no es como la química, y cuando se juntan dos lenguas no siempre ocurre lo mismo.* Appel eta Muysken (1996: 15).

## 2. EUSKARA ESTANDARRA ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UKIPENA

### 2.1. Dialektoa, autonomia falta zaion barietatea

Zeri deritzogu dialekto? Hemen Karmele Rotaetxek Stewart-i (1968) jarraituz “Standardization, Autonomy, Historicity eta Vitality” dakarrena jasotzen dugu:

*Hain zuzen ere, Autonomia ezaugarria falta zaion barietatea, horixe da dialektoa. Izan ere, dialekto nozioa ez da absolutua, erlatiboa da, beste nozio batekin lotua dagoelako: norma edo standar nozioarekin. Horregatik, dialektok ez dute autonomia-rik eta heteronomoak dira.* Rotaetxe (1992: 57-58).

Bestalde, Trudgill-ek (1974: 16) zera dioskunez:

*The criterion of “mutual intelligibility”, and other purely linguistic criteria, are, therefore, of less importance in the use of the terms **language** and **dialect** than are political and cultural factors of which the two most important are **autonomy** and **heteronomy**. We can say that Dutch and German are autonomous, since both are independent, standardized varieties of language with, as it were, a life of their own. On the other hand, the non-standard dialects of Germany, Austria and German-speaking Switzerland are all **heteronomous** with respect to standard German, in spite of the fact that they may be very unlike each other and that some of them may be very like Dutch dialects. This is because speakers of these German dialects look to German as their standard language, read and write in German, and listen to German on radio and television. Speakers of dialects on the Dutch side of the border, in the same way, will read newspapers and write letters in Dutch, and any standardizing changes that occur in their dialects will take place in the direction of standard Dutch, non standard German.*

Lakarrak (1992: 32-33) hauxe dio:

*...eta ez abaztu euskalki bat ez dela gauza absolutua (isoglosak edo, beste era batera, hizkuntza bat legez), oso izaki erlatiboa baizen, hitzarmen baten fruitua, azken finean.*

Hara bestela, Coseriuren pasarte argigarri hau:

*En efecto, la existencia de los dialectos no implica la existencia de límites dialectales, así como negar estos límites no implica afirmar la no existencia de los dialectos. Los dialectos no existen antes, sino después de la comprobación de las áreas en las que se registran los fenómenos concretos de hablar; no son cosas sino abstracciones, sistemas de isoglosas que se establecen por encima de la multiplicidad del hablar. Y entre los dialectos puede haber, naturalmente, interferencias y caracteres comunes; es decir, que ciertas isoglosas abarcan más de un dialecto: todo depende de las isoglosas que, por convicción se adopten como límites dialectales.*

Trudgill-ek (1974: 14) ere hari beretik, halaxe diosku:

*There is not clear linguistic break between Norfolk and Suffolk dialects. It is not possible to state in linguistic terms where people stop speaking Norfolk dialect and start speaking Suffolk dialect. If we choose to place the dividing line between the two at the county boundary, then we are basing our decision on social ( in this case local-government-political) rather than on linguistic facts.*

*The same sort of problem arises with the term language. For example, Dutch and German are known to be two distinct languages. However, at some places along the Dutch-German frontier the dialects spoken on either side of the border are extremely similar. If we choose to say that people on one side of the border speak German and those on the other Dutch, our choice is again based on social and political rather than linguistic factors.*

Horrek guztiorrek adierazi nahi du zerbaiten dialektoa dela, eta zerbait hori ezin izan daiteke hizkuntza bera baino.

## 2.2. Ikuspegi prospektiboa

Kapitulu honetan, aurrerantzean euskararen dialektoek eurenganatu behar duten espazioaz mintzatuko gara, jakinik, euskararen forma normalizatuaz lehiatu beharrean aurkituko direla. Nahiz eta euskalkiek

euskara batuarekin lehiatze hau gure artean, Euskal Herri mailan, hain arrotza ez gertatu, hain zuzen ere lekuan lekuko azpieuskalkiek orain mendeatarik euskalki literarioekin lehiatu behar izan dutelako.

Gure kasuan, beraz, retrospektiboa baino prospektiboa izango da burutzen saiatuko garen lana, hau da, euskalkien iraganaz baino oraina eta geroaz. Hala ere, nahitaezkoa da euskalkiaren jatorria arakatzea etorkizuneko bidea oinarri zientifikoetan sostengatu gura bada.

### 2.3. Euskararen jatorriaz

Gaur artekoan, ez du inork frogatu euskarak beste hizkuntzaren batekin izan dezakeen ahaidetasun genetikoa. Badirudi, gainera, etorkizunean ere ez dela egoera alda dezakeen aztarrenik ikusten L. Mitxelenaren arabera:

*Debo añadir que tengo que obstinarme en la incredulidad en contra de mis más vivos deseos y de mis inclinaciones más profundas. Pienso simplemente, al margen de mis deseos, que nadie ha probado hasta el día de hoy el parentesco genético de nuestra lengua con otra u otras: advierto, por si fuera necesario, que hablo de parentesco genético en el sentido en que se habla de esto en lingüística indoeuropea, urálica, hamitosemítica (afro-asiática, lisrámica o como sea), ect. Temo, por otra parte, y aquí se trata de la coloración afectiva de mi creencia, que hay pocas esperanzas de que esta situación vaya a modificarse en un futuro próximo o medio. Mitxelena (1981: 293).*

### 2.4. Euskararen euskalkiak

Louis-Luzien Bonapartek (1831-1891) eginiko sailketaren arabera, euskara mintzatua zortzi euskalkitan banatzen da:

*Euskal Herriko Mendebaldetik Ekialdera aipatuz: Bizkaiera (B sigla), Gipuzkera (G), Ipar Nafarrera Garaia, Hego Nafarrera Garaia, Lapurtera (L), Mendebal Nafarrera Beherea, Ekialde Nafarrera Beherea, eta Zuberera (Z). Azkuek banaketa aldatu egin zuen, Erronkariara (R)–Bonapartek Zubereraren barruan sartzen zuena– euskalki apartekotzat jarririk, eta bi Nafa-*

*rrera Garaia euskalkiak elkaturik (AN), eta berdin bi Nafarrera Bebere euskalkiak ere (BN). Mitxelenak, ordea, Hegoakoa –Arabian hitz egiten zena, gehienetan bizkaieraren berdintsutzat jotzen dena–, Aietzekoa eta Saraitzuko euskalki independentetzat jo behar direla, uste du. Euskararen Liburu Zuria (1978: 157).*

Gaur egunean Bonaparteren sailkapena honela aurkezten du Koldo Zuazok (1995: 42):

*Alde batetik Hark ezarritako 8 euskalkiei gehitu zaizkie gerora (erron., zaraitz. eta aezk.) eta hildako langarren bat berpiztu (Arabakoa). Eskura ditugun Errioxa eta Burgosko argibide apurrek ez digute oraingoz han antzina mintzatzen zen euskararen nortasunaz ezer ziurrik esateko aukerarik ematen, baina nolani ere, hamabira igo zaigu euskalkien kopurua.*

Guk, gainerako euskalkiekin batera oinarrizko aztergaitzat hartu dugun bizkaieraz dakiguna da:

*Irakurketa geolinguistikoa eginez esan daiteke azter-eremua hiru zatitan banatzen dela: bat mendebaldekoa –12 hizkeraz osotua: Mungia, Lemoiz, Laukiz, Sondika, Leioa, Getxo, Larrabetzu, Lemoa, Zeberio, Dima, Orozko, Zeanuri–, bigarrena erdigunekoak –bedaduraz eta hizkera kopuruan handiena: Bakio, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Kortezubi, Lekeitio, Ondarroa, Markina-Etxebarri, Gizaburuaga, Eibar, Berriz, Bolibar, Mendata, Errigoiti, Ibarruri, Fika, Arrieta, Etxebarri, Zaratamo, Zollo, Euba, Mañaria, Otxandio, Arrazola, Elorrio, Leintz-Gatzaga, Araotz, Oñati– eta eskuin-muturrean hirugarrena –oso txiki eta baztertua bezala: Deba, Mendaro, Elgoibar, Bergara–. Gotzon Aurrekoetxea (1995: 284).*

Tesi honetan, baina, euskara batua eta azpieuskalkiez gainera, euskalki literarioak ere hartzen ditugu kontuan:

*Euskararen barnean orain arte lau euskalki literario izendatzen ziren: lapurdiera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Gogotan har Kanpionen Gramatikaren titulua : Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara, 1884. L. Villasante (1988: 224).*

Beraz, mintzatzeko hamabi baditugu ere, idazteko lau aipatzen dira. Ondorioz, katiximak, esate baterako, lapurteraz egon arren, behe-nafarrerako euskalkia mintzatzen zen tokietan irakatsi izan da. Horren aurrean, J. Haritschelharrek hauxe dio:

*Ez dut horren damurik. Aberastu egin naute. Luis Villasanti omenaldia (1988: 224).*

Jokabide horrek erabateko eragina izango du Gipuzkoako bizkaieran, eta euskalki literarioek euskara batuari bide emandakoan, aldiz, garai berria hasiko da.

## 2.5. Euskalkiak eta estandarra

Euskarak ez du izan hizkuntzaren zenbait erabileratarako erreferentzetzat balio lezakeen euskalkirik, alderantziz baizik, ezen euskalki eta mintzaira diferentziatuetan banatuta izan baita, literarioak batzuk, ez literarioak besteak.

Ezaguna da, bestalde, hizkuntza guztiek dauzkatela dialekto geografikoak, baita denetan daudela erregistro edo maila desberdintasunak. Euskararen kasuan gainera, bi berezitasun batera ematen dira. Batetik, Euskal Herria hedaduraz txikia izan arren, hizkerak lekutik lekura aldatzen dira, J. Leizarragak (1571) idazten zuen bezala:

*Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui Heuscal Herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeko manerán cer differentiá eta diversitatea den.*

Ez da izan euskalkirik Euskal Herri osoari edo gehienari inposatzea lortu duenik, nahiz eta berez legezkiekeen muga naturalatik haratago hedatu izan diren. 1968tik aurrera osotuz doa komuneko berbeta, euskara batua normalizatu ahala. Geroztik, euskalkien aniztasunerako eta lekuan lekuko hizkeretarako erreferentzi puntu bilakatu da, eta euskalkien onuratik elikatzen da berbeta komuna formazio eta garapen bidean.

## 2.6. Ukipenean diren hizkuntzen desberdintasunak

Euskara batuaren eta bizkaieraren estatusa kausa esternoek penztudan badago ere, euren arteko desberdintasunak barruko faktoreen menpe daude, batez ere faktore linguistikoek menpe. Desberdintasun hauen izaera eta tamaina dira determinatzen dutenak diglosiaren mota eta gradua nahiz norbanakoaren interferentzia moduak.

Honela mintzatzen da L.-L. Bonaparte Printzea:

*Il est bien certain pour moi, par exemple, que le souletin et le biscaïen en différent pas moins entre eux, sinon plus, que l'espagnol et le portugais ou peut-être même l'italien.* Altuna (1985: 305).

Bonaparteren baieztapenaren aurrean argitasun bila hasten denak, erraz froga dezake, libururik liburu korritzen duen itaun hau, ea “hizkuntza” eta “dialekto”aren artean diferentziarik den eta egonik zein kriterioren arabera bereiz daitezkeen. Mitxelenaeren berbak (1985: 81):

*No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permitan distinguir subgrupos dentro de grupos cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte, mucho antes de Gilliéron, etc., y no precisamente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica.*

Maiz entzun eta irakurri izan dugun baieztapena da, hizkuntza guztiak direla dialektoak. Mackey-k (1976: 221, 222), ostera, hurrengo aipuan zeozertxo argitzen du ideia hau:

*Ce ne sont pas tous les dialectes qui peuvent prétendre au statut de langue: il faut que ceux qui les parlent soient suffisamment indépendants.*

Euskalki bi elkarren artean ulergaitz bilakatzea ez da nahiko hizkuntza biok rangoa beregana dezaten, edo alderantziz, ez da berbeta eskandinabiarren arteko ulergarritasuna dialekto mailan ezartzeko arrazoi.

Idatziak idatzi, muga ondo bereizirik ez dagoenez gero, hizkuntza eta dialekto desberdinen artean, baieztatu daitezkeena da hizkuntzen arteko distantziak graduak baino ez dauzkala, eta gradutasuna neurtu egiten dela, eta, beraz, berbeta batzuk beste batzuk baino hurbilago daudela elkarregandik. Baina hizkuntzen arteko distantzia mota desberdinak daude, baita berbeten arteko ulermen modu desberdinak ere. Erraz ohartzen gara hizkuntzen ulergarritasunaren aurrean jarrerak ez direla berdinak. Bizkaierako hiztuna donostiarragaz euskara batua egiten saiatuko da, nahiz eta hura gipuzkeraz ari eta ez euskara batua, ezen bizkaierazkoa ez da seguru etxekoa balerabil ulertuko liokeen. Donostiarrak, aldiz, berea dagi solaskide bizkaierazkoak ulertuko dion zalantzan jarri ere egin gabe, Donostiatik Bergarara, Bergaratik Donostiara baino distantzia handiagoa balego moduan. Bitzuan

arteko jarrera eta jokabidearekin bizkaiera berbeta inferiortzat hartzen da. Halan da ze, ez da nahasi behar elkarren arteko ulergarritasuna, elkarren artean aditzeko errealitate psikolinguistikoaz.

Elkarren arteko ulergarritasuna bada hizkuntza dialektotik bereizteko, zein unetan pasatuko da batetik bestera? Ez gara ataka hau neurtzeko tresneriaren jabe, izango bagina itaun erabat interesgarriei erantzun ahalko genieke: Zein da distantzia berbeta eta dialektoaren artean?

## 2.7. Bizkaiera eta gainerako euskalkiak

Jakina da edozein hizkuntzaren dialektoak hizkuntza komun baten diferentziazetik datozela. Mitxelenak, Hans Vogt-ek (1955) dioena aipatuz halaxe dakar:

*O, en otras palabras, por resumir en vista de lo que sigue, a juicio de Vogt los dialectos vascos aún en nuestros días están poco diferenciados, y la coincidencia en las estructuras subyacentes (fonología, morfología, vocabulario) se debe a que proceden en común de un protovasco cuyas características más importantes casi podemos tocar con los dedos. Mitxelena (1981: 297).*

Lexikoari buruz, bestalde, Txomin Peillenek zera diosku:

*Malgré le prétendu isolement géographique dans une région de passage maximum nord-sud et l'histoire politique différente des diverses provinces basques, il reste un fond commun de vocabulaire biologique qui aux oscillations phonologiques près, présente quatre-vingt cinq pour cent de termes communs. Peillen (1998: 464).*

Ikuspegi oso desberdina eskaini zuen, aldiz, Georges Lacombe-k:

*Es verdad que algunos autores, siguiendo una línea que se podría llamar kretschmeriana, se han empeñado en oponer el vizcaíno al conjunto de los dialectos vascos: así, Lacombe, Gorostia-ga y, en forma, extrema, Uhlenbeck. Mitxelena (1985: 219).*

Bazegokeen, antzinatek, banaketa bat zeinetatik bi barietate sortu ziren: mendebaldekoa edo bizkaiera, alde batetik, eta, bestaldetik, beste barietate bat zeinetatik geroago gainerako barietate guztiak etor zitezkeen, hala Iparraldean nola Hegoaldean. Banaketa bikoitz honek esplikatu liguke, gipuzkeratik bizkaierara aldatzean gertatzen den

jauzi handia, edo bizkaieraren karakteristika bereziak –pluralgiletan *dauzka* ↔ *daukaz*, kasurako–, gainerakoetan, ostera:

*On passe par gradations insensibles d'un dialecte á l'autre parmi ceux qui constituent ce groupe, tandis que la saut est assez brusque quand on passe du guipuzcoan au biscayen.* Lacombe (1952: 260).

Henri Gavelek, Julio de Urquijok eta Gorostiagak ere –*mutatis mutandis*– iritzi berari eutsi zioten. Gorostiagak (1947: 49) halaxe dakar:

*Si estudiamos el aspecto de los nombres vascos de los días de la semana, se impone, (...) una repartición entre los actuales dialectos del idioma, entre el más occidental, el Bizkaíno (B) y el resto que podemos llamar Vascón (V).*

Ildo beretik, uste du Uhlenbeck-ek, bizkaiera eta gipuzkeraren arteko desberdintasunak murriztuz joango zirela lehen bifurkazioaren ostean elkar ukitzen bizitzearen kausaz.

Bizkaiera-gipuzkeraren banatze puntuan isoglosen pilaketa bereziki inportante bilakatzen da, hala ere, interpretazioak desberdinak dira:

*Eta azkenik, sortaldera, eguzkialdera, Legazpiakin eta Zegamakin egiten du muga Oñatik. Hemen bai dagoela leize handia eta alde ikaragarria! Legazpia eta Zegama aldeko euskera giputza da erabat. Oñati eta Legazpia: hain kilometro gutxiko tartea eta euskarari hain alde handia egotea, sinestu ere ezin daitekeen gauza da. Eta aldaketa hau ez da egiten poliki-poliki, gutxika, gutxika, bat-batean baizik.* Villasante (1968: 84-85). Eta gai honi buruz, badira bi iritzi.

Badirudi, gipuzkera eta bizkaieraren arteko etena ez dela hain bat-batekoa toki guztietan, esate baterako itsasaldeko mugan. Pedro de Yrizarrek (1981: 245):

*Presenta extraordinario interés esta “encrucijada lingüística”, constituida por los pueblos de Elgoibar, Motrico y Deva, en la zona limítrofe septentrional de los dialectos colindantes más distintos entre sí, el vizcaíno y el guipuzcoano, en la que, por la mayor facilidad de comunicación, la interacción entre las hablas locales de ambos dialectos es superior a la existente entre las de los pueblos situados más al sur, en la región más montañosa del interior.*



Antzera gertatzen da Hegoaldeko mugei begiratzen badiegu, ezen galduta dagoen Hegoaldeko euskalkiak Ekialde eta Mendebaldeko hizkeren arteko zubia egin zezakeen K. Mitxelenak dioena aintzat hartzen badugu:

*En casi todas las exposiciones que se han hecho en los últimos 100 ó 200 años sobre límites dialectales vascos, se ha hecho caso omiso de la mayor parte del territorio alavés; las excepciones están constituidas por Aramayo, Villarreal más Urbina, etc., Cigoitia, Barambio, Llodio, puntos o zonas siempre marginales en la proximidad de Vizcaya. Valga lo que valiere el testimonio de Larra-mendi sobre “lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, más o menos sincopados y variados” (Arte, p. 12), el vocabulario de Landucci (...), los versos de Gamiz, natural de Sabando y vecino de Pamplona, más sobre todo la toponimia, actual e histórica, y los términos residuales, recogido todo ello por don Gerardo Lopez de Guereñu, permiten afirmar que la lengua conservaba algunas diferencias que despiertan la tentación de ponerlas en relación con la frontera antigua entre várdulos orientales (mas vascos) y caristios orientales. En todo caso, y sea esto o no así, no parece que se diera al Sur el mismo salto brusco que estimamos se da al Norte entre guipuzcoano y vizcaíno. Además, y sobre todo, la lengua que refleja el léxico de Landucci era algo que, aunque participara de rasgos occidentales, no podía confundirse de manera alguna con el dialecto vizcaíno. No se puede, pues, descuidar el testimonio de este vasco meridional (alavés, riojano, burgalés) cuyos testimonios, aunque escasos, abarcan casi un milenio. Mitxelena (1981: 299).*

Antonio Tovar-ek, Luis Mitxelenak eta H. Vogt-ek modu honetara pentsatzen dute: Tovar-en ustetan (1959) bizkaiera ondo karakterizatu-tako euskalkia bada ere, ez da independentea. Mitxelenaren iritzian, Uhlenbeck-ek azaldu zuenaren kontra, bizkaieraren antzinako formak gaurkoak baino hurbilago zeuden gipuzkeratik:

*Mitxelenak, Lacombe eta Uhlenbeck-en argudio eta oinarriak oso axalekoak direla erakutsi du, ez baitute gaztigitzen, esate baterako, norentzat eta zenbat den ezberdina bizkaiera: giputz batentzat hurbil ez bada, hurbilago ote Z edo E? Izan ere Lacombek aipatzen ditu Bren hiztegiko bereiztasunak, baina ez du gogoratzen badirela hainbat hitz Ekialdean giputzek egun ulertuko ez lituzketenak: zenbatu egin behar Bk gainerakoek baino hitz berezko gehiago duela frogatzeko eta ez dirudi hone-lakorik inork egin duenik, ez eta nahi izanez gero ere erraz luke-*

*enik. Orobat aditzean Mendebaleko daike Erdialdeko dezaketik gertu ez bada, ez dateke gertuago ekialdeko diro.*

*Ausartago delarik, Uhlenbeck-en teoria are ahulagoa dugu, ez baita inon oinarririk suposatzeke antzina hizkuntza edo dialekto desberdinak bat(era)tu zirenik Euskal Herrian, edota “Aunamendi alboan”. B ez da euskal dialekto soil bat baizik; euskalkiak irudikatzeke zuhaitzaren metaforaz baliatzekeotan adar bat litzateke anitzen artean, ez bitatik bata. Ez da zer esanik Lacombe eta besteren zatiketa bikoitza irizpide ahuletan oinarritzen bada egoera modernoari dagokionez, areago datekeela delala hiruzpalau mendetakoarekiko segidan ikusiko denez. Bestalde, Uhlenbeck-i aitzi, Mitxelenak testuen lekukotasuna gogoratu du B eta G hurbilduaz joan direla ukatzeko, latz eta nabarmenago omen ziren mugak beratu eta estali beharrean areagotu egin direla erakutsiz, eta XV eta XVI. Mendeetan B eta oraingo amini bat ezagutuaz ez hurbilketa baina sakabanatzea dela baieztatzuz. J. Lakarra (1992: 34).*

Berba baten, bizkaiera gainerako euskalkien artean bat dela baieztatu daiteke, hots, adar bat besteen artean. Tovarrek arestian esan digunez, euskalki ondo karakterizatua da, baina, azken finean, ez independientea. Mitxelenak dioenez, gainera:

*Lo característico de su personalidad se debe además en buena medida, añado yo, a su condición de dialecto marginal. Mitxelena (1981: 300).*

Norberaren xedea euskalkia irakaskuntzan izanik, nahitaez hartu behar da kontuan euskalkiak euren artean hurbilduz baino sakabanatuz joan diren errealitatea, ezen gure eskoletara datorren neska edo mutila elkarren artean urrundutako euskalki horietako batetik baitator. Eta ez baita kontua –abiapuntu didaktikorako bederen–, linguistikan adituek aurki ditzaketan euskalkien arteko antzinako kidesunak, baizik eta gaurko hiztunen gogoan –euskalki jakineko guztienean– irauten duen kontzientzia linguistikoa. Hots, Mitxelenak (1981: 303) dioenari bagenerrazkio aipamen hau aurkituko genuke:

*De modo parecido, al oponer el potencial vizcaíno dai(ke) (y lo que se dice del potencial suele valer también para el subjuntivo y el imperativo) al central dezake, como si se tratara de un contraste insuperable, se olvidan por lo menos tres cosas. La primera es que hay todavía un oriental diro (¡sólo potencial!), ya en Dechepare (ordi diro) (“puede embriagarle”), tan diferente de daike como de dezake. La segunda, que el auxiliar –eza fue corriente en*

*áreas vizcaínas en tiempos nada alejados. Cf. RS 429: Ydiac eta veyak yl ezauz ta loben baten biriac yndauz “Mata bueyes y vacas y dadme un cornado de livianos”, con ezauz de ezazuz, como yndauz de indazuz, por disimilación. Y, por último, que –(g)i por –eza también se ha conocido y se conoce en una extensa zona guipuzcoana. Todo se reduce a elecciones diversas, variables a lo largo del tiempo, de elementos de un fondo común”.*

Mitxelenak dioena hala izanik ere, euskaldunak arazo franko izan du elkarren artean ulertzeko. Hala mintzo zaigu J. Etxeberri (1712: 398):

*(...) Eta oraino bertce-alde, geure herritic ilkhi gage Escualherrian berean barrena, geure artean dugu pena, eta neque ondicozco hau; ceren geure hitzcuntça propiala baitarabilagu hain nahasia, eta truccatua, non Escualdunic gueroc pena eta neque baitugu elkharren aditceco.*

*Ezperen bat-bedi Nafarroa-beherearra, edo çuheroarra (sic) Bizcaitarrarequin, edo Alabesarequin, eta Ochagabiarra, edo Erroncalesa Baztandarrarequin eta Lau-urtarrarequin; edo cein nabi Escual-herrico aldebatecoa bertce alderdicoarequin, eta ikhusico duçu, elkhar ecin adi dezaqueela; aiticic elkharri idurituco çaizquio Escualdunac direlaric, eztirela hitzcuntça berecoac.*

Hala ere, euskalkien arteko aldea askoz txikiagoa dela uste duenik ez da falta:

*La différence entre nos dialectes est moins forte que celles qui séperent les dialectes particuliers de plusieurs départements français. Au reste, l'anglais, l'allemeand et toutes les langues offrent ce même spectacle. Si une chose a droit de surprendre, c'est que la langue basque n'ait pas succombé pendant la durée des âges. Duvoisin (1866: 40).*

Mitxelenak (1964: 18) bere aldetik, hauxe diosku:

*La discusión es más bien ociosa en tanto no se arbitre una técnica que permita darle una respuesta precisa, cuantitativa. La estimación de esa magnitud es, además, relativa por necesidad: para un lingüista, por ejemplo, las diferencias no son grandes y, si el lingüista es comparatista, las encontrará, incluso, desesperadamente pequeñas. El mismo criterio de la posibilidad de comprensión mutua entre hablantes de variedades distintas, que es al que con más frecuencia se suele apelar, es de dudoso valor: la comunicación mutua depende en alto grado del “don de lenguas”, esa capacidad peculiar hecha de versatilidad y mimetismo, de los interlocutores en contacto.*

Inongo zalantza barik, Mitxelenaren ... *y, si el lingüista es comparatista, las encontrará, incluso, desesperadamente pequeñas*. Baieztapena gure geure egingo dugu irakaskuntzarako planteamenduak gauzatzera, ezen linguistarentzat hain txiker diren euskalki batetik besterako desberdintasuneko oinarritik abiatu behar baitugu irakaskuntzarako jokabide teorikoan. Hau da, neska mungiar eta uztaiztarren hizkera praktikan oso urrunduak sakonean duten amankomuneko izango da irakaskuntzako oinarri, gero komuntasunetik barietateetara jaisteko. Ondorioz, gure proiektuan desberdintasunik txikerreneko erabilera bilatuko dugu irakaskuntzarako.


Patxi Altuna (1973: 170) euskaltzain osoak, euskalkien arteko aldea txikia dela, uste du:

*Euskalki baten jabe denak beste euskalkiz mintzo zaionari aditzen lanak izaten ditu -jabeago eta lan tipiago, halaz ere-; ezin aditurik ez du, ordea. Nolanahi ere, beste hizkuntzaz ari zaionari aditzeko duen adina ez, bederen.*

*Ezinik baldin badu, bere euskalkiaren jabe ez delako du -eta entzulea ere ez berearen-. Edo eta herri mintzairak -hemengoak eta nonahikoek- hitzak osoro esan ordez aldatu egiten dituztelako, hitz erdiak ahopean janik. Baina hori ez daiteke arrazoi aski, euskalki guztiek beren artean elkarrekiko eta funtsezko muinik dutela ukatzeko.*

## EUSKALKIAREN IZAERA

Mendebaldeko euskara



### 2.8. Bizkaieraren nortasuna

XXI. mende hasieran bizi den euskalduna ohartzen da entzuten duen euskara noiz den berea, euskalkikoa, eta noiz euskara batu, barri

edo eskolakoa. Apurtxo bat sakonago arakatuz gero, ostera, ez da gauza baieztatzeko berak bizkaieraz darabilen *daigun* gipuzkerakoa ere baden, edo *bi* zenbatzailea *bat* zenbakiaren moduan atzean jartzea arrunta zela Etxepare, Leizarraga eta Oihenartentzat.

Euskaldun arruntari jasotzen zaion berbera zaio gertatzen irakasle nahiz testugileari, euskara batukotzat erakusten dituen elementu ugari bizkaierako dira, edo bizkaierakotzat azaltzen dituenak euskara batu-ko. Halaxe pasatzen da *hots* berbarekin, zein euskara batutik etorritotzat irakasten den *kanpaiotsa* etengabe euskalkian entzun arren. Ondorioz eta jokabide orokor moduan bizkaiera kontsideratu da norberak eta inguruak ezagun duena, eta zer egin da? Ba, inguruko horixe erabili ez, batua idatzi gura denean. Hau da, norberena ez dena hartu batutzat, ikasi dena, urruna. Horrela, ahotan egunero darabilen formez ere jabetu gabe dirauela, praktikak berak darama ahozko ezagunetik urrunekora aldentzen. Arratiako euskaldunak darabilen “Alabea gaixorik dagoanA lez...”, euskara estandarreko “Dagoen legez” erabiltzen badu –ahozkoan alfabetatu barik, erabilera biak ezin bat daitezke. Beti ere, hizkuntza ikasiaz dihardugunean salbuespena egin behar, ezen Federico Krutwigek esan ohi zuenez, ikasteak, eguneroko berbeta jasotzeak, prestigioa baitakar. Hala baztertu dira *ondo* eta *hobeto*, *ongi* eta *hobeki* hobetsiz. Urruna eta ikasia –oker ikasia– hobetsi da. Baina, hizkuntzak posibilitate biak eskaintzen zituen, *-ki* batetik eta, bestetik, *-to/-do*. Begira dezagun Mitxelena Villasanteri luzatutako oharra:

*No obstante lo dicho sobre el carácter vizcaíno del sufijo -to, -do, voces como ondo y hobeto, aunque en concurrencia llegan hasta Oyarzun, sino más lejos. Villasante (1974: 96).*

Gipuzkeran, alderantzikoa izan da joera, estandarra geure euskalkiaren gainean –erdialdekoenen gain– eraikia denez, hurbilekoa, gure geurea, egunerokoa da estandarra, eta urrunekoa euskalkia. Ondorioz, *primera*, *pareta*, *duroa*, *bezain pronto* sartu dira euskara jasora, estandarerra, euskara batua dialektalizatuz, ez osotuz eta urruneko oro dialektotzat jota.

Deitoragarriena, dena den, euskara batuaren bilakabidean ikuspegi erdirakoi honek ez eboluzionatzea da. Adibiderako, *jagon* berba daukagu: *Jagon Saila* dago Euskaltzaindian –Euskal Herriko Erakundean, beraz, geografia osorakoan eta jaio zenetikoan– *Iker*-ekin batera (*Iker Saila*), Erakundeko bi sail nagusiak izendatzeko eta, hala ere, *Jagon*

Hiztegi Batuan Bizk. ipinirik dator.<sup>1</sup> Hala jokutzen dutenak, zein kriterio-riok gidatzen ditu *jagon* hitzari Bizk jartzeko eta *ulertu* berba Bizk marka barik uzteko?<sup>2</sup> Ez ote dira biak bizkaierazkoak? Zergatik hobetsi *jagon*-en ondoan *zaindu*?<sup>3</sup> Ez ote gara bietaz sinonimo moduan ba-

<sup>1</sup> B. Oihartzabalek, nire tesiko epaimahaikidea izanik, ohar batzuk egin zituen lerro hauetan esaten direnez. Liburua argitaratzerakoan ohar haiek hona ekartzeko eskatu diot, bestelako ikusmoldea baitu hark:

B.O.ren oharra: Euskaltzaindiari egiten zaizkion horko kritikak oinarri gabekoak iduritzen zaizkit, gaizki interpretazen baitira haietan Hiztegi Batuan agertzen diren *Ipar* edo *Bizk* bezalako informazioak (esaten ez dutena esanaraziz). *Euskara batua* deitu hiztegiak daukan izenburuak dauka eta, beraz, hiztegi horretan onartzen diren hitzak euskara batukoak dira. Ez da horretan eztabaidatzekorik, eta argi eta garbi adierazia da puntu hori hiztegiaren sarreran berean: *Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstean, horrelako hitzak baztertea: aitzitik, euskalki hitzok Hiztegi Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera –jakinaren gainean eta nori bere senak adierazten dion eran, jakina- horrela euskaldun guztien ondare komuna bihurtuz joan daitezzen* (azpimarrak B.Orenak). Bestelakorik sinetsaraztea euskalkien ondarearen badaezpadado abokatu izatea da, ororen buru aditzera ematen baita orduan, Euskaltzaindiaren erranei bizkarra emanez, tradizio literario batean bakarrik (edo bereziki) erabili diren hitzak ezin izan daitezkeela euskara batukoak. Akademiak, argi dago goragoko aipuan, ez du horrelako jokabiderik bultzatzen. Hain zuzen, aipatu informazioek bide bat eskaintzen dute euskalki literarioen erabileran orain arte markatuak izan diren hitzak euskara batuan integratzeko, hiztegiaren batzeko prozesu honen has-tapenean erabiltzaileei haien berri emanez.

<sup>2</sup> B.O.ren oharra : Arrazoaia argi da: *ulertu* aditzak bizkaieraz idazten ez zuten idazle anitzek erabili izan dutelako (Alzaga, Anabitarte, Barandiaran, Barriola, Ber-rondo, Etxaide, Iraizoz, Labayen, Lardizabal, Lizardi, Orixe, Zaitegi...) eta *jagon* aditza berriz, gutxik baizik ez (Anabitarte eta Orixe bakarrik OEHaren arabera). Euskaltzaindiak horrelakoetan literatura tradizioei dagokien informazio bat ematen du; (esan gabe doa gerta daitekeela batzuetan informazio okerra izatea, baina hori beste kontu bat da, eta argi da *ulertu* / *jagon* aditzen kasuan informazio zuzena izan zela). Literatura tradizioez kanpo ere, *Herria* astekaria irakurtzea aski da hitz hori Iparraldean ere nola sartu den ohartzeko, kasik gure *konprenitu* zahar-rari gain hartzerainokoan. Eta berriz ere diodan *jagon* aditzaz tesian esaten dena ez dela hala: *Bizk* emanez ez da hitza euskara batutik ‘baztertzen’; aitzitik, onartu egiten da, baita hartaz informazio bat ematen ere, hitz hori erabiltzen ez dutenek, erabili nahi badute, jakin ahal dezaten nora jo behar duten haren erabileraren berri jakiteko.

<sup>3</sup> B.O.ren oharra. Euskaltzaindiak ez du *zaindu* hobetsi. Hori ez da hala. Hala izan balitz “h. [=hobe] zaindu” ezarriko zuen *jagon*-en sarreran, ez baita horrelakorik agertzen hartan. Informazio bat eskaini du, hori bai, *jagon* bizkaierazko tradizioa-

liatu behar? Edo, hobesten den hitza norentzat da hobesten, bizkaieraz ez darabilten euskaldunik erdientzat, eurena baztertuz? Bestalde, zergatik ez zaio jartzen Gip *bildumen* hitzari?<sup>4</sup> Unibertsaltasuna eranstean zaio honi eta ez *jagon*-i? Azken baten, gure galdera da, ea gipuzkerakoek eguneroko bizitzatik ezagun ez duten hitza noiz bilakatzen den c., komun, ororen. Hortxe dakusagu ezin argiago euskara estandarra eta gipuzkeraren identifikazioa, zilegi ez dena baizik kaltegarri, batasun eragozle, ezin osotuzko estandar. Behin Euskal Herri osoan, Euskararen Gaitasun Agiria/EGA azterketetan, poeta, idazle mota orotan, belaunaldi berri guztien testu liburuetan bidaiatu izan duen hitzari *-jagon*, esate baterako-, ezin jarriko zaio Bizk geografikoki mugatua,

---

ri dagokiola esanez. *Zaindu* aditzaz horrelakorik nekez esan zitekeen, aditz hori Iparraldean eta Hegoaldean erabilia izan baita, baita bizkaierazko autoreen artean ere: Aguirre *Auñamendiko lorea*-n, Añibarro, Arrese Beitia, Astarloa, Kirikiño, Lauaxeta, Bizkaierazko ikasbidea, ... Azkuek berak bere hiztegian *zaindu* sarreran AN, B, BN, L informazioa eskaini zuen euskalkien aldetik, argiki adieraztera emanenez bizkaierazko aditza ere bazela; (G marka, berriz, ez zuen sarrera horretan agerrarazi, *zaitu* formarentzat atxikitzen baitzuen). *Jagon* aditzaz Azkueren hiztegian agertzen den euskalki informazioa bakarra da, Hiztegi Batuan esaten denaren antzekoa: Bc, bizkaiera komuna, hots.

<sup>4</sup> B.O.ren oharra. Ados naiz *bildumen* hitzaren kontua ez dela batere argia eta arrazoiz kritika daitekeela. Ordea, ez dut batere garbi, sarreran *Gip* erantsiz, gauza handirik konpon litekeela. Lehenik sarreran ez da esaten esanahi bat baino gehiago duela hitz horrek, eta beraz ez dakigu zein esanahirekin (edo bizpahirurekin) onartu den hitza Hiztegi Batuan. Esanahi horietarik batean, ehorzketa ohiturei dago kienean, hitza oso mugatua da, eta ez guztiz zehatza, ez adieran, ezta forman ere, OEHan ikus daitekeen bezala. Dena den, hitzak bi agerraldi baizik ez ditu esanahi horretan ohiko literaturan (Anabitarte eta Etxaide). Euskaltzaindiak emanikako irizpide nagusiei jarraikirik, beraz, hitz horrek adiera horretan ez zuen tokirik Hiztegi Batuko lehen itzuli honetan agertzeko. Oztopo nagusia lekukotasun eta informazio-zehaztasun eskasian zetzan; (EEBSen ere agerraldi bakarra du *argizari* hitzaren sinonimo gisa ekarria izanik). Bigarren esanahi bat ere badu hitzak, bestelakoa dena, hartan *bilduma* hitzaren parekoa baita. Adiera horretan ere bi agerraldi baizik ez ditu hitzak literaturan (beti OEHaren arabera): bat gipuzkerazkoa (Guerrico) eta bestea zubererazkoa (almanaka). Kasu honetan ere, ez dirudi aski oinarririk bazegoela hitza lehen itzuli horretan Hiztegi Batuan sarrazteko, ezta *Gip* esanez ere agerraldi bakarra baitu gipuzkerazko literaturan, zubererazkoan bezain gutxi, beraz. Esan gabe doa gipuzkeran eta zubereran adibide bana izatea ere ez zela aski besterik gabe adiera horretan hitza ororen euskarakoa zela esateko. Badaiteke informazio gehiago izan zutela euskaltzainek erabakia hartzerakoan, baina OEHan agertzen denarekin gelditurik, ene ustez, gauzak horrela dira. (Larramendik hirugarren adiera bat ere aipatzen du, baina hau ez da batere agertzen literaturako testuetan).

euskara batua ezer bada geografiaz gain bizitzeko esparru eta funtzioetarako mintzaira bilaka dadin gura dugunean.

Ene ustez, bizkaierako hitzari –nahiz beste euskalkikori–, euskara batuko hiztegieta, euskalkiko jatorria. alboan jartzea planteamendu okerra da.<sup>5</sup> *Jagon* zein *zaindu* euskara batu-batuko baitira. Bizk edo L edo G ipintzea beste zeregin baterako, hots, euskalkiko izanik euskalkirako soilik zer den adierazteko erabil daiteke. Adibidez, *agiri da, bedar, narru* Bizk aldamenen dutela hiztegiratzeak badu zentzua, horiek ez baitira euskara baturako. *Jagon*, ordea, Bizk.-i dautsala jartzea eta *zaindu* ezer barik, euskararen batasunerako eragozle zalantza bakoa da.

Dioguna argiago jartzeko, hara Mitxelenak (1981: 304) dioskuna:

*No creo que la distribución del léxico tiene el valor que algunos (baste con citar a Porzig o Solta en obras conocidas) le reconocen como criterio de demarcación dialectal.*

Ikerketa honetan ikasleak darabilen hizkeratik abiatzen gara, ez linguistak bizkaierako izan zela dakienetik, geroaldiko *dakike*, *zagokez* –ekialdean oraindik bizirik direnak– bizkaiera zaharrean erabili ohi zirenak, kasurako. Mitxelenak postulatu zuen euskaroak iraupena izan

<sup>5</sup> B.O.ren oharra. Ikusmolde hau defenda daiteke, eta badakit zenbait jende nahiegoko zuketela Euskaltzaindiak Hiztegi Batuko hitz guztiak, euskalki informaziorik gabe, zerrendatu izan balitu. Nik, ordea, hain zuzen literatura euskalkien ondarea euskara batuan traumarik eta bortxaketa artifizialik gabe sarrarazi nahiz, zuhurrago deritzat Euskaltzaindiak izan duen jokabideari, bereziki Hiztegi Batuaren oinarritzko emanaldi honetan, uste baitut bazterretako euskalkietako hitzen errazkiago onartzeko bide bat eskaintzen zuela jokabide horrek; (gogoan izan Hiztegi Batuak ez dituela definizioak, ezta erabilerak ere, garbiki zehazten). Hartuko ditut bizpahiru adibide, Iparraldeko tradizioari dagozkionak: *jin* aditza eta *mafrundi* edo *jats* izenak. Euskara batuko hitzak dira orain (hau da, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan zerrendatuak dira). Idazleek nahi badute (bereziki Iparraldekoek, baina ez bakarrik haiek) erabil ditzakete, euskara batuari dagokion eremutik atera gabe. Ongi. Orain galdera hau egiten dut: egiazki menturatuko ote ziren euskaltzainak hitz horiek Euskara Batuko hiztegian sartzeraz haietaz euskalki informazio zerbait emateko biderik izan ez balitz? Ez dakit. *Jin*, segur-segura, ezin bestean sartu beharko zuten: mila agerraldi baino gehiago du gure literatura tradizioan! Baina *mafrundi* eta *jats*? Eta, *mafrundi* eta *jats* legez, *trukes* edo *tuaxa* bezalako asko eta asko? Nire aburuz, beste jokabideak, euskalki informazioa isildurik, euskalkien ondareko hitz askoren bazterketa ekarriko zuen, ez bainaiz segur orduan *belu* onartuko zela (“h. berandu” ezarri gabe bereziki) edo *sama* izenari batere tokirik eginen zitzaiola. Hitz batean, orduan, egun eta hilabete izenekin gertatua aurkituko genuen hiztegiaren eremu guztietara hedatua (euskara batua pobretuz dudarik batere gabe).



balu ez genukeen ibili beharko euskalkiekaz hain axolaturik, baina euskararen aldakien κοινή historiko hura, hizkuntza komun hura, aurretik bezala, gero eta sakabanatuago bihurtu zen, nahiz eta euskalki, azpieuskalkien arteko etengabeko harremanek hizkuntza desberdinak izatera hel zitezen oztopatu zuen. Edozelan ere, A. Tovarrek idatzi zuenari jarraituta, bizkaierak gainerakoek galdutako arkaismoak gorde izan dituelako, edo besteek egin dituzten berrikuntzen parekoak baino desberdinak ezagutu dituelako, edo euskarak eskaintzen zituen aukeren artean desberdina bereganatu zuelako –horri ertzeko hizkera izatea gehituz– guztiori batera gorpuztu delako iritsi gara gaur eguneko bizkaierara. Tovarrek gainerako euskalkietatik bereizgarri dituen hiru berezitasun aipatzen ditu :

*El vizcaíno seguramente que se ha diferenciado de los otros dialectos mucho, pero todas sus notas diferenciales se pueden reducir a estas tres: arcaísmos que en el resto del dominio vasco se han perdido, innovaciones distintas de las conservaciones o innovaciones de los otros dialectos, elecciones de formas y palabras donde la lengua tenía equivalentes o sinónimos. Tovar (1959: 173).*

Hala ere, ezin estarian jarriko dugu euskal hizkeren errealitate bizia:

*Historian zehar gehienbat mintzatua izateak bere ondorioak utzi ditu gure hizkuntzan, eta horrela, Euskal Herria txikia izanik ere, euskal hizkeren artean desberdintasun nabarmenak daude herri zabalagoan kokaturik sendo bizi izan diren zenbait erromantze ingurukotan gertatu izan denarekin konparatzen baldin badugu. (...) Gutxienez hizkuntza mintzatua alderdi batetik eta literarioa bestetik bereizten ziren Etxeparek eta Leizarragak XVI. mendean batak poesia eta besteak prosa argitara eman zutenetik aurrera. Hor maila nagusi bi behintzat baditugu, bigarrena gutxienez lautan banatua eta lehenengoa herritik herrira. Irigoien (1991: 1283).*

*Baina hizkuntza mintzatua dago beste alderdi batetik, lehen aipatu dugun moduan tradizio literarioan lautan banatua, apezten hizkuntza erizten zaiona, eta mintzatu hutsari bagagozkio herritik herrira. Irigoien (199: 1287).*

Hiztuna berbakera horrexegaz identifikatzen da eta –it– pluralgilearen balioa, esate baterako ezabatu egin da hiztunaren kontzientzian –irakatsi sarritan modu okerrean egiten da –z bizkaierako dela eta –it– batuko, biak bitzuetako direnean: *goaz, ditu*, esate baterako– eta *ditu-*

tegaz batera *ditudaz* adizkia sortu du analogiaz. Gu kontzientzia horretatik abiatzen gara. Kontzientzia horretakotzat hartzen ditugu karistiarren lurraldeko hiztunak, Debarrotik Nerbioi edo Ibaizabalera bitartekoak. Bizkaieraren ezaugarri guztiak baino egoeraren azalpenak eskatzen dituenak ekarriko ditugu hona.

Dena dela, hiztunak kontzientzian daukana baino sakonagoko desberdintasunak txikerragoak direnez, DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA goaz metodologikoki.

Bestalde, euskara batuagazko atxikimendua norberaganatzeko, bizkaieradunen bihotzean euskara batua txertatzeko, on da batukotzat jotzen diren forma asko XVII. mendera arte bizkaierarenak ere bazirela irakastea, *etor*, *ibil* aditz erroak kasurako.

Dio Mitxelenak (1981: 313):

*...acusada personalidad del dialecto vizcaíno que todos, y yo el primero, le reconocemos, siempre que no se trate de convertir autonomías en independencias.*

Nortasun nabarmen horretan, ostera, bi jokabide egoki proposatzen ditu modu indirektoan: tradizio historikoari loturik eraikitzekoa bata, eta gainerako euskalkietatik hurbilen funtzionatzen duten formak hautatzea, bestetik. Ildo horretan zuzentzen ditu “hiperbizkaiera”ren aurkako kritikak. Zeren gaurko bizkaiera bakarrik gogoan harturik, oker handian eroriko baikinategi, jakinik XV. eta XVI. mendeetatik honantz ekialdeko euskalkien artean eta bizkaieraren artean desberdintasunak gehitu egin direla. 2000. urtean bizkaiera idatz lezanak, kontuan hartu beharko luke, *gintzazan* idazten duenean, ez XVI. ezta XVII. ez XVIII. mendean ere ez dela dokumentatzen; bai, ordea, *ginean* edo *ginan*. Eta gaur ere *gintzazan* darabilen pertsona berberak *ginen* ere badarabilela, modu alternatiboan.<sup>6</sup> Aldiz, *ginan* aukeratzeak, beste euskalkietako *ginan* edo *ginenen* komuntasuna *lekarkio* bizkaierari. Argumentazio berberaz balia gaitzke *dauz/diturekin* edo *ebazan/zituzan*.

Erakusleetan, desinentzia berberak badira ere, teman aldaketak daude: besteek erakusleen 3. pertsonan *hura* baina *hark*; bizkaierak uniformetasuna mantenduz *a*, *ak*, *ari*.

<sup>6</sup> GOIKOETXEA, F. (1999). Euskal Herriko Hizkuntza Atlas. *Antologia*. Euskaltzaindia: ‘Mungia’.

Mitxelenak intentsiboetan erabiltzen diren *neu*, *eu*, ...ren eta *neurk* (cf. *nihaurk*), *zeurk* (cf. *zuhaurk*) artean ez du distantzia handirik, ez sakinik aurkitzen.

Mendebaldekoa baino ez den *nor/nortzuk*-en arteko oposizioa ere ez da antzinagoko gaztelaniako *quién/quienesen* arteko berritasuna baino, nahiz eta *batzuk* (*bat + zu*) ez berriztat eduki.

Aditzean, gero eta antzinagokoa den, bat etortze handiagoa ezagutzen da. Denbora eta moduen sistema berbera da. Aditz laguntzailearen desberdintzea ere berbera. Hala ere, arlo honetan seinatu dira desberdintasunik nabarmenenak. Dio Mitxelenak fenomenoak ez dela hain harigarria, ikusten badugu, esate baterako, *–eza* laguntzailea arrunta izan zela bizkaieraren lurretan:

*Ydiac eta veyac yl ezauz ta loben baten biriac yndauz. (Cf. RS 429).*

Beraz, fondo bereko elementuen aukeratze desberdinak, denboran zehar, aldagarriak baino ez dira.

Hitzen sorkuntzari buruz dihardugunean, aise ohartzen gara prozedura asko komunak direla. Honetan ere komuntasuna indartuago zegoen aurreko mendeetan, nahiz eta euskara komun guztiak ez daukan zertan izan protovasco. Gipuzkoa goinafarreratik bereizten duen *–bait* bera (RS35)ean aurkitzen dugu:

*Celangoa baista amea alangoa oyda alabea.*

Dena dela, Mitxelenari jarraituz, lexikoaren distribuzioak ez dauka euskalkia zedarrizteko baliorik, ezen *etsairen* ondoan *arerio* daukagu Sartaldean eta *izterbegi* Sortaldean.

Fonologian ere arrunt deritze *barri/berri* edo *baltz/beltz* aldaketei. Onartzekotan *u/i* berba hasierakoei onartzen die antzinatasuna.

Aurreko guztiak darakuskiguna da, ukatu egin behar dugula bizkaiera aldameneko adartzat hartzea, nahiz eta aldameneko hori enbor beretik sortukotzat hartu. Guztionen ondorioz:

*Creo que de algún modo es razonable suponer que en algún momento, aún por fechar ni siquiera aproximadamente, existió algo que con todo derecho podemos llamar protovasco (no \*protovasco), que no fue una simple vue de l'esprit ni un espejismo de la reconstrucción, como decía Kurylowicz, sino la fuente unitaria dentro de lo posible de los dialectos vascos históricos. Mitxelena (1981: 307).*

## 2.9. Bizkaieraren berezitasunak

Atal honen irakurketak berehalakoan pentsaraz lezake bizkaiera berton luze, zabal eta sakon aztertzekoa dela. Guk, ordea, gogokoago iritzi izan diogu parte honetan tesiko gaiak ezinbestekotzat dituen parametroetara doitzea. Alde batetik, bizkaieraren gainean dioguna hemengo baieztapenetara mugatzen ez delako, ezen etengabeak baitira gairik gai, arlorik arlo bizkaierari buruz gehitzen ditugun ekarriak, hala bizkaieraren mailaketaz mintzo garenean, nola ikasle bakoitzaren erantzunak aztertzen ditugunean, nahiz Gipuzkoako bizkaieraz dihardugunean.

Bestetik, ugari bezain eder da gure antzinatikoek jadanik ikertu eta idatzia, dela Euskaltzaindiko *Gramatikan*, *Atlasean* edo *Orotariko Hiztegian*; dela *Europa* zein *3000 Hiztegiatan* Imanol Berriatuak irekiko lorratzei jarraika Luis Baraiazarra, Rikardo Badiola, Patxi Uribarren, Txomin Solabarrieta eta nik neuk moldiztegiratu ditugun bizkaierariko milaka berba, esaera, sintagma; dela Iñaki Gaminde, Gotzon Aurrekoetxea edo Eneko Barrutiak –eta beste askok– edo, zelan ez, Alfonso Irigoienek *De Re Philologica*n eskaintzen dizkigunak; dela Labayru Ikastegiko argitalpenetan edo ASJUn edo Mendebalde Alkartearen Jardunaldietan sortzen direnak; dela Koldo Zuazoren tesi-bilketan edo Gotzon Garateren *Erdarakadak* zein *Atsotitzak* antologikoan opatzen zaizkigunak. Beti ere, Azkueren patriarkatasunaren edo Mitxeleñaren “eurekak” gidaturik eta ahantzi barik *Quis dicat* bera baino *Quid dicat* hartu dugula kontuan.

### 2.9.1. Berezitasun fonetiko-fonologikoak

Disimilazioa bizkaieraz *-a* batez amaitutako berbak *a* mugatzailearekin elkartzerakoan.

Alaba + a: alabea, alabia, alabie, alabí...

Aste + a: astea, astia, astie, astí...

Begi + a: begia, begie, begije, begixe, begí...

Asto + a: astoa, astua, astue, astú...

Buru + a: burua, burue, burú...

Bestalde, aditzetan azken bokala atzizki batenarekin elkar-tzean honakoak:

a + e > a dan (da + en)

> ea/ia: direan

e + e > e: leiken

> ea: geinkean

Mitxelenak, Bonapartek eta dioskutenez –alaba + a = ea– bizkaie-rakotzat jotzen den arren, bizkaieraren lurrak gainditu egiten ditu.

*De la terminación de Rent. Azkure “comezón”, minbere “dolorido” podría inferirse que al fenómeno tuviera mayor extensión en época antigua, ya que esos temas (com. Axkura, minbera) parecen sacados de los noms, azkurea, minbera, hoy en Rent. azkuria, minberia. En la misma localidad, los participios como altxa “levantado” y bota “arrojado” tienen el nom. sing. altxia, botia: cf. a.-nav. Baztan, lab. ateraia “lo sacado” y daia, dea “¿es?” De da más la partícula interrogativa –a. También se podría pensar en una epéntesis de j para mantener una distinción funcionalmente importante. Mitxelena (1976: 115).*

Hala ere, gainerakoena ere izanik, hain garapen handia ezagutu duenez, zalantza barik sartzen dugu bizkaieran, baina, besterik da zibilizazio modernotik eta euskara batuaren bitartez datozkigun -a guztiak -ea bilakatu behar ditugun. Halakoetan euskara estandarren ekarria aintzat hartzea da gure diglosia irazian koherente. Terminologia zientifikoa bizkaierara egokitzeak ez luke zentzurik, baldin diglosia txertatuan esparru hori euskara batuari badagokio. Bizkaieraren eremu, maila eta tradizioan edo tradiziotik sortu ez diren berbak datozen idazkeran erabiltzea proposatzen da: *gatazka*, eta ez *gatazkea*; *ganga* (anatomian eta arkitekturaren), eta ez *gankea*; *enara*, eta ez *enarea*; *arreta*, eta ez *arrete*; *ertzaintza*, eta ez *ertzaintzea*; @, *arropa*, eta ez *arrobea*. Jo dezagun arrazoi historikoetara:

*En vizcaíno, como se sabe, se cumple en los temas nominales en –a, cierto fenómeno de acomodación (disimilatoria), cuando el artículo determinado sigue a esa vocal: de domeka “domingo”, tendremos domekea “el domingo”, erg. domekeak, etc. Pero esto, de manera por demás curiosa sólo se cumple en singular, con la señalada excepción del locativo: domekaan, de donde domekan, pero nunca \*-ean. De modo que, mientras de erg. sing. domeka + a + ak sale domekeak, de abs. y erg. pl. domeka + ak (si se quie-*

*re de \*ag) no se sigue más que domekaak y, por contracción, domekak. Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias. Pero no invalidan, ni pueden hacer concurrencia, a la explicaciones históricas que aquí se reducirían a afirmar que el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a -a + -a en -ea, ect., ya no era operante". Mitxelena (1981: 306).*

Gure arrazonamenduak, beraz, aspalditxotik datoz.

### 2.9.2. Berezitasun morfoloikoa eta sintaktikoak

Deklinabidea bakarra den euskaran, -gaz atzizkia da bizkaierak erabilerarako jaso beharrekoa, bestela inongo euskaldunek ez bailuke beretzat hartuko. Beti ere *kin*egaz lurraldea banatuz, ezen bizkaieran oso sakon sartzen baita, nahiz eta ez euskara batuko distribuzio semantiko beragaz. Modu berean, Ekialdeko euskalkian -*ér* erabili behar da -*eiren* ondoan.

Aditzean, bizkaieraren ikurretarikoa den -*gi* erroaren gainean haxe diosku Azkuek (1933: 216) gipuzkerako aditzaz :

*Por "dámelo tú, varón y hembra" sólo en Oyarzun y Amezketeta me dieron eman zadak y eman zadan. En todos los demás pueblos por mí consultados recogí, con ligeras variantes ezeidak eman y ezeidan eman.*

*Si nos remontamos algo en el pasado, los cantares medievales y los textos del siglo XVI nos demuestran que formas del verbo auxiliar como ezak eran usadas en Vizcaya al lado de egik. Después, al parecer, han dejado de utilizarse en aquella región. Está claro de todos modos que, de dos posibilidades, el vizcaíno y una parte del guipuzcoano se quedaron con una, en tanto que otros guipuzcoanos, con el conjunto de los vascos más orientales, prefirieron la otra, limitando el empleo de egin a distintas funciones. Mitxelena (1960: 236).*

Beraz, guk -*za-* aditz erroa ez dugunez bizkaierarako erabiltzen gaur egunean -*guretzat* arkaismoa izanik-, gipuzkera zabalean bezala, bizkaieraren izaeran nahitaezko da *gi*-rekin baliatzea. Edozelan ere, euskara batua ikasgelaratzean bizkaieradunen atxikimendua indartzeko

za-dun aditzak geure-geureak ere badirela aipatzea komeni da. Ez euskara estandarra ez dela artifiziala erakusteko soilik, baizik eta bizkaierakoontzat ere ez dela urruneko berbakera ikastea, geure arbasoena baino, Axularren formatzat irakatsi zaigun *emaiten* ere geure dugun modu berean:

*... en muchos pueblos del centro añaden á algunos participios acabados en n una i inmediatamente antes del ten, y en lugar de dicha n suprimida: v.g. izan iza-i-ten, emon, emo-i-ten ó emaiten. Axular usa mucho de esta adición en su Guero guero, como también el catecismo de Zuberoa. Zabala (1848: 13)*

Bizkaierakook, bestalde harri gintezke ohartzean euskararen kodean hain hedatua den fenomeno hau zelari ez den euskara batuaren barruan sartu. Ea zeren kausaz defenestratu zaigun *Kanta daigun*, *Kanta dezagunen* uniformitatearen mesedetan.

Finean, emaitza jakina suertatuko da, euskara estandarri ez jasotzean, biziko bada bizkaierakoon erabilerarengatik izango dela.

Moduzkoak egiteko *-la* atzizkia erabiltzen da nagusiki, *-larik*-en ordean. Bestalde, *bezala*-ren ordean *legez* denez nagusi, honekin egiten dira moduzkorik gehienak: *aurkitu dogun legez itxi dogu gela*.

Lafonen ustez bizkaiera baino harago heltzen zen *legez*-en erabilerara:

*Azkue fait remarquer justement (art. legez) que, “bien que ce mot n’appartienne pas aux dialectes dans les quels ils écrivirent, Harizmendi et Oihenart l’ont employé”. Il convient d’ajouter qu’on le rencontre aussi, une fois, dans Liçarrague, i Cor., 10,7; etzaretê idolatze, hetaric batzu leguez, scribatua den beçala. Liçarrague l’a sans doute employé ici pour en pas employer deux fois beçala. L’emploi de leguez dans le sens de “comme” n’était probablement pas particulier au biscayen”. Lafon (1955: 89-90)*

Gainera, Mitxelenak *legez* orokorra zela zioenez, bizkaieraz idazterakoan ere *legez* erabili behar genuke, eta ez *lez*, gaur eguneko joerari jarraituz, ezen gure kriterioa euskara batutik ahal denik gutxien aldentzea baita, eta proposatzen dugun diglosia irazian bizkaiera euskara batuan txertaturik ulertzen baitugu.

Honi loturiko bigarren aipamen interesgarri bat ere bada: *-(e)na legez*-ena. Dio Villasantek eta gehitzen du Mitxelenak (1964: 169):

*En el escudo de la familia de Fr. Diego de Estella se leía este mote: Garean garean legez (“Seamos como somos”... Michelena*

*apostilla: legez fue general (Etcheberri de Ciboure etc.). Habría que advertir que junto garean legez aparece también gareana legez (siempre así en Capanaga).*

Eta 2000-03-23an:

*Neuk ekarri otena les bedarra, seuk ipinixu baskarie.*

Halan da ze, guk hornitu behar duguna da, bizkaierako lurretan Arratialedean *gareana* legez ohituraz, jator erabiltzen denez, lehenengo azpieuskalki horretako hiztunei baietsi behar zaie forma horren erabileran dagokien labela. Eurak dira –eta eurak bezala forma hau lerabiltketen guztiek– besteoi irakats diezaguketenak zelan hartaz balia. Honetan ere, diglosia iraziari ematen diogu bide, zeren hala bizkaiera literarioarako nola euskara estandarretarako azpieuskalkia baita gidari. Jakin, horretarako eta horrexegatik da ezinbesteko nor bere berbakeran alfabetatuta aurki dadin. Bestela, –gaur arteko joerari bagarraizkio– saihestu egingo da eta kito. Eta –kontraesan harrigarritz irakatsiko zaio euskaldun arratiarrari eguneroko zaion –*gareana le(ge)z*– forma arkaiakoa dela. Irakatsi beharrean euren dela eta, gainera, euskara estandarrekoa ere bai, Kapanaga edo Betolazak eta arratiarrek ezezik salazenkoken ere erabiltzen baitute.

## 2.10. Zergatik bizkaiera literarioa eta ez euskara batua eta lekuan lekukoa bakarrik?

Ezaguna da gure artean euskara batuaren azpitik geratzen diren euskalki eta azpieuskalkiak hausnartzean kriteriologia desberdinez jokatzeko dugula. Batez ere gipuzkoako bizkaieran –lehen eliza zein bizitza paraofizialean gipuzkera eredu izan denean– ez da esparrurik ikusten bizkaiera literarioarako. Ostera, erraz onartua da Bizkaiko bizkaieran. Ekialdeko bizkaierarako Jose Antonio Mogelek izan dezakeen eredutasun guztiz baliokoa arrazoitzen hasiko ez bagara ere, esan dezakegu, Eibarko euskararen corpusa edo Aretxabaletakoa nahiz Bergarako estandarizatzerakoan, era daitekeen –edo daborduko eratu den corpusa ez litzatekeela izango azpieuskalkia baino. Bizkaiera literarioak badauka bere diakronia, bere historia, bere idazleak, eta horretan ezin sar daitezkeen Gipuzkoako edo Arabako bizkaieraren ondareko ekarriak gutxi izango dira beti, edozein azpieuskalkitik euskalkira dagoen alde baino handiagoa ez da ageriko hor, hots Bermeokoa eta bizkaiera literarioa edo Ondarroakoa eta bizkaiera literarioaren artean da-



goena baino handiagoa ez, behintzat. Hori horrela, bizkaiera literarioak Gipuzkoako bizkaierarako balio ez badu, Bizkaiko bizkaierarako edo Arabarako ere ez. Eta orduan bizkaiera literarioa funtziorik gabe gelditzen da.

Hizkuntzaren historiara nahiz sinkroniara bagatoz, ostera, konturatuko gara, azpieuskalkiak ez direla bizkaieratik independente, nahiz eta bai autonomo. Eibarko euskara aztertu denean nabaria da funtsean ageri den bizkaieraren kodea. Bergarako euskara azaldu gura denean, oinarri-oinarrian eusten dagoen bizkaierara jo beharko da aditzaren sistema nahiz sintaxia edo lexikoa arakatzeko.

Azpieuskalkietarako ere batasunerako erabili den printzipio bera aplikatu behar da, hizkuntzen berezko joera sakabanatzea dela eta irakaskuntzaren zeregina berezko joera zuzendurik batzeko ahalegina egitea dela. Nork bere lekuan lekukoa arautzen badu, ahozko sakabanaketa idatzira eroan besterik ez dugu egingo, lau euskalki literario zirenak hogeitalau bilakatu.

Euskalkiaren existentzia batuaren aldamenen justifikatu dugularik, errazago justifika genezake azpieuskalkiarena bizkaieraren barruan, nor eta zer den zehaztuz. Oraingoaz, aski da baieztatzea, bizkaieraren eremupeko berbetak –euskalkia euskalki bada– bizkaieraren barruan aurkitu ahalko dutela sistema osoaren azalpena.

Ahozko hutsean –eta gaurko belaunaldien ahozkoan– oinarritzen bagara, zaharren hizkera eta lehengo idazleena bazterrerara lagata, azpieuskalkien desberdintasunak indartzen ariko gara, elkarren arteko duten komuna alde batera utzirik, ezen orain ere egia izaten jarraitzen baitu bilakaera historikoak, hots:

*Desde los siglos X-XI, cuando los datos referentes a la lengua vasca empiezan a ser considerables, por más que no suficientes, la encontramos ya diversificada en dialectos, cuya distancia no ha hecho más que crecer desde entonces.* Mitxelena (1985: 219).

Honetan, batasunerako jokabidea ez genuke ahaztu behar. Nekez justifika daiteke fonetismoak eta euskara formala nahastea, definizioz ahozko kodigoa eta idatzia izaera desberdineko baitira, ahozkoa, gainera, belarriz ulertzekoa eta idatzia begiz jasotzekoa.

Bestalde, bizkaiera literarioak eskaintzen digun sistemaren azalpenarako tresnatasuna gutxiestean, nekez lor genezake azpieuskalkia euskara batuaren diglosian txertatzea, euskara batutik bizkaierako hiztuna alfabetatzea, eta, ondorioz, bizkaierako lexikoa, joskera, morfologiaren

ekarria euskara batura jasotzea, ezen berba bera hogeitaka formatan sartu gurako baikenuke batuan. Horrela, batasunik ezak galaraziko luke bizkaiera azpieuskalkitua Euskal Herri osorako altxorrera igarotzea. Ezen pasa dadin tradizioa jo behar da, idatzira lehenik –eta idatzia bizkaiera literarioa da batik bat–, ahozkoa gero, eta ahozko hori ere bizkaierakoon artean adostua, eta adostea zer dea bizkaiera literarioa gaur berreraikitzea besterik?

### 2.11. Bizkaieraren planifikazio linguistikoa

Izenburu hau irakurtzen delarik, balirudike euskalkiaz mintzo garenean, bizkaieraz bereziki, hizkuntza bati buruz dihardugula, hala ez izanik, zeren arestian arrazoitu baitugu euskalki ororen heteronomia –Mitxelenaen “*dialecto de*”–, eta gesu baten argudiatuko baitugu euskara berbeta bakarraren barruko diglosiaren gainean. Guk euskalkia gai dugula planifikazioa aipatzen badugu da, euskalkiak deskribatzen dituzten dialektologoen ere euron kodifikazioan egiten dutelako behar. Bestalde, proposatzen dugun moduan bizkaiera irakaskuntzan erabil dadin proposatzean ezinbesteko da Planifikazio Linguistikoaz aritzea. Baina ez dugu inondik ere ulertzen bizkaieraren ikastea euskaratik aparteko beste mintzaira bat jakitea bezala, euskararen euskalki moduan baino.

Ikerketa soziolinguistikoen sailean normalizazioaren antz-antzeko espresioa aurkitzen dugu, planifikazio linguistikoarena (= *language planning*). Baina normalizazio linguistikoak gehienetan benetako planifikazioaren laguntza eskatu duen arren, ez dira elkarren artean identifikagarriak. Normalizazioak baditu oinarrizko inplikazio bi, batetik, normalizatzea, normak, arauak ematea da, hizkuntza jakin bat estandarizatzea aldaki supradialektala eraikita. Aldaki linguistiko supradialektala onartzea ezinezko da aurretiko batasun kulturalaren kontzientzia barik, ezen horrek egingo baitu posible lurraldeen arteko bateratze ahalgina. Komuneko hizkuntza beti dator berbetaz kanpoko faktoreek ezarrita: dela botere politiko antolatua, dela gizarteko sektore batzuen, dela literatura baten nagusitasuna. Oroit gaitezen Saussure-k (1956) dioskunaz, alegia, berekasa utzirik, hizkuntzak dialektoak baino ez dituela ezagutzen, euretarik ezerein ere besteen gainean inposatzen ez delarik, eta horrela zatikatze indefinitura kondenaturik dagoela. Baina zibi-

lizazioak, garatzean, biderkatu egiten dituenek komunikazioak, halako adostasun tazitoz, aukeratu egiten dela diren dialektoetariko bat, komunitateari osotasunean intereseko zaion tresna bilaka dadin. Behin berbeta ofizial eta amankomunaren mailara jaso denean, dialekto pribilegiatua nekez geratzen dela lehen zen bezala. Tesian zehar azpimarratuz goazen legez, hezkuntza da erkidegoak duen mediorik boteretsuena amankomuneko aldakia ezarri eta mantentzeko. Esanahi hau, bada, linguistikoa da, batez ere. Bestalde, normalizazioa diogunean kultura hori maila normalera bihur dadin lortzea da eta suposatzen duen xedek gaingitu egiten ditu linguistikaren esparruak, linguistaren zeregina tekniko soil izatera mugatuz. Normalizatzea hizkuntza bat beste baten pare jartzea da –ez goian, ez behean–, hau da, plano berean.

Atal honetan azaltzen dugun Planifikazio Linguistikoari buruzko hausnarketan Planifikazio Linguistiko Politika Linguistikoaren gauzatze legez aditzen dugu. Planifikazioaren ekintza, halaber, ez dugu Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren zeregina den aldetik soilik behatzen, baizik eta, norbanakoak nahiz taldeak parte hartzaile diren heinean ere bai. Herrian herriko aldizkari, telebistez gain Mendebalde Kultur Alkartea dugu gogoan edo Labayru edo *Herria* aldizkaria. Ez gara jaisten, guztiarekin ere, planifikatzaile indibidualaren mailara, hebraieraren berrezarle gertatu zen Eliezer Ben-Yehudarenera (1852-1922), zeinek 1.700. urtegarrenean hebraieraz mintzatzen jarri zuen lehenbiziko familia Palestinan. Guk euskalkia, bizkaiera, egunero entzuten dugu euskara batuarekin batera eta erabilpena antolatu gura dugu, irakaskuntzan batik bat. Horretarako ezinbesteko agertzen da estandarizazio maila minimoa.

Planifikazio Linguistikoak bere baitan dakartzan mugez ere jabetzen gara. Gehienetan hizkuntza idatzian erdiesten duen garaipena, ozta-ozta iristen da ahozkoa. Aski ezagutu dugu horretarik euskara batuaren hogeita hamar urteotan.

Planifikazio Linguistikoaren faseetan “Hautaketa linguistikoa” daukagu, lehenik. Ez zein berbeta aukeratu jakin dezagun, baina bai zein bizkaiera eredurik ematen zaion bultzada. Eta horrekin oso lotuta Kodifikazioa, hau da, bizkaierako kodigoaren finkatzea, hiztegiak, gramatikak, metodoak atonduz. Arlo honetan, berriz, ez da nahiko ahozkoaren grabaketa, esamoldeen gaineko doktore tesi nahiz ikerketa filologikoak aurrera ateratzea, horrez gainera, **aukera** egin beharra dago. Hala sortu ohi dira ez ulertzeak, gatatzak, beti eta nonbait erantzun

ahal daiteke eta “Gure herrian holan esaten da” zein “Gure amamak zera esaten zeuen”. Edozelan ere, euskalkiaz ikasgelan baliatu gura badugu edo Administrazioan, kodifikazioa, estandarizatze maila bat beti izango da beharrezko, baita eskualde zein herriko euskaraz baliatu nahi badugu ere.

Halaxe idazten digu Villasantek (1988: 226):

*Euskaltzaindiak, esate baterako, ez du gaizki ikusten bizkaiera irakats dadin, baina nahi du literatur tradizioko bizkaiera irakats dadin, eta ez edozer gauza, bizkaieraren aitzakiaz. Gainera, parte hartu du Jaurlaritzak atera duen liburuan: Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabide eta aditza.*

Bizkaieraren kodifikazioan –Euskaltzaindia denetan erreferente dela– badira hiruren bat multzotan kide daitezkeen jarraibideak.

1. Lehenean, Bizkaiera literario klasikoa ipiniko genuke, 1968ko Arantzazuko Batasunaren aurretik datorrena, baina, batez ere, 1970etik aurrera Labayru Ikastegiaren eskutik dabilena. Eredu honen barruan hartuko genituzke, oro har, Labayruren jarduna nahiz Elizarena zein bizkaieraz irakasteari gaur arte ekin dioten ikastola eta ikastetxeena.

2. 1968an hasiriko euskara batuaren ildoei jarraitzen zaizkionak. –a + -a = a jartzen dutenak eta ez –ea; nominatiboa eta ergatiboa be-reizten dutenak: “Lagunek esan dabe”; “Lagunak izan dira”; aditzetan azken bokala atzizki batenarekin elkartzean honela egiten dutenak: a + e > e (da + en = den). Korronte honetan kokatuko genuke “Hau mundu arrano hau” J.B. Bilbao *Batxirena*, Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirrek Susan argitaratua. Proposatzen dugun Euskal Diglosiaren parametroetan jarduteak bide zabal-zabalak onartzea gomendatzen dienez bizkaierari –euskara batuari euskalkiekiko gomendatzen zaion ber-, lehen multzokoen artean eta hauen artean ere horixe litzateke gomendagarrien, nahiz eta zeozer aldatzean adostasun oso zabalez erabaki ezik, lehen bideari iritzi egokien.

3. Bizkaiera Mendebaldeko berbetatzat harturik –besteak bezala– bizkaiera literarioa eredutzat hartzeari ez deritzatenak. Uste honetako gehienak Gipuzkoako bizkaieran finkatzen badira ere, bada denean ere honenbesteko jendaldea lekuan-lekuko euskara eta euskara batua nahikotzat jotzen dituenak:

*Berbeta-eskualdea har daiteke unitatetzat*

dio Elexpuruk (1996):

*Honela, bat nator neu ere Juan Martin Elexpurrekin, zera dioenean dagokigunaz une honetan: “Ez digu askotzarik balio bizkaiera batua. Gure eskualdeak harreman gutxi izan du bizkaiera ofizialarekin, lehen gipuzkera eta orain batua izan bait dira gure erreferentzia kultuak”. Arexola-Leiba (1994: 373-374.)*

Honetan, behar bada, elkarrizketa narearen bitartez hausnartu beharko litzateke ea eragin handiagoa ez ote den gipuzkeraren presentzia historikoak estatusen utzi duena, corpuseko arrazoietatik erakar daitekeena baino. Argumenta daiteke eskualdeko euskarak batzeko ez dela euskalki literarioerik behar, berba bat, kasurako, euskara baturako balio duena bada Euskaltzaindiak batuko duela. Bat etortzeko arrazoa da, Euskaltzaindiari dagokiola batasunaren eraikitzea. Hala ere, bizkaierako berba Euskaltzaindiak onetsiari, aldamenen bizkaierako dela jartzen zaionean –**bizien** Bizk h **minbizi**– Euskaltzaindiak bizkaiera literarioa kodifikatu du, balio bera izan dezan bizkaieraren lurralde batean nahiz bestean. Horixe da bizkaiera literarioa, seguru asko bizkaieraz berba egiten dugun mendebaldeko elkartzan gaituena. Orduan, lekuan-lekuko berbetak azpieuskalki baino ez dira, gure euskal diglosian euren funtzio eta maila dagokiena.

Gainera, euskara jasoaren tradizioa Gipuzkoako bizkaieran eta Bizkaiko bizkaieran desberdina izan dela jakin arren, –bizkaiera literarioa umeak etxetik dakarren kodigo osotua baino ez denez–, etxeko berbeta hori alfabetatzeko tresna da, bizkaiera literarioa Mendebaldeko hizkerak lantzeko bitarteko proposa da, baldin Mendebaldeko euskara bere heteronomotasunaren unitatetzat hartzen bada. Agian, Julen Arexola-Leibak berak jartzen digun aipua euskalki literarioa hedatuz argi genezake arazoa. Diagramari jarraituz, herriko hizkeraren definizioa horrela ematen du autoreak:

*El mínimo común divisor entre hablas locales palpables que comparten las suficientes isoglosas comunes como para crear entre sus naturales la sensación de pertenencia a una misma comunidad regional. Sánchez Carrión (1991:94).*

Guri falta zaiguna, antza, “la sensación de pertenencia a una misma comunidad regional” da, ez besterik. Edozelan ere, batzuk eta besteok probintzien mugak gainditzeko gai ez bagina, gutxienez, bizkaiera literarioaren aldeko eta “eskualdeko euskara”-ren zaleak puntu bitan, behintzat, elkartuko ginatke, hau da, goitik euskara batu mendebalde-

kotua gauzatzerakoan, eta behetik daukagun, etxeko dugun, dakigun, euskaratik hasi behar dugula ez dakikegun euskara estandarerako zabaltzea, gogoan izanik, orduan, *Peru Abarka* aita izanik batzuentzat, osaba besteentzat.

Planifikazioaren azken prozedura modernizazioa da. Kodifikazioa eta modernizazioa, bitzuek konfiguratzeko dute garapen linguistikoaren jardura propioa. Ferguson-ek (1968: 32) dioskunez:

*Hizkuntza baten modernizazioa kontsidera daiteke prozesu bezala zeinen bitartez hizkuntza bat beste hizkuntza batzuekin komunikazio medio bezala berdintzen den; nolabait, ahalegin-tzea da mundu mailako komunitatea gero eta berbeta itzulgarriagoakaz, egungo diskurtso motetarako tresna baliagarri bilakatuz.*

Tarteko diren prozesuetatik –zabalkunde lexikoa eta diskurtsoko estilo eta forma berrien garapena– lehena ukituko dugu. Zabalkunde lexikoa gairik eztabaidatuenetarikoa da Planifikazio linguistikoan. Euskarak –eta bizkaierak bere barruan– hiztegi gabezi larria ezagutu du eta ezagutzen mundu modernoko alor askotan, zientzian edo industrian, batik bat. Bizikletan, esate baterako, *pinoi anizkoitza* (**Anitz**, AN-aezk-est, BN-s, L. Azkuek) Mendebaldeko izan ez arren, ez zaio bizkaierako ordea jarriko –berariazko aldaketa linguistikoaren prozeduraz– edo *esekidura elektrikoaren* ordez *eskegidura*. Ondorioz, euskal diglosiaren eraginez, bizkaierara gero eta euskara batutiko berba landu edo elaboratu ugariago ailegatuko dira. Ordainean, euskara batuak ere bereganatuko ditu bizkaieratik, **eroale elektriko**. Bide horretatik ibilita erdietsiko genuke terminologia zientifikoaren batasuna, azpieuskalkiak, euskalkiak eta euskara batua iraztean, denen ekarriez hizkuntza bakarra aberasturik.

Planifikazio linguistikoak huts ere egin dezake, hiztunek euren ohitura linguistikoak aldatzen ez dituztelako zein beste norabide baterantz aldatu dituztelako. Fenomeno hau ezin nabarmenagoa izaten da zabalkunde edo berriztatze linguistikoaren kasuan. Gainera, kasu askotan Planifikazio linguistikoak hizkuntzaren forma idatziari baino ez dio eragiten, ahozkoek lehengoan dirauten bitartean.

Badira zenbait faktore planifikazio linguistikoan indar handiko direnak. Berez, planifikazio linguistikoak ez da hutsune sozialean gertatzen. Alderantziz, faktore anitzen eragina jasaten du. Euren artean aipa ditzakegu faktore linguistikoak eta sozio-psikologikoak. Faktore linguistikoek hizkuntza nahiz euskalkiaren estatus edo izaerarekin dute

zerikusia, baita euren arteko antzera eta desberdintasunekin ere. Hizkuntzaren estatusa kontzeptuarekin bere garapen maila (edo modernizazioa) adierazten dugu eta tradizio literarioa ere bai.

Faktore sozio-psikologikoak –zentzurik zabalenean– arduratzen dira pertsonen hizkuntzen aurrean darakusten jarreraz. Tesian zehar aipamen ugari luzatzen badugu ere, ez gara hain garrantzitsua den faktore honetan gehiegi pausatzen, dakigun moduan jakinik, gainera, euskalkien arteko hegemonia, banaketa geografikoa, euskara batua ulertzeko modua, euskalkiekiko politika linguistikoa bertan jorratzekoak direla.

### 3. DIGLOSIA

#### 3.1. Charles A. FERGUSONen ekarria

Euskal Herriko kasuan, guk aztertuko dugun egoera multilinguismoaren barruan koka daitekeen arren –euskara, gaztelania, frantsesa tartean direlako–, gure helburua euskalkiaren bizkaieraren eta euskara batuaren arteko eskola-harremanak ikertzea denez, euskalkiari zein nortasun ezagut dakioken argitu ondoren, jakin dezagun noraino litzaigukeen zilegi elebitasunaz, elebakartasunaz edo diglosiaz berba egitea.

Elebitasunaren ideiak portaera indibidualari dagokion egoerarekin du zerikusia. Printzipioz, ezin baiets daiteke erkidego elebidunak direnik, bai, ostera, norbanako elebidunak. Bigarren baieztapen honetatik ezin atera genezake lehena. Elebitasuna arazo pribatua da, bakoitzaren biografiari dagokio, baita norbanako jakinek bizi diren ingurune konkretuei ere. Horren estudioa mikrosoziolinguistikari dagokio. Hala ere, fenomeno orokorra izanik, horren kausen bila hasiko bagina, beharko genuke aztertu zein egitura soziolinguistikotan gertatzen den. Enfoke honek fenomenoaren behaketa mikrosoziolinguistikoa baztertzer behartzen gaitu eta maila makrosoziolinguistikoan jartzera, inguruaren kezka pribatuetatik estrukturako auzi publikoetan aritzera. Beste berba batzuetan, jarrera indibidualako kontzeptua izateaz gain, elebitasunak botere zein prestigiozko estatus bera eskatzen du berbeta bietarako. Zein jarrera, zein funtzio, zein egoera dauka hizkuntza bietarik bakoitzak? Hori bideratzeko diglo-

siaren arazoei eman behar zaie erantzuna eta guk Charles A. Ferguson-engana jo dugu:

*Diglosia es un término que ha alcanzado una merecida difusión, y que por cierto hace furor por estas latitudes durante los últimos años. Ahora bien, a esa palabra, como a cualquier otra, se le puede dar el contenido que se desee, siempre que no se haga caer en confusión.* Mitxelena (1985: 215).

Diglosia dela dio Ferguson-ek:

*Egoera linguistiko aski egonkorra zeinetan, hizkuntzaren dialekto desberdinen aldamenean –barruan har ditzakeenak forma erregional normatibizatu bat edo batzuk–, existitzen den aldaki oso desberdin bat, oso kodifikatua –maiz gramatikalki konplexuagoa–, literaturako korpus zabal eta onetsiaren eramaile –antzinatetik etorria edo beste komunitate batetik–, hezkuntza formalean sakontasunez ikasten dena eta, batez ere, hizkuntza idatzi eta berbeta formal modura erabiltzen dena, baina erkidegoko sektore batentzat ere eguneroko elkarrizketarako ez dena.* Ferguson (1959: 15).

Ferguson lingüista amerikarrak ekarri zuen literatura linguistikora Greziatik mailegatutako diglosia terminoa. Nahiz eta berba honek grekeraz “elebitasuna” baino adierazi ez, Fergusonengan askoz esangura mugatuagoa bereganatzen du. Lau egoeratatik abiatzen da, berak erdugarri kontsideratzen dituenetik ( Suitza alemana, Egipto, Haiti eta Grezia). Autore honek definitu zuen diglosia barietate linguistiko biren arteko harreman egonkor bezala, bata “gora”<sup>7</sup> (high) eta bestea “behera” (low), hizkuntza bietarik bat edo aldaki linguistiko bat besteari gainjarritz. Genetikoki ahaidetuak (arabe klasikoa eta arabe dialektala, greko demotikoa eta greko “garbitua”, eta abar).

Sistema diglosikoaren eredu klasikoa arabeena da, ezen herrialde guztietan existitzen dira ahozko arabieraren formak, lekuan lekukoak, arabe klasiko –Coran-eko arabieraren antzekoa– tradizional eta internazionalaren ondoan. Kasu honetan, Ferguson-en kontzeptua nahiko ondo egokitzen da herrialde guztietara: Maroko litzateke adibide ona. Arabe klasikoa eta arabe marrokia hainbat desberdintzen dira zein funtziotarako erabiltzen diren kontuan hartuta.

<sup>7</sup> Terminologiarako Leizarragaren euskara ekumenikora jo dut: (*Gora*: “Eta eraman nenčan spiritutan mendi handi eta gora batetara. Leizarraga, Apocalyp XXII, 10. **Tesamentu Berria**. Strassburg: Baskische Bücher von 1571. *Behera* ere autore berberak).



Arabiera klasikoa tradizio aberatsaren jabe da gramatikako tratatuetan; tradizio literario handia du; berbeta erlijioso eta kulturako legez ospe irabazia. Ez dute marokoar guztiek ikasten, eta arabiera ikasten dutenek euren ama hizkuntza baino askoz beranduago ikasten dute (Bereber mintzatzen diren marokoarrek beti ikasten dute marokierako arabiera klasikoa baino lehenago). Marokoko arabiera, bestalde, ia ez dago berbeta independente moduan aintzat hartua, ez dauka forma idatzi ofizialki onarturik.

Fergusonek erabileren banaketa funtzionaleko taula hau jartzen digu:

Egoerak	Barietate altua	Barietate baxua
Sermoiak, kultura	+	
Aginduak beharginei, zerbitzariei		+
Gutun pertsonalak	+	
Dirkurtso politikoak, asanbleak	+	
Irakaspen unibertsitarioak	+	
Elkarrizketa pribatuak		+
Mass Mediei buruzko informazioa	+	
Irrati serialak		+
Umorezko testuak		+
Poesia	+	
Herri-literatura		+

Taula hau argitzeko esango da frantsesa Haitin erabiltzen dela eskolan, diskurtso politikoetan eta abar, eta krioiloa eguneroko bizitzan, “behekoekiko” harremanetan eta abar. Hori guztia 1959an: diglosiak Fergusonen arabera hizkuntza baten bi barietate jartzen ditu aurrez aurre, zeinetarik bata baloratuta dagoen “normatibizatu” mailan, aintzat harturiko literaturaren medio legez, baina gutxiengoak mintzatua, eta bestea gutxietsia baina gehiengoak erabilia.

Astiro-astiro, diglosia hitza berdefinituz joan da eta gaur egunean erkidego elebidunak deskribatzeko erabiltzen da. Eurretan, hiztunik gehienek berbeta biak menperatzen dituzte eta biak daude funtzionalki

bereizturik bata barietate “gora” legez eta bestea “behera” legez. Hala ere, beste autore batzuk adiera honetan erabiltzen dute. Halaxe diosku Martinet-ek:

*La idea de que el bilingüismo ha de referirse a dos lenguas en situación de igualdad está tan extendida que algunos lingüistas han propuesto el término de “diglosia” para designar una situación en que una comunidad utiliza, según las circunstancias, un idioma más familiar y de menos prestigio o bien otro más literario y más cuidado. Martinet (1967: 182)*

Rafael Ll. Ninyoles-ek ere diglosia kontzeptua harrezkero birplan-teatu egin dela diosku, baita hedatu ere halako egoeretara zeinetan banaketa edo gainjartze linguistikoa gertatzen den aldaki edo hizkuntza “gora” baten artean –komunikazio formal-literatura, erlijio, irakaskuntza, eta abarretan erabilia– eta aldaki edo hizkuntza “behe” baten artean –gehienetan gutxi landua, elkarrizketa ez formal edo familiar-tekoan erabilia–. Diglosiaren eredu bat Suitza alemanean gertatzen den dualitate da aleman arruntaren artean –erabilera formalekoa dena– eta Schwyzertütsch edo suizo-alemanaren –fami-liako erabileradunaren– artekoa.

Banaketa hau bi kodigo edo bi portaera linguistikoko ereduren arteko elkarbizitzak karakterizatzen du eta baloratze-ildo bi ezartzen ditu, zeinek “ideologia diglosiko” legez izendatuko ditugun. Aldaki linguistikoko bien arteko banaketa funtzionalak –erabat onartua– orekatzera jo dezake. Zenbait autorek –Fishman, Hymes, Gumperz-ek– azpimarratu dutena da, hala ere, ezen elebitasun eta diglosia egoerak ez daitezkeela bata bestearengandik banaturik ikertu, zeren praktikan bariazio-formak osotzen baitituzte portaera linguistikoko modulu-etan –elebakarren artean osotzen dituzten bezala-. Elebitasuna da, esan bezala, jarrera linguistikoko indibidualari dagokiona; diglosiaren nozioa, aldiz, maila kulturalerako erakuntza linguistikokoari erreferentzia egiten dio-na. Diglosiak funtzioen anizkoitzea suposatzen du; elebitasunean, ostera, aldaki linguistikoko biak funtzio berberak betetzen dituzte, hau da, bitzuak dira erabiliak harreman formaletako esparruan eta erlazio ezformaletan.

Calvet bere aldetik halaxe mintzatzen zaigu:

*Il est extrêmement utile de pouvoir distinguer entre un bilinguisme individuel et un bilinguisme social (que nous appelle-*

*rons donc diglossie), et de metre ainsi l'accent sur les implications sociologiques de la différence linguistique.* Calvet (1987: 47).

Ferguson-en diglosiaren nozioak aztergai diren hizkuntzen karakteristikak hartzen ditu gogoan. Ez da derrigorrezko, portaera elebidunaren gaia J. Fishman-ek egiten duen bezala egoeraren ikuspuntutik bakarrik enfokatzea, oso inportantea baita Fergusonentzat inplikaturiko berbetei so egitea. Horrexegatik, euskara batuaren eta bizkaieraren estatua kausa esternoen menpe badago ere, euren arteko desberdintasunak barruko faktoreen menpe daude, batez ere faktore linguistikoen menpe. Desberdintasun hauen izaera eta tamaina dira determinatzen dutenak diglosiaren mota eta gradua.

Esparruaren kontzeptua –egoerarena–, Joshua Fishman-ek (1968) arakatu zuen txosten oso ezaguna den *Bilingualism in the Barrio*. Fishman-entzako abiapuntua itaun hau izan zen: Nork egiten du zein hizkuntza, norekin eta noiz? Hitzunek berbeta bi darabiltzatenean, jakina da ez dituztela biak egoera guztietan erabiltzen: egoera jakin batzuetan bat erabiliko dute, eta besteetan bestea. Arestian aipatu dugunez, Ferguson-ek (1959) inplikaturiko hizkuntzetan egin zuen indar bere lehenetariko artikulu baten, gaur klasiko bilakatu denean, non garatzen duen diglosia nozioa. Sortu zuen diglosiaren definizioa, hiztunen erkidego baten erabilitako sistema beraren bi barietatez ari zen: bata formala, A (altua/gora) deitua, eta forma herritar edo lekukoa, B (baxua/behera) zeritzona. Barietate bakoitzak bere funtzioak betetzen ditu hiztun erkidegoan. Funtziook doaz A-ko diskurtso politikoetatik hasirik B-ko lagunarteko barriketetaraino. Hizkera formaleko estiloak askoz prestigio jasoagoa du, sarritan lotua funtzio erlijiosoekin eta ondare literario zein historikoagaz. A aldakia estandarizatuta dago, baita nazioartean ere, nahiko egonkorra da eta ez da haurtzaroan ikasten lehen berbeta moduan, geroago baino. Azkenik Ferguson-ek defendatzen du A aldakia B baino gramatikalki konplexuagoa izan ohi da.

Fergusonek iragarten dizkigun egoeretan interesgarri dena da, antzeko eta desantzekoaren arteko jokoak: alde batetik forma linguistiko “antzekoak” eredu bereko partaide diren zentzuan, bere bariante normatibizatu eta bariante popularrarekin; beste aldetik forma “desberdinak”, hau da, bata menperatu barik ere bestea menpera daitekeena. Polo bi hauen arteko tentsiotik, hiztunek forma bata edo bestearekin mantentzen duten harremanetik, sortzen dira portaerak zeinek edo zeinetara termino psikolinguistikoetan –bi forma hauen aurrean jarrera lin-

guistiko indibidualak direnetan– hurbiltzen saia gaitzkeen, edo sozio-linguistikoetan –diglosiaren adiera soziala, berak xedarrizten dituen taldeek– eta bikoiztasun hau –Fergusonen testuaren aberastasuna eta mugatasuna biak batera kausatzen dituen– da jatorria Joshua Fishmanek 1967an aureratu zuen proposamenarena. Kontrajartzen ditu **elebitasuna** –norbanakoak hizkuntza anitz erabiltzeko gaitasuna– zein psikolinguistikatik jaso den, eta diglosia –gizarte bateango berbeta anitzen erabilera– soziolinguistikatik jaso. Horrela Fishman-ek puntu garrantzitsu bitan modifikatzen du Ferguson-en kontzeptzioa:

Alde batetik, askoz indar gutxiago dago bi koderen presentziaz. Bestalde, berak dio diglosia existitzen dela berbeta biren artean desberdintasun funtzionala dagoen unetik, den bezainbestekoa izanik desberdintasun gradua, nimitzuenetik erabatekoenera: bi forma hauen arteko erlazio genetikoa ez da nahitaezko.

Autoreak honako taula honetan laburtzen du bere pentsaera, hain zuzen ere bere artikulua izenburuak perfektuki iragartzen duena: bilinguismoa diglosiarekin edo barik, diglosia bilinguismoarekin edo gabe:

		diglosia	
		+	-
bilinguismoa	+	1. diglosia eta bilinguismoa	2. bilinguismoa diglosia barik
	-	3. diglosia bilinguismo barik	4. ez diglosia ezta bilinguismoa

Lau posibilitate teoriko hauek jarraiko egoerei legozkieke:

1. Paraguaikoa, non mundu guztiak erabiltzen duen gaztelania eta guaraniera, gaztelania izanik funtzionalki forma “jasoa” eta guaraniera “baxua”.

2. Zenbait egoera ezegonkor zeinetan hiztun elebidun ugari dauden baina elebitasun sozialik ez den (Belgikako talde germanofonoak, zeinetan frantsesak geldiro-geldiro alemana ordezkatuko lukeen).

3. Errusia tsarista, non nobleak frantsesez baino ez ziren mintzaten eta herria errusieraz.

4. Ezohiko egoera: erkidego txikiak barietate linguistiko bakarrek.

Dena dela, Calvet-ek konturatu eragiten digu, badirela luzatu beharreko oharrak:

*Ce qui me semble tout d'abord manquer dans la définition de Ferguson, qui insiste surtout sur les notions de fonctions et de prestige, c'est bien entendu la référence au pouvoir: il ne suffit pas en effet d'analyser les différences entre formes linguistiques en présence en termes de prestige (par exemple le français aurait plus de prestige que le créole en Haïti) et de fonctions (le français aurait des fonctions que le créole en partage pas). Si le français a ce prestige et ces fonctions, c'est pour des raisons historiques et sociologiques qui tiennent à la forme du pouvoir, à l'organisation de la société, toutes choses dont Ferguson en trait guère.* Calvet (1987: 46).

## 4. DIGLOSIA IRAZIA

### 4.1. Zeri deritzagun irazia

Irazia deritzagu, ehundegian ehuna egitean bezala gauzatzen delako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota.<sup>8</sup>

Hizkuntzalariek dioskuten diglosia funtzionala –5. atalean sakonduko duguna– hizkuntza bakarraren, euskararen barruan ulertzen dugu. Erramon Baxokek (2000: 4) euskara eta frantsesari Iparraldean izendatzen diena, tesi honetan euskalkiari eta batuari emanik:

*Bagenekien euskara plazan, merkatuan, elizan eta pilota partidetan zela. Frantsesa, kasu, eskolan, jendarmerian eta postan zen. Diglosia funtzionala deitu horretan bi hizkuntzak bizi ahal dira, bi funtzio ezberdinak betetzen dituztelarik.*

Gura ez duguna da, euskalkia –bizkaiera, adibiderako– hizkera gehigarri moduan gera dadin, hau da, beharrezko ez den hizkera bezala. Bizkaierak –edozein euskalkik– bere funtzioa aurkitu behar du, eta

<sup>8</sup> AZKUE, R. M. (1969): *Diccionario vasco-español-francés*. La Gran Enciclopedia Vasca: **irazi**: urdir el lienzo en el telar; ourdir le tissu sur le métier. AN-b-lez, B-a-o-ts, G-ber.

praktikan aurkitua dauka. Teoriara gatozenez, berriz, irazitasuna guztiz baliagarri gertatzen zaigu bizi dugun diglosiaren deskribapenerako. Euskarari, badago, lehenengo, euskara batuaren eta euskalki literarioaren arteko diglosia, baina, baita bigarren bat ere euskalki literarioaren eta azpieuskalkiaren artekoa. Diglosia kateatu hori, bestalde, irazia da, ezen euskara batuak euskalki literarioaren eragina duen era berean, euskalki literarioak ere baitu euskara batuarena, edo euskalki literarioak lekuan lekukoarena edo alderantziz. Ez dakizut Euskal Herri zabalean, azpieuskalkian bizi den inor euskara batuko oporrak zer diren jakin eta erabili gabe bizi den, edo ikasia delarik, bizkaiera literarioaren eraginez, ostera hitza zer den ez dakien. Modu berean, bizkaieraren eremuan mungialdeko baizik izan ez den laskitu Hiztegi Batuko zerrendetan topatzea, bata besteari iraztea da, ezitzea. Areago, euskaraz ikasi duen neska nahiz mutilak darabilen berbeta, ez da jadanik toki jakin batekoa soilik, azpieuskalkiko zein euskara batuko zatia, txatalak aurkituko ditugu haien testuetan eta. Ukipenez bizi dituen euskara batua, euskalki literarioa eta lekuan lekukoa, iraziz doaz, txertatuz, elkarren arteko sarea bilbatuz. Horrexegatik, bada, diglosia, baina irazia. Eta, jakina, elkarri eragiteko aktibaturik eutsi behar zaio erregistro bakoitzari, dagokion funtzioak izendatuta, hala corpusari nola estatusari so eginik.

Horretarako, euskara batua euskara estandar idatzitzat hartzen dugu, ez literariotzat, oker uler ez dezagun. Arrazoia da, literarioan euskalkia jasoago ere ager daitekeela, beti euskara batuak A hizkuntza moduan funtzionatu barik euskalkia den B hizkuntzaren aurrean. Aurrerago ere berriz aipatuko dugun aipu hau datorkigu harira:

*Idazmota edo jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, ... Villasante (1988: 225).*

Baita indartu besterik egiten ez duen hau:

*En lo propiamente literario –ya desde Aranzazu se habla de lengua escrita, no de lengua literaria, por si acaso–, acaso sea donde más se note una como rigidez, al menos en algunos géneros, que todavía no ha sido domada. Mitxelena (1985: 228).*

Euskalkia bera, bestalde, hizkuntza normalizatu, uniformatutzat hartzen da –guztiz hala ez bada ere–, ez, beraz, inongo herriko, ez eze-lango amaren berbetatzat.

... las variedades designadas como literarias por BONA-PARTE representan formas de lengua normalizadas y, por consiguiente, uniformadas. Mitxelena (1985: 220).

#### 4.2. L. J. CALVE Ten irakatsia

Irazitasunaren kontzepturako, jarraian froga dezakegunez, J. Calvet-en *diglossies enchassées*-era jo dugu.

Fishman-ek esana baino gauzak gehienetan konplexuago agertzen dira errealitatean. Alde batetik, “diglosia” etimologiak etimologi, berbeta bi baino gehiago jar ditzake aurrez aurre, Fishmanek berak ere onartzen zuen eran. Baina ez zuen iragartzen Calvet-ek (1987) deitzen duen **diglossies enchassées**, hau da, bata besteari iraziriko diglosiak, herrialde deskolonizatuetan eta Euskal Herrian aurki ditzakegunak. Tanzanian, esate baterako, bada, lehenengo, diglosia kolonialismotik etorririko ingelesaren artekoa eta hizkuntza nazionalaren artekoa, zeina ez baita populazioaren gutxiengo baten ama hizkuntza baizik, eta gero swahili-aren eta gainerako berbeta afrikarren artean. Hots, ingelesa Tanzanian forma “altua” da swahiliren aurrean, zein bera ere baita forma “jasoa” beste berbeta batzuen aurrean: “diglossies enchassées”, beraz. Gure egoeran, baina, hizkuntza bakarraren barruan dihardugunez, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia elkarri eraginez ari dira osotzen, bilbatzen.

Fergusonek diglosiarako hartutako definizioa, hots, ematen diren formen arteko ahaidetasun genetikoa dela eta, Fishman-ek ohartarazi zuenez, mugatua da oso. Eta horrek arazo gehigarria sortzen du: bereizi egin behar da diglosia berbeta estandarren eta bere dialektoen artean. Mundu guztia dago jakitun badela ingelesa egiteko era bat sozialki onartua, eta berbakera horren zenbait ahoskerak –Londreseko “cockney” ahoskera adibidez, batez ere *h* aspiratuaren erabilera okerrarengatik– sortarazten dutela handikap soziala. Egoera hau, baina, bada zuzen-zuzen konparagarria Tanzaniakoarekin ingelesa eta swailia erkatzu? Ez dirudi, ez bada Fishman-entzat desberdintasunik sotilenak sortzen duela hainbesteko diglosia nola desberdintasunik erradikalenak. Ez da, beraz, “erreginaren” ingelesaren eta cockney-aren arteko diferentzia diglosia sortarazten duena, baizik eta desberdintasun honen erabilera soziala eta forma hauetariko bat ez da bestea baino prestigio-tsuagoa naturaz historiaz baizik

Horrela bada, diglosiaren kontzeptua erabilgarri bada hizkuntza anitzeko gizarteak definitzeko, beharrezko zaigu zehaztea, hala ere, egoera hauek harreman sozialetatik abiatuta analizatu behar direla eta ez hizkuntzetatik.

Finean, Ferguson-en tipologia –zeinek indar egiten duen diglosia egoeren “egonkortasunaz”–, ikuspegi dinamikorik eza du akats, Fishman-en ikuspegitik:

*... la typologie que nous voudrions esquisser ne peut pas se satisfaire d'une vision que nous appellerons métaphoriquement "photographique", elle devrait tenter d'intégrer une vision "cinématographique": la société est traversée par l'histoire, c'est une évidence, mais une évidence que la sociolinguistique n'a pas toujours comprise, et c'est l'un des points sur lesquels la notion de diglossie doit être modifiée. Calvet (1987: 49).*

Badira, guztiarekin ere, kasu ugari zeinetan diglosia kontzeptua hain egoki gertatzen ez den egoera elebidun egonkorrak deskribatzeko. Paraguai-n, esate baterako, banaketa klasikoa dagoela dirudi gaztelaniaren eta guaranieraren artean, kontuan hartuz Ferguson-en (1959) B eta A barietateak. Berezitasun linguistikoei dagokienez, aldiz, ez dira Ferguson-ek adierazitakoak berak. Ez B eta A formak erlazionatuta ez daudelako soilik, baizik eta, gainera, Ferguson-en kriterioaz baliatuz gramatikalki guaraniera espainiera baino askoz konplexuagoa delako.

Beste egoera aipagarri bat non Ferguson-en kontzeptuak bere balioa galtzen duen, berak aipatzen zuen Marokokoa ere bada, behar bada, gaur egunean, ezen gero eta argiago baitago A eta B barietateak daudela, Marokoko arabieran artean eta arabiera klasikoaren eta Marokokoaren artean dagoen desberdintasuna desagertzera doala baitirudi.

Hurrengo kasua okzitaniera izan daiteke. Erdi Aroan berbeta estandarra zen okzitaniera, tradizio literario joriduna, baina Frantziako nazio-estatuaren eratzeak *langue d'oil* *langue d'oci* nagusitzea suposatu zuen. Urte luzez egoera diglosikoa sortarazi zuen Probentzan, non frantsesa zen A barietatea eta probentzala B, horrela Ferguson-en tipologia osoki betez. Baina gerora, okzitaniera indarra galduz joan zen heinean egoera desberdina sortu zen.


Gure egunotan, arestian aipatu ditugun Paraguaiako elebitasuna Rubin-ek aztertu ostean, eta baita bertan aipatu ditugun Marokokoa nahiz Probentzalorena analisatu izan direnean, diglosia terminoa berdefinituz joan da; orain, atal honexen hasieran idatzi bezala, erkidego



elebidunak deskribatzeko erabiltzen da, eurretan, hiztunik gehienek berbeta biak menperatzen dituzte eta biak daude funtzionalki bereizturik bata barietate “altu” legez eta bestea “baxu” legez.

Gu, dena den, kritikak kritika, eta iritziak iritzi, hastapenetik bereetik jarraitzen gatzaizkio Ferguson-i –hurrengo atalean zehazten den eran– eta diglosia bikoitza proposatzen dugu: Diglosia (= A/B, BA/BB).

### EUSKAL DIGLOSIA IRAZIA



## 5. EUSKAL DIGLOSIA IRAZIA

### 5.1. Txillardegiren iradokizuna

AMMON-ek (1989: 237) eskolan dialektoa eta estandarra irakasteari elebitasuna deitzen badio ere:

*–The contrastive booklets advocate dialect-standard bilingualism rather than the use only of the standard–,*

egokiago deritzot, tesian dakargun hariari jarraituz Txillardegik (1990: 61) izendaturiko euskal diglosia geureganatzeari:

*Baina euskalkien aberastasuna eta ñabartasuna baliatuz, geronen EUSKAL DIGLOSIA antolatu behar dugu (oraingoan Ferguson-en adiera eman nahi diot hitz higatu eta arriskugarri horri). (...). Berariaz erabiliko dut hor “euskal diglosia” hitz bikotea. Geure endoglosia hori euskararen barruan antolatu behar baitugu, erdara kanpora aldeko funtzio hutsentzat utziz.*

Diglosia honetan erdararen funtzioa edo erdarena kanpo harremanetarako utziko genuke Txillardegiri jarraituz –egoera normalizatuan–

ez gure arteko mintzabide moduan. Hala ere, guk metodologikoki modu horretara jokatu arren, nola ukatu euskara bai espainolaren zein frantsesaren baldintzapean bizi dela? Erdararekiko gure harremana honelakoa dela: (A/B)

Orain artean eztabaidatu izan dugun Ferguson (1959) eta Fishman-en (1965) obran baieztatu da elebitasun egonkorra diglosia egoeretan baino ez dela posible, hau da, bi berbeta –gure kasuan euskalkia eta batua– funtzio argi bezain garbiz bereizturik daudenean.

Honaino atonduz etorri garen Hizkuntza-ukipenari jarraituz arrazoituz gura genuke euskal diglosia, diglosia irazia deituko duguna. Ez, edonola ere, esan barik askoz emankorrago gertatzen dela ikerketa honetarako diglosiatik jarraitzea, hizkuntza eta dialektoen arteko diferentziaz jardutea baino.

Idatziak idatzi, muga ondo bereizirik ez dago hizkuntza eta dialekto desberdinen artean. Baiezta daitekeena da, hizkuntzen arteko distantziak graduak baino ez dauzkala. Eta gradutasuna neurtu egiten da, berbeta batzuk beste batzuk baino hurbilago daude eta. Baina hizkuntzen arteko distantzia mota desberdinak daude, baita berbeten arteko ulermen modu desberdinak ere. Erraz ohartzen gara hizkuntzen ulergarritasunaren aurrean, jarrerak ez direla berdinak. Adibiderako, bizkaierakoa donostiarragaz euskara batuan egiten saiatuko da, nahiz eta hura gipuzkeraz ari, ezen bizkaierakoa ez da seguru etxekoa balerabil hark ulertuko liokeen eta, gainera, ez lebilke jokabide zuzenean bere ustez. Donostiarrak, aldiz, berea dago solaskideak zalantza barik ulertuko duelakoan. Bitzuen arteko jarrera eta jokabide horrekin, bizkaiera egoera diglosiko garbian mugitzen da. Ez da, beraz, nahasi beharko elkarren arteko ulergarritasuna, elkarren arteko errealtate psikolinguistikoaz.


Elkarren arteko ulergarritasuna bada hizkuntza dialektotik bereizteko, zein unetan pasatuko da batetik bestera? Ez gara ataka hau neurtzeko tresneriaren jabe, izango bagina itaun guztiz argigarriak luzatuko genituzke: Zein da distantzia berbeta eta dialektoaren artekoa? Guk aukera metodologikoa egin dugunez, oraingoz esandakora mugatuko gara.

Bai Fishman-ek proposatutako esparruaren ikuspuntuak zein Ferguson-ek proposaturiko diglosia nozioak ikuspegi zabala eskatzen dute, hau da, arau sozialak. Zelan darabiltzate arauok hiztunek eta entzuleek? Zalantzazkoak dira ala tinkoak?

## 5.2. Hiztunaren aukeraketa binarioa

Guk geuretzako, aukeraketa linguistikoa ikuspegi mikrosozialetik bideratzen dugunez, norbanakoaren aukeraketen ikuspegitik, erabakietako zuhaitza hartu dugu eredutzat.

Eredu honetan hiztuna aukeraketa binariodun multzo mailakatua-  
ren aurrean aurkitzen da, eta zuhaitz forman errepresenta daiteke. Adi-  
neko euskalduna eredutzat harturik, aukeraketa linguistikoaren proze-  
sua honela gera liteke:



Zuhaitz honetan etxekoa jartzen dugun adarrean, herrikoa edo az-  
pieuskalkia ere modu berebean jar genezake, ezen hemen eremu geo-  
grafiko jakineko berbakeraz ari baikara, baina, horrez gain, adierazi be-  
harra dago eskolarakoan etxekoa edo herrikoa ere batuak izango direla,  
inork ez du eskolan ama inongoren berbetarik ikasten eta.

Hiztunak hizkera aukeratzekoan faktore desberdinek daukate  
eragina, bakoitzaren jatorriko euskalkiak, erabili beharreko estiloak  
nahiz elkarrizketako gaiak. Erabakietarako zuhaitzaren ereduak dau-  
kan abantailarik handiena deskribapenerako argitasuna da, nahiz eta  
malgutasunik eza ere nabarian egon. Zeren egoera ugaritan berbakera  
bat baino gehiago baita posible, eta horrexegatik ohar gaitzke zelan  
batzuetan hiztunek egiten dituzten aukerak ez zeuden zuhaitz eredu-  
an

aurreikusita, eta, beraz, badirudi zuhaitzaren ereduak egoera berean berbakera bi erabiltzea galarazten duela, hots, alternantzia linguistikoa.

Arrazoi horrexegatik Sankoff-ek (1972) zuhaitzaren eredu determinista eta eredu interpretakorrago baten arteko konbinaketa proposatu zuen. Jo dezagun zuhaitzaren ereduak aukeraketa normala baino ez duela eskaintzen, hots, espero genuen aukeraketa eta egoera bakoitzean ez markatua. Kasu askotan, aldiz, hiztunak aukera dauka hautatze markatua sartzeko, horrela asmo bereziren bat adieraziz, esate baterako ironia, estilo aldaketa edo halako zoezer.

Anitz kasutan ezinezkoa da aukera ez markatua determinatzea –badirelako kontuan hartu behar diren harreman interpersoneko aspektuak– ezen euskara estandarra, euskalki literarioa eta lekuan lekukoa testu edo kontestu batzuetan hirurak sistematikoki erabiltzen baitira. Hala ere, gure xedea irakaskuntza aztertzea denez, egoera-faktoreak hartuko ditugu oinarritzat, inplikaturako hizkerak –batua, euskalki literarioa, azpieuskalkia, etxekoa aintzat hartuta, jakina–.

Badakigu, dena dela, *Erabakietarako zuhaitzari* lotzen bagatzaizkio ere, psikologia sozialaren antzekotasunaren erakarpen teoriagatik, norbanakoak ebaluatze hobea lor dezakeela hiztun eta solaskidearen arteko desberdintasun kopurua urrituz. Ikerketa horien arabera, solaskideak bata besteari egokitzea moldaketa deitu izan da. Moldaketa era bati konbergentzia deritzagu: hiztunak solaskideak ezagutu eta gogo-koago duen berbeta darabil. Adibidez, bizkaierakoa gipuzkerakoari edo lapurdikoari euskara batuaz mintzatuko zaio, hark honen euskalkia oso ondo ulertzen duen arren. Moldaketako bigarren era divergentzia da: hiztuna entzulearekin distantziarik handiena sortzen ahalegintzen da, horretarako erabilera linguistikoan desberdintasunak handiagotuz.

Giles-ek (1973) moldaketa linguistikoaren prozesua ilustratzeko Dell Hymes-en adibide bat jartzen du, guk euskarari aplikatu dezakeguna: irakasleak bizkaierako ikasleari etxeko euskarari egiten badiu Xabier Amurizak bertsoetan bizkaieraz egiteagatik entzun izan duena entzun genezake<sup>9</sup>:

<sup>9</sup> Nik neuk tesirako eginiko galdeketa jasoa.

–*ba, geure moduen eitten jok!*,

meritua kenduz. Neska edo mutilaren jarrera izan daiteke:

–*Irakasleak uste du nik ez dakidala batua.*

Moldaketa, aldiz, honelako sekuentzian bidera genezake: irakasleak, elkar ezagutzeko unean, lehenago batua erabiliko luke –horretara ikasleak erakuts dezake euskara batuan jantzia dela–, eta ostean, kide-tasuna erakusteko bizkaierara aldatuko litzateke.

Ildo beretik aritu dira jorratzen aukeraketa linguistikoa, nahiz eta beste ikuspegi batetik Gumperz eta kideak, igorlearen eta hartzailearen ulertze komunean zentratuz. Forma linguistikoek ez daukate berezko esangura sozialik, interakzioan esanahiarekin bat datozenean baino.

Postetxean, esate baterako, testuinguru jakina izanik, egoera sozial desberdinak dira posible; partaideek erabakiko dute eurentariko zein den baliozko hiztunen edo une konkretuaren arabera. Ez baita egoera bera leihatilako funtzionarioagazko solasa edo bertan topatutako lagunagazkoa.

Hori guztiori dela eta, oso beharrezko gertatzen da espezializazio funtzionala hementxe gogoan hartzea.

Berbetaren erabilerak sistema linguistikoko zenbait funtzio inplikatzen ditu. Jakobson eta Halliday-ren ikerketetan oinarrituta Mühläusler-ek (1981) sei funtzio bereizten ditu:

–Ezagutze-funtzioa edo erreferentzi-funtzioa: honetan, errealitate estralinguistikoaren bitartez transmititzen da informazioa. Hizkuntza ezagutzeak beti suposatzen du funtzio hau. Berau da hizkuntzaren funtziorik nagusien eta garrantzitsuena. Zientzia hizkuntza eta liburuak dira funtzio hau bikainen betetzen dutenak.

– Funtzio adierazkorra. Igorlearen barne egoera azaltzera jotzen du.

– Funtzio konatiboa. Jasotzaileari begiratzen dio, solaskideari. Hartzailea zerbait egitera mugiarazteko da. Egunetik egunera garrantzi handiagoa hartuz doan funtzioa da. Komunikabideetako iragarkiak di-relakoak, egunkarietako titularrik handienek... batez ere horixe bilatzen dute: jendea honetara edo hartara eramatea.

– Funtzio fatikoa. Kanalarekin du zerikusia, edo kanalarekin berekin baino igorle eta hartzailearen arteko kontaktuarekin. Funtzio hau betetzen du hizkuntzak komunikazioaren kontaktu hori iraunarazten, egiaztatzen edo indartzen denean.


– Funtzio metalinguistikoa. Kodeari begiratzen dio, hots, hizkuntzari berari. Honen bidez hizkuntzako zeinuak erabiltzeko arauen babilioa argitzen da.

– Funtzio poetikoa. Mezua da bere arduraren, mezuaren forma, mezua igortzeko era. Literatura guztia –artearen aldetik– funtzio honetan oinarritzen da.

Inoiz edo behin hizkuntzak funtzio bakarra bete arren, ohikoena zenbait funtzio batera betetzea da.

Edonola ere, zer zerikusi daukate funtziook aukeraketa linguistikoarekin? Erraza da erantzuna, berbeta desberdinek funtzio desberdinak bete ditzaketela hitzaren elebidunen bizitzan. Denok jabetzen gara etxeko euskararen ia berez sortzen ditugun hitzaren jokoaren trebesiaz zein euskara batuan aritzen gareneko moldaiztasunaz. Edo –funtzio metalinguistikoa– bizkaieran eguneroko zaigun “Ez daukatzut” zelan arraio esan eta idatzi beharko genukeen euskara batuan. Hizkuntzaren funtziook, gainera, gutxi-asko, esparru desberdinekin bat datoz: erakundeetan, adibidez, funtzio erreferentziala da nagusi, formala; familiar, oster, funtzio poetikoa, intimoa. Esparru eta funtzioen arteko paralelismoa ez da nonbait perfektua ezen funtzioak esparruak baino askoz abstraktuagoak dira eta.

Dakusagun aukeraketa linguistikoa gauzatzen den moduari buruzko errepresentazio abstraktua honela damaigute Appel-ek eta Muysken-ek (1996: 49).



Funtzio kontzeptuak ikuspegi determinista lotzen du interakzioan eta norbanakoarengan zentratutako hurbilketa.

Edozelan ere, bilinguismo kasu guztiak ezin analiza daitezke espezializazio funtzionalaren bitartez. Gerta daitezke egoerak zeinetan berbeta bi erabiltzen diren eta zeinek euren funtzioak argi bereizturik ez dauzkaten.

Guk irakaskuntzan kokatuko dugu zuhaitz honetako aukeraketa linguistikoen aplikazioa eta berbeta bi edo gehiagoren erabilerak arau konkretuez baliatzea eskatzen duela baieztatuko dugu, baita berbeta horien espezializazio funtzionala, arloa argitzeko, aukeraketa linguistikoaren alde soziologikoak izan behar ditugula kontuan ere. Inplikaturatua agertzen diren berbeten funtzio banaketa aztertzeko –euren artean aukeratzea–, ikuspegi desberdinak eskaintzen zaizkigu:

Lehen ikuspegiak esparrua eta diglosia kontzeptuez baliaturik formulatzen dira. Deterministatzat hartzen dira. Hiztunek errealitate soziala zelan eraiki, interpretatu eta aktiboki aldatzen duten baino arau sozial konkretuetan egiten du indar. Esparruak organizazio soziala jasotzen du oinarri kontzeptual bezala. Hitzun bik berbeta bi darabiltzatenean, jakina da ez dituztela bitzuak egoera guztietan erabiltzen: egoera batzuetan bat erabiliko dute, eta beste batzuetan, bestea. Honetan –gorago esan bezala–, Joshua Fishman-i (1968) jarraitzen gatzazkio *Bilingualism in the Barrio*. Fishman-entzako (1965) abiapuntu itauna izan zen: nor mintzatzen da zein berbetatan, norekin eta noiz?

Aukeraketa linguistikoan eragina izan dezaketen faktoreak antizak izanik, posibilitate askoren menpekoak, eta beraz, kontrolagaitzak, Fishman-ek horretarako esparruaren nozioa asmatu zuen, zerbait abstraktuago moduan: egoera berezitu edo testuinguru multzo bat gai zentral baten inguruan, zeinek egituratzen duen hiztunak egoera horietaz daukan pertzepzioa. Horrela, udal bulegora egiten den bisitak edo medikuarenera egiten denak izaera beretsua duten legez, esparru instituzionalera mugatuko genituzke, ezen aukeraketa linguistiko jakina eskaintzen baitute.

Diglosia nozioak abiapuntu honetara dakartzanak tarteko diren berbeten berezitasunak dira. Elebidunaren portaera, egoeraren ikuspuntutik ezeze inplikaturiko hizkuntzen ikuspegitik ere beha daiteke. Hauxe izan zen Ferguson-ek hartu zuen iritzia lehenetariko artikulu baten, egun klasikotzat jotzen denean, eta zeinetan diglosiaren nozioa garatzen duen. (1959). Haren diglosiaren definizioa, esan bezala, hiztun komunitate baten den sistema linguistiko bereko bi barietateri zegokien: barietate formal bat, A (gora) deitua, eta forma herritar edo lekuan lekukoa B (behera) deitua.

Guk euskal diglosiaren definitzean Fergusoni jarraitzen gatzaitz-  
kio, nahiz eta gorago aipatu moduan zenbait kasutan Ferguson-en di-  
glosia kontzeptua ez hain egoki suertatu. Gura duguna da barietate ba-  
koitzak hiztun komunitatean bere funtzioak edukitzea, hala euskara  
batuak, nola euskalki literarioek eta etxeko mailakoak. Oraindik baina  
Euskal Herrian ez dugu kodifikatu zein funtziotarako erabiliko dugun  
euskara batua –gehiena batuaz erabaki den arren–, zeinetarako euskal-  
ki literarioa eta zeinetarako lekuan lekukoa. Beldur garela dirudi eta  
errazago da gaur artekoan *Laissez faire, laissez passer* praktikatzea.  
Alde batetik, nik uste euskara estandarren ulertze modua aldatu egin  
behar delako, eta bestetik, bizkaiera literarioari –edo kasurako zubere-  
rari berdintsu- nahiz lekuan lekukoari dagokien funtzio, esparrua izen-  
datu behar zaielako. Honetarako Ferguson-ek zedarrituriko bidea geu-  
re gaurko egoerara aplikatzea falta zaigu. Orduan ulertuko genituzke  
bizkaieraren prestigio galtzea zein estandarizazio ahula nahiz irakas-  
kuntzarako zalantzak. Dagoen-dagoenean eutsiz, dena dela, ez da bi-  
deratuko. Aski litzateke ikustea bizkaiera telebistan. Gehienetan guk  
arestian jarritako zuhaitzeko bizkaiera literarioa eta etxekoa bereizten  
ez direnez, hiztuna bera nahiz entzulea euskara batu estandarizatuaren  
pareko esparruan, bizkaiera etxe-etxekoarekin aurkitzen da, fonetismo  
eta guztizkoagaz, parekatu beharrean, etxekoa batu kolokialagaz eta  
bizkaiera literarioa batu jasoaz. Pertsona kargudun edo ardura publi-  
kodun askok ez du aintzat hartzen Fishman-en esparrua, batuaren to-  
kia euskalkikoz betez edo euskalkikoa batukoz.

Diglosia irazia: etxeko aldaera azpieuskalkian, azpieuskalkia eus-  
kalki literarioan, eta euskalki literarioa euskara batuan txertatzean da-  
tza. Hau honela, Eibarko euskara bizkaierarekin lehenengo, gero ba-  
tuarekin. Ez, gure ustez, batutik eibarrera, ez eibarreratik batura  
iraganez bizkaieraren katea begia hautsiz. Irakaskuntzan, beraz, nekez  
alfabeta daiteke Eibarrerako hiztuna bizkaiera saihesturik. Eta horreta-  
rako, jakina, adibide soila baino ez bada ere, bizkaierako aditz paradig-  
metan 3. pertsonarako (z)eban idaztera pasatu beharko genuke, gaur  
arteko eban bideraturik. Gainera, hala bizkaieraren historiari nola geo-  
grafiari zuzenago erantzungo genieke, ezen bizkaieraren Mendebalde-  
an bertan ere egin zeuen egunerokoa baitugu.

Bestalde, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, betirik gerta-  
tu da esparru ugaritan –batez ere ahozkoan–, baina euskalki literarioa  
jotzen dugunean, euskalkiko forma hutsez jardun gura izatea, teoriko-



ki kontraesana izateaz gain –euskalkia arestian baieztatu moduan heteronoma delako eta diglosikoa– euskara murriztuz jokatzeari izango litzateke, ezen euskara batuak hogeita hamar urtez modernizazioa eza-gutzean eraikitako hizkuntza molde asko galaraziko bailitzateke. Euskara batuak, bere aldetik, euskalkiko aberastasunak bereganatzea diglosia iraziaren koherentzian datza, batzea sakabanaturiko hizkuntzatik biltzea baita.

Azken finean, euskalkia eta euskara batuak erkatzean ez da kontua bata eta bestea abstraktuan planteaturik egitea, baizik eta egoera konkretuan bata eta bestea konparaturik. Frantsesa eta ingelesa prestigio handiko hizkuntza nazional bi dira, baina Kanadan ezin esan daiteke maila berean daudenik.

Euskara batutik euskalkirako ubideak zabalik eduki behar dira.

Batuak bizkaieratik gero eta gehiago edaten duen estandarra bizkaieratuago agertuko da; gipuzkeratik hartzen bada gauza bera.

Jar gaitezen adibide honen aurrean:

Euskara batu, euskalki literario eta azpieuskalkiaren arteko kodearen barruko zirkulazioan arazo eztabaidagarria da berba beraren idazkera desberdinetatik datorrena. Euskaltzindiak *atzamar* barba *h* barik idazteko arautzen du euskara batuan: (*Atzamar bizk* batez ere *h. atzapar*). Lehen itauna da, ea berba hori nork erabiltzeko den. *Bizk* jartzen bada eta, gainera, *h* (*hobe*) *atzapar*, euskara batuan ez du biderik egingo. Eta erabiliko balitz jatorrian, bizkaieran, daukan zentzutik kanpo, bizkaieraz *atzamar hatz* = *eri* da eta kito. Beraz, aukera da, edo batuan erabiliko litzatekeela –Hiztegi Batuaren arabera– oker, edo bizkaiera dakienak erabiliko lukeela euskara batuan Euskaltzaindiak onartzen ez dion zentzuan. Jokaera hori proposatzen dugun diglosia iraziaren aurka doa, bizkaierako, euskalkiko berba estandarrean txertatzea baita naturala. Baina are kontraesankorragoa da bizkaiera literarioan idaztean. Zilegi bazait –eta Euskal Diglosian bazait– bizkaierazko testu batera beste euskalki bateko, hots, euskara estandarreko berba bat aldatzea, aurki naiteke, lerro baten *atzamar* – *h* barik– idazten dudala, mendealdeko zentzuan, eta hurrengoan *hatz h*-rekin:

*Hatzarekin egin dau hazka azkura eukan eta! Baina hatz bategaz, ez atzamar guztiekaz.*

Ezen *hatz*, *atzamar* bezain bizkaiera baita. Edo zelan transkribatu behar dut minidiskean grabaturiko testu hau, Maria Arrietak<sup>10</sup> bizkaiera baino ez zekien amamagatik esaten duena:

*Atz-biatzak zuzen eukittia da printzipal*

Ze ume motza! entzutean errepikatu ohi zuena:

*Itxizu bakian, buruz sano izetia..., atz-biatzak sano eukittia da printzipal.*

Zeren *atz* horren azalpen modura berehala dino amak *atzamar*. Azken baten, berba berak idazkera bi eduki ditzakeela onartzen gabiltza, *hatzetik* baitatoz, *atzamar*, *hazka egin*, *azkordin*.

Alderantziz ere gerta dakiguke bizkaieraz *euki* idazten badut eta berehalakoan *edukia*. Zentzu honetan, euskara batuak sortutako termino estandarrak bere horretan mantentzea proposatzen dugu. Beraz, *edukia*, baina *euki* manten daitezke, nahiz eta irakaskuntzako praktikak irakatsi didan DLHn *euki* ikasi duenak, selektibitatean ere *euki dot*, akats eta guzti idazten segitzen duela.

Guk eskolaren esparrua finkatu gura dugu, eta ezinbestean, horretara mugatuko gara, gainerako esparruak honenbestez aipatukotzat utzirik.

---

<sup>10</sup> Mungian, 2000-01-16an nik neuk jasoa.

II. ATALA

---

**IKASKETA ESANGURATSUA  
HEZKUNTZA PSIKOLOGIAN**

---

## 1. AUSUBEL-EN ETA BERONEN LANKIDEEN FORMULAZIOA

Zalantza barik egin daitekeen baieztapena dela uste dugu, apendizaiaren aspektu orokorrak direla psikologoaren intereseko eta ikasgela-ko apendizaiaren, edo testuinguru sozialaren barruko ikasketa-gai baten apendizaiaren kontzienteki gidatua dela, hezkuntzako psikologoaren arlo berezitua. Horrekin azaldu nahi dugu, hezkuntzako psikologiaren ikasgaia artez-arte iradoki daitekeela irakasleak ikasgelan aurrez aurre topatu ohi dituen arazoetatik.

Badakigu, bestalde, apendizaiaren teoria egokia ez dela baldintza nahikorik, inola ere, irakaskuntza hobetzeko, zeren askotan ezagutu dezakegu eritasun baten kausa nahiz eta gero gai izan ez sendabidea aurkitzeko. Hala ere, David P. Ausubelek eta jartzen diguten adibidea aintzat hartuz gero balio handiko dela frogatuko genuke:

*Tuberkulosiaren kausa mikroorganismo bat zela jakitearekin ez ziren berehalakoan ez sendaketa, ezta prebentzio bideak erdietsi, baina horrek txertoekin saiokak egitea ahalbideratu zuen, baita antisepsia, kuarentena, kimioterapiak, zeinek beste gaixo kutsakor batzuetan garaipena ekarria zuten.* Ausubel (1993: 28).

Hezkuntzan, psikologiaren aurrerakuntzek, estatistikarenek eta soziologiarenek, eragin sakona izan dute.

Gaur egunean, psikopedagogiako enfoke eta ulerkeraren nahiko desberdinetatik begiratuta ere, bada adostasuna eskolako hezkuntzarako

elementu klabeen artean aprendizaiaren esanguratsuen garrantzia azpimarkatzerakoan. Puntu honetan indar handia egiten da, hots, ikasketa esanguratsuek baino ez dutela erdiesten ikasleen garapen pertsonala.

Guk hemen jorratuko ez ditugun arren, ikasketa esanguratsuen azpian diren ideietarik askok badituzte aurrekariak hezkuntzako pentsamenduaren historian.

Kritikak kritika, ikasketa esanguratsuen kontzeptuak –hausnarketa eta analisirako gaitasun handiko tresna den aldetik– balio heuristikoko itzela dauka bere baitan.

Ausubelek eta bere lankideek zuzentzen dituzten formulazioek ikuspegi aldaketa suposatzen dute. Oraingoan ez da indar egiten ikaslearen gaitasun intelektualean –zuzenean edo zeharka bere garapen mailaz loturik–, baizik eta aurretiko ezagupenen jabetzan. Ulerkera tradizionalan eta ohikoan, ikaslearen aprendizaiaren zuzen-zuzenean zegoen irakaslearen eraginaren eta erabilitako metodologiaren pentzuan. Oraingoan, pentsatzeko prozesuetan eta arteragoko ezagupenetan jartzen da enfokea.

Hala ere, Wittrock-ek (1986) berraztertu duenez, aurretiko ezagupenekin batera, badira prozesu psikologikoak irakaskuntza eta ikasketako emaitzen artean eragina dutenak: ikasleak eskolaren, irakaslearen eta beronen jokabideen aurrean darakusan ikusmoldea; bere jarrerak, portaera, usteak eta abar:

*Hezkuntza psikologia guztia printzipio bakarrean bildu behar banu, honelaxe enuntziatuko nuke: aprendizaiaren eraginik handiena duen faktorea, ikasleak badakiena da. Iker bedi hori eta irakats dadila kontsekuenteki.* Ausubel (1993: 1).

Ausubel-ek baieztapen hori aprendizaiaren esanguratsuen barruan egiten du. Aprendizaiaren esanguratsuan esanahi berriak jasotzeaz mintzotzen gara eta horretarako auresuposatu egiten da aprendizaiaren esanguratsurako joera, baita aprendizaiaren zeregin potentzialki esanguratsua ere –hots, zeregin bat erlazionaturik egon daitekeena modu substantzial eta ez arbitrarioan ikasleak jadanik ezagutzen duenarekin–. Bestela esanik, ikasle batentzat erreferente jakin batek benetan esan gura badu zeozer, orduan deitzen dugu esanguratsua.

## 2. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA

Hormasoin horrextan finkaturik arrazoitzen dugu Labayru Ikas-tegiak 1970.ean hasita plazaratu izan duen DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA. Gure tesian ikasle euskaldunak dakienetik ez dakienera. Baina gradu bat gehiagorekin, alegia, lelo horretan, dakigun horretan bizkaiera literariotik abiatzen da euskara batura heltzeko. Gurean, osera, sakonera pelagikoetaraino goaz –etxeko euskararaino– inoiz sail abisaletaraino ere bai, gaurdainokoan gramatika deskriptiboaren argiak ailegatu ez diren guneetaraino. Ez ezelan bere gure ikasgelako sareetan arkaismoak, filologismoak ontziratzeko, erabilian bizkaieraz darabil-tzagun aberastasunak bizkaiera literariora eta handik euskara estandar-rera zabaltzeko baino. Besterik eta bestela gertatuko zen, baldin gure askaziko idazleek sarriago, gehiago eta gorago idatzi izan baligute.

Lehen urratsa –ikasleak ikasketa esanguratsua gauzatzeko– honetan datza, hasierako eskemek ikasketako eduki berriekiko duten oreka apurtzean. Zeregin hori ikaslearen eskemetatik oso urruti badago edo zeregin hori beretzat hartzen ez badu, orduan ikasle horrek ezin eskain diezaioke inolako esangurarik eta irakaskuntza/ikasketa prozesua blokeatu egiten da. Hala eta guzti, egoera behartu egiten bada, ondoriorik probableena errepikapenezko aprendizai hutsa izango da. Alderantziz, zeregin hori eskuan dituen eskemakaz osoki interpretatzea lortzen bada, orduan ere ikasketak blokeaturik geratuko dira. Ikaslearen hasierako oreka apurtu beharrak irakaskuntzako metodologiaren kuestio klabeetara garamatza: motibazioa, zereginaren aurkezte egokia, eta abar.

Edonola ere, ez da nahikoa ikaslea desoreka dadin erdiestea, horren kontzientzia hartzea eta desoreka egoera gainditzeko motibatuta aurkitzea. Hau guztiau lehen urratsa baino ez da ikasketa esanguratsuranzko bidean. Xede horretara iristeko, beharrezko da gainera berrorka dadin, eskemak egokiro moldatuz edo berriak eraikita. Berrorkatzea, jakina denez, ez da automatikoa, ez beharrezkoa ezagupen eskemei dagokienean, gerta litekeena edo ez baizik, eta, orduan, urrunagora edo hurbilagora heltzea aprendizai aktibitateen arabera izango da, hots, laguntza pedagogikoaren arabera.

Hau da psikologiak eskolako hezkuntzarako eskain ditzakeen ekarrietarik bat, ikaslearen ezagutza-eskemen modifikazioa, Piaget-en (1975) egitura kognitiboen orekatze eredutik jaso.

Psikologiaren eskola-hezkuntzarako ekarria oso konplexua da eta tesi honetan ezin jorra genezake trataera zuzen batek eskatuko lukeen xehetasunez. Gure helburua euskalkia ikasgelan lantzeko beharrezko diren zenbait oinarrizko ekarri nabarmentzea da. Bagenu gaur egunean Hezkuntzaren Psikologiako marko teoriko bateratu eta koherentea, ez ginateke hemengo aukeraketara mugatuko. Hori hola izanik, baina, ezin ahaztuko dugu Hilgard-ek dioskuna, alegia:

*Irakaskuntza arloko praktika zientifikoek ez daukatela zertan egon zain aprendizaiako teorikoen artean adostasuna gerta dadin arte.* Ausubelek (1993:28).

Egoera horretan, hala ere, ez gatzaizkio teoria psikologiko bakarri jarraiki. Gurago izan dugu elkarren artean kontradiktorio ez den teoria multzoa erabili, nolabait zentzu zabalean enfoke kognitibo deritzana. Euren artean garrantzia damaiegu J. Piaget-en teoria genetikoari eta bere Ginebrako eskolako lankideei; Vygotsky, Luria eta Leontiev-en aktibitatearen teoriari; M. Cole eta lankideen Psikologia Kulturala, eta, batez ere, D.P. Ausubelen berbazko ikasketa esanguratsuen teoria.

Batera darabiltzaten printzipioak dira:

1. Garapen estadio handi bakoitzari –0-2; 2-6/7; 7-10/11; 11-14/15 urteetakoari–, adimen antolaketako forma bat dagokio, zein esperientziatik abiatuta, aprendizaiak eta rasonatze posibilitate jakinetan azaltzen den.

2. Ausubelek (1977) dioenez, esperientzia edukatibo formalen eragina ikaslearen hazte pertsonalean ere aurretiko ezagupenek baldintzatuta dago. Ezagupenok, era berean, izan daitezke aurretiko esperientzia edukatibo bateko emaitza –dela eskolako edo ez– edo eta aprendizaiak espontaneoarena. Era berean, aprendizaiako egoera berrien eskarietara gehiago edo gutxiago doitu egon daitezke eta zuzentasun handiago edo txikerragoko izan. Dena dela, zalantzarik ez dagoena da, eskola-ikasketa berria hasten duen ikaslea, hasten dela abiatu aurreko esperientzian eraikitako ezagupen, errepresentazio, ulerkerak eta kontzeptuetatik eta erabiltzen dituela irakurketako tresna eta interpretazioko moduan aprendizaiaren emaitza baldintzatuz.

3. Gai hau Oinarrizko Curriculum Diseinuaren atalean garanduko badugu ere, oraindik baieztatu behar da zein beharrezko gertatzen den, hala ikaslearen garapen-operatorio maila nola aurretiko ezagu-

penak aintzat hartzea. Ezen horiexen pentzuan baitago ikaslearen ikasteko zein jokatzeko gaitasuna, zein, beste era batera, ikasle horren hazkunde pertsonalaren adierazgarri ere baita. Eskolako hezkuntza-ekimenak ikaslearen hazkunde pertsonala arlo biotan garatzea du helburu.

4. Bereizi beharrekoa da ikaslea bere kabuz egin eta ikasteko gai dena –arestion aipaturiko faktore bion ondorio– eta zer egiteko eta ikasteko gauza den gainerako pertsonen lankidetzaz zein laguntzaren bitartez, dela behatuz, imitatuta edo eurengandiko jarraibideei so eginik. Bi puntu hauen arteko tartea –zeinari Vygotsky-k (1977 eta 1979) Garapen Hurbileko Gunea deitzen dion, kokatzen delako garapen eraginkorreko mailaren artean eta garapen potentzialekoaren artean– zedarritzen du hezkuntza ekimenaren eraginkortasunerako arloa. Horrela, hasieretan besteen laguntzaz baino egin eta ikasteko gauza ez den ikaslea, gai izango da geroago bakarrean egin eta ikasteko. Garapena, ikasketa eta irakaskuntza elkarren artean iraziriko hiru elementu dira: garapen eraginkorreko mailak baldintzatzen ditu ikasleak irakaskuntzari esker gauza ditzakeen ikasketa posibleak, baina ikasketak, era berean, hel daitezke –bideratzen dituen aprendizaien bidez– ikaslearen garapen eraginkorreko maila moldatzen. Hala da ze, irakaskuntza eraginkorra da ikaslearen garapen mailatik abiatzen dena, baina ez bertara egokitzeke, baizik eta Garapen Hurbileko Gunearen bitartez aurrerazteko, hedatzeko eta sortarazteko, epe baten, Garapen Hurbileko Gune berriak.

5. Gakoa ez datza eskolako aprendizaiak edukiei edo prozesuei eskaini behar dien lehentasunean, esanguratsua izan dadin ziurtatzean baino. Ikasketa esanguratsuaren eta ikasketa errepikakorraren arteko bereizketa –sortu ere eskolan aprendizaiako teoria eraikitzeke ahaleginetako giroan sortua Ausubel (1968 eta 1973)– aprendizaiako material berriaren eta ikaslearen aurretiko ezagupenen arteko loturari dagokio: baldin aprendizaiako material berria modu substantiboan eta ez arbitrarioan erlazionatzen bada ikasleak badakienagaz, hau da, bere ezastruktura kognoszitibora asimilatzen bada, ikasketa esanguratsuaren aurrean aurkitzen gara; oster, ikaslea memorizatzean gelditzen bada –aurretiko ezagutzekin erlazionatu barik– ikasketa errepikakorraren aitzinean gaude, hots, memoristiko edo mekanikoaren aurrean.

Ikasketa esanguratsua gauzatuz, ikasleak esangurak dituen errealitatea eraikitzen du. Ikaslearen hazkunde pertsonalaren gaineko eragina gero eta esanguratsuago izan, orduan eta handiagoa gertatuko da eragi-



na, hau da, gero eta esangura gehiago eraikitzen lagundu, orduan eta eragin handiagoa. Beraz, benetan garrantzitsua dena da eskolako aprendizaiak –kontzeptuena, prozesuena, baloreena– esanguratsua izatea.

Ohar gaitzen ikaslearen ikasketa esanguratsuan aurretiko ezagupenak jokatzeko duen funtzio nabarmenaz. Benetan ere Ausubel eta Robinson-ek diotenez:

*Aprendizaiaren gainean eraginik garrantzitsuenak duen faktorea, ikasleak jadanik badaukan ezagutzen kantitatea, argitasuna eta antolamendua da. Hauak ezagutzok daborduko ikasketaren abiapuntuan presente direnak –gertaera, kontzeptu, erlazio, teoria eta beste datu batzuk jatorri ez pertzeptibokoak osotua– eta ikasleak uneoro eskura dituenak osotzen dute estruktura kognoszitiboa. Coll (1992: 39)*

6. Ikasketa esanguratsua izan dadin, baldintza bikote hau bete behar da. Lehenengo, edukiak potentzialki esanguratsu izan behar du, bai bere barne egituraren ikuspuntuan –esanguratasun logikoa: ez du ez arbitrario ez nahasia izan behar–, baita bere asimilazio posiblearen ikuspuntuan ere –esanguratasun psikologikoa: ikaslearen estruktura kognoszitiboa elementu pertinente eta erlazioagarriak egon behar dute–. Bigarren, esanguratsuki ikastearen aldeko jarrera eduki behar da, hau da, ikasleak motibatuta egon behar du ikasten duena badakienarekin erlazioan jartzeko. Bigarren baldintza hau alde motibazionalen erabateko garrantzia azpimarkatzeko da. Nahiz eta aprendizaiako materiala potentzialki esanguratsua izan, logikoki eta psikologikoki, ikasleak errepikakorki memorizatzeko joera badauka –askotan ahalegin txikiagoa eta erosoagoa da hala egitea– emaitzek esangura gabeak suertatuko dira eta hezkuntzarako balio urria gordeko dute. Halaber, aprendizaiaren esanguratasun handiago edo txikiagoa, neurri handian, esanguratsuki ikaste horretarako indarraren pentzuan aurkituko da: ikaslea konforma daiteke ezagutza lausotu eta ilunskak jasotzeaz, edo, alderantziz, saia daiteke esanahi doituak eraikitzeko; konforma daiteke erlazio puntuala ezartzeaz edo ahalegin daiteke bere egitura kognoszitiboko elementu posible gehienak aprendizaiako material berrian integratzen. Alderantziz, ez daiteke ahaztu, esanguratsuki ikastearen aldeko motibazioa ez dela gauza baldintza hau betetzen ez bada, hots, aprendizaiaren edukia alderdi logikoan zein psikologikoan potentzialki esanguratsua izatea.

Ikaslearen esanguratsuki ikastearen aldeko jarrera lortze bidean, irakaslearen parte hartzea faktore erabakigarria da. Urteetan irakaskuntzan gabiltzanok –geu ere halaxe hezi baikaituzte– badaukagu halako kontzientzia txarra baino kontzientzia kezkatia ikasle ona eta txarrari trataera bera eman ote diegun. Ikasleek eta irakasleek modu jakin baten ikusten dugu elkar, baina ez da hori bakarrik, ezpada espero izaten dela besteen portaera horrelakoxea izan dadin, hau da, ikusiak diren bezala. Horri espektatiben fenomenoak deitu izan zaio.

Irakasleek eurengandik espero dutenaren araberrako trataera berezitu ematen diete ikasleei. Badirudi irakasleok uste dugula gure eragina eta kontrola handiagoa dela ikasle ontzat dauzkagunengan. Ikasle on garaipenak barruko kausen eraginei egozten dizkiegu (gaitasuna kasurako) eta porrotak kanpoko faktoreei, egoerakoei (zereginaren berezko zailtasuna). Ostera, ikaslea hain ona ez denean, euren porrota barruko kausei egozten diegu (gaitasun apala, adibidez) eta garaipenak kanpoko kausei, zorteari, esate baterako edo zereginaren erraztasunari.

Jokabide horrek baditu bere ondorioak edo izan ditzake. Irakasle batek kontsideratzen badu ikaslearen porrota –ikasle onarena, zeinaren posibilitateena konfidantza duen– dela egun horretan despistatuta dagoelako edo dagokion zeregina nahasiegia dela, orduan parte har dezake gehiago laguntzeko, gogo emateko, eskuarteko zeregina leuntzeko. Parte hartze horrek zerbait atzeman ezina eskuragarri bilakatzen du, eta posibilitatzen zaio, ez bakarrik apendizai, baizik eta ikasi izanaren esperientzia emozionala ere bai. Alderantziz, porrota ikaslearen gaitasun urriari egozten zaionean, irakaslearen jokaera desberdina izan daiteke, ezen oinarritzen baita ikaslearen laguntzak profitatzeko konfiantzarik ezean, eta horrela, galtzen du, ez ikasteko aukera soilik, baizik eta ikasten duela esperimintatzea.

Iritzi orokor hau arlo berezietan konkretatzen da. Irakurketaren arloan, esate baterako, eta umeez bozgoraz irakurtzen zutenean, Allington-ek (1980) aurkitu zuen ezen erroreen aurrean, irakasleek proportzio handiagoan zuzentzen zituzten ikasle txarren irakurketak (%74 zuzenketa) irakasle onenak baino (%34).

Gainera, lehen kasuan, irakaslearen parte hartzeak halakoak ziren “berak forma zuzena esatea” eta ikasle onen kasuan testuingurua adieraztera ematen zien ikasleek eurak zuzen zezaten okerra. Irakurle txarrek akatsak egiten dituztela ikasten dute edo maila apaleko jardueretan

aritzen. Bitartean, irakurle onek estrategia oso funtzionalen jabe bihurtzen dira euren okerra konpontzeko.

Haiek ikasleak zeinengan espektatiba positiboak jarri diren –eta, ondorioz, irakaslearen laguntza, arreta bereganatu duten– seguru asko errendimendu jaso erakutsiko dute, sorturiko espektatibak baieztatuz. Bestalde, ikasle haiek zeinengandik garaipen urriak espero diren –eta, ondorioz, laguntza edukatibo eskasagoa eurenganatu duten, hala maila kognitiboan nola afektibo-relazionalean– baieztatu egingo dituzte sorturiko espektatibak, zeren ez baitute aurkitu euren errendimendua hobetzeko baldintza egokirik.

Ikasleengan jarririko espektatibak betetzea faktore multipleen menpe dago: irakaskuntzaren hastapeneko ezagutzen menpe, eskola zein eskolako jardueri ematen dieten balioaren menpe, irakaslea berarentzat norbait esanguratsua den eta, batez ere, ikasleek daukaten auto-kontzeptuaren menpe, hala euren buruaren ezagutzari dagokionean nola autoestiman.

7. Aprestuzaiaren esanguratasuna zuzen-zuzen loturik doakio funtzionaltasunari. Jasoriko ezagupenak –kontzeptuak, trebetasunak, baloreak, arauak, eta abar– funtzionalak izan daitezela, hau da, benetan erabilgarri gerta daitezela ikaslea topa daitekeen egoerek eska dezaketen guztietan. Horrexek izan behar du eskolako hezkuntzako ardua iraunkor. Zenbat eta ugariago eta konplexuago diren ezarritako harremanak prestuzaiako eduki berrien artean eta estruktura kognostziti-boko elementuen artean, zenbat eta sakonagoa izan euren asimilazioa, berba baten, gero eta handiagoa izan burututako prestuzaiaren esanguratasun gradua, orduan eta handiagoa izango da bere funtzionaltasuna ere, ezen asko posibilitate ugariagoko egoera berri zein eduki berriekin erlazionatu ahalko baita.

8. Ikasketa esanguratsua gauzatzeko prozesuak aktibitate bizia eskatzen dio ikasleari, zeinek loturak ezarri behar dituen eduki berriaren artean eta jadanik eskura dauden elementuen artean edo epaitu eta erabaki hauen parte hartze handiagoa edo euren nabardurak izendatu, birformulatu, zabaldu edo bereizi informazio berrien arabera, eta abar. Ez da identifikatu behar aurkikuntzako prestuzai esanguratsuekin. Aurkikuntza irakaskuntzako metodo bezala, eskola-ekintzak planteatzeko modu bezala, bide posibletariko bat baino ez da ikasketa esanguratsura heltzeko; baina ez da, ez bakarria eta ez du lortzen bila diharduen helburua beti-beti.

9. Berraztertu beharra dago eskola ikasketan memoriari eman ohi zaion zeregina. Bereizketa egin beharra dago memorizazio mekaniko eta errepikakorraren artean –zein ikasketa esanguratsurako interes urriko edo interesgabea den– eta memorizazio ulerkorraren artean –zein baita, alderantziz, haren funtsezko parte–. Memoria ez da ikasitakoaren oroimena soilik, baizik eta oinarria, zeinetik abiatuta ikasketa berriak gauzatzen diren Norman (1985) Chi (1985). Gero eta aberatsagoa den ikaslearen estruktura kognostzitiboa –hala elementuetan nola erlazioetan–, handiagoa izango da esanahi berriak eraikitzeke probabilitatea, hau da, handiagoa izango da bere ikasketa esanguratsurako gaitasuna. Memorizatze ulerkorra, ezagupenaren funtzionaltasuna eta ikasketa esanguratsua triangelu bereko hiru erpinak dira.

10. Ikasten ikasi, da, inongo zalantza barik, eskolako hezkuntza-aren helbururik bikainena, eta batera, laga ezinena. Hori da esatea bezala, ikaslea egoera eta inguru anitz desberdinetan izanik ere, gauza dela bere kasa ikasketa esanguratsuak gauzatzeko. Helburu honek gogorazten digu eskolako apendizaiaren aurkikuntza eta esplorazio kognitiboetako estrategiez jabetzeari eman behar zaion garrantzia, baita norbere jardunaren erregulazio eta planifikazioari ere. Estrategiok, baina, behin norberegantuez gero, ikaslearen egitura kognostzitiboan irazirik geratzen dira, eta euren esanguratasuna eta funtzionalitatea beraiei darien aberastasanaren funtzioan dago, beraiek konfiguratzen dituzten elementuen funtzioan, baita elkar lotzeko dituzten harreman sareen funtzioan ere. Beste berba batzuetan esanik, ikasten ikasi horren funtsean dirauten estrategien eta prozesuen eskuratzea ezin jar dakioke beste eduki batzuen eskuratzeari (ekintzak, kontzeptuak, baloreak). Geroago eta oparoagoa izan egitura kognostzitiboa –gero eta gauza gehiago ezagutu esanguratsuki–, orduan eta handiagoa izango da estrategia hauen funtzionaltasuna apendizaiako egoera berrietan.

11. Ikaslearen egitura kognostzitiboa –zeinen zeregina nagusia ikasketak esanguratsuek gauzatzean aurreko puntuetan iragartzera eman den– uler daiteke ezagutza-eskemen multzo modura. Eskemak dira:

*Ezagutzako multzo antolatua, (...) eduki dezakete hainbat ezagutza zenbat erabiltzeko arau, egon daitezke beste eskema batzuekiko erreferentziez osotuak, (...) izan daitezke berezituak (...) edo orokorrak. Eskemak datuen estrukturalak dira, oroimenean tegiratutako kontzeptu orokorrak erreprezentatzeko, eta objektuei aplikagarriak, egoerei, gertaerei, gertaeren sekuentziei, akzioei eta akzioen sekuentzia ere bai. Norman (1985: 75-76).*

Edozein ezagupen eskema izan daiteke informazio eta xehetasunetan aberatsago edo murriztuago, barne koherentzia eta antolaketa maila aldakorra eduki eta baliozkoago edo balio gabekoago izan, errealitateari egokituago edo desegokituago. Egitura kognostzitiboa osotzen duten ezagupen eskema desberdinek eutsi diezaiekete euren artean estentsio eta konplexitate desberdinetako harremanei. Aprestuzia esanguratsuetan ikaslearen egitura kognostzitiboari ezarri dizkiogun funtzio guztiek zuzenean inplikatzen dituzte ezagupen eskemak: jasoriko informazio berria eskema batera edo bestera inkorporaturik tegitratzen da gogoramenean; aurretiko prestuziaren oroimena eskema berrien eraikuntzaz modifikaturik geratzen da: memoria, beraz, konstruktiboa da; eskemak distorsiona dezakete informazio berria bere exigentzietara moldaraziz; eskemak egoera berrietan inferentziak gauzatea zilegizatzen dute; eskemak irazten dituzte ezagupen kontzeptual hutsak, trebetasunekin, baloreekin, jarrerekin eta abar; ebaluatzen ikastea eta norbere ezagupen eskemak moldatzen ikastea da ikasten ikasi horren osagaririk funtsezkoena. Gagné eta Dick (1983).

12. Ikaslearen adimeneko aktibitate konstruktiboa, eraikitzailea, bere hazkundeko prozesuen oinarrian datza. Eskola ikasketaren interpretazio konstruktibistak, eraikitzaileak –lotezina, edonola ere, irakaskuntza ezagupenenak transmisio huts bezala ulertzearekin–, eskatzen du interbentzio pedagogikoaren interpretazio eraikitzailea, zeinetako ideia-gida honexetan datzan: baldintza egokiak sortzea ikasleak bere esperientzien zehar ezinbestean sortzen dituen ezagupen eskemak ahal denik artezen eta aberatsenak izan daitezten. Edonola ere, parte hartze pedagogikoaren ulertze konstruktibistak ez dio uko egiten irakaskuntzarako jarraibide zehatzak formulatzeari, ez eta irakaskuntza/ikasketako jardunak arduraz planifikatzeari. Tesi honetan egingo dugun bezala, aipatuz gero ulertze moduan ere nahitaezko da Diseinu Curricularreko arazo tradizionalak planteatzea: helburuak, edukiak, ikasketako sekuentziak ezartzea, irakaskuntzako metodoak, ebaluazioa eta abar. Baina, beti ere, gai hauek dimentsio desberdina hartzen dute ikuspegi eraikitzailetik behaturik lantzen direnean.

III. ATALA

---

**EUSKALKIAREN  
ARAKETA IRAKASKUNTZAN**

---

## 1. IKERKETAREN IRUDIKATZEA, DISEINUA

### 1.1. Helburua

Euskararen kanpo-historiak eta bere barrukoak eraginik, ikerketan nahiz doktore tesi ugari argitaratu dira azken urteotan euskalkien gainean. Euskalkia irakaskuntzan gaitzat hartuta, ostera, gutxi argitaratu da, baina ez gure artean bakarrik, ezen Europa zabalera begiratu gero –*Dialect and Education* liburuak erakusten digunez–, aurrerakuntza franko oraintsu-oraintsukoa baita, Katalunian eta, teoriek ikasleen testuetan bide egin duten arren. Berton Euskal Herrian, Francisca Zabaletak erakutsi duen ikerketan bezala –Bigarren Hizkuntzaren Irakaskuntza Murgiltze-Ereduan–, murgiltze-eredua landu da batik bat. Euskalkia eta Hezkuntzaren gaia, beraz, azterketa arlo berrien artean sailka genezake. Bestalde, Helduen Alfabetatzea eta Euskalduntzea –arlo honekin oso lotuta dagoena– ez dugu tesi honetan aztergai zuzentzat hartzen.

Badakigu D Eredua bikoiztu egiten dela, lehen hizkuntza euskara duten ikasleentzat atxikitze-eredu bilakatuz, eta lehen hizkuntza gaztelera edo frantsesa dutenentzat murgiltze-eredu bihurtuz. Tesi honen helburua irakaskuntzako atxikitze-ereduaren barruan kokatzen dugu, etxetik euskaradun izanik –euskalkidun oraingoan–, eskolaratzen diren neska-mutilen berbakeran. Eta horien artean –bakarra ez den arren–, bizkaiera zein bizkaieradun ikaslea da nagusiki aztergaitzat hartzen duguna.

## 1.2. Hipotesia

Oraindainoko ikerketetatik jareindako emaitzak aintzat harturik eta gure ikerketari eusten dion marko teorikoa kontuan hartuta, hurrengo hipotesia proposatzen dugu.

Etxeko euskaragaz –euskalkiagaz– eskolaratu eta D Ereduko atxikitze-ereduan ikasten duen ikasleak D Eredu berebereko murgiltze-ereduko ikasleak ez bezalako hizkuntza-garapena ezagutzen du. Hizkuntza-garapen desberdin hori, bestalde, neurgarria dateke, eta ondorioek eredu bakoitzerako curriculumaren egokitzea eskatuko lukete. Gainera, euskalkia dakitenek jantzi egingo lirateke euren berbakeran eta euskara estandarra hobeto jaso:

*The main objectives are to teach the standard variety to dialect speakers (a) more efficiently and (b) with less potential trauma for dialect speakers. Ammon (1987: 237).*

Ikasle erdaldunak, ostera, eskolako kideen talde jakineko partaide izateko gogoz, ikastera doan bigarren hizkuntza hori, ama-hizkuntza moduan badarabilte talde honetakoez, orduan gai izango da gainditzeko eskolako baizik ez den elebitasuna.

## 2. GALDEKETAREN EZAUGARRIAK

Euskara Iraziaren apostolu jardueran, galdeketa hitza hautatu dugu espainoleko encuesta adierazteko, eta ez inkesta, euskarak frantsesarekin ukipenean diharduen muga inkesta auzi-ikerketeta baita. Beraz, Iparraldeko euskararen tasunerako gorde dut inkesta. (Hala ere, Jean-Louis Davant euskaltzain ikerlariak, Iparralderako ere inkesta onargarri dela baieztatu zidan Iturenen 2000-VI-27an) Bizkaierako hiztun izanik jar gezakeen itaunketa, galdeketaren orde moduan, baina Euskal Herrian galdera, itaun baino ekumenikoagoa delarik, itaun testuan zehar arrunt, naturalki erabiltzeko laga dut, eta berba teknikorako galdeketa hartu, beti ere diglosia zaindurik, sinonimia baztertu gabe.

Galdeketa hauetan, hala helburu linguistikoak nahiz akademikoak zein sozialak aipatuko ditut. Nire xedea, euskalkian nahiz batuan ikasleek lortzen duten erabilera eta gaitasun maila modu kualitatiboan neurtzea da. Bizkaiera eta batua ikasten diren zentroetan, bata bestea-



rekin erkatuz. Batu hutsa lantzen denetan bizkaieraren egoera kalifikaturik.

Gaitasun linguistikoa ebaluatzerakoan, lexikoa, arau morfologikoa eta arau sintaktikoa hartu ditut kontuan. Guztietan ere, karguan hartu ditut zein ulermen linguistikoa zein produkzio linguistikoa.

Iruzkina kualitatiboan, emaitzak modu ez kuantitatiboan ematen dira, nahiz eta nolako edo halako kuantifikazio diren baieztapenak ugariz izan: *Ikaslerik gehienak; Ia inoiz ez da erabiltzen; Erabilera hau arrunta da oso.*

Helburu didaktikoa duen galdeketa bidezko araketa honek, emaitzak modu kualitatiboan iruzkindu gura izan dira, ezen ziurtasun osoz baitakigu:

1. Gauzatutako lagina ez dagoela zoriz eginga, guztiz esanguratsua baita.
2. Galdeketa zabalago eta kopuru handiagokoak ez lukeela emaitza aldaraziko.
3. Bilatzen diharduguna elementu finko eta aldagaitzen ildo delako.
4. Bila gabiltzan harremanak zenbakizko formetan jasotzeko konplexuegiak direlako.
5. Jasotzen diren elementuen ebidentzia kuantitatiboa berez delako aski sinestarazlea.

Esan dezagun, argudioaren harian lekutu behar direla –metodo anekdotiko deritzanean egin ohi den bezala– abstraktuki soberako htereotasunean geratzen diren kontzeptuak eragingarri bilaka daitezzen tartekatzen ditugun adibide, gertakari nahiz esanplu ugariak.

Hala ere, tesi irakurlea aise ohartuko da:

5.1. Lauki bakoitzean zein ikastetxe desberdinetako testuen gaineko hausnarketan kopuru jakinak ere eskaintzen direla: *126 galdekete-tan adibide bakarra aurkitu dut; Hiru ikastetxeotan bizkaierazko liburu bakanik ere ez daukate; Euskara batuko 20 berben artean bizkaierakotzat 7 hartu dituzte; Irten trantsitibotzat 20tik 19k jaso dute eta abar.*

5.2. Zenbatzen ez denean ere, ikuspegi numerikoa aurre-aurrean dela. Adibiderako, *bukatu* eta *barik* elementuek euskalkian edo euskara batuan daukaten protagonismo nagusiaz mintzatzen garenean.

Bestalde, ezingo dugu ahantzi hizkuntza ahoz eta idatziz gerta daitekeela eta edozein ebaluaketak bi modalitateak hartu behar dituela aintzat, guk idatzian indar egin arren.

Emaitzen ebaluatzea, edozelan ere, prososatutako helburuen arabera egiten da. Hor azaltzen da irakasle nahiz ikastetxe bakoitzak hizkuntza menperatzeaz zer ulertzen duen. Kasu batzuetan, batez ere, berbeta kultua baloratzen da eta berbeta horren forma idatzia. Beste batzuetan, ahozko komunikazioa, eta idatzian eguneroko modalitateak eta kolokialak. Gure ikastetxeetan, –ahozko berbeta eta batukoaren sistema bereiztearen kalterako–, ebaluatzeak gaitasun linguistikora estuki loturik egiten dira; hots, perpausak zuzen sortzen diren ala ez, ulertzearen gaitasuna gehienetan forma idatzian zentratu eta, beti, hizkuntzaren modalitate kultuetan, bitartean, ahozko erabilerak nahiz gaitasun komunikatiboa alde batera utzirik. Jokabide honen zergati nagusia hizkuntzen irakaskuntzako tradizio akademikoan aurki daiteke, beti ere, norabide horretan oinarritu da eta.

Ezin ukatuzkoa da, hizkuntzaren erabilera akademikoetan zentratzea errezagoa dela, zeren ebaluatze mota asma errazagoa baita. Ahozko erabileren azterketa, aldiz, –gaitasun komunikatiboarena, batik bat–, sistematiza gaitzagoa da eta, beraz, kalifika gaitzagoa.

Euskalkia eta estandarra kalifikatzerakoan jarriko diren froga linguistikoak parekoak izan behar dutela dakigun arren, aurretik jabetzen gara, hainbeste datu eskuragaitz edo eskaezin direla. Zelan eskatu, esate baterako, ikaslearen ahoskera euskalkian eta batuan, ahoskerak berak nolako izan beharko lukeen erabakitzeke dirauenean?

Ondo azpimarratu beharrekoa da, euskalkiaz eta batuaz baliatzen den hezkuntza, moralki demostratzer behartuta dagoela, ezen bere emaitza akademikoak ez direla apalagoak. Horrexegatik da ezinbesteko, euskara batuan diharduen ikasle taldea, eta euskalkian eta batuan ari dena erkatzea.

Euskalkiak eta euskara batua irakaskuntzan aztertzerakoan, oinarri zientifikoetan finkaturik jokatu behar da. Sakonki arakatu behar da errealitatean eta arrazoiaz landu, beti ere, proposatzen diren prozeduren ondorioz. Hori horrela, baieztatu daitekeena da, euskalkia eta euskara batuaren arteko harremanak zein desegokitasunak, arakatze sistematiko eta epe luzeango ikerketaz baizik ezin direla ebaluatu. Epe luzean gauzatutako estudio longitudinalak ez dira, ordea, nik ikasturte baka-

rrean burutu ahal izan ditudanak. Nirea, talde zein indibiduoak denboraren une jakinean hartuta garaturiko estudio transbertsala da. Nahiz eta neke handi barik jakin, estudio longitudinalak direla euskalki/batuaren arteko ezagutzan aitzinatzeke metodorik egokiena.

Nire ikerketa-lan honetan, ezertan hasi aurretik, kontestu soziala –datu demografikoak, legalak, administratiboak,...–, aztertu beharko nituzke, baina, batetik, ezagun dugulako eta, bestetik, lekuz kanpoko zeregina gerta dakidakeelako, ez naiz horretan abiatu.

Galdeketo, zeozelan esateko, mailakatuak dira euskararen corpusari gagozkiola. Itaundu den guztia gaurko DBHko programaketan sartzen da, ikasgelan jaso dute ahoz zein idatzian. Testu liburuetan ere arruntak zaizkie. Nolabait esateko euskaldun osoengana, euskaldun zahar adinekoengana jo izan banu, oso bestela planteatuko genituen bai sinkronikoki nahiz diakronikoki hemengo itaunak. Hala jokatu ez badugu, arrazoia, batetik, hauxe da:

*Petyt-ek esan bezala, adinekoekin egin azterketak ez dira errealtate minoritario baten isla baizik.* Chevillet (1991-1993: 6).

*“Jator” izenondoak ez du balio hiztun gehienek egiten duten hizkera izendatzeko.* Camino (1997: 139).

Bestetik, ikasgeletan eragina lor dezagun gura badugu, hizkuntzen ukipena egun bizi duten neska-mutilak arakatu beharko ditugu. Hori horrela delarik ere, mereziko lukeela uste dut adinekoen populazio galdetuak zer joko aberats eskain ziezagukeen.

Har banitza ene guraso laurogeita hiruna urtekoak, adibiderako, hika eta zuka erabiltzen aurkitzen ditut, bazterrera laga barik *Anaia alboan bizi dau* erako erregistroak.

Gainera, hizkera geografikoen bereizle trebatu dira. Badakite bizkaieraz handiko gipuzkera identifikatzen eta bizkaieraren barruan biztanlearen aldakia nongoa den. Egunerokoan inguraturik bizi dituzte herri hizkeraren gertaera fonetikoak: *behia, behixa, behí*.

Sinonimoak, hiponimoak, hiperonimoak barra-barra jalgitzen zaizkie: *koiu = harrapau; martxan pareu = abiau* Berbetaren diakronia gogoan dute: *“Edola Jose Egik esaten euen, oiñ ez da erabiltten”*. Era berean, arkaikotasunaren zentzuagatik forma hori gazteagoen aurrean ixilean gorderik.

Berbeta jasoaren, kultuaren ezagutzaile dira: pasiboa –urteetan entzuna– elizako euskalki literarioa deitzen dena:

*In church functions, the priests modify the vernacular in the direction of an older prestige variety, Literary Biscayan, rather than Standard Basque. Hualdek (1994: 3).*

Baita arrosarioan aktiboa ere, buruz dazagute eta.

Horri gehitzen badiogu euskaran bizi eta esperimentaturiko harreman elebakarrak, esamoldeak, hitz jokoak, berba baten, horko kultura, berez ohartuko gara zein alde legokeen Gotzon Aurrekoetxeak eta Xarles Bidegainek Euskaltzaindiko Atlaserako jasoriko adinekoon berbakerearen eta gure eskoletako gazteriaren artean.

### 3. GALDEKETAK

Sail honen hariari erosoago jarraituko gatzaizkio, lehenago VIII. ataleko eranskinetan datorren galdeketak zatia irakurriez gero. Bertan hiru galdeketa edo inkesta datoz:

**A-Galdeketa**, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko ikasleei jarria.

**B-Galdeketa**, batxilerreko ikasleei jarria.

**C-Galdeketa**, Xalbador Ikastegirako jarria.

Metodologia aldetik –bertoko lerrootara gatoz orain–, galdeketen azterketa egiterakoan, darabilgun jokabidea da:

Lehenago, zein ikastetxeri edo ikastetxeei dagokien jartzen dugu.

Azpian, zein ikaslerena den.

Hurrengo, ikaslearen erantzuna.

Ondoren, tesigileak dagien iruzkina.

Iruzkina garantzean, A, B, C, galdeketetako erantzunak, gaika, arloka, klasifikatzen dira. Beraz, esate baterako, interferentziak aztertzen direnean, Ako ikaslea eta Bkoa eta Ckoa batera hartuko dira, zein inkestatako diren begiratu barik, gaiak, elementu jakin batek batzen ditu eta. Beste kasu batzuetan, ikastetxe bateko ikasle bakarraren erantzuna aski izango da, ordea.

Ikasle bakoitzak 8 orrialdeko galdeketa erantzun du.

Bakoitzak 900etik 1200erako berba kopurua idatzi du.

Guztira, 126.000 hitz aztertu dira, alegia, 1008 orrialde.

Zentrootan, ikasle guztiek dihardute euskaraz ikasten.

Galdeketak –euskalki eta euskara batuko edukidunak direnak- euskara batuan idatzi zaizkie.

### 3.1. Galdeketen mailak

Bi mailatan antolatu ditugu galdeketa hauek:

#### 3.1.1. Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean

**Idatziak:** Bermeoko Eleizalde Ikastolan: 12/13 urteko 20 ikasle.

Begarako Aranzadi Ikastolan: 12/13 urteko 20 ikasle.

Mauleko Ikastolan. 10 urtekoak: 7 ikasle.

Guztira: 47 ikasle.

**Ahozkoak:** Bermeoko Eleizalde Ikastolako haur eskolan.

Maulen 5.mailakoen artean.

#### 3.1.2. BBBko 3.mailan eta Kanboko Lizeoko 3.ean

**Idatziak:** 15/16 urtekoak. Bermeoko Batxilergo Institutuan: 20 ikasle.

Txorierri “ “ : 5 ikasle.

Getxo III “ “ : 6 “ .

Kirikiño Ikastolan : 27 “ .

Askartza Klaret Ikastetxean: 21 “ .

Guztira: 79 ikasle.

**Idatziz** galdetutakoen kopurua: 47 + 79: 126.

**Ahoz:** Bermeoko Batxilergo Institutuan.

Galdeketa hauek 1995/1996ko ikasturtean beteak diren legez, erreforma aurreko terminologiari eutsi diot galdeketen gaineko atal honetan.

Tesia DBHOk ikasleen galdeketetan oinarritzen da, gehien bat, baina ikusiko denez, DLHko ikasleen ekarria ere handia da.

Tesiaren oinarrian idatzizko galdeketak daude. AMMONek (1989: 238) ere idatzian finkaturik jotzen du ahozkoari ere atal bat eskaini arren.

Tesiak hartzen zuen neurri gehiegizkoagatik –pena handiz bada ere– kanpo utzi behar izan ditut OHOk galdeketa guztiak, Bermeoko Eleizalde Ikastolakoak izan ezik. Batxilerrekoak, aldiz, mantendu egin ditugu.

## **3.2. Behatutako ikasle/ikastetxeen karakteristikak**

Laginak jasotzeko aukeratutako eskola, ikastola, ikastetxe, institutu, lizeoak, guztiz adierazgarriak direla uste dugu, hala kokagune aldetik nola izaerarenetik.

### **3.2.1. OHOk inkesta idatzietarako:**

3.2.1.1. Bizkaiera literarioa eta batua irakasten dituen Bermeoko Eleizalde Ikastola. Hor 8. OHOkok. Gainera ikasleok etxekoa, bizkaiera literarioa eta batua ezagutzen dituzte.

3.2.1.2. Bizkaiera/Bergarako euskara ahoz eta ikasketetarako batua darabilen Aranzadi Ikastola: 12 urteko haurrak.

3.2.1.3. Bai ahozkorako zein idatzirako zuberera erabiltzen duen Mauleko ikastola: 10 urtekoak.

### **3.2.2. BBBko inkesta idatzietarako.**

3.2.2.1. Bermeoko Institutuko 3. BBBko ikasleak. Arrazoa, bizkaierazko ikasketak 8. OHOrate burutu ostean, BBBn batu hutsa era-

bilirik zer eboluzio izan duten ezagutzea. Bestalde, inguru euskaldunetan kokatua. Hemengoa da estudio longitudinalaren antzik handiena izan dezakeena, ezen talde desberdinekaz bada ere, bata 8. OHOn bizkaieraz dihardutenean jaso dudalako eta, bestea, 3 ikasturte geroago, hiru urtez batu hutsean aritu ondoren.

3.2.2.2. Txorierrri Institutuko 3. BBBko ikasleak. %15 Bilbotik datorren ikasleagoa; gainerakoak Txorierrrikoak eta, oro har, ikasketak batu hutsean burutuak. Inguru euskaldunekoak. Etxeko bizkaiera eta batu ikasia ezagun dituztenak.

3.2.2.3. Getxo III Institutuko ikasleak, 3. BBBkoak. Euskara batuan ikasiak. Etxetik dakitenak multzo ondo txikia izanik.

3.2.2.4. Kirikiño Ikastolako 3. BBBkoak. Hiri handian kokatuak. Gehienen gurasoak erdaldunak izan arren bizkaiera literarioa eta batua ikasiak.

3.2.2.5. Askartza Ikastetxeko 3. BBBko ikasleak. Hirikoen seme-alabak. Bizkaiera eta batuan ikasiak.

#### 4. ERABILIRIKO GALDEKETAK

Jasotako erantzun guztien artean gehiegizko materiala suposatzen zuenez, hiru multzo nagusiren iruzkinari lotu natzaio tesiaren garapenean eta jarraiko hiru galdeketei erantzuten diote:

1. OHOkoa Bermeoko Eleizalde Ikastolakoa.
2. Batxillerreko ikasleentzakoa.

Hauexek dira galdeketatuko ikastetxe eta institutuak: Kirikiño Ikastola, Txorierrri Institutua, Askartza Ikastetxea, Bermeoko Institutua, Getxo-III: Haizerrota Institutua.

3. Kanboko Xalbador Ikastegirakoa.

Galdeketetako erantzunak izendapen honekin sailkatu ditugu:

**A Galdeketa**, OHOkoa (Eleizalde Ikastolakoa); **B Galdeketa**, Batxillerrekoa (aipatutako bost ikastetxeetako); **C Galdeketa**, Kanboko (Xalbador Ikastegikoa). Hiru galdeketok oinarri beraren gainean eraiki diren arren, dela adinagatik, dela euskalki konkretuarengatik, honenbesteko aldaketak dituzte.

Zentro bakoitzeko zein ikaslerenak diren erantzunak:

- OHOk galdeketan, ikasle guztien erantzunak hartu dira aintzat.
- Batxilerreko ikasleenak eta Kanbokoan, itaun batzuetan denon erantzunak jasotzea dagokigu, besteetan adierazi egiten da zein ikaslerena den:

Kanbokoan artean: 1.a, 2.a, 4.a, 5.a, 6.a, 7.a, 9.a, 10.a.

Batxilerrekoan artean:

Kirikiñokoak (K): 1, 2, 3, 6, 8, 17.

Txorierrikoak (TX): 1, 2, 3, 6.

Askartzakoak (ASK): 1, 2, 3, 6, 8, 17.

Bermeokoak (Berm): 1, 2, 3, 5, 11, 18.

Getxokoak (GE): 1, 2, 3, 4, 5.

Aukeraturiko zenbakiok, inolako ordenarik gabe zeuden ikastetxe bakoitzeko multzoetatik zoriz jasoak dira.

## 5. GALDEKETAK SORTZEKO IRIZPIDEAK

Ikerketarako jartzen diren itaunak, neurri handi baten, mende laurdenetik gorako irakaskuntzaren praktikak iradokiak dira; *Eskola Hiztegian*, *2000 eta 3000 Hiztegiatan*, *Sinonimoen Hiztegiatan*, *Europa Hiztegiatan*, eta galdostuak; Mendebalde Kultur Elkartean zortzi urtez euskalkia eta euskara batua uztartzen saiatuak. Esperientzia hori aski izan da frogatzeko, hala norbanakoa zein taldea hizkuntzen ukipeneko lurraldean bizi denean, ezin gera daitekeela ezaxolati inguruko presio linguistikoaren aurrean, baizik eta horien eraginez berbazko portaera nahiz adimenekoa aldatuak gertatzen direla.

1. Ikasleei zuzenduriko galdera sortaren hasieran, adina ezar dezala eskatzen da eta eskari hori luzatzen ez denetan, ezaguna delako ez da egiten. Gure inkestotan gazteak aukeratzearen arrazoia –irakaskuntzari buruz jarduteaz gain– hauxe da: gazteok, desiratzen diren kontzeptu orokorrak eskaintzen dituztela, ikerketa inondik ere konplikatu gabe, gertatu egingo litzatekeena adineko populazioak eskainiriko hiztegi teknikoaz, beti ere teknikoki oso garatuak diren lurraldeetan:



*Il est fort probable que les mots fournis sur les parties du corps par des infirmiers, des docteurs et des étudiants en médecine seraient plus précis que ceux fournis par des cuisiniers, des comptables ou des étudiants en droit. Mackey (1976: 345).*

2. Lexikoa ikertzerakoan, ikaslearen hiru mailatako trebetasuna bilatzen da, alegia, euskara batukoa, bizkaiera literariokoa –lapurtera, behe-nafarrera, zuberera– eta etxekoa. Badakigu, gainera, lexikoa dela ahoskera eta gramatika baino areago, iragartzera ematen dituen hizkuntzak kodeturiko kategoria kontzeptualak. Jokabide horretan, dena den, kanpo kontzeptualen banaketari baino euskalkien arteko bereizgarriari eta euskara batuaren eta bizkaierakoaren arteko egin diegu so. Esate baterako: *abadea/apaiza; enara/elaia; urteko hilabeteak; asteke egunak*.

Metodologikoki eskatu zaie:

– Hitz zerrendan euskalkiaren parean euskara batukoa jartzea;

– Berbak kontestualizatuta emanik, etxeko euskararen, euskalki literarioan eta euskara batuan ematea.

– Maila bateko elea jartzen bada –azpieuskalkikoa kasurako– euskalki literarioan eta euskara batuan jar dezala.

– Itaunean adierazi gabe, ikasleak berak antzeman dezala hitz hori euskara batukoa, euskalki literariokoa edo azpieuskalkikoa den.

3. Morfologiaren araketan, egoera konkretuaren aurrean jarririk, testu bat idazteko eskatu zaie. Honetan aintzat hartu dena da, hiztegian kodeturiko kategoria kontzeptualak –aditzak, adjektiboak, adberbioak eta– osotzen dutela gizakiak ikusi, sentitu eta imajina dezakeen oro.

Testuon iruzkinean deklinabidea eta aditza aztertu dira, batez ere.

Prestakuntza unean, oso kontuan hartu da, zelan aldatzen diren nekezago izen mota batzuk beste batzuk baino, gorputz atalen izenak, esate baterako, arropenak baino nekezago.

Horrez gainera, aditz forma jakin batzuek trataera zehatzago eta doituagoa ezagutu dute inkestetan, oharturik, bizkaiera eta euskara batuaren arteko gatazkan aditza eztabaida-gune nagusia dela.

4. Lexikoa eta morfologia batera harturik *Olentzaroren* gaineko testu luzea edo *Txano Gorritxori* buruzkoa eskatu zaienean, gura izan da:

4.1. Ea euskalkikoa edo euskara batukoa idazten duten lehenago. Ikasleak, euskalkikoa, euskara batukoa edo etxeokoren artean gogora azkarren datorkiona, horixe idatziko du. Horrela, ondorioztatu ahalko dugu zein eredutan mugitzen den erosoan eta ea erregistro beretan aritzen den euskara batuko mailan dabilenean eta euskalkian diharduenean:

*La rapidité avec laquelle une personne nomme un objet est une mesure de l'importance que cet objet a pour elle; plus il y aura de gens d'une communauté qui nommeront un objet donné, plus cet objet aura des chances d'être important pour eux.* Mackey (1976: 346).

4.2. Euskalkia, azpieuskalkia eta euskara batua ongi konparatzeko, itzulpen zorrotza litzateke biderik egokiena. Ikasleak horretarik urruntzen diren heinean, testua beren egoerara egokituz eta birmoldatuz, bere zehaztasunetik galtzen du konparaketak. Hala da! Guk, ordea, ikasleak eskola bidez testuon erkaketan lorturiko doitasunaren azpian eta funtsean bilatzen duguna, maila bakoitzerako gordetzen duen autonomia, izaera ezagutzea da, hots, euskalkian ari denean isurtzen duen hizkera noraino eta zertan den bereizten euskara batuko testutik, nahiz eta parez pareko itzulpentasunean galdu. Azken finean, suposatzen dena da euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak funtzio desberdina bete dezaketela Ferguson-en diglosiaren arabera.

5. Euskara batuaren eta euskalkiaren gaineko kontzeptua argitze-ko, euskara batuan bertan ere jarri arren froga –*Amamak txakurrari buztana ebaki dio ≠ Amonak zakurrari isatsa moztu dio*–, batik bat euskalkiaren tasunean egin da indar, bizkaieraren izaera gordetzen duten jakiteko : *berton ≠ bertan; Bat + tzuk*; plurala ≠ mugagabearen erabilera.

6. Galdeketa guztian, elementurik behagarrienakaz jokaturik, aztertuta da euskara batuaren eta euskalkiaren arteko dibertsitate indizea ere. Eta konstatatu:

6.1. *Aurki* berba bakarra izanik esanahi bi dituela, bata batuan eta bestea bizkaieraz edo berba berak objektu desberdina adierazten duela: *lepoa*. Inolako ekarririk egiten ez digulako, ez dugu tartean sartu euskalkiak eta euskara batuak izen bera gauza berbererako darabiltenean.

6.2. Berba bi eduki ditzaketela gauza bererako: *ogerlekoa, duroa*.

6.3. Euskara batuan –ez guk proposatzen dugun eredu– hitz bategu kontzeptu bi adierazten dituela, hau da bizkaieraz bi, euskara batuan bat:

### Bizkaieraz

Hatz

Behatz

Galtzua

Lastoa

### Euskara batuan

Behatz

Lastoa

7. Galdetzen zaie ikasleei ea norekin mintzo diren euskalkian, azpieuskalkian edo euskara batuan eta zein testu edo irakurgai duten baikoitzean. Metodo horren bitartez atera nahi da corpusaren gaineko informazioaz gain, ikasleek estatusari ematen diotena.

## 6. GALDEKETEN EMAITZAK ETA AZTERKETA

Galdeketetako emaitzak kidetzeko honako atalak egin ditugu:

1. Eskolako berbeta eta etxekoa
2. Euskara batuaren izaera
3. Euskalki literarioaren izaera
4. Etxeko euskararen izaera
5. Euskal diglosia irazia. Euskara batuaren eta euskalkiaren kontzeptua
6. Interferentziak euskara batuaren, bizkaiera literarioaren eta azpieuskalkiaren artean. Hiru zatitan banaturik:
  - Lexikoan
  - Morfologian
  - Sintaxian
7. Eskolaren eragina
8. Euskararen erregistroak

Ikasleek idatzitako testuetan, fenomeno bereziki adierazgarriak baino ez dira iruzkinduko eta errepikatuen artean bakarrari egingo zaio erreferentzia.

Aztertuko den erantzuna zein ikastetxetako ikasleari dagokion identifikatzeko klabe hauetaz baliatzen naiz. Beti ere, esaera, hitz edo morfema aztertukoaren aldamenean azalduko dira siglok.

Kirikiño (*K*). Txorierrri (*TX*). Askartza (*ASK*). Bermeo (*BERM*). Getxo (*GE*). Xalbador (*Xal*.)

Maiuskularen ondoan agertuko den zenbakia, ikastetxe horretako ikasleari ezarritakoa da.: K-tik 1-2-3-6-8-17 ikasleak suertatu dira hautatuak; TX-tik 1-2-3-6; ASK-tik 1-2-3-6-8-17; BERM-tik 1-2-3-5-11-18; GE-tik 1-2-3-4-5. Xal-etik 1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12. Aukeratu-tako zenbakiak, inolako ordenarik gabe zeuden ikastetxe bakoitzeko multzoetatik jasoak dira. Ahal dela ordena berekoak hartu dira multzo desberdinetatik.

## 6.1. Eskolako berbeta eta etxekoa

Izenburu honen ostean doazen erantzun guztiek eskolako berbeta eta etxekoa erkatzea dute helburu.

Batxilerreko 18. itauna.<sup>8</sup>

Eman ezak/ezan erantzuna:

*Zuk ezagutzen dituzun pertsonen artean, nork egiten du hitz euskara batuan eta nork bizkaieraz?*

*Zuk norekin egiten duzu bizkaieraz eta norekin batuan?*

*Ikasteko zein liburu daukazu bizkaieraz?*

*Orain artean, zer irakurri duzu bizkaieraz?*

---

<sup>8</sup> Ikasleei jarritako galdeketak bertoko VIII. ataleko eranskinetan datoz.

<b>Kirikiño</b>	<b>Nork batua?</b>	<b>Nork bizkaiera?</b>
1. Ikaslea	Aitak	Amamak
2.a	–	Markinakoak
3.a	Ahizpak	Lagunak
6.a	–	Denok: etxean, lagunak...
8.a	Artxandapen (lehen)	Kirikiñon
17.a	Lagunak	Etxean
<b>Askartza</b>		
1. Ikaslea	Maisuak eta lagun batzuk	Ez dot baturik erabiltzen
2.a	Irakasleek	Ikasleok
3.a	Irakasleek	Lagunak
6.a	∅	∅
8.a	Denekin	Zahar batzuk
17.a	Klaseak batuan/A tald biz	Beti batuan
<b>Txorierri</b>		
1. Ikaslea	Klasekoak. Irakasleak	Etxekoak
2.a	Lagunak nahastea klasean	Etxekoak
3.a	Lagun guztiak	Etxahun eta etxean
6.a	Klasekoak	Familia
8.a	Guztiek	Inorekin ez
<b>Bermeo Institutua</b>		
1. Ikaslea	Tele. Irakasle batzuk	Lagunak
2.a	Irakasleak institutuan	Irakasleak ikastolan
3.a	∅	∅
5.a	Euskaldun berriak	–
11.a	Irakasleak	∅
18.a	Andereño eta maisuak	Lagunak
<b>Getxo III Institutua</b>		
1. Ikaslea	Lagunekaz	Familian
2.a	Familiak	Irakasleak. Lagunak
3.a	Guztiek batua	Guztiek

Halako tauletan diglosia funtzionala antzematen da, euskalkia leku batzuetarako, batua besteetarako. Bestalde, zalantza barik adieraz daiteke bizkaiera irakasten den ikastetxeetan euskalkiak esparru bat gehiago irabazten duela, hots, eskolakoa. Bizkaiera irakasten ez denetan, aldiz, –Txorierrikoak, kasurako– etxe eta familiara mugatzen dutela bizkaiera.

Kanboko galdeketa, Mendebaldeko 18. itaunaren parekoa:

*Adiskideekin euskara batuan ala euskalkian mintzatzen zara?*

<b>Mauleko Ikastolan eta Xalbador Ikastegian</b>	Adiskideekin	Beste lagunekin
1. Ikaslea	Xuberotarrez	Batuaz
2. a	Xuberotarrez	Xuberotarrez
7.a	Xuberotarrez	Batuaz
<b>Azparneko Ikastola eta Xalbador Ikastegia</b>		
4. ikaslea	Hazparneko euskalkian	Ikastolako lagunekin Euskara batuan
<b>Garaziko Ikastola eta Xalbador</b>		
10 ikaslea	Behe Nafarreraz	Euskara batuan
<b>Uztaritzeko Ikastola eta Xalbador</b>		
9. ikaslea	Bietan	Bietan nahasian

Zein ahozko/idatzizko mintzairaren trataerarako zein azpieuskalkiarekiko atxekimendurako edo euskara batuaren atxikimendurako ezin interesgarriagoa da ohartzea, ikasleontzat, oro har, azpieuskalkia dela berbetarik gertuena, euskara batua inperpersonalagoa. Euskara batuaren esparru ziurra irakaskuntza formala da. Hara Hualdek (1994: 4) dioskuna:

3. Generally, what language do you speak with your friends at school?

	<i>Lek. B.</i>	<i>St. B.</i>	<i>Span.</i>	<i>Other B.</i>	<i>Total</i>
Ikastola	33	1	0	0	34
Public sch.	26	2	3	2	33
Tech. sch.	19	1	0	1	21
TOTAL	76	4	3	3	88
	86,3%	4,5%	3,4%	3,4%	100%

From these data we can conclude that Lekeitio Basque is clearly the preferred language of interaction among school children. What is surprising for us is the very small impact that education in Standard Basque appears to be having in the use of this variety outside of formal instruction. Only four students report using primarily Standard Basque to communicate with friends at school.

*Ikasteko zein liburu daukazu bizkaieraz eta zein batuan?*

<b>Kirikiño</b>	Ikas. liburuak bizkaieraz	Zer irakurri bizkaieraz?
1. ikaslea	Ø	Ø
2.a	Ø	Ø
3.a	Ø	Ø
6.a	Ø	Biblia
8.a	Ø	Ø
17.a	Ø	Kresala
<b>Askartza</b>		
1. Ikaslea	Ø	Kresala, M. Zarate, JME
2.a	Ø	Txikitan kontu asko
3.a	Ø	Zubikarai, M. Zarate, Kre.
6.a	Ø	Ø
8.a	Ø	Ø
17.a	Erljioa, behar bada.	Ø

<b>Txorierri Institutua</b>		
1. Ikaslea	3-4-5 mailak Ibaizabal	<i>Kresala eta Peru Abarka</i>
2.a	<i>Kresala, Garoa, Ipuin antz</i>	Ø
3.a	Ø	<i>Peru Abarka</i>
6.a	Ø	Ø
8.a	Ø	Ø
<b>Bermeo Institutua</b>		
1. Ikaslea	Ø	Batzuk
2.a	Ø	<i>Kresala</i>
3.a	Ø	<i>Klein ta Falen (?)</i>
5.a	Ø	<i>Kresala (?)</i>
11.a	Ø	OHOko zenbait liburu
18.a	Ø	<i>Zipriztin</i>
<b>Getxo III Institutua</b>		
1. Ikaslea	Ø	Zenbait zati
2.a	Ø	Kili-Kili, Bibliako zatiak
3.a	Ø	Ø

Kirikiño, Askartza eta Bermeoko Institutukoak –hauek Eleizalde Ikastolan bizkaieraz ikasiak– bizkaierazko ikastetxeak izanik, harrigarri egiten da kasurik gehienetan bizkaieraz liburu bakarrik ere ez izatea. Horrela, zail egingo zaie bizkaieraren kode idatzia menperatzea:

*De Vries (1970) comparó dos grupos de alumnos de quinto grado de escuela elemental (10 y 11 años). Un grupo escribía dos textos cada semana, el otro no escribía y dedicaba más tiempo a la lectura. Los resultados coinciden con el anterior análisis: ambos grupos progresaron, pero el que practicó la lectura obtuvo mejores resultados. Cassany (1991: 54).*

Halako egoeran eta aldameneko zutabeko “zer irakurri duzu bizkaieraz” ikusirik, bizkaiera ikasten da, baina nekez bizkaieraz. Bestalde, *Kresala* edo *Peru Abarka* badira bizkaieraz irakurri dutena, ezaguturik liburuotako euskara eredu, mundu simbolikoa eta ikasleen eta Mogelen edo Txomin Agirreren gaitasun entziklopedikoa, makur goaz.



Zer mundu eta gauzen ezagutza konpartitua daukate Maisu Juanek eta gure ikasgeletako neska-mutilok? Zein interes komun eta antzeko ezaguera? Euskara bera ondo uler balezate ere –ez dutena– azalpen luzeegiak eman behar izaten zaizkie esatera jakin bat ulertarazteko, zein pertsonaiak duen munduaren ezagutzara hurrera daitezen lortzeko.

Batxilerreko 5. itauna. (BERM-1):

EB	BL	LL
dut	dot	Yot
		Yok
		Yau
		Yu
		Zu
		Zuie
		Yauie

EB (Euskara batua)

BL (Bizkaiera literarioa)

LL (Lekuan lekukoa)

Ikasle honek, lekuan lekuko euskara, herrikoa, transkripzio fonetikoari lotzen dio.

EB	BL	LL
ditut	dodaz	Yataz
		–
		Yauz
		–
		Zuz
		Zuie
		Daue/dabiez

Herriko landu gabeen 3. pluralekoak modu bitara idazten ditu *dauie/dabiez*, bata eskolan ikasitakotik, *dabiez*. Laukian ageri diren hutsuneak etxeko euskara osotu barik dagoela erakusteko adibidea dira.

Batxilerreko 2. eta 3. itaunak:

(K-2)

Bizkaiera literarioa (1)	Euskara batua
<i>agertzen jako</i>	<i>agertzen zaio</i>
<i>amamaren etxera</i>	<i>amamaren etxera</i>
<i>lobea</i>	<i>loba</i>
<i>galdetzen deutso</i>	<i>galdetzen dio</i>
<i>belarri eta sudurrarekin</i>	<i>belarri eta sudurrarekin</i>
<i>galdetzen deutsonean</i>	<i>galdetzen dionean</i>
<i>amama</i>	<i>amona (amama ere bai, arestian)</i>

(1) Bizkaiera literarioa deitzen dugun alde honetan, euskalkia eskolan landugabeek, etxeko euskararen erantzuten dute, hala ere, guk hemen sartzen ditugu, etxekoa erabiltzeko hirugarren itaun bat baitaukatete. Halan da ze, klasean landu ez dutenen eskutik literarioa eta lekuan lekukoa agertuko dira zutabe honetan.

Interferentzia txikitxoren bat tartean bada ere, bitzuek menperatzen ditu. Horrela frogatuz –kasu honetan eta idatzian soilik–:

... *euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten ondo dakien eskolumeak erraz lortuko du(ela) hizkuntz eredu batetik bestera pasatzea*. Hezkuntza Saila (1982:6).

(ASK-3).

Bizkaiera literarioa	Euskara batua
<i>egun hareetan</i>	<i>egun haietan</i>

Ikasiak baizik ez dezake bizkaiera literarioan *hareetan* honela erabil. Ezen *egun haietan* ahozko bizkaieran ere erabiltzen baita, batuan bezalatsu. Hainbestean da puntu hau gorabeheratsua, non X. Amurizak (1996) liburukian dakarren:

*Hauek guztiak holan direla, bizkaierazko erakuslea beste euskalkien eredura egokitzeari zuzenago deritxot, honeik/honeiek, horreik, horrek... forma galduet eusten ahalegintzeari baino,*

*eta lan honetan erizpide horri makurtu najako, euskara idatzian gabizelako. Horrek ez dau esan gura berbakeran eta bertsoetan gure bizkaierazko erakusle ohizkoa erabiltzea txarto legokeenik, esandako akatsak daukazan arren.*

Gai honetan, bizkaiera literarioa ikastea eta ez ikastea gauza bera denik ezin esan daiteke, ikasi ez duenak ez baitaki. (ASK-8)a da adibide egokia.

Ikasi duenarentzat, gainera, etxetiko euskara bera ere batu hutsa ikasita baino askoz estandarizatuago, maila erreflexuagoko agertzen zaio euskalkia, batutik nekezago azal daitezkeen formak bizkaiera literariotik errazago azter baitaitezke: (GE-1): *etxen aurren olgetan daula; etxearen aurrean jolasten ari dela.*

Landu ez duenak, idazlan osoan nahasten du bizkaiera literarioa –inoiz horretan saiatzeko ausardiarik badu–, ikasiak ez bezala *eban* eta *eben*: *Txano Gorritxuk amama armairutik atera eben* (GE-4). *Agindu dozt* (GE-5). Nor-nori-nork zutabeko aditz hau, era guztietara idatzirik topa daiteke bizkaieraz ikasi gabekoen artean.

Eskoletan bizkaieraz ikasi duten ikasleek –erdarak alde batera utzita–, hiru kodigotan mugitzeko gai dira. Hualdek eta beste batzuk (1994: 85) deitzen dituzten “Local Basque variety”, “Standard Basque” eta “Literary Biscayan”. Badaki:

<b>batua</b>	<b>bizkaiera literarioa</b>	<b>lekuan lekukoa.</b>
<i>alaba</i>	<i>alabea</i>	<i>alabea/ie</i>
<i>astea</i>	<i>astea</i>	<i>astia/ie</i>
<i>begia</i>	<i>begia</i>	<i>begia/begiye/begixe</i>
<i>burua</i>	<i>burua</i>	<i>burue/burú</i>

OHOkoko galdeketako 1., 2., 3., 5., eta 6. galderetako erantzunak.

1. Ariketa:

Helburua, 20 berba euskara batukoak jarriz, ea bizkaiera literarioa ikasten duten zentroetan ikasten ez dutenetan baino hobeto eusten dioten etxeko euskarari.

*Enara*: erdiek txoria dela, baina *elaia*, Azkuek (B,G), hots, komunitzat dakarren arren, inork ez daki.

*Gustatzen zait*: *Dast* etxekoa ondo, nahiz eta *jat* ikasia ere badakiten.

*Garaiz:* 3k *sasoiz*, besteek ulertu bai, baina perifrasi bidez ematen dute.

*Ilargia:* *iletargiye, iretargiye* eta abar.

*Adibidez:* 20tik bakarrak sinonimotzat *esate baterako*.

*Osatu:* gehienak batuko zentzuan, nahiz eta bizkaieraz ikasten aritu. Bizkaieraz daukan *sendatu* zentzuan 5ek.

*Udarea:* *madari* denek dakite baina *udare* 5ek ez.

Oro har, euskara batuko formaren ondoan etxekoa ipintzeko ez darakuste arazorik.

## 2. Ariketa:

Jar itzazu etxeko euskaran:

*irten:* *urten*. 20k.

*zizun:* *eutsun, tzun, zantzun*.

*zitzaizun:* *jatzun, datzun, zaizun, zandatzun, zandatzuzen*. 16k. Nekez irakats daiteke lekuan lekukoa nolabaiteko estandarizazioa jasan gabeko ereduaz, kasu honetan, bizkaiera literarioaz.

*lanari:* *biarrari, biharrari, bierrari*. 20k.

*aitonari:* *aitxitxeri, aitzitxeri, atxitxeri*. 20k.

*amonari:* *amumari*. 20k.

*zitzaien:* *jatzuen, datzoen, jatzoien, eutsien, jaken, zandatzoien*. Batua eta etxeko aditzak ia beti azaltzen dira elkarren arteko korrespondentziarik gabe.

*ateratzen:* *ateratzen*. 4k. *ateraten*. 16k. Hala ere estandarretik ez urruntzeko, *ateratzen* behar litzateke irakatsi, *ateraten* ere onartuz, jakina.

*aurkitzea:* *topatzea, topatea, topatie*. 7k baino ez.

*dauzka:* *dakoz, daukaz*. Klasean beti erabili beharko litzateke forma osotua, *daukaz*, alegia.

*ditu:* *dauz*. 20k. Etxekoan, berez, ditu izan arren, eskolako ez dena hartu dute eskolakotzat.

*zionez:* *eztzolez, tzon, deutsilez, eutsonez, zeutzonez*. 16k.

### 3. Ariketa:

Igogailuan blokeaturik aurkitzen dela, kanpoan entzuten duena:

- *Tentela zara!*
- *Ikustenzu zelakue dan nire alabie!*
- *Sartun etxera inmediateamentien!*
- *Barrabasa! Atarakotzutez eztizenak atara be!*
- *Ama txarrixen umie!*
- *Beti zeu izan bizara!*
- *Ez ikutu botoi bapez, e!*
- *Ene bada, ze inzu, ba!*
- *Urteten zuniko ikuskozu!*
- *Hónek umiek burutik atrapakostie!*
- *Trankil egon, urtengozu ta!*
- *Eta zer esantzuie? Eta abar luzea.*

Nabarmen gelditzen da euskara batuak 25 urte beteak dituenean ere euskalkia bizi-bizi ageri dela Bizkaiko hiztunen artean –euskara darabiltenen artean–. Entzuten den euskara, hori da. Horrexegatik da oker itzel handia batua ahozko eta idatzirako euskara bakartzat hartzea. Erabilerarako indarra, kemena, sinesgarritasuna –bai ikasle zein irakasleentzat–, dakiten euskaldunengandik jaso behar du irakaskuntzako sistemak.

### 4. Ariketa:

Idatzi 10 berba, aditz edo esaera etxean erabiltzeko balio dutenak eta ez eskola/ikastolarako.

– *Alabatxi; mutil zantarra; morroi; eskobie; trapue; telebisiñue; motxilie; juen horreñe; ni enai izan; egin afaixe; txo, super guapo dau; jo tio; laster ingot, eta abar.*

Hainbeste erdarako hitz eta esamolde duen hizkera mespresatzeko arriskua agerikoa da, baldin irakaskuntzak teoriko eta praktikoki irakasten ez badie neska-mutilei hizkuntzaren barruan badirela mailak nahiz erregistroak eta etxeko euskara hori ere –beti hobe daitekeena–, ederra dela oso.

Beraz, bada euskara modu bat eskolakoa ez dena. Ondorioz, batua/bizkaiera arazoa eskolako bi eredu euren artean daukaten lehia da, baina etxekoa –Bermeoko kasuan esate baterako–, eskolak bere helburuetan izan behar du.

#### 5. Ariketa:

Bizkaierako berbatzat dauzkatenak: *amaitu; zeozer; barik; aldats; atzamar; txarto*.

Euskara batukotzat: *aitita* –seinale *aitona* ez duten oraindik euren-ganatu–; *gizaldia* –ezezaguna batukotzat hartzen dute–.

Baiezta daitekeela dirudi, badirela bizkaikotzat hartzen diren hitzak eta batukotzat daudenak, euskara batua urte luzez zabaldu den arren.

### **BIZKAIERA LITERARIOA ZUBIA**

#### **Etxetik dakarrena**

Dezaket	
	Neike/Nei
Nezake	

#### **Eskolaren zubigintza/Bizkaiera literarioarena**

Dezaket	
	<i>Daiket</i>
Nezake	Neike/Nei

## **6. 2. Euskara batuaren izaera**

Galdeketa honetan, euskara batua deritzaguna diogunean zer ulertzen duten jakin gura da.

OHOko 6. Ariketa:

Batuan dagoena bizkaierara aldatu eta alderantziz.

Dinotso: 20tik 6k onto.

Dute: “ 18k “ .

Etorri jakozan: 5ek “.

Geuntsuzan: 20k txarto; 17k zuriz.

Kanta dezagun: Batutik bizkaierara: 11k ongi.

Bizkaieratik batura: 4k ongi.

Egia da 7.OHOraino bizkaieraz ikasten dihardutela, hala ere, aditzok metodo egokiaz –batua eta bizkaiera beti elkarren ondoan agertzen diren testuen bidez–, idatzian, bederen, ezagunak behar lukete izan.

OHOko 7. Ariketa:

Egizu bakoitzagaz esaldi bat:

*Baleuskuz: Bost milioi ekarriko balekidaskuz: 8k*

*Emongo neuskioz: nik emongo lekitsotez*

“ “ “ . 9k, baina zalantza asko.

*Kontatu daiguzan: 12k onto.*

*Ekarri lei: 12k onto. 3k ahal-ekin ordezkatua.*

Bermeoko azpieuskalkian egiten den baldintzazkoen erabilera da frogarik garbienetarikoa erakusteko zelan lagundu behar duen eskolak lekuan lekuko euskara jasotzen zein prestigiatzen. Oso erabilera berezia daukaten aditzak izatean, eskolak ez bada, nork argi lezake zertan datzan herriko euskararen apartekotasuna, hau da, nork alfabetatutako eskolak ez bada? Zeren eskolak euskaldundu egiten badu, euskara berbeta berri moduan irakatsi, ez du bermeotarren erabilera berezia landuko, ez alfabetatuko.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna bost ikastetxeotan:

(ASK-1) Ikasle honek jartzen du:

**Bizkaiera literarioan**

**Euskara batuan**

*otsoagaz*

*otsoarekin*

*otsoekaz*

*otsoekin*

*egoalako*

*bait zegoen*

*heldu*

*iritsi*

*etzunduta*

*etzundurik*

*berbaz hasi ziren*

*hizketan hasi ziren*

Mugatu singularra *-agaz* eta mugatu plurala *-akaz* izan arren, batua analogiaz *otsoekaz* darabil.

Itaun daiteke, bestalde, ea zer dela eta bereizten duen kausala bizkaieran eta estandarrean.

*Etzundurik* forma bizkaieratik ekarri du.

*Berbaz hasi ziren* dakar bizkaieraz eta ez *berbetan hasi ziren*, batu-ko *hizketan hasi zirenen* parekoa. Hemen erraz gerta daiteke irakas-kuntza bidez etorria *hizketan* edo *berbetan* izatea eta, beraz, ikasleari berez atera zaion forma hori *berbaz hasi*, gramatikalki alfabetatu barik geratzea, luzarora atrofiara iritsiz.

(TX-3)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*entzun ebazan*

*entzun zituen*

*Entzun zituen* ere bizkaiera da, baina ez ikasle honek, ezta bizkaiera literarioa ikasitakoek ez dituzte erabiltzen *dauz* eta *ebazan* aditz formak baino. Zalantzarik gabe, kasu honetan curriculumean bertan proposatzen den eredia azaltzen zaigu:

*Honela bizkaieraz “jatortzat”, gintzazan, dauz, ebazan, eitean eta beste eman ohirak dira nahiz eta guzti horiek berrikuntzak izan gainerako euskalkietarik hurbilago eta bizkaierazko testuetan askozaz zaharrago eta ugariago diren ginean, ditu(z), zituzan eta zidinen aurrean, eta herri euskararen hedatuagoak izan arren azkenok. Adibidez, Azkuek *dauz, gauz, etab. ematen ditu bizkaieraz jatortzat Morfologia-n (II-544); Altubek oso bestela ikusten zuen arazoa euskaltzainburuaren liburuari egin ohar interesgarrietan. Lakarra (1992: 31)**

(BERM-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Jaramon egin eutson*

*Kasu egin zion*



*Jaramon*, Azkuek (Bc) bizkaieraz komun dela dakarren arren, ikaslearen gogoan ikasi egiten duen multzoan ez bada sartzen forma bat –nahiz eta oso jatorra izan–, orduan ez da batua. Ikasleak jakin baleki (Bc) den sintagma baturako ere balioko dela, ez luke batuan *kasu eginekin* ordezkatu. Eta bizkaiera berak dakiena baino askoz sakonagoa, oparogoa dela eman behar zaio iragartzera, ezen bizkaiera batua-rekin gainerako euskalkiekin bezala, sakonean batzen da eta.

Bide honetatiko batua eraiki behar da Mendebaldean, bizkaieratik batura zilegi den guztia sartuta.

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**      **Euskara batua**

*amama makal daulako*      *amama gaixorik dagoelako*

Bizkaierazko *makal* ez du batura pasatzen. Beraz, hemen bizkaiera bera baino –ikasle hau eskolan bizkaiera ikasi bakoa da–, zer batu klase irakasten den da kontua ezen, ikasle honek darabilen euskarari, elementuetarik asko dira batuko, baina ez ditu batuan txertatzen. Iritzi berbera eman daiteke Euskal Herrian argitaratzen ari diren edo orain-tsu argitaratu izan diren Euskal Entziklopedien gainean: *Berba* hitzak aldamenean (B) bizkaierazkoa dela dakarrenez, ele hori dialektotzat jotzen da, mugatutzat, markatutzat. Ondorioz, ezin pentsatuzkoa da batuan frankiziaz mugituko denik. Lexikoa ondare komuntzat erakutsiko da testu teorikoetan, praktikan, ordea, euskalkiaren marka ezarririk, hitza katigatuta, hego gabe lagatzen da.

Alderantziz, kontzeptu zabalagoko batua irakatsiko balitz, bizkaierako elementu asko erantsi ahalko litzaizkioke euskara batuari. Dena ez, ordea, hezurdura den aditza ez, esate baterako. Horrexegatik da beharrezko batuak integratu ahal duenaz gainera –ahal duela jakiteko–, txertatu ezin duen hori ere bizkaiera literarioaren bidez alfabetatzea.

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**      **Euskara batua**

*Otsoa hasten dako berba eiten*      *Otsoa hitz egiten hasten zaio*

Estandarizazioak lexikoaz gainera perpauseko hitzen hurrenkera ere aldatu dio. Badirudi, –zoritxarrez iruditu baino gehiago–, euskara irakasteko didaktikan ez dugula. S. Altuberen kortse estua gainditu joserari dagokionean ere. Zein tamalgarria den berez etxetiko hizkerak damaion kontakizunerako ordena, gramatikakeriarengatik itotzea!:

*Galdegaiaren legea betearaziko dien hitz ordenaz ihardute-rakoan, S. Altubek ez ditu hizketa ezberdinak bereizten. Ez ditu, adibidez, elkarrizketa eta kontu kontaketa edo ipuinketa dife-rentziazten. Galdegaiaren betebeharrak orokortzat jotzen ditu, jenero literario ezberdinak ezertarako kontutan hartu gabe.*

*Jakina, hori egitean errealitatearen kontra jokatzeko duela esan behar. Euskal Herri osoak duen hizketa eta narrazio praxia ez du kontutan hartzen, eta ametsezko hizkuntz-praxia bati le-goizkiokoen erregelak ematen dizkigu. Osa Unamuno (1990: 214).*

Arazo sakon hau berdin dabil oker euskara batuan jardun zein euskalkian aritu. Kontuan hartu beharrekoa da, edonola ere, bizkaieraz da-kien hiztunak familiarrik dakarren aberastasun hori –ekonomikoki kos-turik ez duena–, eskolak jaso eta egituratu ordez, aldrebestu eta okertu egiten duela.

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Eskoiko bidetik*

*Eskumako bidetik*

Ikasle honi ez zaio ikaste esanguratsuen arabera irakatsi. Ez zaio etxetik dakarren *eskoi* euskara batura hain erraz alda daitekeen *eskui*-negaz lotzen irakatsi. Hor da bizkaiera irakastearen –Euskal Herriko edozein euskalki–, oinarri didaktikoaren gakoa. Hemen ezer baino gehiago ikaste memoristikoa gertatzen da:

*En el aprendizaje memorístico, la información nueva no se asocia con los conceptos existentes en la estructura cognitiva y, por tanto, se produce una interacción mínima o nula entre la información recientemente adquirida y la información ya almacenada. (Novak 1985: 74).*

*El aprendizaje significativo, por el contrario, tiene lugar cuando se intenta dar sentido o establecer relaciones entre los nuevos conceptos o nueva información y los conceptos y conocimientos existentes ya en el alumno o con alguna experiencia anterior. Ausubel (1989: 37).*

### 6.3. Euskalki literarioaren izaera

Batxilerreko zentroetan:

10. itauna. (Kirikiño).

Idatz itzazu elkarren parean, bizkaieraz eta batuan, asteko egunak eta hilabeteak:

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	batuan	bizkaieraz	batuan	Bizkaieraz
1. ikaslea		Martitxena (1)	Ondo	Ø
2.a	Larumbata (1)		Ondo	Ø
3.a			Ondo	Ø
6.a			Ondo	Ø
8.a			Ondo	Ø
17.a	Ostirala, zapatua, igandea. (2)		Ondo	Ø (3)

(1) Ortografia akatsak ez ditugu zuzendu.

(2) Askartza ikastetxean ere aurkituko dugu jokabidea hau, alegia, bizkaierako egunen izen batzuk eta batuko beste batzuk tartekatzekoa. Testuen koherenziaren izenean, baina, ezin onar dezakegu euskalkia eta euskara batua nahasterik. Ondorioz, proposamena diafanoa da, bizkaieran gabiltzanean, asteko egunak bizkaieraz idatziko dira koherenziaren izenean.

(3) Ulergaitza da bizkaiera eta bizkaieraz irakasten den ikastetxean hilabeteen izenak inork ere ez jartzea.

#### 10. Itauna. Askartza.

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	batuan	bizkaieraz	batuan	Bizkaieraz
1. ikaslea	zapatua, igandea (2)			Ø
2.a				Ø
3.a				Ø
6.a				Ø
8.a				Ø
17.a				Ø

(2) Arestian aipatu dugun asteko egunen nahasketa batua-bizkaierakoa.

10. Itauna. (Bermeo Institutua).

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	batuan	bizkaieraz	batuan	Bizkaieraz
1. ikaslea				Ø
2.a				Ø
3.a				Ø
5.a				Ø
11.a				Ø
18.a				Ø (3)

(3) Sakon itaundu beharrekoa da, ea bizkaiera eta bizkaieraz ikasitako ikasleok –hala Bermeoko Institutukoek, nola Askartzakoek, nola Kirikiñokoek– zelan ez dituzten jartzen hilabeteen izenak bizkaieraz. Ulergarriago da, ostera, Txorierriko zein Getxo III-koek ez idaztea, inoiz bizkaiera landu barik, nahiz eta etxeok badakizkiten eskolara etorri barik. Hara ikasketa esanguratsua aintzat hartu gabeko egoeraren ondorioa.

Errealitate honek hausnarketa hauetara ginderamatzake.

1. Bizkaierak diglosia gehiegizkoan edo ezeuskalki izaeran dihardu, jardun izan du, aspaldietako urteetan, irakatsi egin den ikastetxeetan ere.

2. Irakasleek bilaketa neketsua leukakete hilabeteen izenak modu bateratuan idatzirik aurkitzeko, eta zer esanik ez ikasleek, ezen bizkaiera irakasteko baliabideak urri dira oso eta.

3. Bizkaiera arautzeko premia gorria dakusagu, bizkaiera irakats dadin eredu fidagarriak behar baitira.

Behar bada, froga gabeko hipotesietan murgilduko ez bagara ere, neke handiegi barik ondoriozta dezakegu, atarizat jo daitekeen hilabeteen izenetan arazoekin aurkitu bagara, zerekin ez genukeen topo egingo bizkaieraren barreneraino jaitsiko bagina, jakinik dakigun legez, Euskaltzaindia 1968 ezker ari dela etengabeko Araugintzan eta ez duela oraindainokoa bere xedea atzeman.

## 10. Itauna. (Txorierri).

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	batua	bizkaiera	batua	bizkaiera
1. ikaslea		Eguasten		
2. ikaslea		Barikua		
3. ikaslea		Sapatue, Domekea.		
6. ikaslea		eguastena		
8. ikaslea		Ø		

Bizkaiera ikasten ez den institutuetan ahozkoa idazten da, beste barik. Euskalkia, diglosiaren barruan autonomoa dela aise ohartzen gara, zeren euskara batuan alfabetaturik dauden ikasleok ez baitira gai ortografiako arauak bizkaierara dedukzioz aplikatzeko. Beraz, bizkaieran alfabetatu barik gelditzen dira. Irakaskuntza esanguratsurik ezaren adibide argi-argia.

## Kanboko 4. itauna:

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	Batuan	Euskalkian	Batuan	Euskalkian
1. ikaslea	astelehena asteartea asteazkena ostegüna ostiralea neskenegüna igantea			urtarrila barantaila martxoa apirila maiatza arramaiatza üztaila agorri seteme urrieta azaroa abentüa
2.a	1.ak bezala			1.ak bezala
7.a	1.ak eta 2.ak bezala, salbu honek igandea			1. eta 2.ak bezala

	Asteko egunak		Hilabeteak	
	Batuan	Euskalkian	Batuan	Euskalkian
4.a	Batuko berberak			Batukoak
10.a	astelehena asteartea asteazkena osteuna ostialia larunbata/ ibiakoitza igandia			Batukoez gain agorrila buruhila azarua
9.a	Batukoez gain ortzeguna ortzirala			Batukoez gain buruila aziila

Lehen ikasleak, zuberotarrak, idaztean, eskolatzearen eragina nabari du, bestela erabileraren arabera idatziko balu, ondoko aldaketak egingo lituzke: asteartia, astizkena, ostiralia, neskenegüna, eta igantia.

Zazpigarren ikasleak erabiltzen duen aldaera ere maiz agertzen da, baina hemen ere igandia da ahoz erabiltzen dena.

Bederatzigarren eta hamargarren ikasleak, baxenafarreraz ari dira, bi eskualde ezberdinetakoak dira. Bederatzigarrenak, hala ere, ahoskatzten duen moduan idazten du.

### **Batxilerreko 8. itauna. (Askartza):**

Perpaua hauek bizkaierara moldatzeko, zer aldatuko zenuke?

(1) eta (5) Nik *irteni* bizkaieratiko balio trantsitiboa erantsi diot berriaz. Ikasleak, ordea, bizkaierako testuan *urteni* baturako intrantsitibo balioa gehitu dio, baina *urten* mantenduz. Bizkaieraren gramatikak trantsitiboa eskatuko luke, *irten dagian*. Hemen, ordea, ez da bizkaieraren indarra somatzen. Eskolak –irakaskuntza esanguratsuen legee jarraikiz– ikasleak badakien *urten* + trantsitibotik abiatuta irakatsi balio ez zatekeen oker hau hainbestean ikastolako berbeta izatera pasatuko, betiko euskaldunaren erabilera ordezkatzuz. Honelako irakaskuntzan ez dira bereiztu ikasketa esanguratsua eta ikasketa errepikakorra. Ikasketarako material berria eta ikaslearen aurretiko ezagupenen artean

ez da loturarik egin, ez da diglosia irazia gauzatu euskalkia eta batuaren artean. Ikasketako material berria modu arbitrarioan erlazionatu da ikasleak zekienagaz, ez modu substantiboan eta, orduan, ez da bere e- struktura kognostzitibora asimilaturik geratu. Ikasleak ikasketa memo- ristiko eta mekanikoa gauzatu du, errepikakorra deitua. Hementxe da- goke arrazoiatariko bat bizkaieran alfabetatzea haur Hezkuntzara mugatu barik, gutxienez DBHren amaiera arte luzatzekoa, honenbes- teko adina behar baita gramatikako zenbait arlo –hauxe bat– erreflexo- ki jasotzeko. Adibide antzekoa ematen digu (5)ekoak. Agintera Derri- gorrezko Lehen Hezkuntzan landu ez bada, esate baterako, eta bizkaiera ikastea maila horretara mugatu, orduan ikasleek goragoko mailetako edukiak jaso barik geratzen dira.

	1. ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
Goizean					Goizan (3)	
etorri den	dan	dan	dan	dan	dan	dan
idazkari berria,	barria	barria	barria	berria	barria	Barria
zuzendaria ren						
alaba	alaba zan	alaba zan	alaba zan (4)	alaba zan	alaba zen	alaba zan
izan da						
Utz ezak/n	egizu	dagik	dagik	dagik	ezak	Egik (5)
baketan lorea,		paketan lorea (9)				Bakean
azkar	(2)					
irten dezan	daiten	urten daiten (1)	daiten	daiten	daiten	Daiten
Zein dabil	nor	nor	nor	nor	zein	Nor (6)
larrua	larrua	narrua	larrua	narrua	larrua	Larrua (7)
elurretan	elurretan	edurretan	edurretan	edurretan	elurretan	elurretan (8)
sartzen?	Sartuten (10)					

(2) Nire presupuestoetan *arin*, *bizkor* edo tankerako sinonimoa jarriko zutelakoa neukan. Behar bada, sinonimian daudeke antzu.

(3) Euskaldun berrien hutsa. Neure praktikak irakatsi didanetik, bizkaierako  $a + a = ea$  bizkaierako artikularen erabilerak alderantzizko okerrak sortzen ditu gero eta sarriago. Esate baterako: bizkaieraz *tabernea* denean, inesiboan *tabernean* egitea.

(4) Inork ez du *alabea* jartzen eta bizkaiera ere ikasiak izanik normaltzat hartu beharko litzateke. Baina, hementxe agertzen da bizkaiera literarioak euskara batuarekin duen harreman diglosikoa. Kasu honetan, gainera, ez luke eraginik izan behar corpusak, estatusak, ostera, bai. Euskara batuak euskararen funtzionamenduan Ferguson-en A hizkuntzak betetzen duen zeregina betetzen du, euskalkiak B hizkuntzarena. Ondorioz, -idatzian batik bat- gorago, testu ugariagotan, irakaslerik gehien jardunean, ageri den berbetak eragiten dio azpirago geratzen den euskalkiari, nahiz eta fenomeno guztietan ez hori gertatu, zeren *leike* adizkeran erakutsiko dugunez, han ahozkoaren euskalkiko eragina inposatzen baitzaio -B hizkuntza Ari- euskara batuari.

Bizkaieraren estandarizazioaren aldeko idazle zein hizkuntzalariek *alaba + a = alabea* defendatzeak ez du baztertzen alderantzizko iritzia ere. Lehengo bizkaiera eta gipuzkeraren arteko harremana geografiak zilegiztatzen zuen topaguneetan gertatzen bazen ere, gaur eguneko euskara batuaren irakasketa sistematikoak etengabeko ukipenean jarri ditu bizkaiera eta euskara batua. Ondorioz, euskalkiaren eta euskara batuaren artean ukipenen teoriak estudiatzen dituzten eraginak ematen dira. Ezinezko da, beraz, 1968ko sasoiaren aurreko euskararen estatusa soilik kontuan harturik jokatzeari.

Bestalde,  $-a + a = ea$  ez da bizkaierako fenomeno bakarririk, gipuzkeran -urrunagora jo barik- lurralde zabalak hartzen ditu, *egin* aditzak -ezaren aldean area oso zabalak bereganatzen dituen bezala, edo alderantziz -diglosia zergatik deitzen dugun txertatua adierazteko- *-eza* arrunta izan zen bizkaieraren eremuetan.

Gainera, bada beste arrazoi bat -erabatekoa, nik uste- ikasleak  $-a + a = -ea$  arautzat harturik ere, *alaba + a = alaba* erabil dezan zilegiztat hartzekoa. Lehenengo, euskara batua modernizatzean sortuz doazen termino berriak bere horretan lagatzea gomenda daiteke: *automata*, *sonata*, *aorta*, edo kulturatikoak: *post data*, *hemeroteca*, *eureka*, edo batua ikastean etorriak: *gramatika*, *errepika*, *karrika*.




Bigarren, arrazoi historikoak eurak dira arrazoirik asko, K. Mitxelena (1981: 306):

*En vizcaíno, como se sabe, se cumple, en los temas nominales en -a, cierto fenómeno de acomodación (disimilatoria), cuando el artículo determinado sigue a esa vocal : de domeka “domingo” tendremos domekea “el domingo”, erg. domekeak, ect. Pero esto, de manera por demás curiosa sólo se cumple en singular, con la señalada excepción del locativo: domekaan, de donde domekan, pero nunca \*\*ean. De modo que, mientras de erg. sing. domeka + ak (si se quiere de \*-ag) no se sigue más que domekaak y, por contracción, domekak. (...) (...) a las explicaciones históricas que aquí se reducirían a afirmar que el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a -a + a en -ea, ect., ya no era operante.*

Halan da ze, aspaldietako kontua da, gaurko euskara batuaren ukipena iritsi aitzinekoa.

(6) Euskara batuan erdiko euskalkietakoek erabili ohi duten *zein* galdetzailea bizkaierako ikasleek sistematikoki jartzen dute *nor*. Euskara batuaren finkapenean oraindik doitu ez den arazoa ageri da hemen, alegia, euskara batua euskalkien ekarritik aberastu eta osotuta dagoela onartu ostean honen tankerako ondorioetara heltzea. Oraingo honetan bizkaiera bada inor euskal diglosia txertatua euskara batuari apartazioa egiteko:



Testuinguru honexetan iragar dezakegu tesiaren hastapenetik baieztatuz dihardugun euskara batuaren A hizkuntzatasuna, euskalkiak B hizkuntza lirartekeen euskal diglosiaren barruan. Ferguson-ek bere diglosiaren gaineko teorian hizkuntza jaso deritzana gure euskal diglosian euskara batuari badagokio, hain zuzen ere, euskalkiak baino jasoago eta euren ekarrietatik osotuago delako da:

*Donat aquest enfocament, però, por fer l'efect que es tracta de les peces d'un puzzle que, ben encaixades, donarien la totalitat d'aixó que en diem llengua catalana. López del Castillo (1976: 69).*

Jarria dugun adibidean, *zein* galdetzailea gipuzkerako euskalkian ezin hobeto erabiltzekoa dena, euskara baturako bizkaierak aniztasun aberatsagoan gordetzen duen *nor/zein* bikoteagaz osotuko genuke Euskal Herri guztiko euskara baturako. Printzipio hori modu orokorrean aplikatuzetik sortzen da euskal diglosiaren paradigma.

(7) eta (8).etan kontsonante alternantzia zalantzaz beterik ageri da. Badirudi irakaskuntzan ez dela finkotasun nahikorik erdietsi.

(9) Ikasle honek *paketan* beste euskalki batzuetako fonetikaz jaso du, euskara baturako berezko zaion erabilerara ozena baztertuta.

(10) *Sartzen* aditza *sartuten* kontsideratzen bada bizkaierarako, suposa daiteke, edo ez dagoela jakitun zelan bata nahiz bestea diren bizkaierako, edo guk kriterio zuzentzat daukaguna euskara batutik hurbilen dagoena hobesteko jokabidea ez duela bereganatu, eta, ondorioz, *sartzen* bizkaieratik kanpo geldituko dela.

### **OHOKO 9. Ariketa:**

Konta ezazu 10 lerrotan, –bizkaieraz idatzita: *deutsut, naz,..*– Olentzaro orain arteko urteetan zelan portatu izan den zugaz.

Bizkaieraren berezitasunak:

Oso gutxi nahasten dute ahozko erabilerarekin, *urtietan* bezalakoak erabiliz.

*Olentzaro ez jat etorri, erregeak baino.* Batuaren bitartez, *bainoren* posizioan *baizik* da irakasten den bakarra. Hor agertzen da bizkaieraren irakaskuntzak *baizik* eskura ez dezakeen euskara mota.

*Nozik behin, esan neike* moduko forma guztiz jatorrak, nekez dira topatzen idatzian –ahozkoan bai, ostera–.

*Zeren eta, etorri beharko zan* (intrantsitiboan), *nahiko baitira, zerbait*, eta beste batuko forma batzuen erabilerak bi esanahi izan ditzakete: bata, bizkaieraz idatziriko testua izanik, badirudi forma horien bizkaierazko ordezkoez baliatzea litzatekeela berezkoena; bestea, behin testu idatzietan dihardugunean zeozer den idatzia atondu nahi denean, ezin txokoratua dela jadanik, gaur egunean, batuaren ekarria. Guk, tesian egokitzen jotzen duguna da, euskalkia eta estandarra ukipenean direlarik harreman diglosikoa naturala izatea hizkuntza berean.

### **OHoko 10. Ariketa:**

Zein da desberdintasuna bi perpausa hauen artean, batua eta bizkaiera kontuan hartuz gero?

1. Amamak txakurrari buztana ebaki dio.
  2. Amonak zakurrari isatsa moztu dio.
- A) Bata batua da eta bestea ez.  
B) Biak dira batua.  
C) Bata bestea baino batuago da.

20tik 9k bata bestea baino batuago dela erantzutea, hots, 2.a 1.a baino batuago dela, oso kontuan hartu beharreko iritzia da, hortxe islatzen baita estandarri buruz hedatu izan den kontzeptua, beti ere norbere hizkera moldetik urrundua.

### **OHoko 11. Ariketa:**

Ezin nabarmenago frogatzen da:

1. *Atzamar/behatz* sistematikoki bereizten dutela.
2. *Anaia eta nebaren* bereizketa zuzen daukatela.
3. *Gaztea da/Gazte dago* hutsik gabe banatzen dutela.
4. Mugagabeen ez dela nahasketarik ageri, *bost etxetan/bostak* 20tik 19k zuzen bereizten dutela.

Beraz, euskara estandarrik ere ikasleongana heltzen den testu nahiz irakasleen bitartez, zuzen eta artez erabili behar dituela forma hauek, ezen, gaur artean, zabarkeriaz betetzen da eta.

### **OHoko 12. Ariketa:**

20 ikasletik, 20ek jartzen dute *ordu batetan (edo ordu batatan)*. Euskaltzaindiak *ordu batean* hobetsi arren, deskontsideratu egin behar ote dugu, gutxienez, Mendebalde osoko erabilera hau? Ala bizkaieraz irakasteko soilik gorde? Bizkaieraz irakasten ez den eskoletan, orduan, zer gertatzen da hain erabilera unibertsaleko formakaz?

### **OHoko 13. Ariketa:**

Euskaltzaindiak maila literariorako *zein* gomendatu arren, 20 ikasleok pluraletan sistematikoki darabilte *zeintzuk*.

#### OHoko 14. Ariketa:

*Bertoko* eta *bertakoren* arteko bereizketak bizi-bizirik dirau.

#### Batxilerreko 5. Itauna (K-1)

E.B.	B.L.	L.L.
ditut	Dodaz	

Ez ikasle honek, ez gainerakoek, ez daukate *ditut* bizkaierakotzat, nahiz eta XIX. Mendera arte *ditu* agertu eta ez *dauz*. Gaur egun ere *ditut*-ek bizi-bizi dirau, *dituz* eta *dauz*-egaz batera. Irakaskuntzan hala-ko eskeman irakats ditzagun komeni da:

E.B.	B.L.	L.L.
ditut	Ditut/dodaz	Ditudaz/dodaz

#### 5. Itauna (K-17)

EB	BL	LL
dezaket	daiket	Nei
		Lei
		Leigu
		Leizu
		leizue

Aztergai bi baditu: batetik, irakatsi zaien bizkaiera literarioa eus-kara batuaren pareko eskemari jarraikiz gauzatu zaie, hots, *dezaket*-en ondoan *daiket* ezarriz, baina pedagogia egokian bizkaiera literariorako *neike* jarri beharko litzateke, ulertzen dugun moduan euskalkien irakaskuntza –euskararena– ikasleak dakienetik abiatuak garatu gura bada; bestetik, bizkaiera ikasteak etxetiko ez dionez osotu, *leigu*, *leizu* formak logika erabiliz ateratzen ditu.

Garrantzitsuena, ordea, euskal diglosiari dagokiona da. Euskalkia heteronomoa dela esana dugu, ez daukala autonomiarik, baina autonomian bizi da. Nortasun hori badaukala uler dezagun aski da adibide hau: *dezaketetik* abiatuz nekez ulertarazi dakioke ikasleari *nei* forma

autonomian bizi dena, *dezaket*en ondoan bere kanpo semantikoa, bere ñabardura eta tasuna gordetzen duena euskara batura murriztu barik. Jakinik, gainera, *nezaketik* baino *dezaket* erabiliz azaldu ohi dela. Ikaslearen kontzientzian dagoen formatik abiatu gura dugu irakaskuntza esanguratsuan, eta adibide honetan ikaslearen kontzientzian azpieuskalkia baino ez dago, gainerako erregistroak ikasi arte.

### Iparraldeko ikasleen 3. Itauna, Mendebaldeko 5.aren parekoa:

Batua	Zuberera						
		1.a	2.a	7.a	4.a	10a	9.a
Naiz...		Niz Hiz Da Gira Zira Zidee Dira	zidea	nüzü  düzü gütüzü  dützü	niz hiz da gira zira zirete dira	nuzen hiz duzen gitzu xira zizte tzen	niz hiz da gia zia zizte dia
Ditut		Dütüt dütük dütü dütügü dütützü dütützüed ütie	dütüe	ditzat dük ditü ditzügü ditüzü ditützüe	tut tuk/tun tu ditugu dituzu dituzue dituzte	txitditxit tuk/tun tu(di)txi tun/txiu dituzen/ tzen tzie/dituz ie tzie/tuzte	tut tuk/tun tu tugu tuzu tuzi diuzte
Dezaket.		Nikezü hikek likezü ? ? likezüe		Ahal nükezü “ ginikezü “ dikezü + lükezü + zünüke	Batuko berbera dakar	dezake xut dezakek/ dezaken dezakexu dezakezie dezakexi e	ahal dut <u>eta ahal</u> <u>guztia</u>
Nadin...		nadin hadin dadin gitezen zitezen zitezten ditezen	gitian zitian  ditian	Ø	nadin hadin dadin gitezen zitezen zitezten ditezen	nain hadin dain gitezen zitezen zitezten ditezen	10.ak bezala

Naiz aditzari dagokionez, lehen ikasleak eskolatzearen eragina du hemen, bestela, 9. Ikasleak baxenafarreraz idazten duen bezala idatzi beharko luke. Aldaketa bakarra, *zizte* idatzi ordez *zide* idatziz.

Bigarren ikasleak idazten duen *zidea* forma bitxia da eta ez da usaiazkoa.

Zazpigarrenak idazten dituen forma horiek, xukako alokutiboarenak dira zubereraz.

Laugarren ikasleak, baxenafartarra, eskolaren eragina nabaria du. *Hi* forma ere erabiltzen du, baina gero ez du alokutiborik erabiltzen.

Hamargarren ikasleak erabiltzen dituen *nuzen*, *duzen* eta *tzen* forma bitxiak dira. Bestalde, *hi* forma erabiltzen du eta *gitzu* xukako alokutiboa nahasten du. *Xira* neutroa izan arren, bustidura *xuka* aritzera-koan erabiltzen da. Hamargarrenak ahoskatzen duen bezala idazten du.

*Ditut* aditz formari buruz esan daiteke, lehen ikasleak erabiltzen dituen formak usaiazkoak dira. Bigarrenak erabiltzen duen aldaera ere bai.

Zazpigarren ikasleak erabiltzen duen *ditzat* forma bitxia da. Ondoren *duk* forma neutroa erabiltzen du, eta segidan *ditzugu* xukako alokutiboa. Beste formak ere usaiazkoak dira.

Laugarren ikasleak singularreko formak erraten diren bezala erabiltzen ditu eta pluralekoak idazten diren bezala.

Bederatzigarren ikasleak ahoz erabiltzen dituen bezala idatzi ditu aditz formak.

Hamargarrenak nahasten du xukako alokutiboa, forma neutroa, ahoz erabiltzen duena eta idatziz erabiliko lukeena. *Txit* eta *ditxit* biak erabiltzen dira (xukako alokutiboa). *Tuk/tun* ahoz, *hik-haiek* forma neutroan. *Tu*, ahoz, forma neutroan; *txi* edo *ditxi* xukako alokutiboa. *Ditugu*, baxenafarreraz, ez da *tun* erraten, baina bai *txiu* xukako alokutiboa. *Tzen* eta *tzie* ez dira entzunak, aldiz, *ditutxie* bai. Azkenik *dituzte* adierazteko, *tuzte* ahoz forma neutroan erabiltzen da eta *txie* xukako alokutiboa.

**Dezaket:** Lehen ikasleak idatzi zuen formetan *nikezük* nuke xukako alokutiboa erabiliz dela dirudi, ondoren *hikek* batuerako *huke* eta *likezü* batuerako *luke* xukako alokutiboa erabiliz. Gero *likezüe* lerratze bat izan daiteke.

Zazpigarren ikasleak *dikezü* erabiltzen duelarik *likezü* erabili beharko luke beharbada, edo *lükezü*. *Zunüke* hemen jokoan kanpo dagoela dirudi.

Hamargarren ikasleak xukako alokutiboa erabiltzen du forma gehienetan. Salbu *dezakek/dezaken* darabilelarik eta *dezakezie*. Bestalde, pluraleko lehen pertsonari doakion alokutibo forma ez du idatzi.

**Nadin:** Lehen eta bigarren ikasleek idatzitako formak ohikoak dira. Baxenafarreraz idazten dituztenak bezala. Badirudi, halere, bigarren ikasleak izan ezik, besteek eskolaren eragina dutela, nahiz eta berderatzigarren ikasleak singularreko hirugarren pertsonan, ahoskatzen duen gisara *dain* idatzi.

#### 6.4. Etxeko euskararen izaera

##### Batxilerreko 11. Itauna

##### (Kirikiño)

Idatzi hamar berba, aditz edo esaera, etxean erabiltzeko balio dutenak eta ez institutu edo ikastetxerako.

1. Ikaslea.	Etxie, kalie, eguerdixan nator, burue. (1)
2.a	Leidu, eskribidu, entendidu, numeroa, anteojuak, kristala, guardasola, bizikleta, zastokia, borragoma. (2)
3.a	Ø
6.a	Bigarrenarenak, gehi pañuelua
8.a	Ez du ulertu itauna
17.a	Inisitu, gainerakoak errepikatuak. (3)

(1) Ikasle askok etxekoa diogunean transkripzio fonetikoari deritze. Hala ere, guk tesian zehar argitu dugu, lagun bakoitzaren ideolektotik harago, baina inguruan dagoen familia, herri, eskualde, lekuan lekuko euskara, izaera autonomoko hizkera direla, betirik identifikatu izan dutela euskaldunek elkar, zerabilten berbakeratik, betidanik jakin dugula euskalkiaren barruan gutariko bakoitza nongo paraje, herri eta auzokoa ere den. Mintzamolde horrek, beraz, izan duela marka, kolore, tasun nahikoa entitate onar diezaiozun. Gehienik ahozkoaren bidez, inoiz idatzian ere bai. Hizkera horri deritzagu López del Castillogaz (1976) “llengua familiar i colloquial”, euskararen kasuan “dialectes geográfics”-i oso lotua.

(2) Ikasle honek *sastokia* izan ezik gainerako berba guztiak idaztean, guk azpieuskalki idatzizat jotzen duguna bikain jasotzen du. Be-

reizteko gai da, etxekoen artean zilegi den *leidu* baino jasoago dela *irakurri*; *eskribidu* baino *idatzi*; *guardasola* baino *euritakoa*. Eskolaren zeregin zuzena litzateke, erregistro horren duintzea, berbakera horretan alfabetatzea. Gertatzen da erregistro soil hori ezagutzen duenak pentsatzea, lexiko soilari begiraturik, *numeroa* eta *kristala* darabiltzalako berea berbeta kaxkarra dela, ezen hala adarra jo diote erdaldunek nahiz sasienskaldunek lagun artean aritu izan denean. Ez da jabetzen hiztegian bertan eta hiztegiak haraindian gordetzen dituen aberastasun aberatsez. Inork ohartarazi behar du, eta goratu.

(3) *Inisitu* berba hau azpieuskalkikotzat hartuko genuke. Eskola lekuan lekukoa irakastetik abiatuko da, ostean, bizkaiera literario eta, jarraian, euskara batuko *tximista* irakasteko. Askotan batera ere irakats daiteke, ezen eskolako eta etxeko euskaraz bateratsu telebistan edo aditu baitu *tximista* hitza.

11. Itauna. (Askartza).

1. Ikaslea	Ez dot akordurik euki; gustetan daste; <u>arrauzi</u> . (1)
2.a	Ø
3.a	Ez pabere; ekaztezu; <u>txatxamurka</u> ; ingu. (1)
6.a	Ø
8.a	Ø
17.a	Ø

(1) Ikasleak uste du ez dela ikastetxeko berbeta formalean erabilteko eta isildu egiten du hitz hau horrela familia erdaldunetakoek erabilera bizitik jasotzeko aukera paregabea galdurik.

11. Itauna. (Txorierri).

1. Ikaslea	Ø
2.a	Eskribidu; berba ein.
3.a	Lapikoa, egozi, kazulia, erain, tenedora, txapia, taloa, kutxiloa. (1)
6.a	Dekot, dotsut, eskatzian, giñarra paseu, buruko miñe dekot.
8.a	Ø



(1) Etxekoa jarri barik herrikoa jarri bagenu, emaitza osotuagoa, orokorragoa eskuratuko genukeen, zeren baitirudi honenbeste ikaslek etxe fisikoa ulertu dutela.

11. Itauna. (**Bermeo** Institutua).

1. Ikaslea	Trenak ekarrikue; zazpiko fitxilez zauz; trabeseko paela; Zerdiño? Zerdiño? Galizijjen txarrikumie!; Marijje bako arrainek; ama txarrijjen semie; karnadak orniteko; okasiñue armaten; trentaitres Lameran gitarrie; guzurren mamarrue. (1)
2.a	Ama txarrixen bragetie; bidiek eitxen nue; jjusturixe; <u>herriko haizie</u> ; kantarabijje dau. (2)
3.a	Txo! Alabatxi!
5.a	Urrutizkiñe; junbilekizan zauen; urrun da fits; fitsie. Baneteguan, ba!
11.a	Aixie hartzien jhunzaitez; astuen boluek baiño handijhaguek
18.a	Ingu apijje; ustelan ustela; txotxetxo zan; <u>lotsabaku hori</u> !; mauritxatarrekue!; hau dok etxe plastue. (3)

(1) Ikasleak eskolan erabiltzeko ez dela uste duen erregistro kolo-kial honetako ondarea jasotzetik abiatu behar du eskolak. Horrexegatik abiatu gara ikasleak dakienetik. Dakien horretan parte bat ahozkoan ondo dagoena da, beste bat idazteko –edozein mailatan idazteko–, eta ikaslea jabetu egingo da modu horretara ezagutzen duen berbetako ondareaz. Jokabide hori gauza dadin, ezin ari gaitezke eredu idatzien gidaritzape soilean, ez eta gelako inguruan bakarrik, eskola ere ez da den-dena konpon dezakeena eta. Hala ere, Aita Justo Mokoroak errepikatu ohi zuenez berbeta horrexetan topatuko dugu hizkuntzaren genioa.

(2) *Herriko haizea* eskolakotzat ez edukitzea, zelan idatzi behar den eta zer irakatsi behar den ez jakitearen ondorio dateke. Euskaldun frankok *hego haizea* zer den ez badaki ere, *herriko haizea* besterik ez du esan urteetan.

(3) *Lotsabaku* idazten du. Ez daki, eta nekez jakin ahalko luke etxetik dakarren euskararen alfabetatu ezean, *bako* eta horren eratorriak zelan funtzionatzen duten.

11. Itauna. (Getxo III).

1. Ikaslea	Sute (sukalde); <u>berakatxa</u> (1) (baratxuria); olga (2); paiñelu; kanbia (2); arrakadak (3)
2.a	Irola (komuna); ezkaratza (sukaldea); berakatza (baratxuria); kipurra (nata); (4)
3.a	Ø

(1) Bilbo Handiaren inguruetan hogeita hamar urtetik beherako gazteek *-tz-*ren ahoskera galdua dute eta *tx* baino ez dute ahoskatzen. Hauxe da adibideetariko bat. Behintzat horixe da gehienen kasua. Zail egiten da aldameneko *baratxuria tx* grafiaz dagoelako imita zezakeela pentsatzea.

(2) Olga, kanbia eta gainerako aditz partizipioak infinitibo radikalero formaz erabiltzea Loiu, Gatika, Jatabetik itsasorako ebakera da. Seguru asko eskolan landu izan ez bada, eta prestigiatu *-neuri* bertako ikasleekin gertatu bezala– lotsatu egiten dira. Inork ez die azaldu espainolezko:

*-ar euskarara pasatzean betetzen den arau fonologikoa dela: olga* edo *olgau* edo *olgen* beste leku batzuetan; *-er* eta *-ir* denean *-idu* edo *iru* edo *iu*. Barrikakoa berezia delarik *-idu* denean: *konosi, mogi*; Getxon ostera, *mogu*. Gamindek (2000: oharra)

(3) *Arrakadak, berakatxa* eta *olga* eskolarako lexiko moduan balio ez badute, horrek adierazten du, ez ahozkorako euskara bakarrik, idatzirakoa ere ez duela ikasi. Hau da, ahozkoa deskribatzeko adina ere ez eta, ziurtasunez hizkuntza formal idatzitik hartua baizik ez zaiola irakatsi. Gainera, aztertu beharko genuke hauek etxerako baino balio ez badute, ea ordea diren eskolarakoak ezagutzen dituen ala hauek kenduez gero eskolakoaren tokia hutsik geratzen zaion.

(4) Datu gutxi gehiago beharko genuke jakiteko euskalkiko zer irakatsi, eta proposatzen dugun diglosian, txertatuan, irazian, zer eraman behar den euskara batura.

## Batxilerreko 7. Itauna. (Getxo III).

	1. ikaslea	2. ikaslea
<u>Diezaioket</u>	Al dotzet (1)	Al dotsat
<u>Daiteke</u>	Al da izan	Leike
<u>Diezaioke</u>	Al dotzo	Al dotsa
<u>Deistazun</u>	Diezadazun	Diezadazun

Lehenengo iruzkin dezakeguna da, beti ere artez erantzuten dutela –ikastoletan eta bizkaiera ikasi ez arren- etxekotik euskara batura aldatzeko eskatzen zaiena, zeren hor ihardesteko behar izaten duten forma eskolak berak eskaini baitie, idatzian, bederen.

Bigarren, etxetiko formak eskolak finkatzeke lagatzen dituenak –berbetaren berezko sakabanaketarako legeari jarraituta– ikasleek zenbat buru hainbat aburuz jokatzeko dutela goiko laukian ikus dezakeguenez.

Hirugarren, (1) ekin seinalaturiko laukian aurkitzen duguna kontuan hartuta, baieztatu daiteke, irakaskuntzaren esparrutik zabaldu den *ahalen* erabilera bereganatu duela etxeko euskararen erabiltzeko. Orain, eskolak berrezartzen ez badio, zein bidetatik eskura dezake *deikeot* forma edo une honetantxe familiakide dituenek darabilten *neie* forma jatorra. Irakaskuntzako batuaren bitartez ez zaio helduko, egon ere *diezaioketetik neiora* alde galanta baitago.

## 6.5. Euskara batuaren eta euskalkiaren kontzeptua.

Batxilerreko 1., 2. eta 3. itaunak:

(BERM-1)

Batuan: *Behin batean, amak esan zion Txano Gorritxori amonaren etxera joateko.*

Bizkaiera literarioan: *Behin baten Txano Gorritxori amak eskatu eutson janari apur bat erroteko amumari.*

Lekuan lekukoa: *Egun baten Txano Gorritxuri amak esantxon amumañe jumbidauela jatekue eruten.*

Hiru kodigook funtzio desberdinak betetzen dituzte ikasleen bizi-tzan. Gu horretan murgilduko ez garen arren, badakigu kodigo bakoitzean berezitasun desberdinak agertzen direla, lanean zehar erakutsi ahaliko dugunez. *Esantxon, amumañe, junbidauela, jatekue, eruteko* eta abar halako trebezia darabiltzanak, batua eta bizkaiera literarioaz gain, bere jaioterriko euskararen sistema osasuntsu gordetzen duela darakuskigu.

Bizkaiera literarioa ikasi ez duenak, edo atal honi dagokion galdekizuna hutsik lagatzen du edo herrikoa eta bizkaiera literarioa bat egiten ditu.

\* \* \*

(ASK-2)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Egun baten*

*Egun batean*

*Mendebaldean duen hedadura kontuan harturik, mugagabea, batean zabalagoaren ondoan baten ere ontzat ematen da dio Euskaltzaindia. (ARAUAK: 1. Karpeta 42. or.)*

*Batean* eta *baten* bitzuek direla egokiak ezagutzeaz gainera, bizkaiera dakien neska edo mutilak beharko luke jabetu hor gorderik dagoen balio estilistikoaz. Izan ere ez baita berdin *Behin batean, etxe batean...* hastea edo, *Behin baten, etxe batean...* eta abar. Ohargarria da, gainera, *baten/batean* bikoteaz baliatuko den hiztun bakarria bizkaierako lurraldeetan bizi dena izango dela. Halan da ze, irakasleak, testuak, ikasgelak, taiuzko irakaskuntza praktika baleza, honelako kasuetan, Mendebaldeko berbeta aintzat hartuta beharko luke. Denontzat eraikia den euskara batuko honenbeste elementu, lurralde jakin batean baizik ez dira erabiltzen ia, nahiz eta batukoak izan. Ondorioz, lurralde horretan erabil ez balitez, batuan ere ez lirateke erabiliko eta euskarak galdu egingo lituzke. Nekez da justifikagarri testuinguru honetan euskalkia ez lantzea.

Ikus daitekeenetik, argi eta garbi agertzen da, badela euskara batuko parte bat euskalkiaren lurraldeko biztanleek baizik erabiliko ez dutena. Parte hori euskalkia da eta, batera, euskara batua. Ondorioz, ikasgelan euskalkia landuko ez balitz ere, euskara batua den parte hori nahitaez beharko luke irakatsi.

Elementu, erabilera hori, euskalkitik desager badadi –eskolatik desagertzeaz dago–, euskara batutik ere desagertuko litzateke eta, beraz, ezeuskara bilakatuko.

(BERM-2)

**Bizkaiera literarioa***Gaixorik egoan eta***Euskara batua***Gaixorik baitzegoen*

Esaten gatozenaren haritik, ikasle honek kausalitateko perpausak euskalki eta baturako bereiztean ikusten da diskurtso desberdina erabiltzeko gai dela, bai Euskadi Irratian diharduenean zein Mungiako azokan solaskideari zuzentzerakoan, zein jokabide erabat garrantzizkoa den. Azken baten, erregistro bien jabe da.

**Bizkaiera literarioa***Otzara koisten dau***Euskara batua***Otzara hartzen dau*

Azkuek honelaxe dakar: “*Koixidu (B-beg-zam) (Beg=Begoña -gaur Bilbok janda dagoena-, eta (zam=Zamudio), coger, saisir. (v.Koiu: (B-a) (a=Arratia). Ikasle hau Getxokoa da. Aise froga daitekeenez, Mendebaldeko bizkaieran oso hedatuta dagoen berba da. Jarraitzen du Azkuek (1969):*

*En B-l se concreta su variante kojidu a significar el acto de recoger los aparatos de pesca.*

\* \* \*

Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra izenburuaz argitaratutako Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian ere badator Juan Luis Goikoetxeak Mendebalde Kultur Alkarteko lankide askoren izenean sinatuta 300 hitzetako proposamena. *Koiu: harrapatu, hartu. Coger, tomar. (1994:815). Ikasle honek, ostera, ez du batura pasatzen. Hortxe sortzen da euskalkiaren erabilera erregulatzerakoan izan behar ditugun kriterioen premia. Alde batetik, maiztasun handiko hitza da; bestetik, euskara batuan ez du, oraindik, behar hainbateko prestigiorik bereganatu. Frogatua daukagu Mungiako Larramendi Ikastolan, ezen eskualde horretan erabilera oso handiko hitza izan arren, ikasleek, eta regresioz, guraso askok *koiu* berba erabat bazterturik *hartu*rekin ordezkatu dutela, zein erabilera ugaritan oker ordezkatzan den. Irakaskuntzak ikasgelako erabilera kolokialera bultzatu duenez, disfuntzio astuna sortu du: *Koiu pilota hori artez dago; baina Harrapatuko zaituten tokian Hartuko zaitut oker dago. Testuinguru horretan Koiuko zaitut* baizik ez baitago zuzen:*

*Izan ere, hitz guztiak ez daude maila berean: hitz bat maila arruntean ongi egon daiteke, eta hortik kanpo, gaizki; eta alderantziz, maila klasikoan on dena, lagunartean bere tokitik kanpo da. Villasante (1988: 225).*

Ikasle berberak dakar geroxeago:

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Txano Gorritxo sokorruke*

*Txano Gorritxo oihuka*

Ikaslea ohartzen ez bada ere, berba bat batukoa eta bestea bizkaierakoa izateaz gain, maila desberdineko bi termino ere badira.

Batxilerreko 5. Itauna K-2)

E.B.	B.L.	L.L.
dira	dira	Direz
dute	dabe	Deuriez

Galdeketan erantzundakotik, aitak baino ez dakien arren etxeko euskara, berak badaki lekuko berbeta. Hala ere, azpiko taulan dakusagunez, ez du ezagutzen azpieuskalkirako *zineten*-en parekoa, hau da, *zinian/zintziezan*.

E.B.	B.L.	L.L.
zineten	zinian	zinian/zintziezan

Batxilerreko 7. Itauna. (Askartzakoak):

	1. ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
<u>diezaioket</u>	daikiot	dakioket	daiketsot	–	–	–
<u>daiteke</u>	daiteke	daiteke	daiteke	–	–	–
<u>diezaioke</u>	leikio (1)	dakioke	daiketso	–	–	–
<u>deistazun</u>	diezadazun	dezadazun	diezadazun	–	<u>diezadazun</u>	Ditzazun

- (1) *Dezake* → *Lei* Ohar gaitzkeenez, eskema hau aditz joko osora hedatzen  
*Lezake* → den froga da hemengo.

Batuan orainaldiko potentziala denari bizkaiera hipotetikoaren parekatzen dio. Froga bat gehiago baino ez da 6. galderan azaltzen denarena. Aditzaren atal hau zuzen lantzeak irakaskuntzaren kalitatea hobetzea dakar. Eta puntu honetan argiro adieraz daiteke, oker handia dela bizkaiera berba egiten dakienari, irakaskuntza esanguratsuen printzipioei jarraikiz etxekotik abiatu beharrean, euskara batutik abiatzea, erdaldunekin erabili ohi ditugun metodo berberekin. Horretara jokatzeko antipedagogikotzat hartzen dugu, ondorio modura dakartzan interferentzia zein okerregatik.

Beraz, euskara batua irakasterakoan bizkaiera ere irakatsi beharra dagoen froga argia da. Irakasleek ere ezagutu egin behar dute ikasleak zein euskalkitatik datozen, zein oztopo aurki dezaketen.

Horrexegatik, euskal diglosia irazira etorririk, bistan geratzen da, beti ez duela estandar batuak euskalkiarengan eragina gauzatzen –euskara batua A hizkuntza izanik eta euskalkia B hizkuntza–, aipatuz gero aditzotan, eta oraingo leikio honetan, ahozkoaren indarra idatzizkoari nagusitzen zaionean gertatu dena diglosia irazia dela frogatuz.

Batxilerreko 9. Itzuna. (**Kirikiño**).

Perpaua hauetan batuan dagoena bizkaierara moldatu eta bizkaiera dagoena batura:

	1. ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
Edozer						
erosikeran	Erosterakoan (1)	Erosterakoan	erosterakoan	erosterakoan	erostean	Erostean
prezioari						
begiratu						
behar jako	zaio	zaio	zaio	zaio	zaio	zaio (2)
Aurkitu dugun	topatu	topatu	topatu	topatu	topatu (3)	topatu
bezala	(4)	moduan	bezala	moduan	moduan	bezala
utzi dugu	dogu (5)	itxi dogu	dogu	itxi degu	itzi dogu	utzi dogu
logela.						

(1) *Erosikeran*: ueña nahiz egintza bera adierazten duen aditz atzizki hau –bizkaiera nahiz gipuzkeran –eta ez gipuzeran– *-keran* bezala erabilia, euskara baturako –era forman onartu da. Ikasleontzat ez denez baturako, beste forma bat hautatu dute. Badirudi, ikasleek zekiten eus-

karatik abiatuta ez dela irakatsi, zeren bestela, batzuek guraso erdaldu-  
nen seme-alaba izanik ere, baten batek jarriko zuen hitz berbera.

(2) Euskalkiagazko identifikazio segurua adierazten duten ikurre-  
takoa da nor nori aditz laguntzaile hau.

(3) *Topatu* bizkaierakotzat irakasten da eta zuzen dago. Hala ere,  
gogorarazi beharko dugu Azkuek Topatu (AN, Gc) dakarrela, eta biz-  
kaierarako Topau normaltzat. Beraz, ezer bada Euskal Herriko geogra-  
fiako berba zabala da. Gainera, aurkitu Euskal Herrian zabal korritzen  
duena izateaz gain bizkaieran (Bc) dakarrela Azkuek. Orduan, itaundu  
beharko genioke geure buruari, ea bizkaieraren izenean idazten dugun  
corpusa noraino daukagun definiturik, hesiturik, bestela euskalkia in-  
definizioan geraturik erregistro nahasmendua baizik ez baikenuke gau-  
zatuko.

(4) *Moduan* eta *bezalaren* behin banango erabileraren datua ez  
da interpreta erreza. Hala uler daiteke sinonimotzat hartzen direla,  
edo *bezala* bizkaiera ere badela. Beste inkesta batzuetako datuei es-  
ker, ordea, baieztatu daiteke, ikasleek euskara batuko ikur zalantzaga-  
bekotzat jotzen dituztenen artean *-bukaturekin batera- bezala* ager-  
tzen dela. Izan ere, bizkaiera gainerako euskalkietatik aparteko  
jatorriko dela defendatzen zutenentzako adibiderik ereduagarrieneta-  
rikoa zatekeen.

(5) *Itxi, utzi* eta *itzi* hirurak batera ematea, bizkaiera eta euskara ba-  
tua batera irakatsi daitezkeen indar egiteko adibiderik aipagarriena ez da.  
Gazteek hizkuntzak ikasteko daukaten erraztasuna eta metodo komu-  
nikatiboan aldeko jarrera optimistegia ez dira mesedegarrien, euskara  
batua, bizkaiera literarioa eta lekuan lekuko hizkera ukipenean eta di-  
glosian, bizkaieraren estandarizazio maila zein baliabideen urritasuna-  
rekin batera topo egiten dugunean.

#### Batxilerreko 9. Itauna. (Txorierri).

	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a
Edozer erosikeran	erostekotan	erosterakoan	–	–	erosterakoan
prezioari begiratu behar jako.	zaio	zaio	dako (1)	–	zaio



	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a
Aurkitu dugun bezala	erara (1)	Topeu lez	–	Topatu moduan	–
utzi dugu behar jako.	zaio	zaio	dako (1)	–	zaio

(1) Bat zenbakietan topatzen dugunarekin aise antzematen da, bizkaiera literarioa bereganatu ez duenak azpieuskalkira jotzen duela, askotan fonetismoz eskribitzeko, eta zenbaitetan –ikus, adibidez, erara-bizkaiera literarioa ikasten jardundakoek itotako ahozko forma bizi bi-ziak papereratzeko.

#### Batxilerreko 12. Itauna.

Berba hauen artean, batukoa denari (bat.) ipini; bizkaierakoari (bizk.); eta hitz bera bizkaierakoa eta batukoa bada (biak):

Kirikiño	Aitita	Bukatu	Barik	Txarto	Aldats	Zeozar	Behargin	Amaitu	Atzamar	Gizaldia
1. Ikaslea	Bizk.	Bat	Bizk.	Bat	Biz/bat	Biz/bat	Bat/biz	Bat/biz	Biz/bat	Bizk.
2.a	Bat.	Bat	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak	Bat
3.a	Bat.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak	Bat
6.a	Bat.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak	Bat
8.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bat	Biak	Bizk.	Bat	Bat	Bizk
17.a	Biak	Biak	Bat	Biak	Bizk.	Biak	Bizk.	Bizk.	Biak	Bizk
<b>Askartza</b>										
1.ikaslea	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.
2.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bat	Biak	Bizk.	Biak	Biak	Biak
3.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak
6.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bat	Ø	Ø	Biak	Bat	Biak	Bat
8.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Biak	Bizk.	Biak	Biak	Bizk.	Biak
17.a	Bizk.	Biak	Bizk.	Bat	Bizk.	Biak	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.
<b>Txorierrri</b>										
1. ikaslea	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Biak	Bizk.
2.a	Bat	Bat	Biak	Biak	Biak	Bat	Bizk.	Biak	Bizk.	Bizk.
3.a	Bat	Bat	Bizk.	Biak	Bizk.	Bat	Bat	Biak	Biak	Bat
6.a	Biak	Bat	Bizk.	Bizk.	Bat	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bat
8.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Biak	Bizk.	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.
<b>Berm. Ins.</b>										
1. Ikaslea	Biak	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak	Biak	Bizk.	Bat
2.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Biak	Bizk	Bizk	Bizk.	biak	Bizk.	Bizk.
3.a	Bat	Bat	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Bat

Kirikiño	Aitita	Bukatu	Barik	Txarto	Aldats	Zeozar	Behargin	Amaitu	Atzamar	Gizaldia
5.a	Bat	Bat	Bizk.	Biak	Biak	Bizk.	Biak	Bizk.	Biak	Bat
11.a	Bizk.	Bat	Biak	Bizk.	Bat	Bizk.	Biak	Bizk.	Biak	Bizk.
18.a	Bat	Bat	Bizk	Bizk	Biak	Bizk.	Biak	Bizk.	Bizk.	Biak
Getxo III										
1. Ikaslea	Biak	Bat	Biak	Biak	Biak	Bizk.	Bizk.	Bat	Biak	Biak
2.a	Biak	Bat	Biak	Biak	Bizk.	Bizk.	Bizk.	Biak	Biak	Biak
3.a	Bizk.	Bat	Bizk.	Bat	Biak.	Bizk.	Bizk.	Bat	Bizk.	Bat
Bizk.	12	23	21	12	14	17	17	13	12	10
Guztira:	8	1	1	5	4	4	2	5	1	10
Bat	6	2	4	8	6	5	7	8	13	6
Bizk										

*Bukatu* eta *barik*-ek markatzen dituzte ertzak. *Bukatu* % 88aren-tzat batua da. Beraz, batuko testu eta kontestuetan erabiltzeko, ez bizkaierarako. *Barik*, %80aren ustez ez da batuan erabiltzeko. Irakatsi izan dugun batuari buruzko kontzeptua islatu besterik ez da egiten portzentaia horietan. Hots, testu idatzietan eta ahozko esparru ofizialetatik datorrena da batua, ez norberak darabilena han erabiltzen ez bada.

Erdiko euskalkietakoek, ordea, –gipuzkerakoek batez ere– automatikoki jasotzen dute euren forma euskara batua –automatikoki, ez bizkaierazkoen modura arrazoitu eta gero– nahiz eta euren gipuzkerako berba batek, kasurako, bizkaierazko baztertutakoak baino askoz zabalak eta euskaldun kopuru urriago izan.

Gipuzkerako lurraldeko ikastetxean itaundurik *bake* ala *pake* den euskara batua –ia eredu bera delako kontzientzia daukatenez– % 80ak *pake* idatziko luke.

Hori, berez, hizkuntzaren erregistroen aldetik oso positiboa da, ezen ikasle honek jakin egingo bailuke euskal telebistara diskurtsoa egokitzen. Esperientziaz ere badakigu eta, zer den esatariak funtzio jakin baterako mintzamoldea egokitzen ez jakitea. Batuan –leku, egoera, guztietarako molde bakarra lerabilkeenak, ahoz zein idatzian, Lekeition zein Lesakan– estrainiotasuna baino ez luke hartzailearengan sorraraziko, egokitasunik ezaz.

Izan liteke dioenik, gaur egun irakaskuntzaren estandarizazioaren galbahetik iragazi ondorengo ikasleak ez daukala zertan jakin bereizketarik egiten batuko eta bizkaierako terminoaren artean. Ene ihardespenean erantzungo nuke, ezetz irakaskuntza erregistro bakarra menpera dezaten zuzen bageneza, baina erregistro desberdinetan mintzatzen zein idazten irakatsi gura bada, orduan bai, orduan nahitaezko gertatuko litzateke lekuan lekukoa, bizkaiera literarioa eta euskara batuari dagokiona zedarritzen jakitea.

*Zezer* eta *behergin*, 26tik 17k bizkaierakotzat jartzean, euskara batuan eskain diezaiekeen presentzia ia zerora etorriko litzateke.

*Gizaldi* berbarekin, termino kultu edo ikasiekaz gertatzen dena da jasotzen. Hau da, ahoz, ama-hizkuntzatik eurenganatu ez duten legez, berdintsu zaie batukoa ala bizkaierakoa den. Horrexegatik, kopuru berberak dio batuko dela eta bizkaierako.

Bizkaiera ikasi den ikastetxeetakoek argiago bereizten dituzte maila biak, bizkaiera eta batua noiz eta zer diren. Guztiarekin ere, ohar gaitetzen, 12. itaun honen balioa ezin estrapola daitekeela, esate baterako, gipuzkerako eremuan kokaturiko ikastetxe, institutueta, zeren hango ikasgeletan erabiltzen diren testu liburuetan bizkaierako arrastorik ez daukan batua erabiltzen baita. Bizkaierako lurraldeetan, oster, erdialdeko eredu batua oso-osorik jasotzen da, batetik, eta, bestetik, etxeko ahozkoaren, lagunartekoaren bitartez bizkaiera ere jasotzen da. Halan da ze, erregistro bitara ohitzen dira.

Batxilerreko 13. Itauna.

Zein da desberdintasuna perpausa bi hauen artean, batua eta bizkaiera kontuan hartuez gero?:

13.1. *Amamak txakurrari buztana ebaki dio.*

13.2. *Amonak zakurrari isatsa moztu dio.*

Bata batua da eta bestea ez?

Biok dira batua?

Ala bata bestea baino batuago?

<b>Kirikiño</b>	Biak batua	Hutsik	2.a batuago	1. batua,2.a ez.
1. Ikaslea.	X			
2.a	X			
3.a	X			
6.a	X			
8.a	X			
17.a	X			
<b>Askartza</b>				
1. Ikaslea.		Ø		
2.a			X	
3.a			X	
6.a				X
8.a	X			
17.a	X			
<b>Txorierra</b>				
1. Ikaslea			X	
2.a			X	
3.a			Ø	
6.a			X	
8.a			X	
<b>Bermeo Insti.</b>				
1. Ikaslea			X	
2.a			X	
3.a	X			
5.a	X			
11.a			X	
18.a	X			
<b>Getxo III Inst.</b>				
1. Ikaslea			1.a batua. 2.a	gipuzkera
2.a			“	“
3.a			X	
Guztira :	26tik 11k		26tik 10ek (1)	

Bizkaieraren eraginik ez duena batuago dela hamarrek baieztatzek esan gura du, bizkaieran alfabetatzea ezinbesteko oinarria dela bizkaierako elementu bateragarriak euskara batuan integra daitezen. Bizkaiera landu ez dutenentzat, –Txorierrikoentzat– batua da –eredu hori baino ez dute ikasi eta– batu soziologikoa da –gaur arte desbizkaieratua–, liburuetan, telebistan, irakasleen ahotan, entzun, irakurri izan dutena.

Azken baten, gainera, ez da ahaztu behar ikasleok batxilerrekoak direla, eta euren kontzientzia linguistikoen garapenean iritzi definitibo samartzat jo daitekeela une honetan adierazten dutena.

## 6.6. Interferentziak euskara batuaren, bizkaiera literarioaren eta azpieuskalkiaren artean.

### 6.6.1. Lexikoan

Batxilerreko 1. eta 2. itaunak:

(ASK-17)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Ezer ez*

*Otsoa ohean sartu zen Txano*

*Gorritxoren zai*

Euskaltzaindiaren Arauetan (1994: 19) irakur dezakegu:

*Usain, artzain, zain. Bada euskaraz hitz sail bat euskalki batzuetan -ain bukaera, beste batzuetan -a(i)ñ eta beste batzuetan -ai duena. Horien artean gehien erabiltzen direnak usin, arrain eta zain eta honen eratorriak (artzain, diruzain, ertzain e. a.) dira. Literatura euskalkiei dagokienez, bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz, eta Baztango eta Nafarroa Behereko testuetan, palatalizazioa gorabehera, -ain da hitz horietan betidanik azaltzen den forma: gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, -ai da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.*

1968an euskara baturako ontzat edo eman ziren irizpideen arabera, Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean, hobestekoak:

*Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: -ain eta -ai aldaerak dituzten hitzetan -ain formak erabil daitezela.*

Bizkaierako lurraldean ikasten ari den gazte honek, berriz, berez euskalkiak ematen dion hizkuntzaren arlo honetarako zuzentasuna alde batera lagatzen du euskara estandarren izenean, ondorioz, Euskaltzaindiaren arauak agintzen duenaren kontrakoa ikasiz. Beti ere, dena dela, Euskaltzaindiak orain *-ain* erabaki duela baino azaltzen ez bazaio ikasleari, berak etxetik dakiena erabiltzeko gomendatu ordez, metodo memoristikoa hutsean ikasiz jardungo du. Berezko aberastasuna eta erraztasuna dauzkan ikasleak ere, *-ai* modu okerrean darabilenaren bezainbat oztopo aurkituko du, euskalkitiko kalitatea mesprezatu. Halakoetan, ez da zalantzarik euskalkiak *-lapurtera, gipuzkera, zubererana* gauza bera-, kalitaterako ekarpena suposatzen duela.

Hemen, bestalde, bizkaiera literarioari egiten zaion erreferentzia bezain garrantzitsua da ikaslearen ahozkoari egindakoa.

Ikasle honek *-etxetik -ainduna* izanik *-ai* erabiltzea-, irrati-telebis-tako esatari askok Euskaltzaindiaren arauak gorabehera jarraitzean datza. Hori guztia eskolan bideratzeko, ez da dudarik irakasleak euskalkia eta batua, biak menperatu behar dituela.

## 6.6.2. Morfologia

*Eskolumeek euskara ondo ikas dezaten izan behar du, beti ere, alor honi dagokionez, euskaraz diharduen irakasle ororen lehen helburu eta xede nagusia.* Hezkuntza Saila (1982: 6).

Helburu nagusi horren ikuspegitik egin behar zaie so ikasleek egin ohi dituzten akatsei. Inkesta ia guztiotan euskara gaiztoa parean doa, dela batuan ari denean, dela bizkaieraz diharduenean.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna:

(K-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Eroatea* (eroateko izan

*Eramatea* (Eramateko izanik)

behar duenean)

Ikasleari, honetan, bizkaiera ere ikasi duen arren, euskalkiak ez dio eskaintzen batua eskaintzen ez dionik. Gazte honek ez du euskararen

kodea bera behar bestean menperatzen eta arazoaren jatorria horrextan datza.

Bigarrenik, euskararen kodean bertan baino euskalkia eta batuaren artean gertatzen diren interferentziak aipa daitezke.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna:

(ASK-1)

<b>Bizkaiera literarioa</b>	<b>Euskara batua</b>
<i>Otsoagaz</i>	<i>Otsoarekin</i>
<i>Otsoekaz</i>	<i>Otsoekin</i>

Mugatu singularra *-agaz* eta mugatu plurala *-akaz* izan arren, baturkoaren analogiaz *-ekaz* darabil. Euskalkia eta euskara estandarrean jokatzeko duen irakasleak halako plus bat behar du prestakuntza aldetik, ez baita oso laudagarria *Gu pozik gaude gure ikasleek erabiltzen duten bizkaiera-batua nahasteaz* aitortzea. Adin jakin batera arte onargarria bada ere, ikasmaita batetik gora euskalkia eta batua idatziz nahastea zuzengarri da eta. Besterik da bizkaieran bertan *-akaz* gomendagarriago izatea.

Batxilerreko 1. eta 2. itaunak:

(ASK-2)

<b>Bizkaiera literarioa</b>	<b>Euskara batua</b>
<i>Oso ondo</i>	<i>Oso ongi</i>
<i>Eroateko</i>	<i>Eroateko</i>
<i>Baitzen</i>	<i>Baitzen</i>

Ikasle honek gurasoak ere bizkaieraz dakitenak izan arren, eta bera bizkaiera literarioa ikasia, ez ditu euskalkia eta estandarra bereizten, aditz laguntzaileetan izan ezik.

Batxilerreko 1.a eta 2.a:

(ASK-3)

<b>Bizkaiera literarioa</b>	<b>Euskara batua</b>
<i>Urten zan</i>	<i>Urten zen</i>

Hamasei urtera heldua den arren, eskolak ez dio alfabetatze maila nahikorik eskaini, *urten* euskalkiko forma batura ere pasatzen du eta; jokabide makurrean, bere euskalkirako trantsitiboa dena euskara baturan intrantsitibo bilakatzen du, forma hibridoa sortuz:

*Por otra parte, la presencia de trabajos sobre la escolarización no es casual, sino que obedece al reconocimiento de la importancia que tiene la escuela como agente alfabetizador en euskara...*  
Davila Balsera (1995:13).

Batxilerreko 1. eta 2. galdera:

(TX-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Joan behar izan zuen*

*Joan behar izan zen*

Ikasle hau ez da bizkaiera ikasi dutenen artekoa. Hala ere, bizkaierarako laguntzaile trantsitiboa gordetzen du eta euskara baturako intrantsitiboa. Berez, *joan behar du/da* jarriko genuke hiztegian euskara baturako ere. Dena dela, bizkaierako ikasleen joera sistematikoa da: euren ez den forma hartzea batukotzat.

Batxilerreko 5. Itauna: (Ask-2):

	EB	BL	LL
Izan	dira	dira	Dies
Ukan	dut	dot	Dakot
			Dako
			Daku
			Dakozuie
			Dakoie

*Dies* azpieuskalkikoaren ezagutza badauka; hikako formarik ez dabil -ia inork ere ez- eta lekuko euskaran -Leioan diharduen arren Bermeotarra izanik- *dot* erabili arren -ezagun zaionaren orde-, *dakot* dabil. Interes handiko gertatuko litzateke jakitea, ea *dot* eta *dauka*-ten artean nahasketarik egiten ez duen, eta bigarren, ea irakatsi zaion



*dot* eta *daukaten* arlo semantikoa bereizten dituen, euskara batuan eta bizkaieran ez dator bat eta.

Bestalde, oso erraz gerta dakiok *daku* = *jaku* = *zaigu* ez identifikatzea eskema egokian eta hiruren arteko interferentzia bere ideolektoan iraunkor bilakaturik aurkitzea.

Batxilerreko 5. Itauna. (TX-6):

EB	BL	LL
dut	dot	Dekot
		Dekok
		Deko
		Dekogu
		Dekozu
		Dekozue
		Dekote

*Dekote* aditz forma, batuan darabilten *daukoter*en antzera *dekoie* eta batuko *daukater*en hibridazioz sortua dela dirudi.

Argumentu argia euskara batua hutsean irakasteak ez dezakeela saihestu honelako nahasketarik, ezen forma berria –irakaskuntza esan-guratsuaren gainean esanari jarraituz– ez baitaio finkatu ikasleak bazekarren ezagutzaz baliatuta.

*Dekot* adizkera dela eta irakats dakieke lekuan lekuko euskarari oso ukitu txikerra eginik jaso daitekeela bizkaiera literarioa.

### 6.6.3. Sintaxian

Batxilerreko 1. eta 2. itauna:

(ASK-3)

**Bizkaiera literarioa**

*Amama jan egin eban*

**Euskara batua**

*Amama jan egin zuen*

Bizkaieratik euskara batura etorri den forma honetaz hauxe diosku Osa Unamunok (1990:168):

*Hala ere, esan beharrik ez dago, bizkaierarenak baldin badira euskararenak direla (...). Ezingo ditugu txokokeriatzat jo, inola ere, erabilera batutik eta azterketatik baztertuz. Bizkaieraz, eta ez bizkaitarrek bakarrik, Gipuzkoako bizkaieraz ere bai. Deba bailada osoan oraindik normalki erabiltzen baita, Jakin daki, adibidez, Legazpiraino ere iristen delarik.*

Hemen hiru aztergai badira, behintzat:

1. Irakaskuntzako liburu batukoetan erabilera hau ez agertzea edo euskalkikotzat kontsideratzea.

2. Ikasgelan inork honen erabilera ondo irakasteko, bizkaiera etxetik dakiten ikasleak dira.

3. Euskara batu-batua deitzen dugun horretara bizkaieratik ekarria egin beharreko gaitan, bat hau dela. Ezen ez ikasle, ez irakasle Mendebaldekoaren kriterio gramatikalen arabera:

*Ez lirateke, seguruenik, onargarriak izango gaur egungo mendebaldekoan galdera hauen erantzunak:*

*A- Zer egin zuen Mirenek?*

*B- Joan zen!*

*A- Zer egin zuen Mirenek?*

*B- Jan zuen. Osa Unamuno (1990:186).*

Horrez gainera, duda egiten dut *eginez* baliatuta idazten duen Mendebaldeko ikasleak, hori barik erredaktatzen jakingo lukeen.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna:

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Ezer ez*

*Zeren eta...*

Ahozko euskararako ere eredu literarioak erabiltzen ditu. Ez du bereizten, bestalde, hizkuntza arrunta, utilitarioa edo estandarra hizkuntza kultu eta literariotik. Ahozko euskaratik baino idatzizko erdutik edaten du, eta okerrena, funtzio guztietarako. Euskalkiak bere lekua izan dezan gura badugu, lehenengo eta behin, ahozko hizkuntza eta idatzizkoa bereiztetik abiatu behar dugu:

*Caldrá partir de la llengua familiar y colloquial propia dels alumnes i mirar d'aconseguir plenament una llengua standard abans que una llengua literària, sense que aquesta, però, hi quedi exclosa. López del Castillo (1984:31).*

#### Batxillerreko 14. Itauna.

Itzuli euskara batura, bizkaierara edo etxeko euskarara hurrengo esaldiok:

- En las manos tengo diez dedos.
- El hermano de Miren es pelotari.
- El joven vive de noche, porque es joven y está joven.
- El rayo ha caído a cinco casas y ha quemado las cinco.


Askartza	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
<u>Atzamar/</u> <u>Behatz</u>	hatzamar (4)	hatzamar	atzamar	hatzamar	hatzamar	hatzamar
<u>Neba (2)</u>	anaia	neba	neba	anaia	neba	anaia
<u>Gaztea/</u> <u>Gazte</u>	gaztea/ gazte	gaztea/ gazte	gaztea/ gaztea	gaztea/ gaztea	gaztea/ gaztea (3)	gaztea/ gazte
<u>Bost etxetan/</u> <u>Bostak (1)</u>	etxetan/ bostak	etxetan/ bostak	etxetara/ bostak	etxeetan/ bostak	etxetan/ bostak	etxetan/ bostak

Lauki honetako emaitza, euskalkiak batua eraikitzerakoan dakarren eragina aztertzeko aproposa da. Batuak abstratizat beste euskalki bat daukan lurraldean, erabat erantzun desberdina jasoko luke. Badago hemen esplizitoki irakatsi gabe, inguruaren eta irakasle euskalkikoen bitartez, ikaslearen euskara batura pasatzen denik. Arago, fenomeno honen ondorioz, zein euskalkitakoak idatzi, euskara batua, usain, zapora eta kolore desberdinez aterako da.

(1) Irakaskuntza esanguratsua ikasgela-eratu gero, euskara batua-  
ren eta euskalkien arteko ukipenetik sortzen diren interferentziak  
–kasu honetan bizkaieran osasuntsu dirauten aspektuak batuaren bidez  
akadun bilakatuak– metodo naturalez ikasiko lirateke zuzen. Abia-  
puntuak ikasleak dakiena ez denean, berak osasuntsu dakarren kodeko  
arloa ere ez da profitatzen. Hementxe datza DAKIGUNETIK EZ DA-  
KIGUNERA egiteko bideari beste zergati handia. Bizkaieratik abia-

tzea, ikasleak dakarretetik hastea antivirus boteretsua da, euskara batu-tik –euskara ikasi dutenengandik nahiz euskara batu soziologikotik-iritzi daitezkeen interferentzien aurrean.

(2) Mendebaldeko euskaldunok ia %50 izanda, semantikan hain adierazkorra zaigun *neba* euskara batura ez sartzea harrigarria da. Gaurkoz, dena den, ikasleek zail dute liburuetan aurkitzen.



(3) Askartzan diharduen Hondarribiko ikasle honen erara erantzungo lukete bizkaierako ez diren ikasleek, oro har. Eta guk euskararen balioak, oraingo honetan ikuspegi estilistikotik behatuak dauzkagu gogoan. Horretarako, nire neure “Axularren Estilolitik” lanera joko dut:

*Egun , mugatua bakarrik erabiltzen da maiz –mugatzailerik ez, artikulua dihardut-, eta nekez ohartzen gara determinatuta nahiz determinatu gaberik, ideia bera adierazten dutenean, hor gorderik datzan balore estilistikoaz.*

*Hain da hau horrela non Garibay-k XVI. mendean berba guztiak –a-z bukatzen zirela zioen. “Advierte-se que todos los nombres sustantivos y adjetivos de la lengua de Vizcaya se acaban en A y sus plurales en AC...”*

\* \* \*

*Adjektiboa, atributu (predikatu) funtzioa betetzen duenean ere mugatzailerik gabe erabil daiteke nahiz mugatzailerik. Estiloa, dena dela, bitzuon erabilera sortzailerik etor badadi ere, goragotzat dugu, berez, eder da, on da esatea, ederra da eta ona daren ondoan. Halere, Axularren erabileran ikus dezakegunez, ez da hobe ez txarragorik, idazlearen eskuan, tokian tokiko erre-kurtso bilakatzen da:*

*Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko begaletan, bethiere zentimela, eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme (56). Gaurko joera testuinguru horretan semeA, artikuluz erabiltzea bada ere,*

*artikulurik gabe behin, artikuluekin hurrengoan erabiltzea oso baliabide azkarra gerta daiteke Axularrek darakuskigunez. Begira orain artikuludun perpausa: Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua, eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa (57).*

*Zenbait kasutan geratu diren forma bikoitzak, ñabardura bereziak adieraztera heldu dira. Horrela, “hobe da ez egitea” baina “hobe da bestea baino”. Gaur, ordea, lehen formarako ere artikulua erabiltzeko joera dagoenez, hizkuntza murriztu egiten da. Horrez gainera, erabilera murriztailearen kausaz, hobe izan, hobeto dugu, aditz multzotzat hartu beharrean, artikulua ezartzean, ez dira maiz bereizten “hobe izango dugu horrela” edo “hobe izango dugu horrela” moduko perpausak. Goikoetxea (1991: 630-631).*

(4) Puntu hau beste atal baten sakonago jorratu arren, hemen ere aipatuko dut zeozer. Ikasleek euskara bat dela jakinik, *hatz* h-z bada, *atzamar* ere logika berean h-z idazten dute. Euskaltzaindiak, aldiz, euskalkiari arau zuzentzailea sartu eta bizkaierakoa denez, kendu egin dio h-a. Okerrena da, erdialdeko euskararen eraginezko hiztegiatan (B) bizkaieraren estigma jartzen diotela. Ondorioz, inguru horietako liburugileek –euskalkiko ikurra dela bide– ez dute testuetara jasoko, nahiz eta ikasle bizkaieradun askok erabili beharko testu-liburuok. Edonola ere, institutu eta ikastetxeetan oraindik *atzamar* h-z idatzirik daukaten hiztegiekin dihardutela jakinik, zati baterako nahasmendua daukagu.

Batxilerreko 15. Itauna.

Igarkizuna: *Sindulgo zilbot handia ez da bazkaltzera hamabietan joan, ezta ordu bietan ere; bien bitarteko ordutan joan bada, zer ordutan joan da bazkaltzera?*

	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
<b>Kirikiño</b>	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu batetan
<b>Bermeo Institutua</b>	Ordu batetan	Ordu batetan	∅	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu
<b>Txorierrri Institutua</b>	Eguerdiari batatan	Ordu batetan	Ordu batetan	Ordu batetan.	Ordu	
<b>Getxo III Institutua</b>	Ordu batatan	Ordu batetan	Ordu batetan.			

Euskaltzaindiak *ordu batean* onartu du eta ez *ordu batetan* 13:00 orduak adierazteko. Ikasleen erantzunak ez du zalantzarako bide zidorririk lagatzen, ordu batetan da nagusi, aldaki bakarra *ordu batetan* esan ordez *ordu batatan* esatea, bizkaieraz alfabetatu bako institutuetan.

Garrantzia, ordua bera zelan esatean baino Mendebaldeko euskararen sistemari eragitean dago:

1. Solaskideak *Zer ordutan?* itauntzen badu, erantzuna pluralean da: *ordu batetan*. *Ordu batean* edo *baten* –hau ere Euskaltzaindiak onetsia– erantzutea itaunari sistemaren aurka doa.

2. Bizkaierak bereizketa semantikorako egiten du *ordu baten/ordu batetan* sintagmen artean. Biekin bat gauzatzea kontzeptuen interferentziarako, komunikazioa galarazteko bidea da.

Ordu baten egin dot  $\neq$  Ordu batetan egin dot

Euskara batua	Bizkaiera
Ordu batean	Ordu batetan
	Ordu baten

Batxilerreko 16. Itauna.

Zelan beteko zenuke hurrengo hutsune hau?

Zein jertse galdu zaizu? .....jertseak galdu zaizkizu?

	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
<b>Kirikiño</b>	Neure	Zeintzuk	Zeintzu	Zeintzuk	Zeintzuk	Zeintzu
<b>Askartza</b>	Zeintzuk	Zeintzuk	Zeintzuk	Ø	Zeintzu	Zeintzu
<b>Txorierrri</b>	Zeintzu	Zein	Zeinen	Zeintzu	Zeintzu	
<b>Berm. Ins.</b>	Zeintzuk	Zeintzuk	Ø	Zeintzuk	Zeintzu	Zeintzuk
<b>Getxo III Ins.</b>	Zeintzuk	Zeintzuk	Nolako			

Ikasleei ez zaie eskatzen euskara batuan edo bizkaieran erantzuteko, aukeran uzten zaie. Eta euren erantzunetan 13k *zeintzuk*, 8k *zeintzu*, 1ek zein jartzen dute. Hemengo xedea euskara, bizkaiera metodo egokiz irakastea da:

Euskaltzaindiak, (1994: 40) *kontuan harturik forma atzizkidunak (nortzuk, zertzuk, zeintzuk) literatura tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: nor, zer eta zein formei lehenetasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan –forma markatu gisa esan nahi da– aurkezten, bai eta onesten ere.*

*Edonola ere, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: nortzuk, zertzuk, zeintzuk, (abs), nortzuek, zeintzuek, zertzuek (erg), nortzuei, zertzuei, zeintzuei (dat), e. a.*

Arazoen artean daukagu, lehenik, dekada bitan, gutxienez, zeintzu (abs), zeintzuk (erg) irakatsi dela; bigarren, bizkaieraz irakatsi den ikas-tetxeetan –eta kriterio arteza erabilia– ez dela bereizketarik egin absolutuaren eta ergatiboaren artean; hirugarrenik, *zein* eta *zeintzuk*-en arteko lotura edo esparrua ez dela argitu.

Gaur egunean, mendebaldeko gazteriaren artean –eta espainola diglosiagile den ukipen esparruetan– *zeintzuk* da nagusi *zein*-en aurrean. Horretarako, Euskera Agerkarian, Euskaltzaindikoan oraintsu agertu den artikuluko aipu hau dakart adibide moduan, *ere*-ren erabilerako teoria hona aplikaturik:

*Euskara jakinik erdaraz bizi den edo hizkuntzaren iturburu espainola duen gaztearentzat, ERE-k TAMBIÉN-en parekotasunean funtziona dezake (ERE, aussi, etiam). Ondorioz, “Yo también” adierazteko unean NI ERE atera dakioko interferentziaren eraginez. Egoera ezaguturik, eta Iparraldean zuzen dela jakinda, ontzat emango banu, neurri handian bigunduko litzateke irakaskuntza, ezen Patxi ERE onartzen dudana ber, onar dezaket asko jende eta abar, hots, erdaldunek interferentzien eraginez jasotzen dutena. Horrela jokaturik, edozein euskaldun obartuko litzateke Hegoaldeko hiztunen tradiziozko forma eta berriaren –nahiz eta Iparraldeak tradizioko izan– artean, erdararen antzekotasunagatik, berria, hots Patxi ERE inposatuko dela. Gainera, eragin erregresibo, euskaldundutako irakasleen gehiengo handiak jadanik, Patxi ERE irakasten du, nire antzerako euskaldunen ahaleginaren bizkar. Goikoetxea (1999: 1133).*

*La oposición exclusivamente occidental de pl. nortzuk a sing. nor, ect., no es con seguridad mucho más antigua que la innovación castellana que hoy lleva a oponer según el número quiénes a quién, aunque el modelo de la pluralización (batzu “algunos” de bat “uno” más –zu, de donde batzuk, batzuek, batzuek) nada tenga de reciente. Mitxelena (1981: 302).*

Adineko bizkaieradunen artean arrunta da oraintxe ere *zein* galde-tzailearen erabilera, *zeintzuk*-egaz batera, nahiz eta Euskaltzaindiak euskara baturako proposatzen duenaren alderantzizko orientazioz, bizkaieran arrunta *zeintzuk* da eta berezia, urriagoa *zein*.

Batxilerreko 17. Itauna.

Hutsune honetan, bietarik zein tartekatu beharko litzateke *bertoko* ala *bertako*?

Hemen Gernikan ..... produktuak saltzen dira.

	1. Ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
<b>Kirikiño</b>	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko
<b>Askartza</b>	Bertoko	Bertoko	Bertoko	∅	Bertoko	Bertoko
<b>Txorierrri</b>	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	
<b>Berm. Ins</b>	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko	Bertoko
<b>Getxo III</b>	Bertoko	Bertoko	Bertoko			

Berriz ere harridura erakuts dezakegu Txorierriko ikasleek etxean *bertoko* darabiltenak izanik –bizkaiera ikasi gabeak, bestalde– bizkaierako euskaliko ez direnek erantzungo luketen eran *bertako* ihar-destea.

Euskara batuak, baldin euskara osoa bada, modu hain etengabeen konstatatzen ahal diren bizkaieraren berezitasunei halabeharrez behar die jaramon egin. Bestela, ez euskalkia soilik, euskara batua bera ere euskalki honetakoentzat edolkuratu egingo bailitzateke.

Mendebaldean oso erabilia den izenondo honetan bi gradu bereizten dira *bertoko/bertako*. Semantika aldetik guztiz estimagarria den bereizketa, bizi-bizirik dirauena, bere bilakatu beharko luke euskara batuak, ezelango zalantza barik, nahiz eta ekialdean *berean*, *berera*, *beretik* erabili. Gainera, mendebaldekoak aditzondo gisa ere erabiltzen ahal dute:

*Leku kasuetan (bots, -n, -ra, -tik kasu marka hartzen duten izen sintagmekin nahiz leku adberbioekin) bera beste izen sintagma batekin oposizioan doanean berean (berera, beretik) erabiltzen da ekialdeko euskalkietan eta bertan (bertatik, bertara), berriz, Mendebaldekoetan dakar Euskaltzaindiak (1993: 132).*



Guk, ostera, honela planteatzen dugu eskema:

Ekialdean	Erdialdean	Mendebaldean
Berean (berera, beretik)	Bertan (bertatik, bertara)	Bertan (bertatik, bertara)
		Berton (bertotik, bertora)

## 6.7. Eskolaren eragina

Batxilerreko 1. eta 2. itauna: GEko ikasleak:

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Denpora bat pasata osten*

*Denpora bat pasa ondoren*

Bizkaieraz alfabetatu gabeko ikasle honek berez eta naturalki ikasitako berbetaz daki *osten* eta *ondoren* jarriz gero, perpausa aldatu egiten dela. Hala ere bai bizkaieran zein batuan zuzendu beharra dagoez, hor irakaslearen zeregina agertzen da.

(GE-2)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Aurkitzen badozu ez  
egin jaramon*

*Aurkitzen baduzu ez egin  
kasurik*

Adibide konkretu hau behin baino gehiagotan ekartzen badut gogora, balio azpimarragarria daukalako da. Bizkaieraz alfabetatu gabeko ikaslea delarik, ama-berbakeratik datorkion aberastasuna *jaramon* erabiltzearena, alegia-, zein arrazoirengatik ez du batura aldatzen? Eta, ikasle honen hizkuntza aberastasuna euskara kultu, estandarrera biltzeko, zer bide geratzen da, bizkaiera ikasgelan azter dadin baino?

Hemen, irakaskuntza esanguratsuan ez trebatzean, euskara batuko –zentu soziologikoan– forma inposatu zaio, aberatsago, euskal seneko den *jaramoni*, modu horretan diglosia iraziaren iraztea, txertatzea, ez-titzea, daukanak ez daukanari ematea –eta batuak ez daukana, euskalkiak batuari–, ez du funtzionatu.

(GE-5)

**Bizkaiera literarioa**

*Beitu, ni bide luzetik*

*joango naz. Halan da ze,*

*Atea igirite zegoala*

**Euskara batua**

*Ezer ez*

*Beitu* moduko espresio adierazkorrak euskara osora, batura jaso barik geratzen dira, gehienetan.

*Halan da ze*, ikasle berak darabilena, ahozko berbetan hain arrunta, 8 orrialdetako 126 galdeketatan aurkitu dudak “apax legomena” izan da. *Beraz*, nagusitu dela badakigu ere, zergatik da praktikan *halan da ze* ezabatu?

*Atea igirite zegoala*. Lino Akesolok (1976) ere jaso daukan forma hau, (II-B-mond-mu:abrir) entzungabea da gu geu beti euskal munduan dihardugunontzat ere. Hortik imagina daiteke nola dezakeen eskolak irakatsi, liburugileok ere ezezagun dugunean; zelan daitekeen testu liburu nahiz gramatikari jarraituz irakatsi, honetan zein beste puntu askotan ikasleak dakarren thesaurus-a eskolak bere mugatasunean ezin irakats dezakeenean. Baldin ez bada, ikaslearen hizkuntza erabilera ixildurik eta Zabaletak (1995: 25) iraupen-eredua deitzen duen ereduaren orde, etxetik dakitenak ere murgiltze-ereduan sartuz.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna: Bermeokoak:

(BERM-2)

**Bizkaiera literarioa**

*Han non topaten dauen”*

**Euskara batua**

*Ezer ez*

Oso aberatsa den perpaus honen tankerakoak eskuratu egin behar ditu eskolak eta etxetik dakiten ikasleen energia, dinamismoa, inmersio bidez ikastera datozenei komunikatu. Zein beste bide eskaini genezake, euskararen genioa darakusten halako esaldiak ikasleengana helarazteko? Jakinik, “... *dentro de la escuela, buena parte de la enseñanza se recibe escuchando*”. (Doris C. Ching 1984:14).

(BERM-3)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Herri txikitxo baten, Txano*

*Gorritxo deitzen zuten neskato*

*bat bizi zen.*

Gaur badakigu, perpaus honetan BERM-3 ikasleak darabilen Altu-berekiko legeak ez duela askorik balio kontu kontari ari garenean. Aspektu honetan laguntza emateko, irakasleak berak ezagutu behar du bizkaiera dakien ikasleak ahozkoan, kontakizunean erabili ohi duen hizordena:

*Conviene que el profesor adquiriera un conocimiento elemental de la fonética y estructura de la lengua materna del niño, para poder darse cuenta de las divergencias lingüísticas entre esa lengua materna y la lengua de la escuela, y de las posibles interferencias de sonido y estructurales. La adquisición de éste conocimiento puede ayudar al maestro a comprender las dificultades prácticas y guiar al niño con mayor efectividad.* C. Ching (1984:17).

Egun, gainera, frogatua dago euskararen orden ez markatua SOA dela, P. Lafittek orden neutroa deitzen zuena. Eusebio Osari jarraikiz, O horrek ez du objektua adierazi gura, osagarria baizik, G.Rebuschi-k (1983) dioenaren bidetik, “Basque is basically an SCV language”.

Batxilerreko 1. eta 2. Itaua: GEkoak:

(GE-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Amaman lekun iminteko*

*Amamaren lekuan jartzeko*

Etxeko euskararen okerra egiten du *imini* jartzerakoan eta egunero-ko berbeta etxekoan oker erabiltzen jarraituko du, ezen batua ondo irakatsi arren, ikaslea bera bakarrik ez baita nor etxetikorako batukotik zuzentasuna ekartzeko. Bada, gainera, ikasle horren azpieuskalkian *imini* horren ordeztu *pareu* (paratu) esateko bide arrunta, eraz eta zuzen letorkiokeena.

(GE-3)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Esaten doztasunaz*

*Ezer ez*

Eskolan irakasten ez den berbeta, ahoz zenbatean bizi den sakabanaturik, idatzian ere hainbestean sakabanatzen da, baldin idatz badaiteke, eta idatzi ezik ere bere analfabetotasun horretan dirau.

7. Itauna. (Txorierri).

	1. ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a
<u>Diezaioket</u>	Daikeot	–	daikeot	Dezaket	–
<u>Daiteke</u>	Leike	al da	leike	leike	leike
<u>Diezaioke</u>	Lekioke	–	daioke	lioke	–
<u>Deistazun</u>	Diezadakezun	diezadazun	diezadazun	dakizun	dezazun

Bizkaieraren jorra egin bako ikastetxeetan, *leike* salbu, gainerako lauki guztietako erantzunek panorama guztiz txiroa eskaintzen dute, bizkaiera landutako ikastetxeekin erkatuez gero.

Batxilerreko 1. eta 2. itauna:

(ASK-1)

**Bizkaiera literarioa**

**Euskara batua**

*Ia nora joian*

*Ezer ez*

Hemen eskolak etxeko euskara osotu egin du:

1. Aurretikoena -oraindik bizi-bizia-, eskura dezaten.
2. Gazteak adinekoek badarabilte konturatzean, etxeko berbeta prestigia dadin.

Bizkaiera literarioaren premia, edozelan ere, agerikoa da, zeren *joian* horrek eskuragaitz, osogaitz baitirudi *ziboan* batukoaren bitartez.

Batxilerreko 5. Itauna. (TX-1):

EB	BL	LL
dezaket	daiket	Ahal dot

Herrikotzat ageri den *ahal dot* irakaskuntzaren bidez hedatu zen belaunaldi berriengana. Ikasle honek gurasoek egunero errepikatzen dioten *egin neiren* gainean ezarri du *ahal dot*, horrela okerra eginez: –*egin ahal dot* = *egin nei* bateratuta–, eta gurasoengandiko *nei/neike* esanguratsua beste tankera bateko *ahal dotegaz* neutralizaturik.

## Batxilereko 5. Itauna. (Berm. 3):

EB	BL	LL
ditut	dadaz	Yotez
		–
		Yauz
		Yuz
		Zuz
		Zuyez
		Yabez

Pluraleko 3. pertsona bizkaiera literarioaren eraginez –eta egokiturik– *yabez* izatera iritsi da. Ohartu beharrekoa da, hika darabilen ikaslea, BERM-1ekoa, hain bakana izatea. *Haiz*, *bator*, *dakin* moduko erreregistro neutroak ez irakastea oker handia da. Horiek ez irakastean, 1. eta 3. pertsonan eman daitezkeen adizkietarako –*Ni etorri nauk*; *Hura etorri dun*– are itxiago gelditzen da bidea. Horrela, euskarak hain berea duen erreregistro alokutibo honek, igorleak aurrean duen solaskidearen marka ere adizkian islatzen du.

Agian, gehiegitxo da aditzaren hika osoa irakastea, baina, ezinbesteko da hikako bigarren pertsona eskema guztietan tartekatzea –idatzian ebaluatuz–, eta ahozkoan etxetik dakitena, behintzat, lantzea eta eredutzat hartzea. Bestela, nekez beregana dezake gure ikasleriak hika hitz egiteak suposatzen duen adiskide-berbeta, Fernando Muniozgurenek *berbeta beroa* izendatzen duena.

EB	BL	LL
Nintzen	Nintzan	Nintzen
		–
		Zan
		Garan
		–
		Zarien
		Zien

Lekuan lekukoa, herrikoa, etxekoa goraiapatzeaz gainera osotu ere gin behar da. Bermeoko ikasle berberoni, *garan* moduko aditzak –euskalkiaren barne eboluzioz (euskara batuarekiko autonomia duela frogatuz) orainaldiko –a– morfema irekiari iragantasunaren –n gehiturik sortutakoei– bizkaiera literarioko *ginan* forma historikotik abiatuta irakatsi behar zaio. Horretarako, bizkaiera literarioan ere irakasleak *ginan* adizkitik abiatu behar du, eta ez gintzazanetik. Horrela oso deza-kegu lekuan lekuko euskara murriztua –batuarekiko, berez aberatsa baita–, ezen herri horren aldamenetakoetatik eta lehenagoko autore klasiko eta hiztun ia elebkarrengandik gorpuztu baita bizkaiera literarioa deritzaguna.

Batxilerreko 5. Itauna. (Berm. 3):

EB	BL	LL
Dezaket	Lekit	Ahal dot
	Leike	Ahal dau
	Leikegu	
	Leikezue	
	Leikez	

Hemen transposizio desberdinak ageri dira:

Bizkaiera literarioari legokiokeen eskolan ikasia –*daiket*– ez da ageri; etxetik dakarrenak betetzen du, ostera, bizkaiera literarioa, eta etxekorako *daiteken* pareko forma murriztua –*ahal dot*– darabil.

Batxilerreko 6. Itauna. (Bermeo: 1, 2, 3, 6, 8, 17):

Eman ezak/ezan aditz honen parekoa euskara batuan:

	1. ikaslea	2.a	3.a	6.a	8.a	17.a
“Gatxa da baina ekarri LEI”	daiteke	dezake	dezake	dezake	dezake	dezake
“Berandu baina BANATORTZU”	banatorkin	banatorkizu	banatorkizu	banatorkizu	banatorkizu	banatorkizu

*Lei* aditzaren parekotzat *daiteke* –oker- edo *dezake* –ekibokoa–darabiltzate. Euskalkien arteko parekotasunik eza nabarmena da. *Lei* adizkiari *lezake* parekatu beharrean potentzialeko *dezake* parekatuta *lei* potentzialtzat hartzen denaren froga da. Ondorioz, *dezakeren* pareko, berez *daike* dena lekurik gabe geratzen da bizkaierako hiztunen ahotan, eta euskara ikasiei ere bizkaiera dakiten irakasleek inkonziienteki pasatu diete ahozko erabilera.

Bizkaieraren barruan trantsitiboetako ahalezko erreala –*daiket*–euskara jasoan erabiltzen da, ikasiaren bitartez zabaldurik, baina men-debaldean oso zabal korritzen du iraganeko irrealak –*neike/nei*– bai *nezakeren* baliokidetzan funtzionatzeko zein *dezaket*en baliokidetzan. Eskolan kontuan hartzekoa da, dena dela, bizkaierako hiztunak *neike* zutebearn eta *nei* zutabearn artean interferentziak ere egiten dituela. Esate baterako, 1. pertsonarako *nei* darabilenak, zuek adierazteko *zein-*kia** darabil.

Intransitiboetan, aldiz, potentzial irrealak badauka presentzia ahozkoa: “Sartu neittike?”, nahiz eta 3. pertsonetan hemen ere irrealako *leiteke/leitekez* nagusitu.

*Lei* aditza, bai *lei + teke* zein *lei + ke* ordezkatzeko erabiltzean, transposizio oso aldrebesetan erortzen gara, ezen, *izan leik = izan litekerako* balio du, nahiz eta berak *egin lei = lezakerako* erabili ahozkoan –*ke* edo –*teke*, bitzuak ordezkatzuz.

Irakaskuntzan erraztasun, oinarritzko euskara baten izenean *ahal dot* sartzen bada bizkaierako hiztunak ahoz darabilen forma bakar baina anitza, esanahi desberdinetakoa –*lei* forma aipatu dugu– *ahal du* zurrunagaz ordezkatzzen du.

Honela, ahaleraren potentzialitateak irakasten ez badira, ez eta hika neutroa, ez alokutiboa, malgutasunik bako hizkeragaz lagatzen dugu ikaslea:

Ekar daike/dezake, *puede* edo *podrá* traerlo da; ekar lezake/leike/lei podría edo pudiera él traerlo. Intxausti (1960: 131).

Irakaskuntzak *ahal dot* hedatzeaz, erraztasuna ekarri delakoan akatsa ere azaldu da –ez gutxitan zuzendua, gainera–, ezen aditz iragankorra eta iragangaitza nahasten baitituzte: “Etorri ahal naiz”, baina “Ezin dot etorri”. Eta, zoritxarrez, berrogeitak urteetako euskaldunengana ere heldu da, erregresioz.

Erakutsitako datu eta iruzkin guztien ondorioz, irakaskuntza esan-  
guratsua urrats hauek segituz bideratuko genuke:

1. *Ahal dot/dut* menpeko perpausetarako gorde.

*Cuando no se expresa el verbo objeto, ahal no se usa más que en oraciones subordinadas: ahal badut, ahal duenean.... Mujika (116).*

*Las formas ezin dut, ezin duzu ect. (no puedo, no puedes...9, en cambio, se usan tanto en frases independientes como subordinadas. Mujika (117).*

2. Neska-mutilek etxetik dakarten eskema osotu eta sendotu, batzuk zutabe batekoakaz etorriko dira, eta beste batzuk bestekoakaz, edo bateko *nei* esaten, eta besteko *zeinke*, bietarikoak:

Neike	nei
Heike	hei
Leike	lei
Geinke	ginei
Zeinke	zinei
Zeinkie	zineie
Leikie	leie

3. Lehenago intransitiboa irakatsi, zeren orainaldiko potentziala eta hipotetikoa ederto baten bereizten baitira hemen:

Potentziala. Orain		Hipotetikoa	
Euskara batua	Bizkaiera	Euskara batua	Bizkaiera
naiteke	naiteke	ninteke	neinteke
haiteke	haiteke	hinteke	heinteke
daiteke	daiteke	liteke	leiteke
gaitezke	gaitezkez	gintezke	gaintezkez
zaitezke	zaitezkez	zintezke	zeintezkez
zaitzekete	zaitzekeze	zintezkete	zeintezkeze
daitezke	daitezkez	litezke	leitezkez



4. Ikaslea irakaskuntza adierazkorra jaso ezik gera dakiokkeen eskema murrizta zuzentzeko eskema erakutsi eta 5. urratsean osotu:

Euskara Batua			
<u>Potentziala. Orain</u>	{ Dezaket dezakek/n dezake dezakegu dezakezu dezakezue dezakete                 }	Neike/nei Heinke/hei Leike/lei Geinke/ginei Zeinke/zinei Zeinkie/zineie Leikie/leie	Ahal dot Ahal dok/dona Ahal dau Ahal dogu Ahal dozu Ahal dozue Ahal dabe
<u>Hipotetikoa</u>	{ nezake hezake ezake genezake zenezake zenezakete lezakete                 }		

5. Bosgarren urrats honetan eskema osorik landuko genuke:

	Euskara Batuan	Bizkaiera
Potentziala. Orain.	{ Dezaket dezakek/n dezake dezakegu dezakezu dezakezue dezakete                 }	{ daiket daikek/n(a) daike daikegu daikezu daikezue daikie                 }

	Euskara Batuan.	Bizkaiera
<u>Hipotetikoa.</u>	{ nezake hezake lezake genezake zenezake zenezakete lezakete	{ Neike/nei Heinke/hei Leike/lei Geinke/ginei Zeinke/zinei Zeinkie/zineie Leikie/leie

Batxilerreko 6. Itauna. (Ask-2)

Euskara Batua	Bizkaiera
<b>dezake</b>	<b>leike</b>

Lehenxeago azaldu izan dugun parekotasuna eginez.

Batxilerreko 6. Itauna. (Ask-6):

Euskara Batua	Bizkaiera
<b>dezake</b>	<b>daiteke</b>

Ugaritasunerako adibide bat gehiago baino ez da dakargun hau. Oraingoan ere *leiren* balio anitzak eraman du intrantsitiboa trantsitiboa-arekin nahastera.

Edonola ere, hutsak ugariegi dira aditz joko honetan:

### AZPIEUSKALKIA ZERTARAKO?

- Euskara Batua: *dute diezaion*
- Bizkaiera Literarioa: *dabe deion*
- Lekuan Lekukoa: *daude deitson*

\* \* \*

Irakasteko metodoa:

Euskara batua <i>dute</i>	Bizkaiera literarioa <i>dabe</i>	Lekuan lekukoa <i>daude</i>
------------------------------	-------------------------------------	--------------------------------

## 6.8. Euskararen erregistroak

Idatz ezak/ezan Txano Gorritxoren ipuina euskara batuan edo bizkaieraz, hik nahi duan/nan eran. Luzera: 20 lerro. Denbora : 20 minutu. Ostean, lehenago euskara batuan idatzi baduk/badun, aldatu orain bizkaierara edo alderantziz. 20 minutu. Galdeketako 2. itauna da. Jarraian, zure herriko euskarara moldatu. Hau galdeketako 3. itauna da.

Ikaslea	Euskara batua	Euskalkia	Azpieuskalkia
1.a <b>Bermeo</b> Batxilerre- koa	Behin batean, amak esan zion Txano Gorritxori amonaren etxera joateko, gaixorik zegoenez, janari apur bat eramatera. Bertarako bidean Txano Gorritxok otsoarekin topo egin zuen eta honek zera esan zion, bere amonaren etxera joateko biderik laburrena hura zela eta ez bestea. Txano Gorritxok jaramon egin zion, baina egia esan, otsoak esandakoa gezurra zen eta otsoa bera abiatu zen amonaren etxera bide laburrenetik. Amonaren etxera heldu zenean hau jan egin zuen eta bere ohera sartu zen mozorroturik.	Behin baten, Txano Gorritxori amak eskatu eutsen janari apur bat eroateko amumari hau gaisorik egoalako. Txano Gorritxok esana egin eban eta bidetik lorak hartzen ebilela otso gaizto bat aurkitu eban. Honek esan eutsen bide aproposena, laburrena zalako, ha zala eta ez bestea. Txano Gorritxok kasu egin eutsen, baina otsoa maltzurra zanez, guzurra esan eutsen eta bera izan zan bide laburrena hartu ebana, eta ondorioz, arinen heldu zana amumaren etxera. Etxe haretara heldu zanean, amuma jan egin eban...	Egun baten, Txano Gorritxuri amak esantxon amumañe junbidauela jatekue eruten, geisorik dauelako koitxadie. Txano Gorritxok aman esanari kasu eintxon eta han jun zan poz-pezik lorak batzian bidien. Baie halako baten, otso zantar bat agertuten jatxo eta dinto hori bidie askoz be luziaue dalez hobeto datorxtola bestetik jutie. Beste tentelak kasu eintxon eta badaezpadako otsuek aurrie hartun eta amuman etxera ailega zan askoz be arinau. Honek amuma jan zauen eta ohire barrure sartun zan amuma disfrazata.
6.a <b>Mugerre</b> Kanbon ari da	Aspalditik ez zen kanpotierrik etorri gure herri zoko honetara. Baina duela hiru egun bost pertsonako familia bat etorri zen gure pentze batean kanpatzeko baimena eskatzera. Ados ginela esan ondoren pasa zuten gaua. Ez genekien zer arazo sortuko ziguten haiek laurak. Goizean etorri ziren haur horiek gure baserria bisitatzera. Eta arratsaldetan...	Ez zen aspaldian <b>estranjerrarik</b> (1) ibili gure herri zoko huntan. Alta, badu hiru egun bortz ahaideko <b>famili</b> (2) bat jin zauku pentze baten galdegitera, gaua han pasa zezaten. Problemarik gabe baimena eman genien jakin gabe zer nolako istorioak sortuko zituzten. Eguzkia altsatu bezain fite, jin ziren familia hartako hiru haur gazteak Otto Pierren <b>baserria</b> (3) bisitatzera. Ordian, ...	
<p>1) <b>Estranjerrik</b> behar luke idatzi.  2) <b>Familia</b> -a eta guzti.  3) <b>Baserriaren</b>, ez baserria.</p>			

Ikaslea	Euskara batua	Euskalkia	Azpieuskalkia
5.a <b>Garazi</b> Kanbon ari da	Behin bazen Txano Gorritxo izeneko neska bat. Bere etxetik joan zenbere amatxiri arratsaldeko askaria. Eramaitera. Zare bete batean zuen askaria. Otsoak ikusi zuen eta arbol baten gibelean gorde zen Txano Gorritsoren zain. Pasatu zelarik otsoa etorri zitzaion mintzatzera. - Nora zoaz neska? (...) – Ah, bai! (...) ...berantean helduko naiz. (...) Otsoak amatxiren etxea ezagutzen zuen eta bide laburrago bat hartu zuen hara. (...) ... eta bere toki hartu ohe barnean.	Behin bazuxun Txano Gorritxo izeneko neskatto bat. Bere etxetik joan zuxun zare batekin, jatekoz betia, bere amatxiri atsaskariaren <b>eramaitiat</b> . 1) Otso batek ikusi zixin eta bidaiari zuhaitz baten gibelian kukutu zuxun neskaren beha. Txano Gorritxo pasatu <b>zuxulaik</b> , 2) otsua jin <b>zakoxun</b> 3) elekatzeat. - Norat abian xira hola? (...) Ah, ba. (...) Otsuak etxeko bidia untsa ezautzen baitzien, beste bide bat hartu zixin, laburro. (...) eta bere lekia hartu ohe zolan.	
Xuka			
1) <b>Eramait(e)r</b> at jarri beharko luke. 2) <b>Zela(r)ik</b> jarri beharko luke. 3) <b>Ziakoxun</b> , (erran) <b>Zitziakoxun</b> (jin)			

Ikaslea	Euskara batua	Euskalkia	Azpieuskalkia
7.a <b>Zuberoa</b> Kanbon ari da	Gau bat hartu zuten. Eta laminak azkarki ari ziren lanean. Gau osoan ari ziren zubi horren eraikitzen gelditu gabe. Goiza hurbiltzen zen eta laminak abantxu bukatu zuten azken harria emaiteko prest ziren eta ba batean oilarrak kukurruku egin zuen. Laminek ihes egin zuten utziz zubia zen bezala.	Gau (1) hortan lamiñak (2) güziak lanan (3) hanitx asitü (4) zütüzün, (5) bana (6) presatü behar zütützü zeren eta goiza fite horra züzün. Azkenik abantxü heltü zütützün zübüaren finitzen (7) eta jüstü azken harria pausatü behar züelarik oilarrak kükürükü egin zizün. Orduan lamiñak egüna jeiki baituzüezün (8) ezkapü zütützün azken harria pausatü gabe.	
Hola behar lukete: 1) <b>Gaü</b> 5) <b>Bena</b> 2) <b>Lamiña</b> 6) <b>Zizüen</b> 3) <b>Lanean</b> 7) <b>Finitzera</b> 4) <b>Ari</b> 8) <b>Beitzen</b>			

Gorago ezarritako laukiei begiratu eta euskararen erregistroak go-goan direla baieztatu genezake:

1. Testu guztiak dira euskara, euskara berbeta bakarra da –lehen ikasle bermeotarraren testuan, bai batuan zein bizkaieran 75/77 berba daude eta 15 dira desberdinak, desberdinxkak-, baina denak ez dira euskara batua, badira dialekto geografikoak –euskalkiak eta azpieuskalkiak– eta xuka tratamendua, denak ere euskara batuarekin eta euren artean diglosia irazian bizi direnak.

2. Testu guztiok eskola, ikastola, institutu eta lizeoetan dute presentzia. Beraz, ezin irakatsiko dugu ez balira bezala. Eskolak maila eta erregistro guztiak aktibatu behar ditu eta alfabetatu.

3. Ikasleak euskara batua tresnatzat hartzen duenean eta etxekoa hartzen duenean, ez du era berean jokatzeko. Egin diezaiogun so Bermeoko lehen ikasleari. Ez euskara batuan, ez euskalki literarioan otutzen ez zaizkion baliabideak zaizkio bururatzen ama hizkuntzan. Hara beste bietan sartu ez eta azpieuskalkian paratzen dituenak: *koitxadie, poz-pozik, otso zantar, dinotso, amama disfracatu, beste tentelak, badaezpadako otsue, aurrie hartun*. Ez da gaia euskara batuak –batua eta bizkaiera literarioa– fonetismoak idatziz egokitzen duela, ez, adjektibo, joskera, sintagma adierazgarriok ez dira agertu ere egiten batuan eta bizkaiera literarioan. Hori da garrantzitsua. Etxekoa aktibatu duenean, ur biziagoko iturria hasi zaio dariola.

Ez da kontua, beraz, hitz edo egitura bat beste molde baten ematen duela bakarrik. Gainera eskolari dagokiona da, irakaskuntza esanguratsuaren bitartez, etxetik dakarren hizkera horretan alfabetatzea, janztea, duintzea.

4. Mugerreko 6. ikaslearen testuetara jotzen dugunean ohartzen gara, euskalkirako gordetzen dituen elementuetarik asko batura sartzekoak ere badirela, eta ikaslea ohartarazi behar duela eskolak, euskalkiko izateaz gain estandarreko ere badirela ezagut dezan. Hitzetan: *alta, estranjerrik, bortz, pentze*. Esaera bikainetan: *badu hiru egun (duela hiru egun)*; euskara batura ere sartzeko: *pentze baten galdegite-ra, bezain fite, alta...*

5. Zuberoako 7. ikaslearen testua ikuskatzerakoan ohartzen gara berezitasunak Maulekoak direla, baina euskaldun guztiontzako euskara estandarrean txertatzekoak. Horretan, gainera, eurak dira gure irakasle, eurak dira betiko euskaldun, eskolan diren bezala: *Zubi horren*

*eraikitzen; abantxu bukatu zuten; harria emaiteko prest; utziz zubia zen bezala eta abar.*

6. Garaziko 5. ikasleak xuka idazten digu testua. Erregistro aberatsa oso, ikasleak eskolan ikasi aitzin badazaguena. Eskola ailegatzen ez den erregistroari dagokiona, eskola baino haragoan bizi dena. Ezen ez da ahanztekoa Euskaltzaindiak 1994ko azaroan hikako moldeari doakion erregistro alokutiboa baino ez duela oraindainokoan onartu.

Erkatzen baditugu euskara batukoa eta 5. ikaslearena ohartuko gara, euskara batuko bertsioan konponente anitz dela euskara estandarrean irazi beharrekoa eta eskolak integra dezan erdietsi ez duena: *Pasatu zelarik otsoa; askaria eramaitera,...* Horiek euskara estandarrean arrunt erabil daitezenean, euskara hori Behe Nafarreratua, Zubereratua ere bilakatuko litzateke.

Xukako tratamenduari buruz esan genezake, ekialdeko euskalkietan *zu* solaskidearen 2. pertsonaz gain (*Zu joan zara, Zuk dakizu...*) erregistro alokutiborako aldaketa ere bideratzen duela. Horretara, *etorri da* eta *etorri zen* modukoak zukako alokutiboan ematen dira: *etorri duzu* eta *etorri zuzun*. Hau da, solaskidea den *zu* horren marka adizkian txertatua geratzen da:

*Zubereraz, gainera, zukako tratamendua hain hedatua dute  
non forma neutroak galdu ere egin baitituzte.* Alberdi (1996, 171).

Begira diezaiogun 7. ikaslaren testuari: *Azkenik abantxü heltü zütützün zübüären finitzen.*

Eskolaren zeregina –batuan idatzi duen testuan erdietsia– da kasu honetan forma neutroak eskuratzea, bizkaieraren eremu zabaletan eskolak lortu behar duenaren kontrakoa, zeren alderantzizkoa baita jorra, alegia, hikako alokutiboa desagertzearena.

Garazikoa den 5. ikaslearen xukako moldea guztiz aintzat hartzeko du irakaskuntzak. Euskara batuak nekez eskain diezaiokie behenafarrerazko ikasle honi zukakoaren aldaera afektiboa, txikigarria den xukako moldearena. Dakusgun perpausa hau: *Behin bazuxun Txano Gorritxu izeneko ñeskatto bat.* Eskolan irakasleak ezin laguntza estimagarriagoa du esku artean *berori* eta *zu* erregistro neutroez gainera *zuka* edo *xuka* eta *hika* erregistro alokutiboak erabil ohi dituzten neska-mutilak ikasgelan edukitzean.

7. Atal honi jarri diogun **Euskararen Erregistroak** izenburua argitzeko 5. ikaslearen testuan finkatuko gara. López del Castilloren (1976) maila banaketa edo *nivells lingüístics*en aurkitzen dugun banaketaren arabera, ikasle horren behe nafarrerako testua A maila edo *llengua literaria i culta en generalean* kokatuko genuke, ezen, berez, irakurri dudalarik sormenezkoa iritzi diot eta narrazio semipoetikoa. Zer lirateke, bestela, *Noat abian xira hola?* edo *Zuhaitz baten gibelian kukutu xuxun* edo *Txano Gorritxu pasatu zuxulaik, otsua jin zaxoxun elekatzeat?* Euskara batuko bertsioa, aldiz, bete-betean sartuko litzateke *llengua comuna utilitária o estándar* deituan. Izatez, bitzuak dira jasoak, baina arestian aipatu dugun afektibotasuna dario euskalkikoari, xuka behe nafarrerakoari. Baditu López del Castillok *llengua familiar i colloquial* deritzanaren ukituak ere, baina ari den bezala ipuina kontatzen arituz hizkuntza literariora lerratzen da. Gainera behin baino sarriago berregiten dira maila espontaneoko esakuneak hizkera literarioan.

Hain zuzen ere, erregistro molde ezberdinak daudela esaten da, igorleak gaiaren, kanalaren eta inguru sozialaren egokitzapena egiten saiatu beharra daukalako. Eta ikasle honek halaxe moldatzeko gaitasuna erakustean, adierazten digu, euskalkietan euskara estandarraren oihartzun soila baino errekurtso linguistiko ugariago eta aberatsagoak aurkitzen direla eta eskolak erantzun egokia eman behar diela.

Euskal diglosia aisa ulertuko da, kontura gaitezenean, Euskara Batua A Hizkuntzat hartzen dugun arren, azpieuskalkia –kasu honetan behe nafarrera– B Hizkuntza izanik ere maila jasoagorakotzat hartzen dugula, literaturarako aproposagotzat jotzean.

8. Edonola ere, eskolak irakatsirik baino etxetik dakitena papere ratzen dute ikasleok –jakina, alfabetatu barik– eta jakin beharrekoa da, beste modua baino konplexoagoa dela alokutiboa, eta –gorago aipatu bezala– behar ez delarik ere aditza modu horretara tolesten dute ikasleok: Garazikoak *zelarik* forma zuzenaren ordez *zuxulaik* okerra; zubererakoak *beitzen*-en ordez *baituzüezün*. Hori horrela, alokutiboa zuzen bideratzeko, ezinbestekoa da Davanti (2000-VII-07) jarrai gakizkion:

8.1. *Egia da eskuarki alokutiboan egiten dugula zubereraz eta ekialdeko behenafarreraz. Salbuespenak badaude halere, bereziki elizako euskarari: Zuberoan zuberera klasikoa da hor, Be-*

*lapeyreren ildotik, Nafarroa Beherean lapurtera lehenago, eta gaur nafar-lapurtera*

8.2.- *Ekialdeko azken bi euskalkietan, alokutiboa galdere-tan ez dugu erabiltzen, eta batuan ere hori da legea. Adibidez, ongi bereizten ditugu Zer da hori eta Zer duk hori. Baina Lapurdin bientzat erraten dute Zer duk hori, eta molde makur hau sartzen digute batuan, iparraldean bederen.*



IV. ATALA

---

**EUSKALKIRAKO  
CURRICULUMA**

---

# 1. BIZKAIERAREN IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZARAKO OINARRIZKO CURRICULUM DISEINUA

## 1.1. Oinarria

Tesirako hartu dugun ikusmolde konstruktibistak zein parte hartze pedagogikoak edo jardun edukatiboa ikaslearen premia berezietara eta testuingurura egokitzearen printzipioak, curriculum irekirako eredia hautatzera garamatzate. Horrekin adierazi gura duguna da, eskolako curriculumak zelangoak izan behar duen ulertzeko ikusmolde bi badi-rela: bata, bere aplikazioa ahal denik gehien bateratu eta zehaztu gura duena eta bestea, aplikatuko duen irakasleari inizatiba zabala uzten diona. Bestela esanik, lehena, praktikan curriculuma eta programazioa identifikatzen dituen eta bigarrena, curriculuma programaziorako tresna moduan ulertzen duena.

Curriculum zehaztu eta “itxiak” erosotasunaren abantaila dakarkiote irakasleari, ezen arazo handi barik aplika ditzake jarraibideak urratsez urrats segituez gero; dakarten oztopoa, ordea, aplikatuko den testuinguruko izaerara ez egokitzea da, baita irakasleen esperientzia pedagogiko aberasgarrien nahiz irakasleen ekarri zuzentzaileen aurrean errefusakor izatea ere. Curriculum “irekiek”, aldiz, abantaila bikoitza dute, alde batetik aplikazioko testuinguru desberdinak aintzat hartzeko bermea eta, bestetik, irakaslea bere eginbide profesionalean sortzaille gisa inplikatzeko; alde okerra, oster, eskola ume guztientzako curri-

culum homogeneoa lortzeko zailtasuna eta, jakina, ezin ahaztuko dugu derrigorrezko hezkuntzan homogeneotasun hori desiragarria dela. Gainera, irakasleei ahalegin eta formazio maila askoz handiagoa eskatzen die, zeren euren programak landu eragiten baitizkie. Guztiorren-gatik, curriculum irekiaren ganean gehiketa bi egin beharrean aurkitzen gara: lehena, curriculumaren izaera irekia osotu beharrekoa da irakaslerik gehienentzat programazio tresna lagungarria eskura jarritz; bigarrenik, behin honezkerok dauzkagun derrigorrezko hezkuntzako esperientziek aholkatzen digutena da, derrigortasunak eskatzen dituen aprendizai minimoak zehaztea eta eskola adineko guztien eskura aurki daitezela.

Aipaturikoa gogoan dela, ezagun bilakatu zaigun konponbidea praktikatzen izan da, Curriculumaren Diseinuan hiru konkretio maila ezartzea. Lehen mailak zabaltasun gradurik txikiena dauka eta area curricular bakoitzerako zehazten ditu helburu terminalak, eduki multzoak, orientabide didaktikoak eta ebaluatzeko orientabideak. Bigarren mailan, lehenean azaltzen ziren eduki multzoen sekuentziazioa. Hirugarrenak, azkenik, programazio adibideak aurrekoetatik eratorriak.

Bizkaieraren irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako Oinarrizko Curriculum Diseinua hartuko dugu gogoan. Horren barruan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako parametroen barruan jokatu dugu egiten ditugun baieztapenak finkatzeko, nahiz eta dagokion mailara egokiturik ziklo guztietarako balio izan.

Curriculumaren ganean aipa daitezkeen gogoeta guztien artean, euskalkiaren irakaskuntza-ikaskuntzari zuzen-zuzenean lotzen zaizkionetara mugatuko gara, noizbehinka planteamendu teorikoekin bat ez gatozenez geure desadostasuna justifikatuz.

Bizkaiera ikasgelara dakargunean, H1 (ama-hizkuntza), H2 (bigarren hizkuntza), eta H3 atzerriko hizkuntza (frantsesa edo ingelesa gehienetan Euskal Herrian) aurkitzen ditugu. Arloaren planteamendu integratzailea –aurreuposamendu semantiko, testual, pragmatikoak amankomun eta antzeko metodologia– egiterakoan, bizkaiera ez da izango H4, Tesian zehar iragarri izan dugun Euskal Diglosia Iraziaren atal autonomo baizik. Integratzaile izatea gura dugu, dena dela, berberta batean ikasitakoa besteetara alda dadin.

Bizkaiera –bizkaiera literarioa eta azpieuskalkia– garatzerakoan, ikasleen ahalmen komunikatiboa gehitzea da gure nahia. Baina ahalmen

hori indartzeko hizkuntzaren erabilpena eta horren gaineko hausnarketak dira bide aproposak. Zeren guk badakigu berbeta bategaz ez dela jabetzen hiztuna berariaz ikasteko ahaleginak egiten diharduenean bakarrik, baizik eta, batez ere, komunikazio-egoera erreala batean murgildurik aurkitzen denan. Hizkuntzaz jabetzearen prozesu inkonziientea jakinaren gaineko ikaskuntza konziiente eta gogoetatsurekin batera gertatzen da. Horren ondorio modura esan daiteke, hizkuntza gizarte emaitza dela, komunikazioaren bitartez transmititua eta erabileran gartua, eta horrexegatik doaz Hizkuntza eta Kultura elkarri guztiz loturik. Bizkaierak, gure ustez, komunikazio egoera erreala nahiz kultura ezauzgarri aberatsa eskaintzen dizkio irakaskuntzari.

Hizkuntza Arlo honi loturik beti adierazi beharko da lenguaia, bere funtzio irudikatzailean, garapen kognitiboari josirik dagoela, eta kontzeptualizazioa, kontzeptuen arteko harremana, munduaren irudikapena posibilitatzen dituela, horrela pentsamenduaren garapenari lagunduz.

Eskolak Hizkuntza Arloan duen lehen eginkizuna ikasleek zer jakin behar duten eta zertarako seinatzea da. Horretarako, baina, aurreurrean eduki behar da berbeta irakaskuntza-ikaskuntza guztiaren euskarri dela.

*(...) nahi nuen irakaspide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, eta ez da, inoren amaren hizkuntza. Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan, eskualde batekoa edo Euskal herri osokoa. Bai, Zaloña. Ez diete ez zure haurrei ez besterenei ikastolan amaren hizkuntza irakasten, baizik eta mintzaera horretarik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz. Zuk, esate baterako, *semiana* esango duzu eta zure haurrei *semearena* irakasten diote. Mitxelena (1970: 26).*

Eskolara iristean –hiru urteaz– umeen lehen hizkuntzaren lorpen-prozesua aurreratuta dago, eta H1 lortzearen prozesua errefortzatu egiten da eskolatze sasoi osoan. Edozelan ere, eskola-sisteman sartzean haurrek daukaten abiapuntua, hizkuntzari dagokionean, ez da homogeneoa, zeren familia giroan –bizkaiera dakitenen kasuan– ezagututako hizkuntzaren esperientziak markatzen baititu lorpen diferentziak. Eskolaren helburua, hizkuntza arlo honetan, giro soziokultural eta familiara jasan diren eskasiak konpentsatzea da. Konpentsazio hori, ordea, oker bideratu da gehienetan, ezen etxeko ideolekto eta eskolako

berbakeraren artean jauzi handiegia egon baita. Ahozkoan handia da jauzia, baldin euskalkia dakiena eskolan berba egiten ikasten jartzen badugu, ezer ez baleki moduan. Hiru urteko ume horrek irakasle euskaldun berriarekin egiten badu topo –gaur arte irakasten den bizkaieraren kutsu bako batudunarekin– jauzia benetakoa da. Ume erdalduna beste hizkuntza bat ikasterako jauzia egitera behartua dago, baina euskaldunak ere alde handiegia nabarmentzen du. Diogunaren nahiko froga da teke, etxetik “Polita da” ahotan joan dena “Da polita” errepikatuz itzultzea. Hortxe dakusakegu etxeakoaren eskasia ezin konpentsatuz jarduteaz gainera etxetiko hariaren etena. Zentzu horretan, eskolaren zeregina erabakiorra da nahiz eta nahikoa ez den:

*Eskola kultur euskarri bat da ikaslea gizarteratzeko. Euskarri hori hizkuntza aldaera idatzietan eta ahozko maila jasoan oinarritzen da, eta aldaera horietako trebetasunak eta gaitasunak jorratzen ditu bereziki. Baina, hala ere, hizkuntza jokabide gehienak ez dira aldaera formal horietara mugatzen. Garbi dago eskolak ezin duela bere gain hartu ez dagozkion aldaera funtzionalen sustapena, hala nola, izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetakoak. Horregatik, hizkuntza batzuek bizirik irauteko, behar-beharrezkoa dute euren erabilera areagotzea, bai eskolara joan aurretik bai eskolaz kanpo bai eskola garaia bukatu ondoren ere. Fishman (2000: 11).*

Beraz, aintzat hartu beharreko ondorioa izango da, irakasle, gela eta metodoei eskatzen zaien zubi lana –etxeiko eta eskolako hizkeraren artekoa–, baita ostean ikasle berberari eskatuko zaiona, hau da, eskola eta familiaren artekoa. Horretan hizkuntzako irakaslea ezezik irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle.

Mintza ekoizpena eta hizkuntzaz kanpoko errealitatea lotzen dituen lan batek baino ez dezake hobe erabilpena. Erabilpen hauei buruzko hausnarketa sistematikoa izango da trebetasun komunikatiboak hobetzeko behar den osagaia. Gaur dakigunetik, hobekuntza hau ezin etor daiteke perpausaren gramatikatik, honek, hizkuntzaren ekoizpen idealen azterketan oinarritzeaz gain, analisi fisikoaren oinarritzat diskurtsoetik datorren perpausa baitu, eta ez testua. Halan da ze, erabilpena hobetzeko, hizkuntzaren benetako diskurtsoetan eta testu mota guztietan –ahozko eta idatzizkoetan– oinarritu beharko du, ikasleek hobeto ulertu eta ekoiz ditzan.

H1, H2, eta H3k eremu amankomuna dute. Eremu hori edozein hizkuntzatatik azter daiteke, ezagumenduak berbeta batetik bestera

igarotzen dira eta. Bizkaiera-batuaren ikasketan ere gainerako hizkuntzetan jasotako estrategiek balio dute.

Arestian idatzi dugun testuak aipamen berezia merezi du literatur testuez ari garenean. Literatur testuetan hizkuntzaren birtualtasun guztiak aktualizatzen dira. Horietan helburu ludiko, poetiko eta metalinguistikoaren testualizazio eta erregistro posible guztien eta sor daitezkeen eredu linguistiko guztien adibideak aurki daitezke. Bestalde, testu funtzionalak ez ahaztea ere komeni da, zeren gure gizartean maiz agertzen baitira, dela elkarrizketa nahiz konferentziak zein publizitatea eta abar.

## 1.2. Euskalkiaren edukiak

### Planteamendu Orokorra.

Orientazio didaktiko eta ebaluaziorakoetan barruratu aurretik, beharrezkoa da edukinen gaineko planteamendu orokorra egitea. Bizkaieraren erabilpenean elkarren gainean jartzen doazen urratsak eman behar dira: erabilpena, erabilpenari buruzko hausnarketa, erabilpenaren hobekuntza, horrela espiralean igotzen doan hizkuntzaren irakas-kuntza-ikaskuntza prozesu bat eraikiz. Jarraitzen dugun enfoke komunikatiboan jarraitzeak zailtasun konkretuak dakartza. Hizkuntzaren ikasketa segmentatzea zaila da, komunikazioan erabiltzean bere osagai guztiak aldi berean jartzen baitira jokoan. Beraz, edukinen banaketa egin behar da. Honetan jartzen den oztopoa –sekuentziazioaz mintzatu-tuko garenean esango dugun moduan– izaten da, edukin kontzeptualetatik abiatzeak suposatzen duena dela, arloa antolatzerakoan hau ikasleen hizkuntzaren erabilpen errealean menpean ipini beharrean, arloa kontzeptu bakoitzaren barne logikaren menpean ipintzen dela. Honela gauzatzen den sekuentziazioak hizkuntzaren ikerketa deskriptiboan egiteko balio du, baina ikasleen komunikazio gaitasuna hobetzeko alferrikako suerta daiteke. Ondorioz, sekuentziazioa egiteko testu tipologiatik abiatzea proposatuko da. Hala ere, badira arrazoi bi zein indartsuagoak edukin kontzeptualetatik abiatzeko –beti ere testu tipologia irizpide bezala aintzat hartuz–: bata ikaskuntza estrategia erratuak erabiltzea da, ezen formen ikaskuntza albora utzi baita. Ikasleak halako marko jakin baten barruan komunikatzeko gai dela egiaztatzen badu,

arrakasta-maila egoki batekin garrantzigabekotzat jo dezake bere ahozko eta idatzizko adierazpenen zulentasuna. Jarrera honek adierazpen-forma desegokien finkapena dakar, hain zuzen ere komunikazioari erabateko trabarik egiten ez diotenez gero kentzeko oso gatzak izaten direlako.

Bestea, edukinen banaketa modu zehatz eta doituan bideratzen ez bada, diglosia irazian bizi den euskara osoa, bere aldetik, espainola eta frantsesarekin diglosian dirautenez, helburua komunikatzea bada, ikaslea komunikatu egingo da, baina horretarako aukeratzen dituen formak erdararen ahal denik parekoenak izango dira. Ikasleak hizkuntzaren ekonomia praktikatu du, hizkuntza bien –euskararen eta erdararen– arteko armonia bilakatuz. Euskararen den bikote sisteman, erdarak bakarra duen oro, erdararen parekoak baino ez du iraungo. *Medikuarengana* eta *medikura* badauzka euskarak, erdararen parekoa biziko da, hau da *medikura*. *Bururako* eta *buruarentzat* badauzka euskarak, *buruarentzat* baino ez da joanen aitzinera.

Mailakako banaketa:

Batetik geure esperimentazioak eta bestetik ikastetxez ikastetxeko galdeketeak erakutsi digutenetik, bizkaiera lekuan lekuko ikastetxeak halako hiru mailatarik bati jarraituz planifika dezake:

### 1.2.1. Marka bako maila

Marka gabeko deritzagun bizkaiera, euskara batuaren barruan txertatuta baino irazirik dagoena da. Euskara batua euskalkien ondaretik eraikia da. Gehiegitan bizkaierako ekarria oso bazterrera laga izan da, eta marka gabeko maila honetan, ostera, mendebaldeko euskara legokiokoen proportzioan agertzen da. Zeozelan esateko, euskara batua mendebaldeko erara izango litzateke. Mendebaldekotik euskara estandarerrako egin daitekeen ekarria aintzat harturik ikusten den eredia. Bizkaierako formak euskara osoko legez azalduko lirateke sistematikoki. Bai *neba-arreba*, ez *anai-arreba*; bai *hatz-behatz*, ez *eskuko behatzak*; bai *osatu* dut lana, ez *osatu* dut; bai *berba egin*, baita *hitz egin* ere; bai *amaitu*, baita *bukatu* ere. Berba baten, mendebaldeko euskadunok erabili gurako genukeen euskara batua, geure-geuretzakotzat joko genukeena

## 1.2.2. Maila markatuak

### 1.2.2.1. *Oinarrizko maila*

Maila honetan ez da irakasgairik bizkaieraz ikasten, bizkaiera eskolako Euskarako Departamentuak irakasten du, nahiz eta –gerotxuago adieraziko dugunez– irakasle guztien ezinbesteko lankidetzaz.

Bizkaieraren irakaskuntzako planteamentu orokorrerako maila honen ildoari jarraituko gatzazkio, Maila Jasoaari erreferentziak, erka-ketak ugari eginik.

### 1.2.2.2. *Maila jaso*

Maila Jaso honetan Oinarrizko Maila osoaz gainera asignaturak ere ikastea ulertzen da. Irakasgaiok bizkaieraz ikastearen barruan eredu desberdinak praktikatu izan dira, eta teorikoki eredu anitza proposa daiteke beti ere.

1.2.2.2.1. Badira DBH hasi arte bizkaieraz irakatsi eta gero euskara batura aldatzen direnak. Halakoetarik batzuk unibertsitatera arteko aroan ahozkoa bizkaieraz jorratzea irakasleen esku uzten dute.

1.2.2.2.2. Badira haur eskolan bizkaieraz irakatsi arren idatzia euskara batuaz baino lantzen ez dutenak.

1.2.2.2.3. Gure ikuspuntuaren arabera, bizkaieraren erabilerak ez du etenik ezagutu behar. Batuarekiko proportzioetan, ehuneko zenbat da auzi erabakigarri bakarra.

## 1.3. Oinarrizko mailaren garapena

### 1.3.1. Berbetaren ikasketako ardatzak

Bizkaierako testuen gaineko azterketa, berbetaren erabilpena aztertzen duten lau bidetan antolatuko dugu. Tesian zehar proposatuz gaitoen norabidetik joko dugu, alegia, alderdi zabal eta orokorretik.



Lehena, berbeten arteko harremanak eta hizkuntzek hiztunekaz dauzkatenak osotzen dute. Hala jokatzeari Euskararen barrurako diseinatu dugun Diglosia Iraziak eskatzen du. Hausnarketa hau honelako testuetan finka daiteke: hizkeren arteko harreman gatazkatsuak; hiztunen jarrera eta beste zenbait fenomeno, kode nahasketa, estandarretik euskalkirako maileguak... Fenomeno horiek ulertzeko era egokia berbakerek duten kontsiderazio sozialetik eta hiztunak hizkera bakoitzarekin dituen harremanetatik abiatzen dena da.

Bigarrena, hizkuntzak bere zentzu osoa komunikazioan baino ez du lortzen. Horrexegatik egin behar da hausnarketa komunikazio egoeretako osagaiei buruz. Osagaiok hizkuntza jarduera guztien oinarrian aurkituko ditugu eta testuen ekoizpenean zein ulertzean erabakiorrak dira. Hortik dator espazioa, denbora, solaskideak eta esanahia determinatzen duten faktoreak kontuan hartzea.

Hirugarrena, testua esanahiko unitate globaltzat hartzen da. Esanahiaren antolaketari dagozkion alderdiak eta testuaren batasuna segurtatzen duten kohesio-prozedurak analisatu behar dira.

Laugarren, morfosintaxiaren hausnarketa. Honetan, bizkaierako testu errealetatik abiatzea da beharrezko, ez egoera komunikatibotik at daudenetatik. Berez, hauxe da irakaskuntzan tradizioz gehien landuriko saila.

Ulermena eta ekoizpena:

Aurreko atalean aipatu ditugun lau hausnarketa bideak osagarri diren bi jardueraren erabiltzetik abiatzen dira, ulermena eta ekoizpena, beti ere, ahozko zein idatzizko testuak direlarik.

Adinaren arabera, ikasleak esparru horietan sor daitezten testu nahiz diskurtsoak ulertzeko eta ekoizteko gaiturik egon behar du.


Testu komunikatiboen erabilpena eta hausnarketa:

Komunikazioko kompetentzia gehitzea edo hobetzea prozedura bikoiztetik elikatzen da: benetako esperientzia komunikatiboetako testuen erabilpenetik eta euroi buruzko hausnarketetatik. Lehen multzori dagokionez –Hizkuntzen arteko harremana– bide bitatik etor liteke hausnarketa: gertakari edo fenomeno sozialetik, edo testuen irakurketa eta entzutetik. Multzo honek, nolabait, gainerako multzoak bere gain hartzen ditu. Horren arrazoia datza, elkar ukitzen duten euskara estandar eta euskalki literario eta azpieuskalkien arteko harremanetan, zein

hiztunek hizkuntzen egoera sozialaren aurrean dituzten jarrerak eza-  
gutzean eta horrek euren komunikazio gaitasuna hobetzeko interesa  
sortzean. Multzo honetan izaera soziolinguistikoa duten jarrerazko eta  
kontzeptuzko edukiak batzen ditu. Gainontzeko multzoetan –literatu-  
ra, komunikabideak, instituzio harremanetako hizkuntza, pertsonen  
arteko berbeta– egingo da, proposaturiko lau hausnarketa bideen bitar-  
tez eta testu errealen bitartez, norbaitek noizbait, nonbait eta helburu  
konkreturen batekin ekoiztutako testuen bitartez.

### 1.3.2. Edukien multzoak

Jarraiko koadro honetan, alde batetik, edukien multzoak eta beste-  
tik prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukien egituraketak  
erlazionatzen dira:



#### 1.3.2.1. *Eduki multzoen izaera*

##### 1.3.2.1.1. Multzoa: Hiztunak eta hizkuntzak

Euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia espazio berean  
bizi direnean –kasu honetan eskolan–, elkarrengan eragina dute eta ga-  
tazkarako joerak azaltzen dira. Guk euskal diglosiaren barruan euska-  
ra estandarra jarri dugu ardatz eta estandarrarekin txertaturik bizkaiera  
literarioa eta literarioan azpieuskalkia. Orain artekoan ez dugu uste  
normalizaziora ekarri direnik. Normalizatzeaz ulertzen dugu, bizkaie-

ra literarioa geografikoki mendebaldean normaltzea –bizkaiera literarioaren esparrua gipuzkerak bete izan duen lurraldean egokitzapenak eginenez– eta komeni litzaiokeen esparruetan, gure tesian irakaskuntzan. Azpieuskalkia eskualdean edo dagokion gunean ezartzea. Honetan, hizkuntzen arteko ukipena agerian duten testuen eta ikasleek bizi dituzten egoeretan oinarrituko dira.

#### 1.3.2.1.2. multzoa: hizkuntza literaturan

Sentimendu, pentsamendu eta balio indibidualak nahiz kolektibok transmititzeko tresna aparta da literatura. Multzo honen xedea irakurketan oinarriturik edozein leku eta garaiko literatur testuen ulerpenera lortzea da. Honetan euskara batua zein bizkaiera literarioa irakurri behar dira, eta onartzen dugun diglosiak ez du esan gura eskolan euskara estandarrean irakurtzea aski denik, ezen bizkaierak literatura klasikoan nahiz gaurkoan badu berezko duen esparrua. Argialetxe, idazleek eta irakurleek oharkabean erakusten dute joera diglosikoa, euskara batuaren ondoan euskalkia apal utziz, baina eragile guztien zeregina da lekuan lekuko literaturak eskola eremuan tokia izan dezan, azpieuskalkian gehienetan ahozko testuak izan dezakete nagusigoa, baina eskolan beti izango du bere esparrua, zeren literatur testua enuntziazio egoera guztiak errepresentatzeko gai baita, eta, beraz, erregistro, bariante, tonu eta estilo guztiak.

#### 1.3.2.1.3. multzoa: Hizkuntza gizarte komunikabideetan

Telebista, prentsa eta irratiko erabilpen linguistikoak –zinema ahaztu barik– aztertzen dira, guztietako zehar-fenomenoa den publizitatea barru dela. Dagiten hizkuntzaren erabilpen bereziak eskatzen du hezkuntzan gai bezala har dadin. EITB Euskal Herri osorako euskara estandarri begira badihardu, euskalki literarioak dira, esate baterako, Zuberoako Boza eta Bizkaia Irratia; azpieuskalkirako herrian herriko nahiz eskualdean eskualdeko irrati eta telebistak. Horrenbestez, eskolak badu aukerarik erregistroak lantzeko. Badakigu, gainera, komunikabideak normalizazio linguistikorako baliabide pribilegiatuak direla.

#### 1.3.2.1.4. multzoa: Hizkuntza instituzio harremanetan

Hasiera-hasieratik bereiztu behar dira multzo honetan, ikasleek ulertu eta interpretatu behar dituztenak, ulertu eta interpretatzeaz gain ekoiztu behar dituztenetik. Hemen kokatzen ditugu politika, lana, administrazioa, hezkuntza... Eskolan jorratzerakoan ohartzen gara testuok aldean duten izaera formal markatuaz, maiz zurrunegi gertatuz euren egitura, lexiko eta esamolde berezietz. Multzo hau ezagututa, baieztatu daiteke euskara eta euskalkien arteko lotura diglosikoa are markatuagoa dela, euskara batuarena berarena erdararekiko –berez kanpo harremanetarako duguna– den bezainbatean.

Arlo honetan –beste batzuetan bezalatsu– etxetiko euskararik ez dakiten ikasleen eta familiarik etxekoagaz datozenentzako helburua desberdina da. Familia erdaldunetarik heldu direnek aski dute halako testuak ulertu eta interpretatzeaz, etxetik euskaraz datozenei horrez gainera ekoiztea ere badagokie.

#### 1.3.2.1.5. multzoa: Hizkuntza ikaskuntzan

Berez, ia curriculum guztian irakasten denaren oinarri izanik, arlo honen hesietan ezin itxi daiteke. Testuek hizkuntza ezagutzen laguntzeaz gain edukiak transmititzen dituzte. Arrazoi horregatik bereizi ditugu arestian Oinarrizko Maila eta Maila Jasoa. Honetan bizkaieraren bidez edukiak azaltzen direlako. Ikasleak bereganatu behar duen gaitasuna da entziklopedia, artxiboetara, datu-baseetara iristekoa. Baita eguneroko bizitzan ere proiektatzen diren testu askotan proiektatzen dena. Medikuntza prospektuak, gidaliburuak, katalogoak... Ekoizpenari dagokionez eskola jardueran arruntenak diren testuak, laburpenak, eskemak, azterketa..., saihetsera laga barik dokumentazio-testu askorekin batera etorri ohi diren grafiko, lauki sinoptiko, mapa eta abar.

Tipologiak testuen ikasketa antolatzeko erabiltzen diren parametroak dira. Bere mugak badituen arren, edozein tipologia –eduki multzoetan islatutako erabilpen eremuekin batera– lana Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen beharrezko diren testu moten inguruan antolatzeko gai da.

### 1.3.2.2. *Eduki motak*

#### 1.3.2.2.1. Kontzeptuzko edukiak

Kontzeptuzko edukiak ez zaizkio lotu behar multzo edo testu mota jakin bati. Gehienak edozein testu edo eremutik abiatuak lan daitezke. Hizkuntzaren gertakari, kontzeptu eta printzipio zerrenda lau tegitan sailkatuak dago:

Lehenak: hizkuntzen arteko harremanak. Hiztunak eta hizkuntzak:

- Ukipenean dirauten euskara batua, bizkaiera literarioa eta azpieuskalkiaren arteko harremanak.
- Euskalki, azpieuskalki eta batuaren arteko harreman diakroniko eta sinkronikoak. Euren arteko maileguak eta interferentziak.
- Euskal diglosia. Elebakartasuna. Elebitasuna. Eleaniztasuna.
- Hitzunen arteko ukipenetik datozen fenomenoak
- Euskalki, azpieuskalki eta estandarren arteko normalizazioa.
- Hizkuntzaren barruko aniztasuna.
- Hizkuntza, dialektoa eta araua.

Testuingurua eta hiztunak:

- Erregistroak testuinguruko elementuekatz daukan mendekotasuna.
- Testua egoerara egokitzea. Elementu deiktikoak.
- Solaskideak: igorlearen eta hartzailearen betebeharrak sozialak. Horrek ahozko nahiz idatzizko testuetan duen isla.

Testuaren antolaketa:

- Batasun prozedurak:
  - Korreferentzia: errekurrentzia, sinonimia, hiponimia, parafrasia, determinazioa. Euskara batuaren eta euskalkiaren arteko esparrua oso aberasten du sail honek.
  - Konektoreak. Ahozko berbakeran konektoreak oso erdalduntuta aurkitzen ditugu.

Morfosintaxia:

Multzo honetan edukiek hiru zutabetan aurkeztu behar zaizkio hala irakasleari nola ikasleei. Zutabe nagusian euskara batukoak, aldamenetan bizkaiera literariokoa eta azpieuskalkia.

- Perpaus bakun eta konposatua. Euren osogarriak.
- Multzo sintaktikoak. Motak eta funtzioak. Kategoría gramatikalak.
- Hitzaren egitura. Lexema eta morfema. Aditz morfemak (denbora eta aspektua).
- Komunztadura talde sintaktikoan, perpausean eta perpausen artean.
- Deklinabidea.
- Konposaketa eta eratorpena.

#### 1.3.2.2.2. Prozedurazko edukiak

Prozedurak ez zaizkio lotu behar multzo jakin bati edo testu mota bati.

DBHn landu behar diren prozedurazko edukiak dira:

##### 1.3.2.2.2.1. Ulermenerako prozedurak

- Euskara estandarra, euskalkia eta azpieuskalkiaren arteko ukipenetik datozen fenomenoak ezagutzea.
- Prosa eta poesiazko testuen irakurketa espresiboa.
- Igorlearen asmo eta esanahiak testuinguruarekiko duen mende-kotasuna ezagutu.

Euskalkia etxetik ez dakartenentzat bizkaiera ulermenezko prozedura da batez ere, ezagutzea. Jakinik datorrenarentzat, 2.2.2an idatziko dugunez ekoizpenerako prozedura ere bada.

- Ahozko eta idatzizko testuen laburpenak gauzatzea.

#### 1.3.2.2.2.2. Ekoizpenerako prozedurak

Aurreko puntuan adierazi dugunaz gainera,

- Helburu eta forma ezberdineko testu idatzien ekoizpena, kontuan harturik. Euskalki literario, azpieuskalki eta euskara estandarren arteko ukipenean, koherentzia, erregistroa komunikazio egoerari egokituta; arau ortografikoak batean eta bestean.
- Ahozko testuak planifikatu eta ekoiztu, kontuan hartuta: erregistroa, tonua, keinua eta koherentzia, zuzentasun gramatikala, hitz jarioetasuna eta ebaketa argia.

Berba baten, euskalkia lantzeko gune eta aukera ugari.

#### 1.3.2.2.2.3. Ulermenean eta ekoizpenean eragina duten prozedurak

- Testuak transformatu, hizkuntza, bide, helburu, testu motaren arabera.
- Testuak, perpausak, talde sintaktikoak eta berbak transformatu, hau da, zabaldu, aldatu euskalkitik batura eta alderantziz, kendu, desplazatu.
- Testu, perpausak, eta berbak konparatu euskalkien artean eta sailkatu batua, euskalki literario, azpieuskalkien arabera.
- Ikaskuntza estrategiak testuen ulerkuntza eta ekoizpena errazten duten barne prozesuak dira, hau da, prozeduren parte izatera iristen dira. Ama hizkuntzan garatzen dira lehenik, eta gero beste hizkuntzetara transferitzen dira. Prozesu horietan sartzen ditugu: testuan oinarriturik ideia nagusia ateratzea, hiztegiak eta kontsulta materiala erabiltzea, gramatikako arauak deduzitzea, euskarazko forma bizkaierakotik ateratzen jakitea, batuko formatik bizkaierakoen eratorpena ateratzea...

#### 1.3.2.2.2.4. Jarrerazko edukiak

Euskalkien gaia leku barik izan denez irakaskuntzarik gehienean, legozkiokeen jarrerazko edukiak ez dira ia landu, oraindik gutxiago jarrerazko edukiak eurak curriculum ezkutuan mugitu izan direla.

- Hizkuntza eta aldaki desberdinen erabilpenarekiko errespetua eta balorazio positiboa.
- Hizkuntzari buruzko hausnarketak norberaren ekoizpen linguistikoak arautzeko duen garrantzia baloratzea.

#### 1.4. Hizkuntza arloko helburuen ebaluaziorako irizpideak

Hemen jartzen ditugun irizpideak Hizkuntza Arloa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ebaluatzeko dira. Helburuok ICPko irizpideen arabera taituzekoak dira, eta arloko irakasle taldeak hartzen duen sekuentziaziotik ateratakoak.

Aintzat hartzen dugun orientazio orokorra da, ikaskuntza ez dela ikasleen egitura kognitiboan elementu berriak metatze hutsa, baizik ezagumendu berriak aurrekoekin harreman konplexuen bitartez lotzea ere bai. Ezen informazio flotakorra galdu egiten delarik, ezinbestekoa baita lotura ezartzea ikasi beharrekoa eta jadanik ezaguna denaren artean. Beraz, zenbat eta konplexuagoa eta sendoagoa izan elementu zahar eta berrien arteko harremana, hainbat eta esanguratsuagoa izango dela ikaskuntza.

Erdal familietako seme-alaben euskara maila dela eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hizkuntzaren ebaluazioaz esan behar da, begi bistako desfasea topatzen dela daukaten gaitasun kognitiboaren eta euskararen duten gaitasun linguistiko mugatuaren artean.

##### 1.4.1. Frogarik aipospenak

Azpieuskalkia, euskalki literarioa eta euskara batua ebaluatzeko frogarik aipospenak hauexek gerta daitezke:

1. Mota desberdinetako ahozko testuen ideia nagusiak eta helburua zeintzuk diren jaso, euren edukia ahoz eta idatziz adieraziz. Irizpide honen helburua ikasleek hartzen duten ahozko mezuaren funtsezko edukia ulertzen dutela egiaztatzea da. Horretarako komeni da denetarik erabilpen eremuetatik datozen testu errealak erabiltzea, hots, gazteen berbakera kolokialekoa, azpieuskalkikoa, bizkaiera literariokoa



eta euskara batukoa. Urtean zehar, idatzia bada neurtzeko tresnarik baliagarriena ere, ikasturte hasieran edo bukaeran ahoz eta banan-banango froga egitea behar-beharrezkoa da. Eguneroko saioetan ere aukera anitz bada ahozko mezuaren funtsezko edukia jaso duten ala ez egiaztatzeko.

2. Edozein erabilpen eremuko eta mota desberdinetako testu idatziak ekoiztu –narrazioak, deskripzioak, azalpenezkoak, argudiozkoak...–, alde zuzenetik ezarritako komunikazio egoera bati egokituz, beren edukiak egituratuz eta zuzenketa irizpideak aintzat hartuta.

Irizpide honen asmoa ikasleak komunikazio errealeko egoera bati egokituriko narrazio, deskripzio, azalpen eta argudio testuak sortzeko gai diren jakitea da, beren edukiaren banaketa testu mota horien antolaketa ezaugarrien arabera planifikatuz. Ikasleek euskalkia eta estandarren erabilera bereizten dakitela erakutsi behar dute, bai eredu bakoitza zuzen erabilia, baita eredu bakoitzaren autonomia zein izaera nahas ditzaketen testuetako interferentziak saihesturik.

3. Ikasleari intereseko zaion literatur testu bat bere osotasunean irakurri ostean zein motatako testua den identifikatzea, oinarritzko egitura, elementu nahiz estilozko errekurtsioak ezagututa eta gehien edo gutxien preziatzen diren alderdiei buruz iritzi pertsonala emanik.

Irizpide hau ikasleak aukeratutako testu osoen irakurketan oinarritzen da, eta aukeraketa hori irakasleak eskainitako liburuen artean egingo da. Hortxe sartuko ditu irakasleak batuan, euskalkietan, azpieuskalkietan idatzirik dauden liburuak. Helburu nagusia irakurketa atsegina lortzea dela ahantzi barik. Irizpidearen xedea ikaslea literatur lanaren identitatea markatzen duten egitura elementuez ohartzen den ala ez jakitea da, hau da, argudioa, pertsonaiak, ekintzak, espazioak, denborak, hizkera kolokial eta jasoak, euskalkiak eta estandarra, prozedura erretorikoak eta abar.

4. Euskal Herrian diren hizkuntza ukipenak identifikatu, lokalizatu eta deskribatu: erdarak eta euskara; euskararen barruan, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia.

Irizpidearen asmoa ikasleak identifikatzen dituen ala ez jakitea da. Euskal Herrian hitz egiten diren berbetak, euren hedapena, nahiz erdarekin dituzten harremanak, baita dialektoak arau linguistikoarekin duten lekua, eta aldi berean ea ezagutzen dituen ala ez berbeten –eta euskara batua eta euskalkien– arteko kontaktu egoerak azaltzen dituzten

eragileak. Irizpide hau lantzerakoan ikaslea inguratzen duen errealitate hurbilenari arreta berezia eskaini behar zaio, hots, azpieuskalkiari.

5. Hizkuntzaren aldaki sozial ezberdinen ezaugarri linguistiko propioak identifikatu, behaketa zuzena eta ekoizpen desberdinen konparaketaren bitartez.

Ikasleak hizkuntzaren bariedade sozial desberdinak ezagutzeko duen gaitasuna aztertzen saiatzen da irizpide hau. Elkarriketa, tertulia, etxeko euskara eredu eta antzeko komunikazio egoera errealak, eta gizarte komunikabideak, elkarriketa familiarak eta abar behatuz gizarte eragileek mugatutako hizkera bariedadeen erabilpenaz ohartuko da.

Hizkuntzen ukipenean dihardugunez, guttiz erabakigarria da eba-luazioan ikasleen erroreak modu egokian bideratzea. Ezer aitzinatu gura bada, ikaslearen motibazioa behar da “kode-hausketa” edo erroreak gainditzeko. Irakasleari, bestalde, aukera ematen diote ikaslearen ikaskuntza estrategiak ulertzeko; aurkitzen diren zailtasunak neurtzeko eta arazo errealei dagokien pedagogia hartzeko.

Ahozkoan irakaslearen jarrerak ez du zorrotzegiak izan behar, eta errorea prozesuaren parte naturalizat hartuko du, ikasleen aldetik adierazpen libreko aukerak erraztuz. Horrek ez du esan gura “denak balio duenik”. Berez, jariakortasuna eta zuzentasunaren arteko oreka doia da lortu beharreko xederik garrantzizkoena.

Gomendagarria da ikuspegi honetatik komunikazio akatsak “erretzat” eta ez “hutsegitetzat” hartzea.

Errore-mota desberdinak har daitezke kontuan:

Gaitasun erroreak hizkuntza erregela bat ez jakitea adierazten du eta irakaslearen edo taldearen laguntzarekin konpon daiteke.

Ekoizpen errorea, *performance* deritzana. Hizkuntza erregela bat ez aplikatetik sortzen da. Ikaskuntzako subjektuak berak zuzen deza-keen “lapsus” bat da.

Erregistro errorea. Erregela soziolinguistiko bat jakin ez edo ez aplikatzean sortzen da.

Metodo erroreak, irakaslearen aldetik, edukien sekuentziazio edo mailakatze desegoki batengatik gerta daitezke, edo prozesuaren une jakin horretan ikasleek behar duten hartze-ekoiztezko prozeduretara egokitzen ez den jardute-planteamendu batengatik.

Eredu erroreak. Irakasleak oker erabiltzeagatik ikasleengana urtez urte iristen direnak.

Bestalde, behin eta berriro azpimarratu behar da ahalegin berezia egin behar dela inor bere erroreengatik ikaratu edo barregarri senti ez dadin. Jokabideak alderantzizkoak behar du izan, alegia, zuzenketak konfiantza giroan egin behar direla.

## 1.5. Hizkuntza arloaren berariazko jarduera eta estrategia metodologikoak

### 1.5.1. Ikasgela

Hasiera-hasieratik baieztatu dugu arlo honetako helburua komunikatzeko gaitasuna hobetzea dela. Horrek ikasgela komunikatu ahal izateko espazioa izan dadin eskatzen du. Komunikatu ikasleak euren artean eta hauek irakaslearekin. Jakina da horretarako irakasleak ikasleek dakiten bezainbat jakin beharko duela batuaz, euskalkiaz zein azpieuskalkiez.

Espazioari dagokionean, antolaketa moldakorra lortu behar da, lan egiteko modu eta taldekatze desberdinak bideratzeko –banakako lana zein irakurketa, elkarrizketa antzeztuak, eztabaidak, talde lanak– egin beharreko leku aldatzeak ahalik eta arinen burutu daitezten. Bizkaiera-koak, esate baterako, talde bereiztuan jokatu beharko dute batzuetan, erdaldunen talde buru izanik besteetan.

Komenigarria da euskara batuko nahiz euskalkiko materialak gelan edukitzea –hiztegiak, irakurgaiak, kaseteak...– espazio fisikoa aldatu beharrik gerta ez dakien.

Ikasleek euren ikasgelarekin identifika daitezten mesederako dira horma irudiak, testuak, kartelak, panelak, ikasleen produkzioak, kritikak, gomendioak, kolokialak nahiz erregistro jasokoak, dagokien txokoa aurki dezaten. Proposatzen dugun euskal diglosiak uste izan genezakeen baino espazio zabalagoa topa lezake ikasgelan, hala euskara baturako, euskalki literariorako zein azpieuskalkirako.

Denborazko faktoreei dagokienez, ordutegiaren banaketa ahal bezain moldakor gerta dadin taiutu behar da, aukerako gaietan nahiz es-

kolaz kanpoko txangoetan eta euskara estandarri edo inguruko berbakerari leku egin diezaioketen talde txikiek eragile bilaka daitezten.

### 1.5.2. Irakasleen eginkizuna

Oinarrizko Curriculum Diseinuan ez zaio jarraitzen ohiko izan zen ulertze moduari, alegia irakasleak badakiela eta ikasleak ez, eta dakienak ez dakienari transmititu behar diola jakituria. Horren ondorioa da jakitunak bere esku duela hitzaren monopolioa. Diseinu honetan ezagupena ikasle bakoitzaren buruan osotzen da, irakaslearekin, lagunekin eta bere buruarekin elkarrizketatuz. Elkarrizketa honetan irakasleak bere laguntza eskaintzen dio. Modu honetara, ikasleak berba ugarri egin dezala lortzen da, dela euskara batuan zein euskalki nahiz azpieuskalkian. Hortxe da azpimarratzekoa irakaslearen hizkuntza.-mailak ikaslearentzat eredu gisa duen garrantzia, ezen jakin beharko du zein hizkuntza eredu eskaintzen dien ikasleei komunikazio egoera bakoitzari bere erregistroa egokituz. Irakaslearen prestakuntza, formazioa eta esperientzia oinarrizko faktoreak dira. Eta ez hizkuntzako irakaslea bakarrik, irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle eta. Honetan irakurle ez den irakasleak zaletasuna nekez kutsatuko dien moduan, euskalkia edo lekuan lekuko berbakerarako zaletasuna ere –ez bada euskaltzale– nekez sortaraziko du. Gogoan izanik beti, euskara batua ikasirik datozen irakasleei –euskarakoari salbu– nekez eskatu ahalko diegula –borondatez ez bada– euskalki literarioan berba egiten jakin dezaten –bai idatzia– eta are nekezago azpieuskalkia.

Irakasleari euskalkian bezala edozein gaitan ezagun zaizkio, printzipioz, hezkuntza prozesuaren finean ikaslearekin konpartitu nahi dituen esangurak, eta ezagupen honetaz baliatzen da irakaskuntza planifikatzeko. Beste berba batzuetan, ikaslearen ezagutzaren eraikuntzan irakasleak gidatzen du prozesua, ikasleari parte harraraziz zeregin eta ekimenetan zeinetan eraikiz joango den gero eta eskolako curriculumetik hurrago egongo diren esangurak.

Hementxe dakusagu zein neurritarainokoak diratekeen hezkuntzako psikologiaren –zientzia aplikatu moduan hartuta– ahalmenak, hots, irakasleak ikasgelan aurkitzen dituen arazoei zuzenean behatuta.

### 1.5.3. Ikasleen eginkizuna

Tradizioz irakasleari zegozkion hainbat eta hainbat zeregin ikasleak bere gain hartzen baditu, ikasle horrek nahi eta nahiez jarrera aktiboa hartu behar du. Orduan, zelan ez abiatu ikaslearen euskaratik? Ikasleak aktiboki parte hartu behar du, benetako elkarrekintzan jardunez ikasgelan edo ikastetxean, bai irakaslearekin edo lagunekaz, bere baitan eraikiz berezko ikaskuntza. Horrek ikasi beharreko gaia esanguratsua, funtzionala eta bere nahien barruan dagoena izatea eskatzen du, benetako motibazioa izan dezan. Ikasleria, beraz, ezin ukan dezakegu entzule hutsaren zeregin pasiboan, batez ere berak dakarren euskara kanporatu gura badugu.

Ikasgelaren barruan sortzen den diskurtso interaktiboan, hizkuntza “inputaren” iturburu bakarra ez du irakasleak edukiko ikaslearen hizkera aintzat hartzen bada, ahaztu barik ahozko eta idatzizko testuak eta ikus entzuteko materiala.

### 1.5.4. Ikasgelaz kanpoko mundua

Eskolako eguzkia heltzen ez den leku eta txoko asko dago neska-mutilen ikastetxetik kanpoko bizitzan. Dena ezin eskatuko diogu irakaskuntzari, bestela bizitza osoa ikastola edo eskolaren baten pasatu beharko genuke. Hala ere, berbetaren arlo honetan eskolatik erraz bidera genezakeena da ikasleak kanpoko munduan erabiltzen den euskarari begira, adi-adi jartzea: aitaita-amamen berbakera, elizakoa, gurasoena, telebistan eta irratian entzuten dena; baita entzuna jaso eta ikasgelaratzen. Horretarako jarduerak ere lagun diezagukete: inkestak, elkarrizketak, gurasoei zentroak zuzenduriko gutunak, materialen bilketa. Modu honetara, hur-hurretik ezagutu eta jabetu ahalko gara bizimoduan darabilgun dialektoaz, ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasunaz, ikasgelan imitatu baino ezin direnak. Hementxe ikusiko dugu ia inon baino gardenago planteatzen dugun euskararen barruko diglosian azpieuskalkiak ere zenbaterainoko tokia eskura dezakeen.

## 1.6. Orientazio orokorrak

Euskararen tratamendu integratzailea:

Orain arte –beno, Oinarrizko Curriculum Diseinua 1992koa da– euskara eta gaztelera banan joan izan dira eta oraingoan tratamendu bateratua eskaintzen zaie. (Dena dela goragoko Selektibitatean ez.). Euskalkiari, ostera, ez zaio oraindikoinokoa tratamendu integratzaile hori eman eta gure ahalegina horrexetara bideratu dugu.

Hausnartuz dihardugun euskal diglosiaren barruan, onartzen dugu euskara eta gaztelerearen ofizialtasuna berbera izanik ere, ez direla egoera berean aurkitzen, euskalkia eta estandarra normalkuntza berean aurkitzen ez diren moduan.

### 1.6.1. Ahozko komunikazioa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan Lehen Hezkuntzan zehar lortutako oinarrizko trebezien sakontze lana egin behar da. Hezkuntzaren etapa honetan hasterakoan, ikasleek nahiko menderatzen dute ahozko hizkuntza H1ean. Berez ateratzen zaie eta nahiko dute beren harremanen munduan komunikatzeko. Halan da ze, ez da eskolako zeregina erabilpen hauetan saiatzea, ez dago horren beharrik eta; badago, aldiz, ahozko hizkuntzaren gehien formalizatutako erabilpenak finkatzen saiatu beharra. Garbi eduki behar da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan barneko ahozko komunikazioari buruz ari garenean, idatzizko erabilpenetara hurbilarazten duten ahozko hizkuntzaren erregistro formalei buruz ari garela batik bat. Beti ere, ikasleak berez-berez darabilen etxeoak –edo batu kolokialak inoiz– ez duela etenik ezagutu behar gorengo mailetara doanean ere

Ahozko diskurtsoetan, erregistro eta barianteak eta hizkuntzak eta hauen nahasketak –gelakoen ezagumenduen arabera– bakarka edo elkarren artean jorra daitezke. Elkarrizketei buruzko lanak –baita parodiak, karikaturak...– aukera ezin hobeak eskaintzen ditu erregistroak, dialekto barianteak eta analizatzeko. Euskara arrunt darabilen ikastetxearen inguruko euskaldunari elkarrizketak egitea ere guztiz praktikoa da. Ahozkotik idatzizkora –azpieuskalkitik azpieuskalkira, azpieuskalkitik bizkaiera literariora nahiz batura, edo batutik azpieuskalki edo eus-

kalki literariora– pasatzeak –informazio-transferentzia deritzana- eska-  
tzen duen testu lantzeak, bi testualizatzeko motek azaltzen dituzten des-  
berdintasunei buruzko interes handiko gogoeta lana egitera behartuko  
ditu ikasleak.

Idatzizko hizkuntza berbaz esaterakoan, testuak ozenki irakur-  
tzea, deklamatzeko edo antzezteko bide aproposak dira erritmoaren ba-  
ltoa, doinuak, musikaltasuna eufonia nahiz adierazpen plastikoak lan-  
tzeko. Gure irakaskuntza eleanitzean, ordea, arazo zaila ere suposatzen  
du, gaur artean ikasleek erdal azentuz irakurtzen baitute euskaraz ere.  
Honetarako etxeko euskara dakitenean laguntza estimagaitza da irakas-  
le eta ikaskideentzat.

Ahozko hizkuntzan aparteko garrantzia dute jarrerazko edukinek:  
entzuten jakiteak, elkarrizketak ez eteteak, begirunez berba egiteak...

### 1.6.2. Idatzizko ekoizpena

Irakurle ona izatea derrigorrezko baldintza da ondo idazteko. Eta  
euskara baturako dioguna are da beharrezkoago euskalkirako, ezen  
euskal diglosiaren barruan esparru nahiz dedikazio mugatuagoa es-  
kaintzen zaion euskalkia artez erabiltzea beti izango baita problemati-  
koago, eta arriskuan baikeundeke euskalkiko formak eta estandarreko-  
ak nahasteko. Euskalkian irakurtzea egokia da oso –eta ez euskalkiko  
testuak euskara batuan irakurtzea sistematikoki– eta beti Derrigorrez-  
ko Bigarren Hezkuntzan ortografia gaurkotuan.

Eskolak idatzizko hizkuntza sustatuko du, pentsamendua ordena-  
tzeko, kontzeptu eta ideiak erlazionatzeko eta munduari buruz gogoe-  
tan jarduteko baliabide legez. Tesian erakusten saiatu garenez, euskara  
estandarrek bakarrean ez dituz honetan erantzun guztiak eskaintzen, eta  
idazketa lanek beste edozeinek baino hobeto bultzatzen gaitu hizkun-  
tzaren gaineko gogoetetara.

Oinarrizkoa bada gelan sortzen den edozein testuren produkzioak  
erabilpen erreala izatea helburu gisa –helburu eta hartzaile erreala–,  
inguru euskalduneko neska-mutilek, gura nahiz ez, topatuko dute az-  
pieuskalkia edo kolokiala darabilen euskalduna.

Idazkerak ahozko hizkuntzak baino forma aldetik muga handiago-  
ak baditu ere, testuen zuzenketarako eremu oso egokia eskaintzen du,

beti ere zuzenketok Daniel Cassany-k (1991) dioen bidetik eta euskalkia estandarra gogoen direla zuzenduez gero. Zuzenketak egiteko, gelako edozein testu-eredu erabil dezakegu, fotokopien, transparentzien, ordenagailuaren edo arbelaren bitartez. Irakasleak bere laguntza eskainiko die –euskalkirako etxekoa dakitenen laguntza– testuak aukeratuz eta arazoak toparaziz. Zuzenketak ikasleak euren artean lehenago eta ostean, irakasleak berak egingo dituzte.

### 1.6.3. Irakurketa

Irakurketa oinarritzko trebezia edo abilezia da eta berorren ikasketak ez da sekula amaitzen. Neurri handi batean Haur eta Lehen Hezkuntza garaian lortzen, finkatzen eta garatzen da, eta, beraz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan abiatzerakoan ikasleak gai izan behar du idatziko testuen zentzua ulertzeko eta berregiteko bertan ageri den informazioaz. Arrazoi bikoitza azaltzen da hor euskara batua eta euskalkien arterako: batetik, DBHra iritsi aurretik ohitu behar du ikasleak bitzuetara; bestetik, irakurketa amai bako jarduna izanik DBHn nahiz gorago ere jarraitu beharra izango du. Askotan euskalkiaren ulergaitzatsuna eruditik baino ikasleak *Peru Abarka* edo tankeratakoan behar dituen gaiari eta munduari buruzko ezagupen urria da kausa.

Euskara estandarra arestian ezarri izan diogun *marka bakoa* bada, ez da premiarik agertuko, baina zerokoa bada, hots, bizkaieraren oihartzunik gabea, orduan da ezinbesteko, ikasleek testuaren aurrean elkarriketarako jarrera azal dezaten eta ez jasotzaile pasiboarena. Kasurako, *Mirenen anaia etorri da* agertzen denean.

Gure gizarte honetan idatzizko hizkuntza non nahi azaltzen denez, eskolan ere edukirik gehienak idatziz ulertu eta produzitu behar izaten ditu.

Ikastetxeko liburutegian zein gelako apaletan euskara batuko testuekin batera euskalkikoak nahiz azpieuskalkikoak ere eraz eduki behar ditu ikasleak.

Honetan ardura larria erakutsi ohi dute irakasleek galdetzean ea euskalkian –bizkaieran tesi honetan– eta euskara batuan landu behar den irakurketa eta egitekotan zelan. Tesi honetako erantzuna David P. Ausubelen ildotik dator beti ere. Konpara dezakegu idatzizko mezue-



tako esanahi denotatibo eta sintaktikoez jabetzeko gaitasuna, hizkuntza-ikaskerak beste berbeta bat mintzatu eta ulertzeko lortzen duenarekin, aurretik bere hizkuntzara itzuli barik. Kasu bietan, kodigo baten bitartekaritzaren menpe egotea aprendizaiaren faserako gelditzen da. Berba baten, gaitasun batekin jabetzeko erabiltzen den prozesu kognostitiboa ez da zertan erabili gaitasun horren osteko jardueran.

Praktikan, arruntena izan arren irakurleek pasa daitezenean mezu idatziak mezu mintzatu moduan berreraikitzearen faseak, etapa hau ez da nahitaezkoa irakurtzen ikaslearen prozesuan; adibiderako, gormutuek ikas dezakete irakurtzen hizkuntza mintzatuaren erabiltzeko edo ulertzeko gai izan ez arren. Norbaitek ikas dezake beste berbeta bat irakurtzen –arteragotik ikasi gabe mintzatu eta ulertzen– beste berbetako esaldiak bihurtzeaz bakarrik geure hizkuntzako esaldien baliokide. Horrek ez du esan gura, inondik ere, ez dela profitatu behar ume normalak ahozko hizkeraren gainean daukan gaitasunaren abantaila bere berbeta irakurtzen irakasterakoan eta, arrazoi berarengatik, behin ezagun zaiotzen irakurketa, ez du zentzurik hizkuntza mintzatuaren bitartekaritzaren menpe aritzeak. Bizkaieraren irakurketa euskara batuarekin batera lantzeko ez da, beraz, oztoporik, eta, beti ere, metodo globalen aurrean metodo fonetiko edo fonikoak hobetsiz, grafema eta fonemen erabilera suposatzen duen tesi honetako aprendizaiaren esanguratsurako eraginkortasunarengatik.

#### 1.6.4. Testu literarioen irakurketa

Testu literarioek zeregin garrantzitsua betetzen dute irakurte ohi-turen garapenean. Ikasleak modu aktiboan parte hartu behar du, literatura funtsezko esperientzia da eta. Bestalde, testu literarioen irakurketa hizkuntzako lanaren oinarrian dago.

Ahal den neurrian, etapa honetan testu osoak, benetakoak eta mailakatu bakoak irakurri behar dira. Literaturaren historian ohiko diren obrez gainera *gazteen literatura* izenpean argitaratzen direnak ere irakurri behar dira. Zoritxarrez, euskalkietarako halakoak urri dira. Aipatu beharrik ere ez dago, bestalde, xederik nagusia atseginezko irakurketa dela.

Ikaslearen literaturarako arreta pizteko bide interesgarrien artean, inguruko euskarari loturik egiten dena daukagu, Txorierrin: *Mikel Za-*

rate; Mungian: *Lauaxeta*; Arratialdean: *Añibarro...*, berba baten lekuan lekukoetatik hasiz.

Literaturako lanak burutzeko testu desberdinak kontsultatzea bide egokia bada ere, zenbait testu eredu buruz ikastea ere aintzat hartu behar da, dela kopla, dela bertsoa, dela kanta zein Axularren edo Lauaxetaren testuak, honezkero klasiko bilakatuak.

## 1.7. Estrategia eta jardueren diseinua

### 1.7.1. Irizpide orokorrak hizkuntza arloarekin duten harremana:

arloko jarduerak Oinarrizko Curriculum Diseinuari euskarria ematen dioten printzipio psiko-pedagogikoetan finkaturik egon behar dute. Horregatik, ikasleak ezagumendua eraikitzea eta ikaskuntza esanguratsuak egitea erraztuko duten jarduerak bultzatu behar dira, eta ezagumendu mekaniko eta errepikatzailea bakarrik bilatzen dutenak, oraingoz, kanpoan utzi. Ikasketa errepikatzailean, informazio berria hitzez hitz eta modu arbitrarioan jasotzen da egitura kognoszitibora. Praktikan, ikasketa errepikakor huts-huts diren gutxi gertatu arren, zoritxarrez, oraindainokoa eskolako aprendizaiaren arlo handiak jotzen du horrantz. Ikasketa esanguratsua, aldiz, gertatzen da ikasleak informazio berria jakinaren gaineko ahaleginez hartzen duenean, informazio berri hori arteragotik bazeuden egitura kognoszitiboko kontzeptu pertinenteakaz lotzeko. Euskalkia eta euskara estandarren jorran ere taldeko kide guztiek alde aurretik ezagutu behar dituzte gelan hasten diren lan guztiak, hau da, zer egingo den, ikastordua nola igaroko duten, eta lortu beharreko helburua zein den jakin behar dute. Beste modu batera esanda, irakasle eta ikasleen artean kontratu didaktikoa ezarri behar da, irakaskuntza-ikasuntza lanetan zer, nola eta zertarako lantzen den negoziatuz. Horrela jokatu ezik, batuarena baino izan ez den ikasgelako esparruan etxeko berbakera edo bizkaiera literarioa integratzea gatx gertatuko da –neure irakasle jardueran ezagutu dut batukoengandiko gutxiespena– eta proposatzen dugun jokabide honetan kontratu didaktikoa burutzeko ezinbesteko da ikasleen adostasun partehartzailea. Horrexegatik suertatzen da hain beharrezko lankidetzarako konfiantza, elkarrenganako begirunea emango duen giroa sortzea. Irakasleak, bere aldetik, prestigiatu egin beharko du ikasleen artean euskara batua-

rekin batera, ikasleatarik batzuk dazaguten bizkaiera literarioa eta azpieuskalkia –*begiya* edo *behixe* ahoskatzea lege zientifikoetan oinarritzen dela azalduta; Brixton-en, Londres-en bertan, Tamesis-en hegoaldean, ez dutela *b*-rik ahoskatzen...–

Bide horretan, hiru mailen artean agertzen diren zailtasun gune be-reziak kontrolatuta eduki beharko ditu irakasleak. Baita ikasle bakoitzaren ezagutza eta gelako talde desberdinenak ere. Horrela plan ordenatu, mailakatua diseinatzeko, jakinik, sekuentzia didaktiko guztietan beharrezko dela oinarrizko lau trebetasunak lantzea: entzumena, idazmena, irakurmena eta mintzamina, eta sekuentzia didaktikoaren jarduera bakoitzerako lan mota egokia dagoela, talde handia, txikia, banakako lana...

#### 1.7.2. Material eta baliabide didaktikoak

Irakasleen zeregina erabat garrantzitsua dela onartzen badugu ere, irakastean agertzen diren arazoak anitzak izanik, hain bitarteko lagungarriak diren material didaktikoetan jarri behar dugu begia.

Testu liburua kontsulta material bakarra izan beharrean informazio iturri ezberdinak erabili behar dira sistematikoki, informazio bilaketa, irakurketa, aukera eta erabilpenak ikasleen irakaskuntzaren garapenean lagunduko baitute. Berez, eduki beharko genituzke, kontsulta liburuak, monografiak, egunkariak, aldizkari espezializatuak, azpieuskalkia ere badarabilten herri aldizkariak, gida turistikoak, eta, beti, ikasleen aldizkariak nahiz idazlanak.

Ahozko testuetan, egoki-egokiak dira ikus entzuteko grabaketak, telebistatikoak, dokumentalak, eztabaidak, ahoz interpretaturiko testuen antologiak, idazleen bizitzak...

Tresneria ere beharrezko zaigu: opakoen proiektorea, esate baterako, idatzizko testuak elkarrekin irakurri, analizatu eta zuzentzeko. Ikus eta entzungailuak nahitaezko dira diskurtsoaren alderdi batzuk ekoizpen egoerarekiko analizatzeko, keinu nahiz tonuzko portaera ikasteko, arau sozio-komunikatiboak analizatzeko, erregistro eta euskalki desberdinak nahiz azpieuskalkiak erkatzeko...; eta, zelan ez, ordenagailua, zeinetan, zorionez, entzun ahala herritarren berbakera pantailan irakur dezakegun.

Material guztiok baloratzeko kriterioa beti ere ikasketa esanguratsua bideratzen duten ala ez behatzea da.

Begi bistan izan beharko dugu curriculumen planifikazioa eta irakaskuntzaren planifikazioa desberdinak direla. Lehena disziplinen egitura kontzeptual eta metodologikora zuzentzen da, bigarrena, hautatzera aprendizaiako ekintzak, zeinek ikaslearen diren estruktura kognositiboekin harremanik estuena gordetzen duten eta zeinek jasotzen dituzten bai kontzeptuak zein trebetasunak curriculumen plan-gintzan identifikatuak

Ikasketako helburuak hain espezifikoki zehaztu behar dira non ikaslearentzat ebidenteak gertatuko diren ikasi beharreko kontzeptuak edo printzipioak, eta halako hizkeran formulatuak non errez-errez jarriko duten lotura ikasleek bazekitenaren eta ikasi beharreko kontzeptu berrien artean.

## 1.8. Sekuentziarioko irizpideak

Hizkuntza Arloan, orain artean ere aipatu dugunez, Oinarrizko Curriculum Diseinu honetako edukien sekuentziario irizpideak ikaskuntza esanguratsuen teorian oinarritzen dira. Ikaskuntza esanguratsua ziurtatzeko erreferentzi gisa ikasleen garapen intelektuala eta euren alde aurretiko ezagumenduak hartuz.

Edukien trataera zikloka eta gero eta sakonago egitekoa da. Deklinabidea 3 urteagaz agertuko da eta 13gaz ere bai. Ez da kontua, ordea, bizkaiera noiz arte, baizik ziklo bakoitzean zenbaterainoko bizkaiera.

Lehen zikloan eduki orokorrak eta oinarrizkoak landuko dira, eta sakontzea nahiz espezializazioa bigarrenean.

Dokumentuan zehar aipatuz gatozenez, hizkuntza arloaren egituraketa funtsezko bi ardatzetan oinarritzen da: hizkuntzaren erabilpena –ikaskuntzako progresioa ahalegin konsziente nahiz mekanismo inkonszienteen bidez hartzen da– eta erabilpen horri buruzko hausnarketa, zeinaren xedea erabilpen berberori hobetzea den. Hausnarketa hiru bidetan egiten da: testuingurua, testuaren antolaketarena, eta morfosintaktikoa. Eduki multzoak testu tipologiaren bitartez hiru eduki motekin erlazionatzen dira: prozedurazkoak, kontzeptualak eta jarrazkoak.

Edozein eduki mota sekuentziazioaren oinarritzko irizpide bezala aukeratzeak bere mugak ditu. Eduki kontzeptualetatik abiatzeak suposatzen duena da, hizkuntzaren arloa antolatzerakoan, ikasleen hizkuntzaren erabilpen behar errealen menpean ipini beharrean, arloa kontzeptu bakoitzaren jakintzagaiaren barne logikaren menpean ipintzea. Honela taiututako sekuentziazioak hizkuntzaren ikerketa deskriptiboa egiteko balio izateaz gain, ikasleen komunikazio gaitasunean eragina dauka, Eusko Jaurlaritzako Oinarritzko Curriculum Diseinuko iritzia-  
ren kontra. Egia da, nola ez, erabilpen errealetik, komunikazio gaitasuna aintzat hartuta jokatu beharra dagoela, baina ezin ahaztuko dugu hizkuntzen ukipenaren barruan dihardugula, eta euskara batua, euskalkia, azpieuskalkia diglosian bizi direla –batez ere euskara bizi dela kontaktuan erdarekin- ukipenean, elkarreraginean. Egoera horretan, euskara erdaren azpiko dela, erabili egiten den hizkera erdararen kodi-  
goaren pare-parekoa da, hots, erdarek ez daukaten formarik ez da bizi-  
rik ateratzen ikasleen erabilpen errealetik. Eduki kontzeptualetatik abiatuez gero, hasieratik mugarrizten dugu bakoitzaren arloa, ostean, sekuentziazioa egiteko irizpide bezala testu tipologia aukeratzeko. Horrela jokatu ezik –urteetako esperientziak eta hamar urteotako Erreforma bideak nabarmenki erakutsi digunez–, ikaskuntza estrategia erratu-  
ek gertatu izan dira formen ikaskuntza gehiegi saihesten uztega-  
tik. Ikasleak halako marko jakinaren barruan komunikatzeko gaitasuna badaukala erakutsi ahal duenez, arrakasta-maila egokiaz, garrantzi bakotzat jotzen du bere ahozko eta idatzizko adierazpenen zuzentasuna. Jarrera honek adierazpen-forma desegokien finkatzea ekarri du, hain zuzen ere, komunikazioari erabateko trabarik egiten ez diotenez gero. Zorigogorreetan, osteko okerrak zuzentzea ia konponezin bilatzen da. Horren aurrean, irakasleek –Euskal Hizkuntzakoak gutxien– akats artean bizirautea zilegitzen dute, okerra betikituz.

### 1.9. Aniztasunaren trataera

Euskarak oraindik bizi duen diglosia egoeran nahiz euskal diglosiaren barruan euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiaren ukipen egoeran, bada aniztasunerako lekuri, bai curriculuma egokitzeko zein curriculumaren dibertsifikaziorako, behar izanez gero.

Erdal gune handietan, ikaslea euskalki bateko lurretatik bestera aldatu denean, edo etxeko euskara jakinda B edo A ereduetan dabilene-

an, euskara estandarra, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak egokitzapena behar du.

### 1.10. Ebaluaziorako orientabideak

Ebaluazio lanak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen zati funtsezkoa dira eta sekuentzia didaktiko ezberdinen bitartez egituratzen dira. Oinarrizko Curriculum Diseinua enmarkatzen duten printzipio psiko-pedagogikoez definitzen duten Hizkuntza Arloko ebaluazioak objektu hirukoitza edukiko du: ikasle bakoitzak lorturiko ikaskuntza maila, sekuentziaren garapena eta irakaslearen lana sekuentzia didaktikoaren garapenean zehar.

Euskalkiaren gaineko sekuentzia didaktiko baten ere, ikasleen jarduera ebaluatzeko irakaslea behaketa sistematikoa egitera behartuta dago. Komunikazio gaitasuna jasotzeak eskatzen duen hainbesteko testu kopurua irakurtzeko eta analizatzeko bide oso praktikoa da, zuzenketak –bermedun ikasleen laguntzaz– taldean gauzatzea eta ikasleen autozuzenketa ohiturak bultzatzea. Euskalkia dela eta dihardugunean, bermedun ikasleok etxetikoa dakitenak izaten dira, eta euskara estandarerrako guraso euskaldunen seme-alabak nahiz erdaldunenak, baina beti inortxo ere albo batera laga barik.

Absolutoki beharrezkoa da idatzizko frogez gainera ahozkoak ere egitea, baldin dioguna ikasleriak aintzat har diezagun nahi badugu.

V. ATALA

---

**GARAPENERAKO  
IRUZKINA**

---

## 1. TEORIAREN PRAKTIKOTASUNA

Badakigu ikasleak ezin aurki ditzakeela gelan “bizitza errealeko” egoera guztiak eta, ondorioz, ezin treba daitekeela halako testuinguruari aurre eginik. Gainera, diogun hori posible balitz ere, hezkuntzaren zeregin nagusia ez da ikasleei eguneroko bizitzarako aplikagarriak izan daitezkeen ezagutzak eskaintzea. Helburu hau –hezkuntzaren “erabilgarritasun sozialarena”, aspaldietan zokoratu zen praktikara ezin eramana zelako. Berez, transferentziaren helburua erdietsizat jotzen da, baldin aurretiko aprendizaiaren esperientziak errazten badu jarraiko aprendizaiara ikasgelan, nahiz eta hemen jasoriko ezagutza ez aplikagarri izan ikasgelaz kanpoko arazoetan. Nola ukatu ezagutza hori bizitzako gatazketarako erabilgarri bada, askoz hobe dela? Edozelan ere, hau ez da hezkuntza orokorki harturik transferentziaren xede nagusia.

Ikasleei, lanbide konkretuetarako heztean, printzipio orokorrak irakasten zaizkie, uste izanik, eurok transferentzia-balio handia daukabela arazo profesional praktikoak konpontzeko. Halaber, trebetasunak ere irakasten zaizkie arazo espezializatuak bideratzeko, baina ikaslea norainoko abileziaz baliatuko den praktikan ezagutza teorikookin, hori, bere egoeretara aplikatzeko trebetasunaren menpe geratzen da.

Arazoak konpontzeko gaitasunaren “aplikazioa” hezigaitzagoa da “ezagutzarena” baino. Halan da ze, bideragarriago dirudi arazoak konpontzeko gaitasuna hobetzeak, horri ikaslearen ulermena eta erreten-



tzio funtzionalen ezagutza teorikoa gehituz, arazoan konponketarako trebetasunetan zuzen-zuzenean trebatzeak baino. Ahantzi barik, beti ere,

*There is nothing so practical as a good theory.* Lewin (1972: 7).

Hala ere, baiezta egin beharrekoa da, hezkuntzako psikologiak irakaskuntzarako eskaintzen dituen nozioak zentzu komunak dioskuna baino haragokoak direla.

Bestalde, edozein printzipio psikologiko irakaskuntzako egoera konkretura aplikatzean, irakasleek tentuz erabili behar dute euren zentzu profesionala, ez baita antzeko ere izaten ordutegiaren edo mailaren arabera, ikasleen jarrera, nekadura, arreta, edo motibazioa. Ondorioz, ezin onets dezakegu jende anitzen iritzia zeinen arabera zentzu komun eta sen ona aski lirartekeen –ezagutza pedagogikoetatik landa– berrondate oneko irakasleak ikasgelan erabaki zuzen, egokiak, har ditzan.

Zentzu komuneko printzipioak, beraz, ez dira halabeharrez okerrak, ez eta nahitaez artzak ere. Adibiderako,

Lurra begi bistan laua da, baldin ez bada espaziotik behatzen, esango liguke Ausubelek. (1993: 22).

Nabaria denez, zentzuak zeregin guztiz garrantzitsua jokatzen du hezkuntzako ikerketa nahiz printzipio psikologikoen aplikazioan, baina egia da baita ere, ezin ordezkia ditzakeela printzipiook.

Tesi honetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako parametroetan mugitu ostean, argiro baiezta egin beharrekoa da, adin honetako neska-mutilek euren zereginetarako dituzten gaitasunak, esate baterako, sei edo hamar urteko haurrengan ez direla aurkitzen.

Orokorrean, nerabezarokoak eta adinekoak abantaila handiak dituzte edozein gai berri ikasterakoan, irakasgai baten aurrean haurtxoak bezain heldu gabe aurkitu arren. Abantaila hori ematen da, gai direlako euren gaitasun totaletik elementu transferigarri batzuk ateratzeko, operazio logikoen maila abstraktuan lan egiteko. Horregatik, irakasgai berri batekiko lehen harremanean, gai dira pasatzeko azkartasun itzelez zeregin intelektualeko fase intuitibo konkretua. Eta haurrarekin erkatuturik –haurrok ia beti operazio logiko konkretuetan lan egiten dute– adinekoek gai dira laster eta osoki laguntza enpirikoak eta ideia intuitiboak baztertzeke.

Hala ere, arrazoi ugari dira uste izateko ezen baldintza jakinetan haurtxoak efikazia handiagoz ikas dezaketela adineko pertsona helduek baino, irakaskuntzan, batez ere, adinekoen poz intelektuala beheraka etortzen delako, bitartean, umearen mailadi akademikotik gorako auserdiak zein gogoak bizi-bizi diraute. Adinekoetan “blokeo emozionalak” ere gerta daitezke ikasketa area batzuetan. Gainera, ikasitako asko deskasi egin beharrean aurkitzen dira, ostean ikasketa berrietan barnerratzeko, batez ere, era ezanguratsuan, modu errepetitiboan ikasi dutenean.

Edozelan ere, ikaskuntza esanguratsua ziurtatzeko erreferentzi gisa ikasleen garapen intelektualari egin behar zaio jaramon. Eta edukien tratuera zikloka jokatu behar da gero eta sakonagora joateko. Horrela, deklinabidea hiru urtegez agertuko da, baina adinari dagokion mailan baino ez, eta gero, hamahirurekin ere bai. Ez da kontua, beraz, bizkaiera noiz arte, ziklo bakoitzean zer eta zenbateraino baizik:

*Nahiz eta gaur –Chomsky eta inatista epistemologiaren eraginez–, jende askok, hizkuntza, berez ikasten dela esan, garbi dagoena zera da: Hizkuntza, haurraren adimen mailak eta bere inguru sozio-ekonomikoaren mailak baldintzatzen dutela. Izan ere, haur batetik bestera desberdintasun handiak daude; beraz, Bronckart-ek (1976: 3)) dioen bezala “pedagogia baten beharra garbi dago haur guztiak euren hizkuntza ahalmena hazi, gara dezaten. Eskola, komunikazio lekua bada, ezberdintasunak agertzen diren lekua ere bada, eta praktika inprobisatu batek ezin ditzake ez desberdintasun horiek gainditu ez eta euren natura eta zergatia zehaztu ere”. Idiazabal (1981: 206).*

Aprendizaiarako materialari ezarriko diogun esanguratasun aberatsagoa edo urriagoa zeraren menpe egongo da, ezartzeko gai izango garen erlazioaren konplexutasunaren eta aberastasan handiago edo txikiagoaren menpe. Adibiderako, fauna eta florako euskal izenetan, esangura desberdinen eraikuntza sortuko da jaiotzatik euskaraz eta natura giroan bizi izan den ikaslearen kasuan eta euskararik jakin barik eta hiri handian bizi izan denarenean. Aurretixe jakin duena antzekotasun eta kontrasteko erlazio ugari sortzeko gai izango da. Beraz, honen esangurak erabat aberatsago eta zabalago izango dira. Piaget-en terminoetan esanenez, esangurak eraikitzen ditugula errealtatearen ulermenerako dauzkagun eskemetan material berria txertatuta edo asimilaturik.

Ikasleak ikasketa esanguratsua erdiestean, oinarritzotzat jo dugu aurretiko ezagupenetatik abiatzea. Ume euskaldunaren kasuan etxeko

euskaratik abiatzea proposaturik, bereziki horrexen jorra egin dugu. Baina printzipio berberak erabilirik adieraz genezake, fenomeno bera gertatzen dela euskaldun nahiz erdaldun familietako ikasleakaz 1. etapatik 2.era promozionatzean ere, zeren ez baitzaie hasierako frogarik jartzen eta ikasleak zer dakien ezagutu barik jartzen dugu kurtsoa abian. Metodo horretan zail suertatuko da irakaskuntza esanguratsua- ren lorpena.

Edonola ere, zehaztu egin behar ditugu etxetiko euskararen irakas- teak dakartzan ondorioak:

*Ikaslea... sartzten da beste hizkuntzan, lehen berbetako me- kanismoak bere pentsamenduan eta hizkeran finkaturik dituela, eta inola ere ez du asmorik, ez saihesteko, ezta ahazteko bere hiz- kuntza.* Bernard (1951: 89).

Euskara irakastean metodologia audiolinguala erabili da batua/biz- kaierakiko erlazioan, eta metodo audiolingualarekin, ahalegin mota guztiak egiten dira saihesteko ama-hizkuntzaren bitartekaritza beste hizkuntzaren aprendizaiari, dela euskara batua, dela espainola, dela frantsesa.

Egia esanik, baina, ikaslearentzat ezinezkoa bezain baliogabea da baztertzea ama-hizkuntzaren bitartekaritza funtzioa beste berbeta bat –eredu bat– ikasterakoan. Zergatik? Hasteko, lehen umezarotik aurre- ra, geurea dugun hizkuntza bera ere ez da metodo zuzenez ikasten; hau da, gauzen eta hitzen asoziatze direkto barik, *indirektoki* baizik, hots, aurretik ezagun diren sinboloen bitartez, adibidez, sinonimoak, antoni- moak erabilia edo definizioz nahiz hizkeraren testuinguruz edo ira- kurketaren gaiaren bitartez. Halan da ze, argi dago:

*Sinbolo berrien eta euren objektuen arteko asoziatze zuzena guztiz inpropioa dela berbeta berria ikasteko. Egia esan, asozia- tze zuzena –sinbolo berriak objektuarekiko– egiteko posibilitatea dagoenean ere, sinbolo zaharrek beti parte hartzen dute hasieran eta inboluntarioki.* Bernard (1951 92).

Gainera, kode sintaktiko berria ere ikasten dugu, modelo moduan norbere hizkuntzako sintaxia erabiliz, eta ostean behaturik bien arteko antzekotasun-desberdintasunak. Halako analisiak ama-hizkuntzan be- rean ere egiten ditugu. Beraz, lehen hizkuntzako ezagutzaren aspektu ugari dago, berbeta bietan ia identikoak direnak, eta zuzen-zuzenean transferigarriak direnak bigarren hizkuntzaren irakaskuntzara, hala, kontzepturik gehien esanahia, kategoria eta funtzio sintaktikoen

ulertzea, eredu-estruktura askoren erabilerarako erraztasuna. Ondorioz, praktikara ezinak bezain bazter ezinak izango lirateke ezagutza hauek beste hizkuntza baten ikasketan.

Hizkuntzaren bitartekaritza funtzioa saihestea arrazoi birekin sostengatu ohi da. Lehenik, haurrek ez dutela ikasten euren berbeta beste baten bitartez; baina argumentu hau lekuz kanpo dago, ezen ama hizkuntzako ikasleak ez dauka inolako sinbolo esanguratsuen konjuntorik eta, ondorioz, ezin jasan dezake bitartekaritza eraginik nahi izango balu ere; alta, konjunto hori eskura balu, pentsa ezina litzateke hartaz ez baliatzea, hala, kasurako, zeregin berria irakurtzea izanik edo beste berbeta bat ikastea. Bigarrenik, adierazten da benetan elebidun diren pertsonak zuzenean pentsatzen dutela beste hizkuntzan, euren ama hizkuntzatik itzuli barik; hori orokorrean egia izanik ere, islatzen duena egoera terminala da, egoera burutua beste berbeta baten ikasketan eta ez du deskribatzen aprendizai egoera pertsona elebiduna ia hasiberria denean.

Gure jomuga –etxetik euskalkia dakiten ikasleentzat– da, euskara batua bizkaieraren, etxeko euskararen interferentzia barik erabil dezaten –etxekoan alfabetatzeaz gainera, zelan ez–, jakinik, hori azken emaitza dela, gure irakaskuntzaren xedea, baina ez helburua erdiesteko media.

Etxetik datorren hizkeratik abiatzeak eskatzen du ikasleari dago-kion protagonismo osoa ematea, bera da hizkuntzan ikaskideen txalupako lemazaina eta:

*... cualquier niño en edad escolar puede identificar, si bien no explicar, los errores estructurales que pueda haber en un texto, entendido éste en un sentido extenso (...). Ahora bien, reconocer este hecho no equivale a decir que no necesita aprender y profundizar y ampliar sus conocimientos de lengua y, más evidentemente aún, sobre la lengua. Aquí, la función del profesor tiene sus propios márgenes de intervención en el aula. Pero no debe perder de vista que el uso idiomático es la materia prima de contenido de que dispone. Dejarla pasar por alto supone el riesgo de caer en un formalismo dogmático que a la postre paraliza un proceso que está llamado a ejercerse dinámicamente como es el aprendizaje. Alvarez Mendez (1987:10).*

Horrexegatik, gure apustua etxetik euskara dakitenentzat atxikitze-eredua erabiltzearen alde eta ez murgiltze-ereduaren alde, zein

izango litzatekeen euskalkiaz datorrena euskara batuan murgiltzea. Hori praktikatu izan dugu *Atea igirite zegoala* perpauseko *igiri* Eskola Hiztegietan agertu ere egin ez eta irakasleak ez balitz bezala ikasleari ezikusiarrena egin dion guztietan, dakigularik, gainera, gure galdeketa-ko 8. atalean, Euskararen Erregistroak deituan, ikasleek eskolak eskain dezakeen euskara baino jasoagoa eta jantziagoa darakutsatela.

Ikasleak dakitenetik abiatzeak esan gura du metodo komunikati-boak soilik erabilia ez direla etxetik ikasleak dakartzan egitura ugari landuko, komunikazioa gauza dadin beste era asko dago eta. *Zera, zera, zerari, zeraren* deklinazioa euskararen irakaskuntzako zirkuitutik at geratuko da, baldin komunikazioa gauzatzeaz gain programazioko puntu honetan indar aparta egiten ez bada. Ondorioz, euskalkiari gelarako bidea errazten ez bazaio, erdal egituren pareko euskal egiturak soilik gelaratuko dira –komunikatzeko berdin balio dutenak– eta euskal jenioko diren estruktura aberats ugari isilduz joango dira, erdaldu-nak zein euskaldunak inmersioko irakaskuntza berean murgildurik, euskaldunak ama-hizkuntzatik dakarren sinbolo esanguratsuen kon-juntua ez balitz bezala irakatsiz, hau da, etxeko euskararen, lekuan le-kukoaren batura bideko bitartekaritza ezabaturik. Ezin ahaztuko dugu bigarren hizkuntzako ikasleen eta norbere hizkuntzako arteko dota-zio kognosizitiboak ez direla berdinak.

Euskalkiko egitura eta batukoa etengabe erkatu behar dira, euskal-kiak eta batuak elkarrentzako bitartekaritza lana eginik. Adibiderako, Eskola Gramatika daukagu. Aditz laguntzaile motak azaltzean, \**eza-nen* ondoan halaxe dakar. Bizkaieran \**ezan* erabili ordez *egin* erabiltzen da (-gi-): *dezagun' dagigun*. Gabezia bi badira, hala ere, bata, *egin* gi-puzkera osoko ere badela, Oihartzunerainoko; bestea, *egin* laguntzailea bere flexioetan jorra barik lagatzea. Beste sail batzuetan *-lako*, *-laseko*, ez dira *bezainen* aldamenean agertzen, bizkaierako ikasleak etxetik da-karren sinbolo esanguratsuen multzoa aintzat hartu barik, hark dakie-naren gainean eraiki barik ez dakiena. Eskola Gramatikak badarabil ha-lako joera eskergarria –gramatika osora hedagarria– *-arrenen* trataeran ere:

*Helburu zentzua dauka nagusiki, baina kausazkoa ere izan dezake bizkaieraz.* Alberdi (1996: 276).

Zoritarrez, testu-liburuetan ez da halako jokabideetarako jarrerarik izaten eta ikaslea ez denez deduzitzeko gai, euskalkiko arlo askotan alfabetatu barik gelditu ohi da.

Ikaslearen euskaratik abiatuko bagina, bere buruarentzako ezeze gainerako ikasleentzat ere ama-hizkuntzako ekarria guztiz probetxugarri suertatuko litzateke ikasgelan. Zenbat izerdi ez dugu isuri, *ikastea*, *ikasi*, *ikasten* bakoitza zein perpausetan erabili behar den irakatsi ezinik, ingelesean *going* eta *to* gorekin gertatzen den bezalatsu? Etxetikoa dakitenek, aldiz, neke hori gabe dakitelarik datoz. Ariketa nahiz denbora bera dedikazioko ote diegu erdaldun familietakoei eta euskaldunetakoei? Edo bizkaieran mugagabea zuzen darabilen bizkaierazkoa –DBHko 9. ariketako *urtietan* lekuko, Euskaldunon Egunkarietan egunero aurkitzen dudalarik *urtetan*– gipuzkerakoekin batera edo, alderantziz, batuko aditza ia etxetik dakien gipuzkerazkoa bizkaierakoarekin? Arestian AUSUBELEKIN aipatu dugunez, ikasleak ez du bere ama-hizkera saihestuko, eskolak berak ere egin behar ez lukeen moduan. Bestela jokatuta, zenbat neke euskal azentuaz jabetzeko edo diphongoaz zein hiatoen erabileraz! Nola lor testuaren egokitasuna, testua kontestura egokitzea? Nola gaitasun pragmatikoa, alegia, aitaitari ez zaiola hika mintzatu behar, une honetan irakasleari ere *tio* deitzen zaiotanean? Nondik nora erregistroen erabilera? Ez ditugu ahazteko Erramun Baxok-ek (1985) irakurriak:

*Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukate-la kompetentzia eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik.*

Arloa finitzeko, aipatu egin beharko da badirela garrantzi oso handiko aspektu bi, ezinbestean iragarpen hutsean lagako ditugunak, ezen gure tesia lekuan lekuko euskararekin datorren ikaslearen gainean erakitzen baita. Lehen aspektua, Francisca Zabaleta Zabaletak deitzen duen –jadanik eskola egin duen terminologiari jarraikiz– *murgiltze-ereduan* datza:

*D eredua, mantentze-eredua da ikasle euskaldunentzat eta erabateko murgiltze-eredu goiztiarra erdaldunentzat. Zabaleta (1994: 35)*

Tesian zehar atxikitze-ereduan mugitu garelarik, puntu hau azterterakoan André Martinet-en aipamen honetara mugatuta geratuko gara:

*Como él advierte, ni la primera lengua aprendida ha de ser necesariamente la de la madre, ni tampoco es necesario que sea, por fuerza, la que el individuo usará con mayor facilidad en edad adulta. Ninyoles (1972: 159).*

Bigarren aspektua, Wallace eta E. Lanbert-ek bereizten duten bigarren hizkuntza ikasteko *motibazio instrumentala* eta *motibazio integratzailea* da. Ninyoles (1972: 141) Gure D ereduetan diren familia euskaldunetako ikasleen eta familia erdaldunetakoeren artean, *motibazio integratzailea* dutenei begiratu diet arteragoko baieztapenetan. Edo beste termino batzuetan azalduta:

*Denborak esango du ea euskaldun aktiboak atera daitezen adinako kalitaterik izan duen hezkuntza-sistemak eta gizartearen eraginak; edo, aitzitik, euskaldun pasiboak egitera mugatu garen, ulertu bai baina hitz egiteko erosotasunik sekula lortuko ez duen jendea. Euskal komunitate batek bidea zabaldu egin behar die non integratu izan dezaten. Arexola-Leiba (1994: 376).*

Oraindainokoa esandakoarekin argi bezain garbi geratzen dela uste dugu euskalkia/batuaren auzian ikasleak dakien berbetatik abiatzearen zergatia. Ondorioz, euskalkia dakiten neska-mutilak euskara batura zuzenean bideratuta ere ikasten dutela entzun dezagunean, erantzun ahalko dugu, ikasi ikasten dutela, baina ez dutela, ez egoki, ez zuzen, ez kalitatez ikasten, eta mantentze-eredua murgiltze-eredua bezain justifikatuta, arrazoituta dagoela teorikoki zein praktikoki. Edonola ere, uniformitatearen erosotasunak ez ditzala galerazi curriculumaren dibertsifikazioak eskain ditzakeen emaitza oparoak.

Gure ikastetxeetan Curriculum itxien desabantailak ezagutu eta gero, curriculum irekiak diseinatu izan dira azken urteotan, aparteko interesez saiaturaz lekuan lekuko eskolari eta herriko euskal giroari egokiturik jokatzen. Jokabide jator horrek, ordea, huts oraindainsa konpongabea sortu du, alegia, homogeneousaziorik eza, bai eskola desberdinen artean, baita eskola bereko neska-mutilen artean ere. Homogeneousazioaren gaia, are garrantzitsuagoa da Derrigorrezko Hezkuntzan, derrigortasunak minimoak adostea eskatzen duela jakinik.

Bestalde, testu liburu-etako euskara oso jasoa izanik, ikasleak ezagun zaizkion eskemetatik landu behar dituzenean, askori ezinezko gertatzen zaio Vygotsky-k izendaturiko Garapen Hurbileko Gunea erdiestea, jakinik dakigun bezala, DBHn, DLH ez bezala –Ausubelek (1993) dioena jarraikiz– curriculumeko materialak ikasleentzat produzitzen direla eta ez irakasleentzat.

Baina alderantzizkoa ere bai, ezen urtero-urtero euskarako eduki berbera emanik, den legez ematean, ikasleak aurretik dauzkan eskemaz

interpretaturik ez zaio desorekarik sortzen eta, ondorioz, ezer aitzinatu gabe lehengotan geratzen da.

## 2. EUSKAL DIGLOSIAKO OSAGAIEN LEKUA

Ferguson-ek izendaturiko diglosiari eta Txillardegik proposatutako euskal diglosiari guk irazia gehitzean sortzen da **Euskal diglosia irazia** zein ikasgelara aplikatzeak eragina izan duen eta izango duen euskara batuan, euskalki literarioan eta azpieuskalkian, hain zuzen ere, Uriel Weinreich-ek eraiki zigun hizkuntza-ukipenei buruzko parametroetan jokaturik.

Euskara batuak eraiki den moduan eraiki delako, testu idatzietatik ikasgeletarako bidaia egin izan du, hitzunaren galbahetik iragan barik. Ikasgeletan irakasle zeregina hartu duena ere ikasgelako eredu horixe ikasirik abiatu da ikasle ezjakinei irakasten. Ikasleok klaseko euskaraz jantzi direnean euskal munduan zabalduz joan dira, batzuk irakaskuntzan, besteak telebistan, denak euskaldun zaharren artean. Euskaldun zaharrokaz ukipenean jarri denean, euskara mota hori eder agertu da ikasia da eta. Euren betikoa, ostera, ez da berria, gaurko eskola, telebista eta udalean erabiltzeko, eurena lehengoa da, zaharra. *“Umiek euskerara barrixe ikasten dabie ikastoletan da”*.

Euskara berri hori, euskaldun zahar idazleek erabilia izan zen, eta hizkuntzalari euskaldunek egokitua, baina, gertatzen dena da, idazle zahar haiek erabiliriko eredua idatzia izan zela, ez ahozkoa. Eta eredu idatzi horregaz baliatu izan gara, hala idatziko esparru guztietarako, nola ahozko batzuetarako.

Bestalde, bada egia, batzen diren euskarak, estandar egiten diren berbetak ez direla, ez inorenak, ez inongoak. Betiko ahozkoak, inongo amarenak izanez arren, diakronian jasoriko kolorea dute, zaporea. Euskara batua bera ere, bestalde, euskaldunekazko ukipenean eta euskaldunek eurek ere erabili duten heinean koloreztatuz joan da, Donostiako euskara batuaren aldamenen Bilboko euskara batua ere entzun eta idatziz. Liburuetakoko batu haren erabilerak ukipenean bizi izan diren euskalki, eta azpieuskalkiekaz txertatzea, batak bestearena erabiltzea ekarri du. Hor da ukipenak sorturiko irazketa, teilaketa, txertaketa.



Guztiarekin ere, ardatza euskara batua da, batu ez murriztailea den neurrian, ezen batuak arlo oso zabala eskaintzen baitie euskalki nahiz azpieuskalkiei. Nahiz eta euskara batua ez den egokia bizitzako foro guztietarako. Betiko euskarak, euskalkiek badute euren esparrua, eta horrelaxe gertatzen da diglosia, euskal diglosia –metodologiagatik erdarak eta euskararen artekoa txokoan utzirik–. Bat gatoz Txillardegirekin A hizkuntza, jasoa, Euskal Herri osokoa euskara batua dela, euskalki literarioa, gai jakinetarako aproposago. Txillardegiren ustez sentimenduak nagusi diren okasioetan, lagun artean dialektoa da egokia; ideietarako, zientzi liburuetarako, ekintza ofizialetarako euskara batua. Baina ez gure ustez horretarako soilik. Fishman-ek izendatu zuen esparruaren kontzeptuaren arabera baizik, hots, nork egiten du, zein hizkuntza norekin eta noiz. Alegia, bizkaieraren esparruan bere lekua dagokio euskalkiari, dela irakaskuntzan, dela udalean, dela irratian:

*Hay una cuestión esencial que debe estar bien fijada en cualquier política de promoción de variedades lingüísticas menores o no dominantes, que es la del locus. Puesto que se busca que esa variedad se conserve y se desarrolle sin trabas que puedan ahogarla, habrá que señalarle un lugar, un puesto que sea suficiente para que ese fin se consiga. Habrá que amojonarlo sin mezquindad, pero también sin derroche. También las lenguas ocupan espacio, lo mismo que el saber, y hay que evitar en lo posible roces innecesarios e indeseados, porque los problemas lingüísticos se enconan y envenenan con facilidad y se convierten en disputas en que los insultos son las armas menos contundentes. Mitxelena (1985: 200).*

Bestalde:

*Ez da guztiz okerra esatea, sentimenduak adierazteko dialektoa dela egokia; ideietarako, ostera, estandarra. Zientzi liburuetan, ekintza ofizialetan, unibertsitatean euskara batua. Lagunen artean, sentimendua nagusi den okasioetan, euskalkia. Nobelagintzan, adibidez, kondaira bera, batua; elkarrizketak, herri hizkeraz, eta euskalkiaz, beraz. Txillardegi (1990: 60).*

Bizkaieraren eremuan euskalki literarioak goren maila beregana dezake –historikoki bereganatu izan duen moduan–, edo irakaskuntzan eta kazetaritzan euskara batuaren arlo bera. Hala eta guztiz, estatusen batuaren lekua betetzen duen une berean ere, berba teknikoek maileguarengatik, bizkaieraren esparru berean euskara batuko seme-alabak ugarituz doazelako, bizkaiera literario hori batuaren antz-antzeko izatera bultzatuko du gero eta gehiago, bizkaiera batuaren jarriztaile iza-

tera, senitarteko diglosian bizitzera. Ordainean, –ukipenaren eraginez, txertaketaren indarragatik– euskara batua bizkaieratuago bilakatuko da, mendebaldeko berba, forma, taiuera euskara batuan txertatuz. Azpieuskalkiak bizkaiera literarioagazko diglosia bereganatuko du. Esku-bide osoa izanik azpieuskalkirako edozein elementu literariotik bereganatzeko, behar duena, harturik.

Tesi honetan, euskara batua jendartera heltzeko jarraitu zaion bi-dearen alderantzikoa proposatzen dugu. Guretzat abiapuntua ikasleak dakien euskara da, helmuga euskara batua. Ideolektotik:

–*El ideolecto es en principio la única realidad que encuentra el dialectólogo* –Jean Dubois-ekin (1979) onartuz–,

etxekotik, herrikotik, eskualdekotik, hots, azpieuskalkitik hastea da asmoa. Norberak dakien, inguruan daukan berbetea, toponimia, deitura, ohituretako hizkuntzan alfabetatzea lehenengo.

Alfabetatze hori, ordea, euskara batuaren bitartez gauza daiteke Euskal Herriko lurralde askotan –euskara batua euren aspisistemaren gain eraiki den lurraldeetan–. Bizkaieran, ostera, euskalki literarioak beharrezko laguntza eskaintzen dio alfabetatzeari. Batetik, etxe, herri, eskualdeko euskara bizkaiera literarioaren bitartez ulertu, azaldu, osotu, interpretatuz, ezen *emongotsudaz* urrun gelditzen da *emango dizkitetik* alfabetatzearen hastapenetan. Bestetik, euskalki literarioan baten den berba, esaera gaitu egiten da euskalkitik euskara batura modu bateratuan jasotzeko, euskara batu euskaldun guztionean irazteko.

Euskara batua jartzen dugula gure muga diogunean, ez daukagu gogoan arterago ikasiriko guztia, ez baztertu, ezta ahantzi behar denik. Ikasleak azpieuskalkiaren gainean ikasia badaki, baita bizkaiera literariokoa ere. Batua helburu diogunean adierazi gura duguna da, munduko berbetea handien parean jarria, euskara kultura, modernoa, Euskal Herri osokoa, esparru guztietarako gauza dena. Horrexetarako bidaltzen ditugu seme-alabak euskaraz ikastera.

Testuinguru horrextan deitzen diogu Euskal Diglosia Irazia planteatzen dugun paradigmatari. Ardatz nagusia euskara batuak daruma eta euskalkia horren norabideei jarraitzen zaie, azpieuskalkia euskalki literarioaren ildoari jarraitzen zaion ber. Halan da ze, euskara batua xede izateaz gain, bide-erakusle ere bada.

Hala ere, euskalkiaren batuarekiko mendekotasuna egoki ulertzen badugu, literaturan, esate baterako, –tesi honetako frogek lekuko– eus-

kalkia euskara estandarra baino gorago ager daiteke: euskalkia da oraindik orain –euskara batua 32 urteko gaztea da eta–:

*mendez-mende bildutako kutsu eta lurrun hori dela kausa*  
Villasante (1988: 225).

harrobi eta iturri edo berbeta kolokiala hizkuntza literarioan nahiz estandarrean azal liteke. Ahozkoa, gainera, nagusi gertatuko da esparru batzuetan idatziaren aurrean, edo ahozko azpieuskalkia euskara batuaren aurrean.

### 3. ETXEKO BERBETARAKO IRAKASKUNTZA ESANGURATSUA

Euskal Diglosia Irazi honez gainera, Irakaskuntza Esanguratsua hartu behar da gogoan, arestian aipatu izan dugun bezala. Etxeko euskara ikasgelan landu ez duen ikasleak ez du ikusten mendi bat harago darabilten berbakera eta berak darabilena unitate bereko kide direla, ez du ikusten ahozko desberdintasunaren atzean berba bera dagoenik: *gesu beten/gesi beten*, eta itaunduez gero, erabiltzen duzue *gesu baten*? Ezetz erantzungo dizute, ez baitu bere *gesi beten*-ekin identifikatzen ahal. Berarentzat, Leizarragaren (1571: 254) behinolako:

*Quasi etche batetic bercera-ere minçatzeko manerán cer  
differentiá eta diversitateá den*

hura da egia gaur ere. Ez dakusa laburduraz, fonetismoz zergatik ezin den idatzi –inoiz idaztekoa bada–, *daka*, *dauka* ren lekuan erabiliz, non dagoen *dauka* hori osoagoa dela dioen liburua, idazlea, autoritatea. Euskara batua eskolan ikasi badu, orduan ikasi egin du, idatzita ikusi du, irakasleak ere esan dio eta ados dago. Ostera, bizkaiera ikasgelan ikusi ez badu, inor autoritadedun agertu ez bazaio, forma guztiak dira euren amorfismoan berdin. Zergatik idatzi behar da *dabe*, eta ez *daude* edo *deurie*? Inon ikusten, ikasten ez badu, ezin jakin dezake eta onartzekotan bere ideolektotik grafolektorako urratsa baino ez du ikusiko, ez da gai eta azpieuskalkitik euskalkirako jauzia emateko, heterogeneotasunean aukeratu egin behar dela ohartzeko. Azken baten, berak egunerok darabilen berbetari ez dio euskara batuak duen kodigotasunik onartuko, berea gramatikarik gabeko berbeta baita, lagunartekoa, eskolan lekurik ezin eduki dezakeena. Ondorioz, bere euskara eredukorik

ez da euskara batura ezertxo ere pasatuko, agrafo bilakatuko da. Ez da, bestalde, jabetuko zelan bereko ere badiren euskara batu horretako elementu asko eta asko. *Olentzero ez jat etorri, erregeak baino* bizkaiera landu duelako ausartzen da idazten, gelan ikasi ez duenak euskara baturakotzat jaso duen *erregeak baizik* erabiltzen du soilik eta.

Etxeko euskara landu ez duenak ez daki *eban* eta *eben* bereizten; forma bera anitz modutara idazten du: *dozt, dost, deust, dosta, doste* edo *begia, begie, begixe, begi, begiye* nahiz *iletargiye, iretargie, igetargie*, hau da ia-ia zenbat ikasle hainbat aburu. Ez daki izenen arteko korrelazioa ere, *enara* euskara batutikoa *elaia* dela, esate baterako. Ez da jabetzeko gai egunean egunean darabilen forma jakin bat beste eskualde baten ere arrun-arrunta dela, mungiatarren *etorri dako* Durangokoa ere badela edo berak dioen *lehelengo* Eibarren ere halaxe esaten dela. Ezagutu barik geldituko da bizkaiera literarioko ez den arren, bere eskualdeko *deude* aditz laguntzailea bazerabilela Rafael Mikoletak XVII. gizaldian, *Vostak jodaude*. Finean eta buruan, ezin inola ere konturatu halako analfabetismoan bizi duen berbakera ederra dela, aberastasun itzelak gordetzen dituela, merezi duela zaintzea.

Bizkaiera literarioa ikasi duenak –bizkaieraren elementu komunak–, aldiz, tontorretik dakusa harana, errekaen bihurguneak zein harri latsak edo bidezidorren nondik norakoak. Euskalki literarioa ikasten duenak, arteragoko euskaldun jantziek onartutako formak ikasten ditu. Ez da bere berbakerearen lurretara lehenengo ez eta bakarrean iritsi dena. Bere euskalkian alfabetatzean, badakien, badauzkan elementuetan oinarrituta honenbesteko zubia eraikitzen du batetik herriko euskararako zurubia duena eta, bestetik, euskara baturako pasabidea. Bizkaiera literariotik ber-bertan dauka azpieuskalkia, ber-bertan batua. Euskara baturako zubi barik nekez erdiets daiteke euskararen Vygotsky-k izendatzen duen Garapen Hurbileko Gunea sortzea, hau da, ikasleak dakiena eta jakin dezakeenaren artekoa. Zaila baita *diezaioketetik neio* alfabetatzea. Erdialdeko euskalkietan euskara baturako beti ere ikasi egin behar den arren, ez da, agian, zubiaren premiarik nabarmentzen, jauzi txikia aski baita beste bitartekaritza barik. Han ere, ordea, lekuan lekuko hizkerak zabal-zabalik behar ditu baturako ubideak menderik mendeko hizkeraren usain, kolore, kutsua batura igaro daitezen.

Bizkaieran alfabetatu denak ez dakusa arazorik euskara batuko formaren ondoan bizkaierazkoa jartzeko. Badauka arazoa, oster, herriko azpieuskalkiagaz jokatzera. Dakiena da bizkaiera literarioko

ez den guztia dela azpieuskalkiko baina azpieuskalki hori araugabeta-sunean agertzen zaio. Badaki *zitzaizuni jatzun* parekatzen, hala ere Bermeoko berbetarako *datzun* zein *zandatzun* jartzen ditu. Gainera, euskara batuko ortografian erakusten duen segurtasunik ez darakutsa bizkaiera literarioan, *aitonaren* pareko jartzen ditu: *aitxitxeri*, *aitzitze-ri* nahiz *atxitxeri*.; aurkitzearen pareko: *topatzea*, *topatea* zein *topatie*.

Hizkera formala eta ez formala bereizten dute, ez da eurentzat identifikaziorik ez alfabetatuei gertatzen zaien moduan, batua = formala, eurena = ezformala. Ikasi dutenentzat bada batu formalaren aldame-nean euren euskara formala ere, eta ez formala etxean erabiltzen duten erregistroagaz lotzen dute. Beraz, ez direla diote eskolan erabiltzekoak: *leidu*, *guardasola*, *telebisiñue*, *ni enai izan*, *alabatxi*, *mutil zantarra*, *morroi*. Tamalez, ez dira ohartzen etxerako gordetzen dituzten edertasun ugari –*alabatxi*, *mutil zantarra*– berbeta formalerako ere badirela, bizkaieraz ikasi arren ez dira bereizteko gai. Hori horrela, geure buruari galdetzekoa da ea Batxilerreko 11. itaunean *arrakada* etxeko euskararako gordetzekoa bada, euskara baturako erabiliko duen ordea zein izan daitekeen.

Finean, familiako hizkera eta kolokiala euskalki geografikoei oso loturik doazela konturatzen gara, baita ikasleak ere, ezen badakite maila batekoa dela *leidu*, beste batekoa *irakurri*; batekoa *eskribidu*, beste batekoa *idatzi*.

Eskolako hizkuntza eta etxekoan erreparatzen badugu, etxeko berbeta eskolan landu egin behar dela ondorioztatuko dugu, bestela, eredu erkagarriak jorratu arren, ikaslea nekez jabetuko da ondo dakarren forma hori eskolako moldera aldatzean okerrik egin badu zelan egin duen. Batxilerreko 1. eta 2. itaunean bizkaieraz *Amaman lekuan iminteko* jarrri duenak eta baturako *Amamaren lekuan jartzeko*, etxekoan familia-tiko duen *Amamaren etxean paretako* ondo dagoenari, *iminteko* ezartzean okerra egin du, *ipini* norbera baino *zerbait ipintzen* da eta. Batukoa, aldiz, zuzen jaso du, baina zuzentasun hori ez da, nekez daiteke euskalkira etorri. Irakaskuntza esanguratsuari jarraiki, hots, dakienetik ez dakienera ibiliz, egin behar ez duena da, etxekoari beste forma bat gainjarri, gurasoengandiko *egin nei/neikeri* Batxilerreko 5. itaunean (TX-1)eko ikasleak egin duen eran *ahal dot* ipinirik.

Diglosia txertatu batean edo batuan alfabetatzea ez da nahiko, bes-teetan –bizkaiera, euskalkia, azpieuskalkia alfabetatzeko txertagai ba-koitza alfabetatu behar baita. Gainera, euskara batutik ezin alfabetai dai-

teke bizkaiera bere elementu askotan –kasurako zer-nori-nork aditz flexioak, edo *berba* hitzaren kanpo kontzeptualean; gainera, antitesiko ere badira: *leponsama; aurki*; mugagabearen erabilera: *bi etxe π etxe bi...*

Hezkuntza Sailaren Adierazpenean Euskararen Erabilera Bizkaiko Irakaskuntzan (1982) deritzanean esaten denez, eskolari etxekoa oso-tzea dagokio. Batxilerreko 1. eta 2. itaunean (ASK-1)eko ikasleak bizkaieran *Ia nora joian* dakar eta euskara batuan *ezer ez*. Baliteke aditz hau etxean jaso ez izatea –ia seguru ez da–, eskolan ikasia izatea eta, orduan, adibide oso egokia ematen digu zelan duen bizkaiera literarioak etxekoa jantzi eta prestigioatzen.

Uste okerrak artezteka ere irakaskuntzari dagokio, ezen Batxilerreko 9. itaunean *topatu* bizkaierakotzat jotzen da –ia ikasle guztiek–, berez, Euskal Herri zabalekoa denean.

Batxilerreko 11. itaunean (Askartza)koek diotenari buruz esan daiteke, zoritxarrerako, ikaslerik gehienek ezezagun dituztela D Ereduetan eurretan ere. *Txatxamurka* hitza giro lagunartekoetan suertatzen da, eta giro hori ez denez hain eroso sortzen ikasgelan, etxetikoa dakienak baino ez daki maiz. Dakiena bera oso girotuta eta berba horietan alfabaturik ez badago, kideen artean ixilik geratzeko arriskua dauka, jokatutako beharreak berak dakiena besteei irakasten, ingelesek atzeritarrei egiten dien bezala.

Euskara batuaren izaerara bagatoz, ulergaitza da *berbaz hasi ziren* euskalkikotzat jotzea eta baturako *Hizketan hasi ziren* ipintzea. Begi bistakoa dena da, lexikoa batutik at lagatzen bada, bizkaierako *berba* elari (bizk.) jarririk, lexiko horrek kanpo semantiko osoa ere berarekin daramala batutik kanpora *berbaz hasirekin* gertatu den bezala. Gehienetan, gainera, batuko formak betetzen du euskalkian ez zelarik, batuak sortu egin duen hutsunea, eta *berbaz hasi zirenen* lekuan *hizketan hasitik berbetan hasi* sortuz. Horrez gainera, bizkaieraz *jaramon egin eutson* eta batuan *kasu egin zion* jartzeak erakusten du irakaskuntza ez dela abiatu ikasleak dakienetik eta, seguru asko, ikasleak berak erakusten duen *jaramon egin* eguneroko izanik, irakasleak berak ere maiztasun urriko berba ez kolokialtzat hartu dutela galdeketa honetan.

Bizkaiera literarioak *dauz*, *ebazan* gisako berrikuntza diren aditz formak indartu izan ditu aspaldion, tradiziozko izateaz gain bizi-bizirik dirauten *ditu*, *zituen* formen ondoan, horretara beste euskalkietatik urrunduz. Ikastetxe askotan ere aurkituko dugu jokabidea hau, alegia,

bizkaierako egunen izen batzuk eta batuko beste batzuk tartekatzekoa. Ez da irakaskuntzan bakarrik gertatzen, almanake, kalendario eta antzerakoetan ere topatzen dugun joera da, gehienetan, latinetiko elizabidezko egun erdal zantzukoen orde batuan ezarriz. Esate baterako, *martitzena = astearte*; *barikua = ostirala*; *zapatua = larunbata*, gainerrako egunak bizkaieraz lagata.

Testuen koherentziaren izenean, baina, ezin onar dezakegu euskalkia eta euskara batua nahasterik. Abiapuntutik finkatu dugu euskalkia autonomiadun hizkera bezala eta inkesten iruzkinean zehar frogatu dugu tasun horretarako kausak zeintzuk diren. Asteko egunak ezer badira autonomo dira euskara batuarekiko. Euskara batua A Hizkuntza izateak dakarren ondorioetan sar daiteke, adibiderako, galdera bereko Askartzako inkestan aurkituko dugu *itxi* idatzi ordez, batuko *utziren* eraginez *itzi* eskribitzea. Aldiz, asteko egunak –batu eta bizkaierazkoak nahasirik ipintzea, ez. Azken baten, euskara batua, bizkaiera literarioa, lekuan lekuko berbetaren arteko diglosiak ez du ezabatzen bakoitzaren izaera.

Batxilerreko 8. itaunean inork ez du *alabea* jartzen eta bizkaiera ere ikasiak izanik, normala, jartzea izango litzateke. Baina hementxe agertzen da bizkaiera literarioak euskara batuarekin bizi duen harreman diglosikoa. Honetan, bizkaieraren estandarizazioaren aldeko idazle zein hizkuntzalariek *alaba + a = alabea* defendatzeak ez du baztertzen aldeantzikoko iritzia ere. Badira arrazoiak –behin honezkero aipaturiko arrazoi historikoez gain– ikasleak *-a + a = -ea* arautzat harturik *alaba + a = alaba* erabil dezan zilegitzat hartzekoak, zeren Arratiako euskara etxetik dakienak *eleizea* esan arren, *Coca-Cola* darabil, *erremedio* esan arren *radar* darabilen eran. Hori horrela, euskara batua modernizatzearan sortuz doazen termino berriak bere horretan lagatzea gomenda daiteke: *automata*, *sonata*, *aorta*, *arroba* edo kulturatikoak: *post data*, *hemeroteca*, *eureka* edo batua ikastean agertuak: *gramatika*, *errepika*, *karrika*.

Guztiarekin ere, *-a + a = -ea* betetzen den kasuen erabilera bizi-bizia eta oparoa denez gaurko bizkaieran, irakaskuntza esanguratsuak berak eskatzen duenari erantzuteko ezinbestekoa da arau hau ikasgelaratzea. Bokal elkarketen atalean azaldu behar da, bokalez amaitzen diren berbak *a* mugatzailearekin elkartzean aldaketa ugari gertatzen dela:

*Alaba + a: alabea, alabia, alabie...*

*Aste + a: astea, astia, astie...*

*Begi + a: begia, begie, begije, begixe...*

*Asto + a. astoa, astua, astue, astó...*

*Buru + a: burua, burue, burú...*

Honetan oinarriturik landu daiteke, bai ahozkoaren eta idatziaren arteko desberdintasun fonetiko zein ortografikoa, baita azpieuskalkiari zer legokiokeen eta zer ez, hots, azpieuskalkitasuna ez zaiola fonetismoari lotzen idatzian, baina ahozkoan zilegitasun osoa dagokiola, beti ere jendaurrean berbak osoago esaten ahaleginduz, baina euskara batu-ko erregistrora zertan aldaturik ez dela.

Katea eten ez dadin, gazte bizkaieran alfabetatua da zaharren belaunaldi analfabetoa eta batuaren artean zubi egiteko gai dena, arestian bizkaiera literarioa baturako zein azpieuskalkirako zubi dela adierazi dugun moduan. Zubi egin eta zubi izan, dakienetik –gurasoenetik– abiatuta ez dakienera –batura, euskaldun berriarenera– doanean. Ikaslea da eredu biduna, zubia, euskara batua badakiena nahiz etxekoa. Bereizteko gai izanik, diskurtsoa egokitzen dakiena –Batxilerreko (Berm. 2) ikasleak bezala– bizkaiera literariorako *Gaisorik egoan* eta idatziz eta baturako *Gaisorik baitzegoen*, Mungiako azokan erabiliz bata eta euskaldun berriekin bestea, ahaztu barik beti ere, euskara batua ikasia *egoanera* ere ohituko dela.

Zaharren belaunaldiak –euskara aberatsekoak–, gainera, eskola bari-rik daki *joian* esaten. Gazteek, ostera, euren euskara urrituan ez dute forma aberats hau gurasoengandik eurenganatu, beste askogaz gertatu zaien antzera. Eta inork betetzekotan eskolak bete behar du zeregin hori.

Etxeko euskararen izaeraz baieztatu daiteke, zuzen atxikitzen dituztela bizkaieraren tasun nagusitzat jotzen direnak. OHOk 11. ariketan frogatu daitekeenez, *atzamar/behatz* sistematikoki bereizten dituzte; *anaia/nebaren* erabilera arteza dute; *gaztea da/gazte dago* hutsik gabe banatzen dakite; *bost etxetan/bostak* erabileretan ez da ageri mugagabeko okerririk. Hala ere, ahozkoa tesitik at lagatzearen pena handiz geratzen gara adibide honetan, esate baterako, ezen azentua galdurik mintzatzean, gogotik frogatu gurako baikenuke nola dituzten jarraiko perpausok ahoz bereizten:

*Bostek gainditu dute. (10etarik 5ek)*

*Bostek gainditu dute. ( 5etarik 5ak)*



Euskal Diglosia Irazian berezkozat jotzen dugu euskara batuak eragina izatea euskalkiaren barruko estandarizazioan ere –zeozergatik onartzen dugu irazitasuna eta–, baina, gure ustez, besterik da Baxilerreko 10. itaunean bizkaieraz irakasten den zentroetan euskara batuko hileen izenen ondoan bizkaierazkoak ez ezagutzea. Hor bizkaierak diglosia gehiegizkoa jasateaz gain ezeuskalkitasunean ere jardun izan du.

Honetan bat gatoz Lluís López del Castillo-gaz (1976: 29) irazitasuna eta uniformitatea identifikatzen ez ditugunean:

*Convé molt, doncs, de determinar les limitacions de l'estandard. La primera és que actua amb un paper de directriu, de punt de convergència, de referència comuna... conceptes que no coincideixen pas amb el d'uniformitat, tot i que impliquen aspectes negatius com el de bandejament de formes que no s'hi ajusten, per una simple raó d'economia.*

Els principals nivells lingüístics o “normes”

*llengua literària i culta en general*

↑ ↓

*llengua comuna utilitària o standard*

↑ ↓

*llengua familiar i colloquial.*

Ados gaude baita ere Lluís López del Castillo-k jartzen dituen gizen norabideaz, adierazirik hiru mailek dutela eragina elkarren artean.

Migeltxu Saralegi harrijasotzailea irudizat hartuta esango genuke, harria behean/azpieuskalkian *etorri daku*, gerrian/euskalkian *etorri jaku*, sorbaldan/euskara batuan *etorri zaigu*. Eta sorbalda aipatu dugunez, euskalkien ezagutza artezari nagokiola ezin utziko dut aipatu barik Txomin Peillenen doktore ikerketa. Hala dakar:

*Localement nous observons en basque occidental une confusion entre “cou” et “épaules” parce que l'expression **lepoan hartu** signifie prendre un enfant á cheval autour du cou, mais il est évident qu'il repose sur les épaules **sorbaldaren gañean**.*

Mendebalde bizkaieraren eremuarekin lotzen bada, erantzun egin beharko dugu: “Batez ere *bizk*. Sorbalda”, dakar Ibon Sarasolak (1991). Baina hala izanik, besterik gehitzen ez bada, badirudi ezen *sorbalda* ez dela erabiltzen, den moduan arrunta bezain orokorra izanik:

Sorbaldak: gainerako euskalkietan bezala erabiltzen da. *Ezkerreko sorbaldak; sorbaldak-jausia; gizon laburkote sorbaldak-zabal bat.*

Lepoa: 1. Lepoak sorbaldaren kokagunea zamaz ari garenean hartu ohi du: *Zaku astuna lepoan harturik; lepoan hartu eta segi aurrera.* 2. *Umea lepoan* besartean- *hartu* esateko ere erabiltzen da, jarririk egonda *altzoan hartu* esaten den antzera. 3. Lepoa bizkaraldea ere bada: *lepo bete emon; lepoko mina.*

Txikoan eroan: “Prendre un enfant á cheval” bizkaieraz –Mungian– *Txikoan eroan* esaten da, umeak besoakaz samatik oratzen duela, eramaileak bizkarrean daramanaren hankak eskuekin eusten dituela. Beraz, frantsesezkoen erara *txikoan* esaten da –txikoa zaldi kumea da Markinan gaur egunean ere–.

Aitzitik, *lepoa* bizkaieraz ez da burua enberrari lotzen zaion gorputzaren zatia, gehienetan mehea. Horretarako *sama* erabiltzen da edo *iduna*. Gainera iduna; alkandorak sama inguratzeke daukan ehunezko zatia ere bada.

Duvoisinek “Lephogorri “petirrojo”, rouge-gorge deitzen du, eta eduki gorri daukana paparra da.

Zentzu berean, Batxilerreko 11. itaunean, *Inisitu* azpieuskalkikotzat hartuko genuke. Euskara baturako ere erabilgarria izan arren –dakigun moduan jakinik sinonimo ugariak dela–, planteamendu zuzena litzateke batzuek lehenestea, gainontzekoak lekuan lekurako lagata. Agian, *oinazitu* idatzi beharko genuke. Horren aurretik *oinaztu* ezarriko genuke bizkaiera literariorako eta *tximista* euskara baturako ikastolen bidez zabalduen dagoena. Txorierrin, ostera, lehentasuna bertako *ihusturi* berbak hartuko luke, leku horrexetakoa delako.

Eskola, beraz, lekuan lekukoa irakastetik abiatuko da, ostean, bizkaiera litarario eta jarraian euskara batuko *tximista* irakasteko. Askotan batera ere irakats daiteke, ezen eskolako eta etxeke euskaraz bateratsu telebistan edo aditu baitu *tximista* hitza.

Horixe kontsideratzen dugu *tximeleta* zein *txikitu* moduko sinonimia ugari berben irakasteko bide egoki. Lekuan lekukoa ez irakastea litzateke azpieuskalkia eskolatik at uztea, edo beste berba batzuetan esanik, lekuan lekukoa erkintzera kondatzea.

Ukipenean bizi diren euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiaren artean interferentziak sortzen dira Batxilerreko 8. itaunean

froga dezakegun moduan. –Dena dela ez dugu nahasi gura interferentzia berbetak ukipenean direnean duten berdintzerako joera berezko onargarriarekin–. Ikasle honek *paketan* beste euskalki batzuetako fonetikaz jaso du euskara batuaren bidez, berezko, euskalkiko zaion erabilera ozena baztertuta. Eskolak, beraz, etxetik zuzen zekarren forma okertu dio euskara onaren izenean. Bizkaierako ikasleari ez zitzaion gertatuko desbideratze hori eskolan zekien berbakeratik abiatuturik, eta Euskaltzaindiak arautu dituen *bake*, *baketsu*, *baketu* ondo ikasiak izango zituen.

Lexikorako adibide aproposa aurkitzen dugu Batxilerreko 1. eta 2. itaunean. *Txanogorritxoren zai* idazten du, ikasleak berez zuzen zekarren *usain*, *arrain* –*ain* bukaeradunak– okertuz. Fenomeno hau, tamalez, haur-eskolatik beretik hasten da irakaskuntza esanguratsua ez praktikatzean, D eredu barruko erdaldun-euskaldunen ukipenean *Da polita* esateko ohitura hartzean. Era berean, Batxilerreko 1. eta 2. itaunetan, etxekorako *Ez egin jaramon* jartzen duenean eta euskara batu-koan *Ez egin kasurik*, eredu erdaldunduagoa eskaintzen dio eskolak darraren jatorrari bidea itxirik.

Batxilerreko 1. eta 2. itaunean ere aurkitzen dugu adibidea. Bizkaiera literarioan *urten zan* ipintzen du eta euskara batuan *urten zen*. Hamasei urtera heldua den arren, eskolak ez dio alfabetatze maila nahikorik eman, *urten* euskalkiko forma euskara batura pasatzen du eta. Jokabide makur horretan, bere euskalkirako transitiboa dena euskara batuan intrantsitibo bilakatzen du, forma hibridoa sorturik.

Batxilerreko 16. itaunean ikasleei euskara batuan edo bizkaieran erantzuteko eskatzen ez bazaie ere, aukeran eurak atzizki pluralgiledun formetara jo dute, *zein* baino *zeintzuk* hobetsiz. Horretan konponbiderik bako interferentzia dago kodigoetan euretan, gaur arte erabakitakoaren arabera. Esate baterako, nominatiboa eta ergatiboa desberdindu egin behar ditugu bizkaieraz ere? Mendebaldean darabilgun *zeintzuri* laga eta euskalkirako *zeintzuei* hartuko dugu?

Bide beretik, *ordu baten/ordu batetan* bereizten duen hiztunari oraindik arazoa zailagotzea dateke *ordu baten* horren lekuan *ordu batean* ezar dezala irakastea, ezen *ordu batean* entzuten duena gertu da itauntzeko: *Bai, ordu batean hori, eta bestean?*

Berdintsu, Batxilerreko 6. itaunean *Lei* aditzaren parekotzat *daiteke* –oker– edo *dezake* –ekibokoa– darabiltenean. Euskalkien arteko pa-

rekotasunik eza nabarmena da. *Lei* adizkiari *lezake* parekatu beharrean potentzialeko *dezake* parekatuta, *lei* potentzialtzat hartzen denaren froga da. Ondorioz, *dezakeren* pareko, berez *daike* dena lekurik gabe geratzen da bizkaierako hiztunen ahotan, eta euskara ikasiei ere bizkaiera dakiten irakasleek inkonszienteki pasatu diete ahozko erabilera.

Sintaxian euskara batuaren eta euskalkiaren interferentziak baino hareago euskalkiaren eta eskolako mintzamoldearen arteko interferentzia da, batez ere. Jabetuta egon behar luke irakasleak Hialdoren tesian<sup>1</sup> erakusten den hitz ordenaz, kontu kontari ari garenean ere ikasleak jator darabilena zuzen ez diezaion, perpausa honetan bezala, *Txano Gorritxo deitzen zuten neskato bat bizi zen...*

Orokorrean euskara batua eta euskara ikasia gauza bera dira, bizkaieraz ikasi ez den eskola-institutuetan. Gauza dira euren etxekoa eta euskara batua bereizteko, hain zuzen ere, ikasiriko guztia eurena ez delako. Ondorioz, ikasi bako guztia da euren euskara. Horrek dakartzan autoestima eta prestigioaren gaineko eraginekin. Bizkaiera, edo bizkaiera eta bizkaieraz ikasi duenak, modu zientifikoz daki euskara batuan bere euskarako elementu ugari direla, beraz, euskara batua berea ere badela objetiboki eta, bestalde, euskalkiaren eta euskara batuaren artean desberdintasun jakinak existitzen direla. Ondorioz, euskara batura bere berbakerako den ondarea noiz jaso eta noiz ez badaki. Ez luke Batxilerreko 1. eta 2. itaunetan (GE-1)eko ikasleak dagiena egingo: *amama makal daulako* jartzen du bizkaierarako eta *amama gaixorik dagoelako* euskara baturako. Egia esan, honetan ez du Euskaltzaindiak Euskara Batuko Hiztegiaren praktikak duena baino egiten, zeren han euskararen lexikoa komuna dela iragarri arren bizkaierazko berbak alboan *Bizk* ipinita dialektalizatzen baitira. Horixe da arrazoia tesi honetan *duty-free*ko hiztegiak eska ditzagun, autobide zabaletako euskara eraiki dezagun.

Euskara batuaren eta euskalkien arteko itzulgarritasuna behatzen dugunean –kasu honetan lapurtera, behe nafarrera, zuberera eta bizkaiera–, ohartzen gara ikasketa adineko neska-mutilen testuetan, euskara batua eklektikoagoa dela euskalkia baino. Euskalkikoan –etxekoa tarteko dela– sinestezinezko freskotasuna, etorria, indarra, darakutsate, Euskararen Erregistroak atalean froga daitekeen legez. *Txano gorritxo*-ren ipuina euskara batuan eta euskalkian narratzen dutelarik, etxekoa

<sup>1</sup> Euskaltzaindiko Jagon Sailean 1998an banaturiko laburpenaren arabera.

aktibatu dutenean, ur biziagoko iturria hasi zaie dariola. Bermeoko ikasleari euskara batuan agertu ere egiten ez ziren kalifikatiboak, metaforak, etorri zaizkio: *koitxadie, otso zantar, amama disfrazatu, bada-epadako otsue...* Mugerreko ikasleak kolorea erantsi dio: *estranjerrik, bezain fite, pentze baten galdegitera...* Zuberoako 7. ikasleak: *zubi horren eraikitzen, abantxu bukatu zuten...* Garaziko 5. ikasleak erregistroen erabiltze xarmangarria: “*Noat abian xira hola?*” “*Zuhaitz baten gibelian kukutu xuxun*”.

Euskalkia eta batua eskolan ikasi arren, oso trebetasun desberdina darakutsate batean eta bestean. Alde handia dago bateko testuaren eta bestekoaren artean. Argumentu argia Euskal Diglosia Iraziaren alderako, euskalkian daukaten trebetasuna hori euskara batura ere eraman ahal izan dezaten, ezen diglosiaren barruan gorago ageri baita euskalkiko adierazkortasuna, Lluís López del Castillo-k (1976) deituriko *lengua literáriar*akoa, euskara batuan erakusten dutena baino.

Behar bada, elebidun edo hizkerabidun diren ikasleok eredu biak esparru desberdinetan darabiltzatelako da, biak ere esperientzia kultural desberdinei loturik daude eta. Hau da, gure ikasleak euskalkia beti testuinguru informaletan erabiltzen badu eta euskara batua kontestu formaletan, zail gertatzen zaio, euskalkitik batura itzultzea, testu hori egoera informalarri buruzkoa bada. Pare-pareko berba egokiak topatzeak denbora eskatzen dio, ezen berba horiek ez dira sortzen berbeta formalean diharduenean. Arlo hau ikasgelan modu esanguratsuan jorratzea ezinbesteko zeregina da.

Euskalkiaren fosilizazioa gertatzen da OHOk 11. itaunera bagoaz, ikasleak idatziriko *lotsabaku* topatzen dugunean. Testuetan, oster, inork ere ez darabil atze-hitz banatu moduan. Jokabide bera nabarmen genezake *lasekorekin, zelaseko* darabilten arren. Firu berari tira eginik, irakaskuntza esanguratsurik ezaren kausaz, ikasleek *hots* hitza euskara batukotzat jotzen dute, ikasikotzat, ez euren berbakerakotzat, izanik den bezala *kanpiots* berbako atal, beraiek egunerokoan darabiltena.

Aise ohar gaitzkeenez, kontestu bakarrera atxikirik geratzen dira euskalki zein azpieuskalkiko forma ugari, baldin eskolak ontzen ez baiditu, ezen euskara batua ikaste hutsak ez ditu alfabetatzen eta. Horregatik proposatzen dugu apendizai esanguratsua ikasleak badakienetik abiatuta. Eskolan ez lantzeak asistematiko bihurtzea dakar euskalkiko txatal askotarako, estandar ez bilakatzea, gehienez ere tes-

tuetako *apax legomena* bilakatzea, galdeketetan *beitu*, *halan da ze* eta besterekin gertatu den moduan.

Hiztunaren berbetea baztertzeko delatzen dugu Batxilerreko lehen bi galderetan (GE)ko ikasleak dakarren *Otzara koisten dau* –bizkaieran– eta *Otzara hartzen du* –euskara baturako– aurkitzean. Mendebaldeko bizkaieran hain zabala den berba honi gertatua aipatu dugu honezkeroko eta irakaskuntzak baztertu du inongo zalantza barik, banaketa semantikoan bat ez datorren *harturekin* ordezkaturik.

Eskolak, delatzen hizkuntza erraztearen kausaz, delatzen murgiltze sistema nagusitzen delako, delatzen berbetea formala guztiz nagusitzen delako, hinkako alokutiboak –*etorri duk*, *etorri dun*, *etorri duxu*, behenafarrerazkoa edo *etorri düzü* zubererazkoa nahiz berorika errespetuzkoa– baztertu egiten dira. Horri gehitzen badiogu ikasleak dakien hizkeratik ez abiatzea, izugarrizko altxorra geldituko zaigu eskolako atarian. Aipaturikoen artean: *jaramon egin*, *biagoa*, *bako*, *barik*, *makal*, *berton/bertan* eta beste hainbeste. Eta gure iritzian eskolak ezin jakin dezake ikasleak baino gutxiago.

Bizkaierak euskarari ikasle hauen arabera egiten dion ekarria eztabaida bakoa da. Bittor Kapanagak esandakoarekin bat gatoz dioenean:

(...) *euskalkiak dira euskera batua zuhaitzaren sustraiak edo erroak, eta hauetatik hartu behar du bizia, hazteko indarra, joritzeko gaia eta irauñ ahal izateko odola.* Kapanaga (1986: 82).

gehiturik, euskara batuak haziz doan neurrian nortasun osoa beregana dezakeela. Bizkaiera dakiten ikasleok dira euskara batua darabiltenean bizkaierazko aberastasunak ere euskarari bizirik mantenduko dituztenak. Mendebaldeko euskaldunak gabe aktibotasuna galdurik egingo lirake: –*ain* bukaeradun berbak –*usain artzain*–, mugagabearen baliatze zorrotza, *hatz/behatz* eta *neba-arreba* bereizketak, Euskara Batuko Hiztegiak *bizk* duten berba zerrendak, *irten* nor-nork tanke-rako erabilera, *egin* aditz laguntzailea, iragantasuna markatzeko aspektu burutua duen aditzari *izan* jartzea: *etorri izan balitz*, *dautsa*, *eragoion*, *gura izan* tankerako aditzak, *sarri* aditzondoa *maiz* zentzuan, –*gaz* eta –*kaz* kasu markak, lexikoan *galtzua/laztoa* bereizketa... Hori guztia delatzen eta jakin behar du irakasleak ez zelan irakatsi bakarrik, baiketik eta, batez ere, zer irakatsi.

Ahozkoa eta idatzia aintzat hartuta konturatzen gara, idatzia eskolako eredu bakar izateak baduela eragina ahozkoan. Batxilerreko 1. eta

2. itaunean ahozkorako *zeren etaz* baliatzea zuzena dateke baina ez egokia. Erabilera ugari da ahozko testuetan ikasgelak berariaz jorratzen ez duena eta mintzapraktikaren bitartez jasotzekoa, “*Han non topaten dauen*” (Berm-2)ren erakoak.

Hizkuntza mailak eskolan arakatzerakoan baieza daiteke, hizkuntzaren didaktikan, askotan aurki dezakegula:

*la falta de visió de la totalitat del fet lingüístic.* López del Castillo (1976: 27).

Irakaskuntzan gehiegitan jotzen da sinplifikaziora, eskema logiko-etara murriztera, berbeta funtsean soziala izanik, beraz, osagai historiko, geografiko, kultural, psikologikoduna.

Horrela ohar gaitezke hizkuntzaren maila edo erregistro desberdinez. Dialekto sozialak –estamentuetako maila eta erregistroen arabera-koak–; dialekto geografikoak; hizkuntza espezifikokoak: estandarra, literarioa, teknikoak, zientifikoa...; edo faktore psikosoziokulturalak: espresibitate mailak: familiarra, kolokiala, vulgarrak...

Tesiko Euskararen Erregistroak deituriko atalean datozen testuak ikusi ostean baieza daiteke eskolak landu egin behar dituela hizkuntza mailak, ikaslea berbeta utilitario edo estandarraz soilik gera ez dadin, albora lagata goragoko mintzamolde literario eta kultura edo behegoko berbeta kolokial eta familiarra. Abiatu ikasleen etxeko berbeta eta kolokialetik egingo gara, berbeta estandarera iristeko.

Galdeketek aski argitasun eskaini digute ikasleok bilatzen genituen euskalkiko tasunen jabe direla erakusteko. Arestian aipaturiko euskalkiko tasun batzuk nahiz *jan egin du, etorri dator* bezalakoak, erabiltzekotan bizkaiera ere badakitenek erabiltzeaz gain, zelan erabili ere betirik darabiltzatenek irakatsiko diete gainerako euskaldunei, honetan ere Mendebaldeak dakienetik Euskal Herriak ez dakienera jokatzuz, ekialdeko formez nola baliatu beraiek adierazi beharko diguten modu berean.

Kontzientzia horrek hizkuntza hiztunarengana hurreratzeko bidea ere eskain dezake, Batxilerreko itaunetan (Berm-2)koaren bidetik bizkaierarako *Gaisorik egoan eta* jartzen dakienean, baturako *Gaisorik baitzegoen*, ezen ezagutza hori dela bide zein hiztuni noiz egokiago gertatuko zaion bereiziko bailuke.

Euskalkiaren kontzientzia darakutsaten bezala erakusten dute euskara batuarena, *bezala, bukatu, (ari naiz)* –Batxilerreko 12. itaunean–

hala kontsideratuz eta beste muturrean, guztiz eta denek bizkaierakotzat *barik gaber*en parekoa.

#### 4. EUSKAL DIGLOSIAKO ZER IRAKATSI ETA ZELAN

Bizkaieran zer eta zelan ikasi erabaki gura dugunean halako ondorioak atera ditzakegu:

1. Bizkaiera ikasteko urrats minimoa euskara batua ikastea da. Hau da, euskara batua, euskara osotua ere baldin bada –euskalki guztietako ekarriaz jantzia–, eta kasu horretan bizkaierako elementurik oinarrizkoenak euskara batua ikasiz jasotzen badira, bizkaieraren ehuneko oso altua jaso da. Egoera horretan, ez litzateke hain kezkarri Mitxelanaren (1981: 310) baieztapen hau:

*No se olvide que una lengua común supone el sacrificio por extinción de los dialectos a favor de alguno de ellos.*

Ezen euskara batua erdialdeko euskalkietan oinarriturik egon arren, autore berak (1981:298) baitiosku:

*Se da la circunstancia, bien conocida por otra parte, de que bastantes de los hechos llamados vizcaínos, presumiblemente por suponerlos exclusivos de esta variedad, comprenden también amplias áreas lingüísticamente guipuzcoanas.*

2. Guk geure proiektu honetan, gaurko euskaldunak bere berba-kerakotzat dauzkan tasunetatik abiatu gura dugunez –bizkaieradunaren kontzientzian esplizitoki daudenak edo alfabetizatuz esplizita daitezkeenak– euskara batuak jaso ez dituen edo ezin ditzakeen tasunak ere landu behar direla baieztatu dugu, bai berezitasun sintaktikoak, nahiz morfologikoak zein fonetiko fonologikoak. Adibiderako, –aipatu dugun ordenan–, denborazko perpausetan –(e)an atzizkiaren orde-(k)eran erabiltzea, aspektu perfektuaren gainean: *Etixerantz joan*keran; soziatiboan –gaz eta –kaz/kin erlazio atzizkiak erabiltzea; bokal alternantziak: beste euskalkietan e-rekin azaltzen diren zenbait hitz a-dun bilakatuz, gehien bat l edo r aurrean: *barri, txarri, baltz...* Maila hauxe litzateke bizkaiera literarioari dagokion antolatze saila.

3. Hedapen mugatua, lekuan lekuko berrikuntza edo ez euskara batuan, ez bizkaiera literarioan jaso ez den forma gertatzen denean: *asau* hitza, *etorri ezkeran* sintagma, *deurie* aditza. Berba baten, az-



pieuskalkiari dagokion maila.

Diglosia iraziaren haritik, ulertzen dugu, bizkaiera literariorako elementu bila jo daitekeela euskara batura, edo azpieuskalkirako bila bizkaiera literariora, ezen diglosia irazi honetan komunean dutela gehiena ulertzen baita. Beti ere, bizkaiera literariora ekartzen ez direnean euskalki-euskalkiko diren tasunak. Adibidez, *barri* edo *-keran*. Azpieuskalkirako ere jo daiteke euskalki literariora nahiz euskara batura, baina ez bere-berea duena ordezkatzuz testu hibridoak sortzeko. Esate baterako, ez *deurie*-ren ordez *dute* sartzeko. Alderantziz jokatu gura bada, hots, euskalki edo azpieuskalkitik euskara estandarerra jaso, izango da halako mailari loturik doan egoera edo esparrua iragartzera emateko. Eleberrian herritarraren jatorria erakusteko esatea: *Euririk egin ezkeran galdu egin dok*.

B pertsonak –gaztaroan edo heltze aroan hasita, motibazioetik abiatzen direnak ikasketa prozesuan– dira, beraz, euskararen eredu kulturaletik abiatuta erabiltzeko gaituta daudenak maila bateraino; ikasketa prozesuan aurrera egingo badute, berezkitasunera, arlo informaletara, intimoagoetara egin beharko dutenak jauzi, eta prozesu horretan, hain zuzen, aurkituko diote herriko bariatateari erabilgarritasuna. Arexola-Leiba (1994: 380-381)

Hemengo proposamenean ez da egokitzat hartzen fonetismoak idaztea beheengo mailan ere, nahiz eta ahozkoan leku bikaina dago kiela uste izan:

*En las lenguas muy cultivadas literariamente, las palabras escritas tienden cada vez más a ser signos ideológicos y a apartarse de su primitivo carácter de meras transcripciones fonéticas. Para la vista del lector ejercitado, la transcripción gráfica de cada palabra tiene su relieve especial, su perfil, digamos su "fisonomía", que se percibe de un simple golpe de vista, que evoca al instante la idea correspondiente, según la sencilla experiencia que cada uno puede hacer en sí mismo. La verdadera facilidad en la lectura está ahí, y esa facilidad no puede existir en la lectura euzkérica mientras subsista la fantástica variabilidad en la transcripción de la voces vascas.* Elizalde (1918).

Testu bakoitzaren koherentziak eskatzen du, bestalde, euskara estandar, euskalki eta azpieuskalkiko elementuak egokiro erabiltzeko eta ez jartzeko lerro baten *deutsut* eta hurrengoan *dizut*.

Euskara batuaren eta euskalkiaren erabilerak, praktikan, hareazko erlojuaren funtzionamenduz jokatuko dute: Arrigorriagako ikasleak selektibitateko azterketa egin dezanean erlojua posizio baten edukiko du, harea goitik behera jarioan den bitartean, etxera joaterakoan, bira emango dio erlojuari eta, orduan, harea berriz hasiko da aleka iragazten. Posizio bakarrean utz bageneza –beti batua, kasurako–, hustu ere egin daiteke:

*Lekeitioko taberna bateko zerbitzariari zerbeza bat emain diten galdegitea alferrikakoa iruditzen zait. Orobat Sunbillako ostatuokari emongostan itauntzea. Bai, badakit, beti izanen da garagardo bat emango al didazu? Galdetuko duenik; hain segur ere, batean nahiz bertzean aterako diote nahi duena. Aitzitik, esaldi hori bera lekeitiar edo sunbildar baten ahoan paratzeak, hurrenez hurren, Lekeitioko Marinan edo Sunbillako Uli Beltzak soziedadean beren lagunez inguraturik daudela, ez dakit inori edo ezeri egiten dion fabore. Kontakizun baten sinesgarritasunari ez, bederen. Ondikotz, halakoak ausarki ditugu geure literaturan. Epaltza (1999: 165).*

Erabileran, batez ere, ahozko kodigoan, erlojuaren irudi finkoa, A/B, goi/behekoa, iraziz doa, elkar eraginez, euskalkia batuan txertatuz eta alderantziz, jira-biraka diharduen koloreen gamadun gurpilaren antzera, koloreak kolorgaturik:

*Bistan da ez dela hizkuntza egoerak bereizten ez dakien belaunaldia. Durangon nintzen joan den abenduan, zenbait ikastetxetako 8-9 urteko haurrei mintzaldiak ematen. Hango ikastolako koei belarriak ez zien hutsik egiten; amen batean ezagutzen zuten nor ari zitzaien etxean bezala –edo bezalatsu– eta nor ikasgelako moduan. Sobera agudo, beharbada. Aldiz, solasterakoan, biak nahasten zituzten. Epaltza (1999: 165).*

*Hiru mailen funtzionamendurako, beharrezko gertatuko da Mitxelenak (1981: 122) ematen digun aipu hau bete dadin: Safarewicz (1974: 122) expone con particularidad que la lengua, en la medida en que es comun, va, como hecho social, unida a al organización de una sociedad, organización que permite que haya un intercambio eficaz y duradero entre sus grupos más o menos compactos o dispersos.*

Ondorioetan, ezinbestean aipatu beharrekoa da (A>B) polaritate diglosikoa –guk A/B,BA/BB) jarri duguna– ezen ez baititu mailak edo botere sozialeko harremanak soilik islatzen, baizik eta inplizitoki bada

ere baloraziozkoa baita, aurreiritzizkoa. Jendearen iritzirako B hizkuntza kontrahizkuntza bezala agertzen da A hizkuntzako hitzunen aurrean. Ikuspegi honetan zentzugabea litzateke Azzati-ren ustez:

*...ezartzea betebehar pedagogiko eta kultural bezala dialektorearen irakaskuntza, zeinek ez digun balio etxe barruan mangu-tsik ibil gaitezen baino.* Ninyoles-ek (1972: 47).

Aurreiritzidun pertsonak ez ditu berdintzat jotzen diglosian diren berbetak, eta portaera desberdina erakusten du. Alderdi subjektiboa objektiboa bezain garrantzitsua da, zeren gizarteak berbeta baten aurrean nolako espektatibak jartzen dituen halakoa gertatuko baita berbeta horren geroa. Ninyoles-ek (1972: 47) adibide bikaina dakar:

*Izurritean atalburuan ferra bat esekitzeak ez dakarkio in-munetasunik inori, banku baten ordainezintasunaren zurrumurrak, ostera, porrotera ere eraman du erakundea inoiz.*

Porrota hizkuntzari aplikatuta –bizkaieran kasurako– gertagarri da autogauzatzen den profeziaren antzerako mekanismoz funtziona dezake eta.

Espektatibak, berez, egoeraren definizio faltsua suposa dezake, baina horrek ez ditu aldarazten ondorioak, zeren eta, errealitatean definizio faltsu horri darraion portaerak egiazko bihurtuko baitu ideia hori. Azken baten, zentzuak dioskula dirudi, norbaitek bere hizkuntzaz dagian ideiak erabateko eragina izan dezakeela erabiltzeko eran. Honetan adierazgarria da bizkaieran gertatu dena: ezin espero dezakegu iker-tzaile batek, bere berbeta B hizkuntzatzat daukanean eredu hori helburu kultural jasoetarako erabil dezan, nahiz eta oso posible den eguneroko bizitzan arrunt erabiltzea. Bada, horrela, baieztatu dezakegu hizkuntzaren erabilera konkretuaren bitartez –zuzentzeko interesa, aberastasun lexikoa, purismoak...– zein den pertsona horren barnejarrera, une baten ere iragartzera eman ez arren. Horrek azaltzen diguna da, jarrera linguistikoko biok, bata implizitua –hizkuntzaren bitartezkoa–, eta bestea esplizitua –hizkuntzaren gainean dena– oso lotuta doazela maiz. Datu azpimarragarria da diglosia zelan islatzen den kontrol linguistikoko estuago edo zabalagoetan. Hasieretatik aipatuz gatozen Uriel Weinreich-ek (1953) behatu zuen implizitoki fenomeno hau. A hizkuntzak kontrol zorrotzagoa ezartzen du, B hizkuntzak zabalagoa egiten duen bitartean. Badira gure artean joerak bizkaiera literariorako hiru bide onartzen dituztenak, eta lekuan lekukorako anitz, euskara batuan Euskaltzaindiaren azken arauetara orpo jarraitzen zaizkien bitarte-

an. Tesian ezarri dugun diglosiaren ondorio da aipatu berri dugun jarraera, ondorio den bezala, inondik inora onartzeko prest ez egotea erdaraz, euskaraz topatu ohi ditugun mila akats, hanka sartze, aldrebeskeria nahiz Hendaiako AHTEko megafonian entzuten ditugun espainolezko okerrak frantsesez entzuteko prest ez egotea nahiz irakurtzea: *Tirez la porte = Tirar la puerta*, geltoki berean dakutsakeguna. Edo lehenago erdarazko testua erredaktatu eta ostean, euskarazkoa; edo batuan eta bizkaieraz moldatu behar den testua, lehenago batuaz eta, ostean bizkaieraz. Hau da, lehenengo goikoa, jasoagoa, jenderik gehienengana helduko dena, eta gero, beheragokoa, apalagoa, gutxiagori helduko zaiona, konpromiso txikerragokoa. Aurreiritzi linguistiko horiek dakartena da, hizkuntza edo hizkera baten murriztea beste baten mesedetan. Froga bat gehiago baino ez da gipuzkeraz baizik aritzen ez den solaskidearen aurrean, bizkaierakoa bizkaieraz egin beharrean euskara batura aldatzea. Aldaketa hori egiteko datu objektiborik ez dago –distantzia berbera baitago Donostiatik Mungiara eta Mungiatik Donostiara– diglosiapeko automatismo mentala baizik ez da. Besterik litzateke, bizkaierakoak euskaldun berriaren aurrean euskara batua hartzea.

## 5. ATALAREN AMAIERAKO IRAKATSIAK

Ikasgelan koka gaitezenean, eta euskara batua, euskalki literarioa eta lekuan lekuko euskara irakatsi behar direla iragarri, askoren burura –tesian zehar esanak esan– galdera piloa etorriko da. Programazio aldeetik gure erantzuna euskalkiaren irakaskuntza Oinarrizko Curriculum Diseinuan sartuz eman da. Hala ere, oso eraginkor gerta daitezkeen oinarrizko baieztapenok beti behar direnez aurrean eduki, hurrengook atal honen laburpen gisara jartzen ditugu, tesiko funtsa jarraiko ondorioetan bilduko dugula jakinik.

Eskolaren zeregina hizkuntza formala irakastea da eta formaltasuna dagokiela ikasgelaratzen diren euskara batuari, euskalki literarioari eta azpieuskalkiari.

Ahozko testuak eta idatzizkoak desberdinak direla, ez dugula idazten berba dagigun moduan. Ahozkoan eder diren fonetismoak ez direla ahozkorako.

Euskara berbeta bakarra izanik, ez dela modu bitara idazten eta euskalkian zein azpieuskalkian idazterakoan euskara estandarretik hurren dagoen forma hautatu behar dela.

Hizkuntzan mailak eta erregistroak daudela eta euskalki literarioak bere tokia duela eta azpieuskalkiak berea.


Eskola ezin irits daitekeela ikaslearen bizitza osoko euskarara, ez eta gizarteko funtzio guztiei erantzutera.

Ikasleak dakien euskaratik abiatu behar dela eta, beraz, metodo desberdina dagokiela D Ereduan murgiltzen diren erdaldunei eta D Ereduan mantentze sistema dagokien euskaldunei.

Atal honetan tartekatzeko diren garaiteko erantzunak nire neure aurretiko lan baten idatzi nituenez, ez ditut hona aldatuko. Goikoetxea (1997).

Bestalde, Euskal Herri zabalean eman izan diren erantzun praktikoak ere gehi genitzake hemen. Adibiderako, Ana Barrusok eta Bergarako **Aranzadi** Ikastolan gauzatuak:

### *ATXIKITZE ETA MURGILTZE EREDUAK*



VI. ATALA

---

**ONDORIOAK**

---

## ONDORIOAK

1. Eskolak, etxetik euskalkia jakinik datorren ikaslea dakienetik ez dakienera eraman behar du, euskara batua euskalkiaren arartekotasunaz ikasirik –ikasketa esanguratsuen arabera arterik ezagun zaizkion sinboloen bitartez–, eta horretarako familiako berbeta landu egin behar da irakaskuntzan, ezen euskara batua jakiteak ez baitakar “per se” bizkaieran alfabetatzea. Hau da, etxetik bizkaiera dakitenentzat atxikitze-eredua defendatzen dugu, euskara batuan murgiltzeko ereduaren aurrean. Horrela, eskolan etxetikoa janztean, bizkaiera literarioa euskara baturako zubi bilakatzen da eta azpieuskalkirako zurubi, lehenik berarentzat gauzaturiko Garapen Hurbileko Gunea –dakienetik jakin deza-keenerakoa– gizarterako ere metodo bihurtuz. Zubi izan eta zubi egin, hala familiako euskara eta eskolakoaren artean, nola euskaldun berrien euskararen eta euskaldun zaharrenaren artean.

Baieztapen horiekin ez diogu ikasitako lehen berbetak amarenak izan behar duenik, ez eta neska-mutilak helduak izan daitezenean errazen amarena erabiliko dutenik. Onartzen dugu eta eguneroko lanbidean frogatzen, jende alfabetatuak mintza dezakeela hizkuntza idatzia, alabaina, dilema bezala jarri ohi den hautuaren aurrean, alegia, euskalkia eta batua baino euskara ona edo txarra dela arazo, ihardesten dugula erranik, ezinezko dela euskara onik, kalitatekorik, euskalkia landu barik, eta ondorioz, eskolan, euskaltegietan, euskara ikasi dutenen bizi-

tzan, protagonismoa jaiotzatik dakitenei itzuli behar zaiela, eta jaiotzatik dakitenen artean asko direla euskalkian haziak.

2. Bizkaieraren eta euskara batuaren ukipen gunea norbanakoarengan jartzen dugu, behin banan darabiltzanarengan, eta tesian adierazten dugu lekuan lekuko euskara, euskalki literarioa eta euskara batua Euskal Diglosia Irazian, teilakatuan, txertatuan bizi direla eta ardatz nagusia euskara batuak daramala, nahiz eta literaturan, adibiderako, euskalki literarioa jasoago ager daitekeen eta lekuan lekukoa bere esparruan egokiago, hizkuntzan maila eta erregistroak baitaude. Beraz, halako polaritate diglosikoan: A/B, BA/BB.

Diglosia Irazi honetan ulertzen dugu, bizkaiera literariorako elementu bila jo daitekeela euskara batura edo azpieuskalkirako bila bizkaiera literariora edo euskara baturako beste bietara. Horrexetarako behar da eduki irazkai, txertagai bakoitza alfabetatuta.

Edonola ere, kontuan hartzen ditugu pertsonen aurreiritziak diglosian diren ereduaren aurrean portaera desberdina erakutsiko dute eta.

3. Beti ere, eskolaren zeregina hizkuntza formala irakastea izanik, galdeketa bidez neurtu dugun euskalkia eta euskara batuaren arteko ukipenaren emaitzek erakusten digutenez, ikasleak bizkaiera eskolan/ikastolan/ikastetxean lantzen ez badu:

3.1. Ez du ikusten kasu ugaritan ahozkoaren desberdintasunen atzean berba bera dagoenik eta, ondorioz, bizkaiera, euskara batua edo espainola/frantsesa ez bezala etxerik etxe desberdina dela uste du –ahozko testuak eta idatziak desberdinak direla ohartu barik–, gramatikarik gabea, prestigio bakoia, eskolatik at lagatzekoa, baztergarria, eta ez du bere euskalkikorik euskara batura eramango.

3.2. Etxetik artez dakartzan formen gaineko kontzientziarik ez hartzean, erraz ordezkaturiko ditu nahiz forma okerrak hartu zein alferriko interferentziak bereganatu.

3.3. Ez da jakitera iritsiko euskalkian eta euskara batuan badirela bat ez datozen forma anitz.

3.4. Euskara batua uniforme dela usteko du eta ez da ohartuko bilgunea dela, komunekoa.

3.5. Pentsaturiko du euskara batua eta euskara ikasia gauza bera dela.



3.6. Ez da ohartuko euskara batuko berba asko bere euskarakoak ere badirela, euskara batua berea ere badela edo bere euskalkian euskara batuari ekarria egiteko aberastasun bereziak daudela.

3.7. Fosilizatu egingo zaizkio euskalkia zein euskalkiko formak, kontestu, erabilera bakarrari atxikirik geratzean.

3.8. Bizkaierako erabilera bereziak baztertzean, isiltzean, galtzean, euskara osoak galtzen du.

4. Lekuan lekuko euskara bizi den antzera, eskolak ere lekuan lekukoak direnez, bizkaiera halako hiru mailetarik bati jarraituta planifika daiteke, beti ere, tesian bertan ezartzen dugun Euskalkirako Curriculumari jarraiturik:

4.1. Marka bako maila:

Bizkaierarik gehiena euskara batuan sartu delarik, euskara osotu hori eskolan irakastea izango litzateke, euskara batua mendebaldeko erara, mendebaldekotik euskara estandarretako egin daitekeen ekarria aintzat harturik, bizkaierako formak euskara osoko legez sistematikoki azalduta. Berba baten, mendebaldeko euskaldunok erabili gurako genukeen euskara batua, geure-geuretzakotzat joko genukeena.

4.2. Maila markatuak:

4.2.1. Oinarrizko maila:

Maila honetan ez da ikasgairik bizkaieraz irakasten, bizkaiera eskolako Euskarako Departamentuak irakasten du, nahiz eta irakasle guztien lankidetzaz. Bizkaiera literarioa irakatsiko da -halan da ze euskara batuan tokirik ez duten formak ere bai- baita azpieuskalkia ere. Adibiderako, euskara batuko *dute*, bizkaiera literarioan *dabe* izango da eta azpieuskalkia Txorierrikoa bada *deurie*.

Bizkaieraren irakaskuntza eskolara sartzearekin hasten da eta ez du etenik ezagutu behar.

4.2.2. Maila jaso:

Maila jaso honetan, Oinarrizko Maila osoaz gainera, irakasgaiak ere irakasten dira. Gaiok bizkaieraz ikastearen barruan, teorikoki, eredu anitza proposa daiteke eta, praktikan, guk geuk jardun dugu jokabide desberdinetako zentroetan galdeketak jartzen.

VII. ATALA

---

**BIBLIOGRAFIA**

---

- ACOSTA, V. M. eta lankideak. (1996): *La evaluación del lenguaje*. Málaga: Aljibe.
- ADOREZ-5. *Eskola Hiztegia*. (1991): Bostak Bat lantaldea: Badiola, R.; Baraiazarra, L.; Goikoetxea, J. L.; Solabarrieta, Tx.; Aurrekoetxea, G.; Uribarren, P. Bilbo.
- ADOREZ-6. *Europa Hiztegia*. (1993): Bostak Bat lantaldea: Badiola, R.; Baraiazarra, L.; Goikoetxea, J. L.; Solabarrieta, Tx.; Aurrekoetxea, G.; Uribarren, P. Bilbo.
- ADOREZ-7. *Diccionario 3000. Hiru mila hiztegia*. (1996): Bostak Bat lantaldea: Badiola, R.; Baraiazarra, L.; Goikoetxea, J. L.; Solabarrieta, Tx.; Aurrekoetxea, G.; Uribarren, P. Bilbo.
- ADOREZ-8. *Sinonimoen Hiztegia*. (1999): Bostak Bat lantaldea: Badiola, R.; Baraiazarra, L.; Goikoetxea, J. L.; Solabarrieta, Tx.; Aurrekoetxea, G.; Uribarren, P. Bilbo.
- AGIRRE, J. M. eta lankideak. (1985): *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian: arazoak eta zenbait proposamen*. Derio.
- AKESOLO, L. (1976): *Diccionario Retana de autoridades del euskera*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.
- AKESOLO, L. (1989): *Idazlan guztiak*. Karmel Sorta. Larrea-Zornotza.
- ALARCOS, E. (1981): *Gramática estructural*. Madrid. Gredos.
- ALBERDI, A. (1996): *Eskola Gramatika*. Donostia. Elkar.

- ALTONAGA, K. (1997): “Bizkaiera Unibertsitatean”, in *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*, 1. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- ALTUNA, P. (1973): “La lingüística aplicada a la enseñanza del euskera y la enseñanza en euskera”, in *II Semana de antropología vasca*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca.
- ALTUNA, P. (1985). “Bonaparte eta aita Aranak elkarri egin kartak”, in *FLV, XVII, 46*.
- ALVAREZ MENDEZ, J. M. (1987): *Didáctica de la lengua materna*. Madrid. Akal.
- AMMON, U. (1989): “Teaching materials for dialect speakers in the F. R. of G.: The contrastive booklets”, in *Dialect and Education*. Clevedon-Philadelphia. Cheshire, J. et al. Multilingual Matters LTD.
- AMMON, U.; MATTHEIER, K. J.; NELDE, P. H. *Sociolinguistica*. International Yearbook of European Sociolinguistics. Niemeyer.
- AMURIZA, X. (1996): *Bizkaierazko hiztegi errimatua*. Donostia. Bertsozale Elkartea.
- AMURIZA, X. (1998): “Bizkaierazko gitxieneko hiztegia”, in *Mendebaldeko euskararen ekarria*, 2. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- ANTÚNEZ, S. eta lankideak. (1996): *Del proyecto educativo a la programación de aula*. Barcelona. Graó.
- APPEL, R. (1988): “The language education of immigrant worker’s children in the Netherlands”, in *Skutnabb-Kangas eta Cummins*.
- APPEL, R.; MUYSKEN, P. (1996): *Bilingüismo y contacto de lenguas*. Barcelona. Ariel.
- ARANBARRI, I. (1999): “Hizkuntzaren koloreak”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- AREJITA, A. (1986): “Euskara batua eta euskalkien arazoa hezkuntzan”, in *Eibarko Udala*. 163-180 orr.
- AREJITA, A. (1993): “Bizkai euskeraren ekarria batasunera”, in *Jakin* 76, 1993 maiatza-ekaina, 63-77orr.

- AREJITA, A. (1997): “Bizkai euskera idatziaren morfologia-eredurako zertzeladak”, in *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*, 1. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- AREJITA, A. (1998a): “Bizkaieraren eredu idatzirako norabideak. I. Atze-hitz eta adizki batzuk”, in *Mendebaldeko euskararen ekarria*, 2. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- AREXOLA-LEIBA, J. (1994): “Nazio eta herri mailako barietateen erabilera normalizazioranzko prozesuan Arrasaten”. *ASJU-XX-VII*.
- ARIZTONDO, J. (1996): “Zein da euskalkien zeregina euskararen normalkuntzan”, in *HAE*, 20 or.
- ARNAU, J. eta lankideak. (1992): *La educación bilingüe*. Universitat de Barcelona. ICE-Horsori.
- ASKOREN ARTEAN. (1989): *Euskara-irakaslearen liburua*. Donostia. H.A.B.E.
- ASKOREN ARTEAN. *BAT* aldizkaria. (1991-6): Donostia: EKB.
- ATUCHA, K. (1978): *Desarrollo lingüístico, dominio lector y capacidad creativa de los niños bilingües*. (Tesia. Apunteetan).
- AURREKOETXEA, G. (1995): *Bizkaieraren egituraketa geolinguistiko*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AURREKOETXEA, G. (2000): “Bizkaieradunok euskara estandarren aurrean”, in *Mendebaldeko berbetearren formalizazioa*, 4. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- AUSUBEL, D. P.; MONTEMAYOR, R.; SVAJIAN, P. N. (1977): *Theory and problems of adolescent development*. New York. Grune & Stratton.
- AUSUBEL, D. P.; NOVAK, J. D.; HANESIAN, H. (1993): *Psicología Educativa*. Mexico. Trillas.
- AUSUBEL, D. P.; ROBBINS, L. C. Y BLAKE, E. “Retroactive inhibition and facilitation in the learning of school materials”, in *Journal of Educational Psychology-48*.
- AZKARATE, M. (1996): “Zein da euskalkien zeregina euskararen normalkuntzan”, in *HAE*, 20 or.

- AZKARATE, M. (1999): "Euskaltzaindiaren Araugintza" (IV). Aramaio: IV. Jagon Jardunaldiak. *Euskera* 1999, 2. (2. aldia).
- AZKUE, R. M. (1933): "Primer apéndice de la Morfología Vasca. Conjugación del verbo guipuzcoano". Bilbao. Euskaltzaindia. *Euskera* XIV (1. aldia).
- AZKUE, R. M. (1969): *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca.
- AZZATI, F. (1972): "Discurso ante la Asamblea Republicana", in *Idioma y poder social*. Madrid. Tecnos.
- \* \* \*
- BADIOLA, R. (2000): "Muxigoibarko lexiko figuratiboaz", in *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, 4. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- BADIOLA, R. (1979): "Perpaukausalak: *Peru Abarka* eta *Laborantzako liburua*", *Euskera*, XXV, 1980, 2 (2. aldia).
- BAKKER, P.; BILBAO, G.; DEEN, N. G. H.; HUALDE, J. I. (1991): *Basque pidgins in Iceland and Canada*. Donostia. ASJU-XXIII.
- BARAIAZARRA, L. eta Urkiza J. (2000): *Frai Bartolome Santa Teresa. Idazlan guztiak*. Edizio kritikoa. Euskararen lekukoak bilduma, 17. Euskaltzaindia. Bilbo.
- BARREÑA, A. (1995): *Gramatikaren jabeakuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BARRUSO, A. (2000-01-10): *Bergarako Aranzadi Ikastolako Praktika*. Durango. PAT.
- BARRUTIA, E. (1993): *Mundakako arrantzaleen jakituriaren lexiko eta enziklopedia*. Deustuko Unibertsitatean (mikrofilmean).
- BARRUTIA, E. (2000): "Arrainen izenak Mendebaldean", in *Mendebaldeko euskararen ekarria*, 2. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- BASTERRECHEA, J. "OSKILLASO" (1984): *El libro negro del euskera*. Bilbao. La Gran Enciclopedia Vasca.
- BASTERRETXEA, I. eta lankideak. (1997): *Euskal Alfabetatzearen Historia*. Bilbao. Labayru.

- BAXOK, E. (1986), “Euskara Euskalkiak”, in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera. *ASJU*, XXVIII.
- BAXOK, E. (2000): “Euskara Iparraldean”, in *Larrun*, 36, 2000ko iraila, 4 or.
- BERNÁRDEZ, E. (1987): *Lingüística del texto*. Madrid. Arco.
- BIDART, J. (1996): “Euskara batua/ euskalkien erabilera Iparraldeko hiru irratietan”, in *Euskera*, XLI (1996, 3), (2. aldia).
- BIDEGAIN, X.; AURREKOETXEA, G. (1993): “Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa: Galdesorta”. *Euskera*. Euskaltzaindia. Bilbao.
- BILBAO, L. (1993): “Kili-Kili eta Bizkaiko euskerea”, in *Bilboko Udala*. Barrainkua Udal Kultur Etxea, 239-251 orr.
- BILBOKO UDALA. (1993): *II. Jardunaldiak Soziolinguistikaz*. Bilbao.
- BOGAARDS, P. (1998): *Hiztegia hizkuntza arrotzen ikaskuntzan*. Donostia. HABE.
- BORDA, I. (1999): “Euskalkiaren kezka funtsaz”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.
- BRONCKART, J. P. eta lankideak. (1990). *Hizkuntzaren psikopedagogia*. Bilbao. Labayru.
- BUTRON, J.; DE PEDRO, J. (1993) *Euskal Hizkuntza eta Literatura*. Donostia. Erein.

\* \* \*

- CALVET, L. J. (1987): *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris. Payot.
- CAMINO, I. (1998): “Nafarroako hizkerak”. *Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. Bilbao. UEU.
- CASSANY, D. (1991): *Describir el escribir*. Barcelona-Buenos Aires. Paidós.
- CHESHIRE, J.; EDWARDS, V.; MÜNSTERMANN, H.; WELTENS, B. (1989): *Dialect and Education*. Clevedon-Philadelphia. Multilingual Matters.
- CHEVILLET. (1993), in *Nafarroako hizkerak* (1998). Bilbao. UEU.

- CHING, C. D. (1984): *Cómo aprende a leer el niño bilingüe*. Madrid. Cincel.
- CHOMSKY, N. (1989): *El conocimiento del lenguaje*. Madrid. Alianza.
- COLL, C. (1988): “Significado y sentido en el aprendizaje escolar”, *Revista Infancia y Aprendizaje*, 41, 131-142 orr.
- COLL, C.; SOLÉ, I. (1989): “Aprendizaje significativo y ayuda pedagógica”, *Cuadernos de Pedagogía*, 168, 16-20 orr.
- COLL, C. (1992): *Psicología y curriculum*. Barcelona. Paidós.
- COLL, C. ET AL. (1990): *El constructivismo en el aula*. Barcelona. Graó.
- COLL, C. (1988): “Significado y sentido en el aprendizaje escolar. Reflexiones en torno al concepto de aprendizaje significativo”, in *Infancia y aprendizaje*, nº 41. Barcelona.
- CONGRESO, ACTAS. (1988): *Adquisición de lenguas*. Santander. A.E. de L.A.

\* \* \*

- DAVANT, J.-L. (1996): “Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean”, in *Euskera*, XLI (1996, 3) (2. aldía).
- DAVILA, P. (1995): *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco*. Donostia. Ibaeta-Pedagogia.
- DAVILA, P. (1995): *Lengua, escuela y cultura*. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- DUBOIS, J. ET AL. (1979): *Diccionario de Lingüística*. Madrid, Alianza.
- DUVOISIN, J. (1866): *Etude sur la déclinaison basque*. Bayonne.

\* \* \*

- ECO, U. (1991): *Cómo se hace una tesis*. Barcelona, Gedisa.
- EGUZKITZA, A. (1999): “Batuerea eta Bizkaiera: literatur-hizkuntzea eta dialektoak”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkartea.



- ELEXPURU, J. M. (1996): “Herri-euskararen eremua”, in *Euskera*, 41, 1996, 3. (2. aldia). Bilbao. Euskaltzaindia.
- ELEXPURU, J. M. (2000-VII-05): Herri-euskararentzat lekutxo bat, mesedez, in *Jagon Saila*. Euskaltzaindia. Eskurik eskura. Euskakien lantaldean.
- ELIZALDE, L. (1919): *Cuatro conferencias*. Editorial Vasca. Euzko argitaldaria.
- EPALTZA, A. (1999): “Ekialdetik Mendebaldera”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- ERRIONDO, L.; GARAGORRI, X.; ISASI, X. (1998): *Hezkuntzaren normalkuntza*. Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
- ERZIBENGOA, J. (1973): *Pedagogia gaur*. Bilbo. Gero.
- ETXEBARRIA, G. *Recherche sur l'enseignement de la langue basque en Pays Basque de France*. Thèse. Université de Bordeaux III.
- ETXEBARRIA, I. (1996): “Bizkaiera? Batua? Euskera”, in *Mendebaldeko euskara XX. mende goienera*. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- ETXEBARRIA, J. R. (1992): “Zientziaren arloko euskararen batasunaz”, in AEK, 99-112 orr.
- ETXEBARRIA, J. M. (1991): *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Zornotza. Ibaizabal.
- ETXEBERRIA, Pilartxo (1994): “Hizkera jasoaren ingurukoak (II)”, *Euskera* 39, 1994, 3 (2. aldia).
- ETXEBERRI, J. (1712) “Lau-urduri gomendiozco carta edo guthuna”, in *Obras Vascongadas del Doctor labortano Joannes d'Etcheberri*. Paris. 1907.
- ETXEZARRETA, I; GARAGORRI, X; OSORO, I. (1984): “Elebitasuna ikastoletan”, *Jakin*, 32, 36-69 orr.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA (2000): “Bizkaiera sustatzeko hainbat ekimen”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-I-25, 17. or.
- EUSKALTZAINDIA (1968a): “Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak Arantzazun”, *Euskera*, XIII (2. aldia). Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1968b): “Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria”, *Euskera* XIII (2. aldia). Bilbo.

- EUSKALTZAINDIA (1978): *Euskararen Liburu Zuria*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1979, 1): “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak. Euskaltzaindiaren agiria”, in *Euskera*, XXIV (2. aldia). Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1979b): “Euskera batua eta euskalkiak irakas-kuntzan”, in *Euskera*, XXIV, (1979, 2) (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIA (1993). *Euskal Gramatika Laburra*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1994a): *Euskaltzaindiaren Arauak*. Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA (1994b) “Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra. Leioa”. Bilbao. In *Euskera*, 1994, 3 (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIAREN JAGON SAILA (1994, 1): “I. Jagon jardunaldien ondorioak”. In *Euskera*, 39, (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIA (1995): Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. hizkuntza eskakizunetan”. In *Euskera*, 40, (2. aldia). Bilbo.
- EUSKO IKASKUNTZA (1995): *XII Congreso de Estudios Vascos: Estudios Vascos en el Sistema Educativo = Eusko Ikaskuntzak. Hezkuntza Sarean*. (Vitoria-Gasteiz, 1993), Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- EUSKO JAURLARITZA (1982): “Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan”, Gasteiz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *EJAZN*.
- EUSKO JAURLARITZA (1983): Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Bizkaieraren idatzizko arauak, Gasteiz, *EJAZN*.
- EUSKO JAURLARITZA. (1989): Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila: *Bizkaierazko joskera*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA (1992): *Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik bizkaierari ematen zaion tratamendu sozio-politiko*, in Eusko Ikaskuntzen Institutua. Deustuko Unibertsitatea (1992).

\* \* \*

FALCON, X. (1992): “Hizkuntza batua eta estandarra”. AEK (1992).

- FELIPE, N. de (1993): *Kantagintza eta bizkaiera*, in Bilboko Udala. Barrainkua Udal Kultur Etxea.
- FERGUSON, C. A. (1996): “Diglossia”, in HUEBNER, T. (ed.) (1996) 25-39 or. (lehenengo, 1959an argitaratua, in *Word*, 15).
- FERNANDEZ, S. (1985): *Conquista del lenguaje en preescolar y ciclo preparatorio*. Madrid. Narcea.
- FISHMAN, J. (2000): Elkarriketa, in *IVAP*, 27. Vitoria/Gasteiz.
- FISHMAN, J. A. (1965): “Who speaks what language to whom and when?” Linguistics-2, in *Bilinguismo y contacto de lenguas*. APPEL, R. Y MUYSKEN, P. Barcelona. Ariel.
- FISHMAN, J. A. (1967): “Bilingualism with and without diglossia, diglossia with and without bilingualism”, in *The Journal of Social Issues*, 23.
- FISHMAN, J. A. et al. (1968): *Bilingualism in the Barrio*. Bloomington. Indiana University Press.
- \* \* \*
- GAMINDE, I. (1988): *Ahozko Bizkaieraz*. Bilbo, AEK.
- GAMINDE, I. (1990): *Bilbo, berbaz berba*. Bilbo, Bilboko Udala.
- GAMINDE, I. (1992a): “Euskara batua eta euskararen irakaskuntza”, in *AEK* (1992), 139-142. orr.
- GAMINDE, I. (1992b): *Urduliz ingeru, berbak eta bizimodu*. Urdulizko Euskera Taldea.
- GAMINDE, I. (1996): “Zein da euskalkien zeregina euskararen normalkuntzan”, in *HAEE* (1996).
- GAMINDE, I. (1999): “Lekuan lekuko euskalkiaren ikerketak irakaskuntzan”, in *Hezkuntza Saileko H Ikastaroa Txorierriko irakasleei hogeitaz ordutuz*. Testu idatzia eta grabatua. Derio. *Txorierrri* Institutua.
- GARATE, G. (1995a): “Bizkaiera”, *Karmel*, 211, 1995-1/2, 183-214. orr.
- GARATE, G. (1995b): “Aramaio, bizkaiera”, *Euskera*, 40 (2. aldia), 1995, 2.
- GARATE, G. (1996): “Bizkaiera eta gipuzkera”, *Jakin*, 92, 89-103 orr.

- GARATE, G. (2000): Egungo egunean egiten diren hutsik usuenak, in *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, 4. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- GARATE, G. (1988): *Erdarakadak*. Gero. Mensajero. Bilbao.
- GARATE, G. (1998): *Atsotitzak*. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. Bilbao.
- GAZTELUETA FUNDACIÓN (1993): *I Jornadas Internacionales de Educación Plurilingüe*. Getxo.
- GILES, H. ET AL. (1973): "Towards a theory of interpersonal accommodation through language: some Canadian data", in *Language in society*, 2.
- GOENAGA, P. (1995): "Euskararen batasunaz eta duintasunaz", in *Euskera*, 40. 1995, 3 (2. aldia). Bilbo. Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J eta PETRIRENA, P. (1996): "Erregistroak bereizteko premia", *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-X-22, 10. or.
- GOIKOETXEA J. L. (1999): "Bizkaieraren Orbiztea", in *Karmel*, 226.zk; 28-36. orr.
- GOIKOETXEA, J. L. (1991): "Axularren estilotik". *Euskera*, XXXVI, 1991, 2. (2. aldia). Bilbo. Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J. L. -lankidetzan- (1995): "Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. Hizkuntza eskakizunetan", in *Euskera*, 40. 1995, 2-3, Bilbo. Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J. L. (1994): "Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak", in *Euskera*, 39, 1994, 3. (2. aldia). Bilbo. Euskaltzaindia.
- GOIKOETXEA, J. L. (1996): *Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan*. Ikasketa lizentziako ikerlana. Eusko Jaurlaritz.
- GOIKOETXEA, J. L. (1996): "Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan", in *Euskera*, XLI 1996, 3. (2. aldia), Bilbo.
- GOIKOETXEA, J. L. (1997a): "Hamalau erantzun bizkaieraren irakaskuntzari", in *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*, 1, in Mendebalde Kultur Elkarte.

- GOIKOETXEA, J. L. (1997b): “Aurkezpena”, in *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- GOIKOETXEA, J. L. (1999): “Euskalkiak ikasgelan”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1999-X-02, 3. or.
- GOIKOETXEA, M. J. (1993): *Eskola eta hizkuntza/Escuela y lengua*. Donostia. Txertoa.
- GOMEZ, J. R. (1995): *El español como lengua materna*. Universitat de València.
- GOROSTIAGA, J. (1947) “La semana vasca: El sistema y los nombres de los días, E-J, I.”. Azkue Biblioteka. Bilbao. Euskaltzaindia.

\* \* \*

- HAEE-IVAP (1996): “Eztabaida: euskalkien tokia euskararen normal-kuntzan”, *Administrazioa euskaraz*, 12, Gasteiz, 20-21. orr.
- HARITSCHELHAR, J. (1970): “L’oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun”, *Euskera*, XIV-XV, 1970 Bilbo, (2. aldia).
- HARITSCHELHAR, J. (1991): “*Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (liburuki bi). Euskaltzainburuaren hitzak”, *Euskera*, 36, (2. aldia). Bilbo.
- HARITSCHELHAR, J. (1993): “Euskaltzaindiaren 75. urtemuga”, *Euskera*, 38 (2. aldia).
- HARITSCHELHAR, J. (1996): “Aita Juan Mateo Zabala: *Sermoiak* (1)”, *Euskera*, 41 (2. aldia).
- HAUGEN, E. (1996): “Dialect, Language, Nation”, in HAUGEN, E. (1972), 237-254. orr., in *American Anthropologist*, 68-4, 922-935. orr.
- HERAS BORRERO, J. DE LAS (1987): “Hacia la programación diferenciada del lenguaje para “andaluces parlantes”, in *M.E.C.*, 179-197. orr.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. (1981): *Hizkuntzen irakaskuntza: Topikoak eta metodologiak*. Vitoria/Gasteiz.
- HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. Euskara Zerbitzua. (1991): *Eskola hiztun bila*. Vitoria/Gasteiz.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA. (1992): *Oinarrizko Curriculum Diseinua*. Vitoria/Gasteiz.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA.(2000): *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua*. Vitoria/Gasteiz.

HILGARD, E. R. (1964): "A perspective on the relationship between learning theory and educational practices", in *Psicología educativa* (1993) México. Trillas.

HUALDE, J. I.; ELORDIETA, G.; ELORDIETA, A. (1994): "The basque dialect of Lekeitio". *ASJU*, XXXIV.

\* \* \*

IBARRA, O. (1995): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruñea. Nafarroako Gobernua: Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteen Departamentua.

IDIAZABAL, I. (1981): "Hizkuntzaren psikopedagogia", *Euskal Herri Saila* 4, Bilbo, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, 195-212. orr.

IDIAZABAL, I. (1984): "Euskara eta eskola", in *Ruiz Olabuenaga eta Ozamiz* (1986), 167-181. orr.

IDIAZABAL, I. (1987a): "Euskararen eskolatzeaz. Helburuak zehazten", *Eguna*, 1987-X-22, 11. or.

IDIAZABAL, I. (1987b): "Euskararen eskolatzeaz. Euskal eskola elebidunak berdina behar ote du izan haur euskaldunen eta haur erdaldunen zat?" , *Eguna*, 1987-X-29, 11. or.

IDIAZABAL, I. (1987c): "Euskararen eskolatzeaz. Normatiba batua- ren mitoak eta korapiloak", *Eguna*, 1987-XI-05, 11. or.

IDIAZABAL, I. (1987D): "Euskararen eskolatzeaz. Gramatika eta normatiba euskarazko programetan", *Eguna*, 1987-XI-12, 11. or.

IDIAZABAL, I. (1992): "Euskararen normalkuntza eta kurrikuluma- ren berrikuntza", in *Idiazabal, I. (1992a)*, 17-29. or.

IKASTOLA ALDIZKARIA (1998): "Euskalkiak oreka berri baten bila", 74. zkia, 1998ko azaroa, 10-12. orr.

IKASTOLETAKO IRAKASLEAK (1971): "Ikastolak eta euskera ba- tua. Loiolako agiria", *Anaitasuna*, 203, 1. or.

- IÑIGO, A. (1996): “Zein da euskalkien zeregina euskararen normalkuntzan”, in *HAEE*, 20. or.
- INTXAUSTI, J. (1960): *Euskal Aditza. Gipuzko-Bizkaierak*. Oñate. Arantzazu.
- IRIGOIEN, A. (1991): “Euskal hizkuntzaren mailak”, in “Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum”. *ASJU*, XIV.
- IRIGOIEN, A. (1981): “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuak Gasteiztik Euskaltzaindiari bialdu deutzan *Euskararen erabilera Bizkaiko irakaskuntzan* delakoari oharrak”, in *Iker*, 2. Euskaltzaindia, 275-278. orr.
- IRIGOIEN, A. (1997): *Opera selecta*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao.
- ITHURRY. (1979): *Gramaire Basque, Dialecte Labourdin*. Ediciones Vascas.
- ITURBE, J. (2000): “Mendebaldeko euskal deklinabide idatzirako proposamenak”, in *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, 4. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.

\* \* \*

- JAKIN ALDIZKARIA. (1993). *Euskara batua eta euskalkia*. 76. liburukia.
- JUNKOVIC, Z. (1998): “Une langue, deux standards. L'exemple du serbo-croate”, *Travaux du Cercle Lingüistique de Nice* 10-11, 123-133. orr.

\* \* \*

- KAPANAGA, B. (1986), “Euskara euskalkiak”, in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera normalizazioranzko prozesuan Arrasaten: *ASJU*, XXVIII.
- KINTANA, X. (1969): “Ta ekin batasunaz”, *Anaitasuna* 175, 1. or.
- KINTANA, X. (1986): *Literatur euskara batua eta euskalkiak*, in Eibarko Udala, 149-161. orr.
- KINTANA, X. (1992): “Batasunerako pausoak gogoratuz”, in *AEK*, 23-49. orr.

- KINTANA, X. (1994): “Ahozko eta idatzizko tradizioen sokatiran”, in *Palazio*, G. (1994), 97-108. orr.
- KNÖRR, H. (1988): “Euskalkia aitzakia”, *El Correo*, 1988-IV-14 (El Correo Escolar/Asteroko gehigarria).
- KNÖRR, H. eta ZUAZO, K. (1998): *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak./El euskara alavés. Estudios y textos*. Vitoria/Gasteiz. Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco.
- KUHN, Th. S. (1979) “Struktur wissenschaftlicher Revolutionen”, in *¿Existe Dios?* Madrid. Cristiandad.
- KULTURA SAILA. (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Vitoria/Gasteiz.

\* \* \*

- LACOMBE, G. (1952): “Langue basque”, in *Les langues du monde*. Paris. CNRS.
- LAFON, R. (1955): “Notes pour une édition critique et une traduction français des poésies d’Oihenart”, in *ASJU*, II.
- LAKARRA, J. (1992): *Bizkaieraren lekua gaur*. Bilbao. Deustuko Unibertsitatea.
- LARIOS, M. del Carmen (1997): “El español de Mexico y la norma lingüística en educación”, *Textos 12*, Barcelona, Graó, 29-36. orr.
- LARRINGAN, L. M. (1993): “Euskara batua eta euskalkiak. Aintzat hartu beharreko praktikak”, in *Jakin*, 76, maiatza-ekaina, 11-39. orr.
- LASPIUR, I (1986): *Euskara batua-Euskalkiak elkarraldien irekiera*, in Eibarko Udala (1986), 15-22. orr.
- LASPIUR, I. (1999): *Eibarrera jatorraren bidetik. ...eta kitto!* Eibar. Euskara Elkarte.
- LEIÇARRAGA, J. (1900): *Testamentu Berria*, Strassburg: Baskische Bücher von, 1571.
- LEWIN, K. (1948): “Resolving Social Conflicts”, in *Idioma y poder social*. Madrid. Tecnos.
- LEWIS, M.; HILL, J. (1988): *Hizkuntz irakaskuntzarako teknika praktikoak*. Donostia. HABE.



- LICERAS, J. M. (1996): *La adquisición de las lenguas segundas y la gramática universal*. Madrid. Síntesis.
- LIEBERSON, S. (1981): *Language Diversity and Language Contact*. California. Stanford University Press.
- LINUESA, M.; DOMÍNGUEZ, A. B. (1999): *La enseñanza de la lectura*. Madrid. Pirámide.
- LITTLEWOOD, W. (1998): *La enseñanza comunicativa de idiomas*. Cambridge.
- LOPEZ DEL CASTILLO, LL. (1976): *Llengua standard y nivells de llenguatge*. Barcelona. Laia.
- LOPEZ DEL CASTILLO, LL. (1988): *Quina llengua i quina escola*, Barcelona. Aliorna.
- LOPEZ, G. (1998): Helduen euskalduntze-alfabetatzea. Bizkaian zein hizkuntza eredu?”, in *Mendebaldeko euskararen ekarria*, 2. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- \* \* \*
- MACKEY, W. F. (1976): *Bilinguisme et contact des langues*. Paris. Klincksieck.
- MAIA, J. (2000): *Eskola hizkera ereduaz, euskara batuaren eta euskalkiaren arteko harremanen testuingurua*. Doktore tesia. Bilbo. Irakaslego Eskola.
- MARTINET, A. (1967): *Eléments de linguistique générale*. Paris. Armand-Colin.
- MARTOS, E. (1997): “La construcción de la norma: del lenguaje del aula a la modalidad lingüística extremeña”, *Textos 12*, 67-75. orr.
- MAURIS, J. (1987): *Politique et aménagement linguistiques*, Paris, Gouvernement du Québec- le Robert (Collection L'ordre des mots).
- MAURI, T. (1994): “Qué hace que el alumno y la alumna aprendan los contenidos escolares. La naturaleza activa y constructiva del conocimiento”, in *Coll eta beste batzuk*, 65-100. orr.
- MENDEBALDE KULTUR ELKARTEA (1997): *Mendebaldeko euskera XX. mende goiengan*, 1. Bilbao.

- MENDEBALDE KULTUR ELKARTEA (1998): *Mendebaldeko euskeraren ekarria*, 2. Bilbao.
- MENDEBALDE KULTUR ELKARTEA (1999): *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Bilbao.
- MENDEBALDE KULTUR ELKARTEA (2000): *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, 4. Bilbao.
- MENDIBIL, G. (1993): “Kantagintza eta bizkaiera”, in *Bilboko Udala*, Barrainkua Udal Kultur Etxea, 99-103. orr.
- MENDIGUREN, X. (1996): “Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta”, *Euskera*, 41, 1996, 3 (2. aldia).
- MITXELENA, K. (1990): *Fonética Histórica Vasca*. Gipuzkoako Foru Aldundia. *ASJU*, IV.
- MITXELENA, K. (1960): “Guipuzcoano y vasco”, in *BRSAP*, XVI.
- MITXELENA, K. (1964): *Sobre el pasado de la lengua vasca*. San Sebastián. Auñamendi.
- MITXELENA, K. (1964): *Textos Arcaicos Vascos*. Madrid. Minotauro.
- MITXELENA, K. (1970): “Pro domo”. *EGAN*, 1-3.
- MITXELENA, K. (1981): “Lengua común y dialectos vascos”. *ASJU*, XV.
- MITXELENA, K. (1985): *Lengua e historia*. Madrid. Paraninfo.
- MÜHLHÄUSLER, P. (1981): *Structural expansion and the process of creolization*, in Valdman and Highfield eds.
- MUJIKA, J. A. (1996): *Bakarka: Método de aprendizaje individual del euskera*. Donostia. Elkar.
- MUNIOZGUREN, F. (1993): “Herri-komunikabideak: lekuan lekuko euskara eta standarraren trataera”, in *Bilboko Udala*. Barrainkuako Udal Kultur Etxea, 187-195. orr.

\* \* \*

- NARBAIZA, A. (1998): *Eibarko euskara: gutxiespenaren historia*. Eibarko Udala. Euskara batzordea.
- NELDE, P. H.; URELAND, P. S.; CLARKSON, I. (1986): *Language Contact in Europe*. Tübingen. Max Niemeyer Verlag.
- NINYOLES, R. (1972): *Idioma y Poder Social*. Madrid. Tecnos.

NORMAN, D. A. (1985): *Aprendizaje y memoria*. Madrid. Alianza Psicología.

NOVAK, J. A. (1982): *Teoría y práctica de la educación*. Madrid. Alianza editorial.

\* \* \*

OCIO, B.; IDIAZABAL I. (1990): Estandarización y escolarización Procesos paralelos e interdependientes. El caso del euskara, in *Lengua del alumno, Lengua de la escuela*. Barcelona. ICE Universitat.

OIHARTZABAL, B. (1993): “Euskara batuari Iparraldetik behatuz”, in *Jakin 76*, 1993 maiatza-ekaina, 79-89. orr.

OIHARTZABAL, B.(1996): “Euskara batua eta euskalkiak”, *Euskera*, 41 (2. aldia), 511-515. orr.

OREGI eta lankideak. (1985): *Euskara Euskalkiak*. Eibarko Udala.

ORMAZABAL, M.; ALKORTA, K. (1998): “Batua, euskalkiak osatu, indartu eta joritu beharrekoa”, in *Mendebaldeko euskeraren ekarria*, 2. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.

ORTEGA, G. (1997): “El habla canaria y la norma castellana en la enseñanza”, *Textos 12*, 47-54. orr.

OSA UNAMUNO, E. (1990): *Euskararen hitzordena*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

\* \* \*

PAGOLA, R. M. eta lankideak. (1992): *Euskalki literarioak*. Bilbao. Labayru.

PAGOLA, R. M. (1996): “Zein da euskalkien zeregina euskararen normalkuntzan”, in *HAEE-IVAP*, 20. or.

PALAZIO, G. (1992): “Euskara batuari buruzko hausnarketak”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-I-14, 24. or.

PEILLEN, T. (1998): *Conception du monde et culture basque*. Montréal. Canada. L'Harmattan.

PERONA, J.; NICOLÁS, C. (1997): “El habla murciana y la norma castellana en la enseñanza”, *Textos 12*, 55-65. orr.

PIAGET, J. (1975): “To understand is to invent”, in *Psikología educativa*. México. Trillas.

POPPER, K. R. (1963): *Conjetures and Refutations*. "The Growth of Scientific Knowledge", in *¿Existe Dios?* (1979): Madrid. Cristianidad.

PSIKOLOGIA HIZTEGIA (1998): UZEI-EHUko Donostia, Psikologia Fakultatea.

\* \* \*

REBUSCHI, G. (1983), *Euskararen hitzordena*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa.

REFRANES Y SENTENCIAS (1596). Joseba Lakarra, edizio kritikoa. Bilbao, Euskaltzaindia, 1996.

REMENTERIA, J. M. (1993): *Eleizea eta bizkaiera*, in Bilboko Udala. Barrainkua Udal Kultur Etxea, 71-97 orr.

REVISTA DE OCCIDENTE. (1982): *El bilingüismo: Problemática y realidad*. Madrid.

ROMANO, D. (1985): *Elementos y técnica del trabajo científico*. Barcelona. Teide.

ROPERO, M. (1985): "Identidad sociolingüística del andaluz", in *Sociolingüística andaluza* 1, P.U.S., Sevilla, 23-47. orr.

ROTAETXE, K. (1986): "La norma vasca: codificación y desarrollo", *Revista Española de Lingüística* 17-2, 219-244. orr.

ROTAETXE, K. (1990): *Sociolingüística*. Madrid. Síntesis.

ROTAETXE, K. (1991): "Hizkuntza sistema eta dialektologia", in *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra*. Iker, 1, Bilbao. Euskaltzaindia.

RUIZ BIKANDI, U.; TUSÓN VALLS, A. (1997): "Variedades geográficas del español y norma lingüística", *Textos* 12, 5-8. orr.

\* \* \*

SALA, M. (1998): *Lenguas en contacto*. Madrid. Gredos.

SALABURU, P. (1994): "Euskara batuaren egungo premiak", *Euskera* 39, 1994, 3 (2. aldia).

SALMONS, J. (1992): *Accentual Change and Language contact*. Great Britain. Routledge.

- SÁNCHEZ CARRIÓN “TXEPETX”, J. M. Elkarrizketa, *IVAP-2000*ko uztaila.
- SÁNCHEZ CARRIÓN J. M. (1976): “Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas”, in *FIHZ*, VIII, 3.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J.M. (1991): “Un futuro para nuestro pasado”. *ASJU*, XX, Gehigarriak.
- SANKOFF, G. (1972): In *Language use in multilingual societies: Some alternative approaches*, Pride and Holmes (eds.).
- SANTAMARIA, C. (1979): “El euskera como lengua escolar”, *Euskera* 24 (2. aldia), 465-481. orr.
- SARASOLA, I. (1996): *Euskal Hiztegia, hauta-lanerako euskal hiztegia*. Donostia. Kutxa Fundazioa.
- SARRIUGARTE, I. (1997): “Atarikoa”, in *Mendebaldeko euskara XX. mende goienean*, 1. 11-14 orr. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- SARRIUGARTE, I. (1999): “Txikitasunaren maitalea: Bitoriano Gandiaga”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. 189-199. orr. Bilbao. Mendebalde Kultur Elkarte.
- SAUSSURE, F. (1956): *Cours de linguistique générale*. Lausanne. Payot.
- SIGUAN, M. (1990a): *Lengua del alumno, lengua de la escuela*. Barcelona. ICE.
- SIGUÁN. M. (1990b): *Lenguas en la escuela*. Editorial Horsori Seminarios 14, 15. or.
- SIGUAN, M. (1996): *La Europa de las lenguas*. Madrid. Alianza.
- SIGUAN, M.; MACKAY, W. F. (1986): *Educación y bilingüismo*. Madrid. Santillana-Unesco.
- SILVA-CORVALÁN, C. (1995): *Spanish In Four Continents*. Washington, D. C. Georgetown University Press.
- SOLÉ, I.; COLL, C. (1994): *Los profesores y la concepción constructivista*. in Coll eta beste batzuk, 7-23. orr. Grao. Barcelona.
- SLOBIN, D. I. (1974): *Introducción a la psicolingüística*. Buenos Aires. Paidós.

SOLÁ I CORTASSA (1985): *Del catalá incorrecte al catalá correcte. História dels criteris de correcció lingüística*. Bartzelona, Edicions 62.

STEWART, W. A. (1968): "A sociolinguistic Typology for Describing National Multilingualism", in *Fishman, J. A.* (1977) 531-545. orr.

\* \* \*

TANTAK ALDIZKARIA. (1996): *Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza aldizkaria*. 15. liburukia.

TITONE, R. (1986). *Psicodidáctica*. Madrid. Narcea.

TORREALDAY, J. M. (1978): "1967-1977: liburuak eta batasuna", in *Euskera, XXIV*, 1978-2, (2. aldia), 503-522. orr.

TOVAR, A. (1959): *El euskera y sus parientes*. Madrid. Minotauro.

TRUDGILL, P. (1974): *Sociolinguistics*. Great Britain. Pinguin Books.

TRUDGILL, P. (1983): *Accent, dialect and school*. London, Edward Arnold.

TXILLARDEGI. (1990): "Soziolinguistika egunak", in *Hizkuntza-Hezkuntza*. Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea.

TXILLARDEGI. (1959): "Batasunaren bidea", in *Euskera, IV* (2. aldia).

\* \* \*

UNAMUNO, M. (1997): "Aldizkarigintzaz", in *Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Mendebalde Kultur Elkarte, 1. Bilbao.

UNESCO (1951): "The use of vernacular languages in education: the report of the UNESCO meeting of specialists, 1951", *Fishman* (1977).

URIBARREN, P. (1980): "Euskara euskaldunon hizkuntza. Euskara batuari buruzko filosofia", in *Karmel* 157, 1980-1, Bilbo 41-53. orr.

URIBARREN, P. (1981a): "Euskal dialektologiaren atarian", in *Piarres Lafitte-ri omenaldia* Iker 2. Euskaltzaindia. Bilbo.

URIBARREN, P. (1981b): "Euskalkiak aztertzeke egunak heldu ote?", in *Karmel* 162, 1981, 1, 53-65. orr.

- URIBARREN, P. (1992): “Euskal Herriko Eliza Katolikoa eta Euskara Batua”, in *AEK* (1992), 143-162. orr.
- URIZ B.; TUSÓN, A. *Variedades geográficas del español y norma lingüística*. Graó. Barcelona.
- URKIZA, A. (1999): “Bizkaieraren erabilera literatur sorkuntzaren prozesuan”, in *Euskalkien lekua literaturan*, 3. Mendebalde Kultur Elkarte. Bilbao.
- URQUIJO, J. de ( 1907): *Obras vascongadas del Doctor labortano Joannes d’Etcheberri (1712)*. Paris.
- URRUTIA, A. (1998): “Bizkaierazko idazle klasikoak eta lege ikuspegi: zer jaso”, in *Mendebaldeko euskararen ekarria*, 2. Mendebalde Kultur Elkarte.
- URUBURU, L. (1992): *Bizkaieraren egoera OHO eta BBB irakaskuntzan*, Euskal Ikaskuntzen Institutua. Deustuko Unibertsitatea, 47-54. orr.
- \* \* \*
- VALLVERDU, F. (1972): *Ensayos sobre bilingüismo*. Barcelona. Ariel.
- VERA, HIDALGO, M. (1997): “El habla andaluza y la norma española en la enseñanza”, *Textos 12*, 9-28. orr.
- VIGNER, G. (1982): *Ecrire*, Paris. CLE.
- VILA, I. (1987): *Lengua materna, lengua de instrucción y enseñanza bilingüe en el estado español*, in M.E.C. Subdirección General de Formación del Profesorado (1987), 229-234. orr.
- VILLASANTE, L. (1968): “Oñatiko Euskara”, in *Egan*, XXVII.
- VILLASANTE, L. (1970): *Hacia la lengua literaria común*, Oñate, Editorial Franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1974): *Palabras compuestas y derivadas*. Oñate. Editorial Franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1977): “Bitor Garitaonaindia jauna eta euskararen batasuna”, *Euskera*, XXII (2. aldia), 1977-1, 39-45. orr.
- VILLASANTE, L. (1978): “Euskaltzaindia eta euskararen batasuna”, *Euskera*, XXIV (2. aldia), 441-461. orr.

- VILLASANTE, L. (1979): “Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak”, *Euskera*, XXIV, 1979, 1, 101-102. orr.
- VILLASANTE, L. (1980): *Hacia la lengua literaria común*. Oñate. Editorial Franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1984): “Markina, bizkaiera literarioaren sehaskea”, *Euskera*, 29, 1984, 1, 185-191. orr.
- VILLASANTE, L. (1988a): *Euskararen Auziaz*. Arantzazu. Colección Eleizalde.
- VILLASANTE, L. (1994): “Euskara batuaren filosofiaz”, *Euskera*, 39, 1994, 3, 647-673. orr.
- VYGOTSKI, L. S. (1977): *Pensamiento y lenguaje*. Buenos Aires. La Pléyade.
- VYGOTSKI, L. S. (1979): *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Barcelona. Crítica.

\* \* \*

- WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*. The Hague. Mouton Publishers.
- WITTROCK. (1986): COLL, C. (1988): *Psikologia y curriculum*. Barcelona-Buenos Aires-Mexiko. Paidós.
- WRIGHT, S.; KELLY, H. (1995): *Languages in contact and conflict*. Birmingham. Aston University.

\* \* \*

- XARRITON, P. (1993): “Batasuna dela eta”, *Euskaldunon Egunkaria*, 1993-07-10, 3. or.

\* \* \*

- YRIZAR, P. (1981): *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa. II.bol.

\* \* \*

- ZABALA, Fr. J. M. DE. (1848): *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno*. San Sebastián.
- ZABALETA, F. (1994): *Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-ereduan*. Bilbao. Zubia.



- ZALBIDE, M. (1994): “Eskola-munduan erabiltzen den euskara”, *Euskera*, 39, 1994, 1, 153-181. orr.
- ZALBIDE, M. (1998): “Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas”, in *RIEV* (Dossier).
- ZARATE, M. (1975): *Euskal deklinabidea* (bizkaieratik baturantz), Durango. Leopoldo Zugaza.
- ZARATE, M. (1978): “Euskara batua eta euskalkiak”, *Euskera*, XXV (2. aldia), 557-568. orr.
- ZAVADIL, B. (1986): “Por una teoría de la codificación de la norma estándar en los países hispanoamericanos”, *Revista de Filología Románica* 4, Madrid, Editorial de la Universidad Complutense, 295-299. orr.
- ZUAZO, K. (1994): “Bonapartez geroztiko euskal dialektologia”. *ASJU*, XXVII.
- ZUAZO, K. (1999): *Deba ibarreko euskeria*. Antzuolako Udalak argitaratua.
- ZUAZO, K. (1999): “Euskararen osasuna eta euskalkiak”, in *Euskera*, XLIV, 1999, 1 (2. aldia), 355-362. orr.
- ZUAZO, K. (1988): *Euskararen batasuna*. Bilbao. Euskaltzaindia. Iker 5.

VIII. ATALA

---

**ERANSKINAK**

---

## 1. GALDEKETAK:

### A. GAIDEKETA, OHOrakoa: Batua-euskalkia-azpieuskalkia

Nire herria \_\_\_\_\_ da; \_\_\_\_\_ urte dauzkat;  
\_\_\_\_\_garren mailakoa.

Azpimarratu behar den lekuan: Nork daki zure etxean euskara?  
Aitak; amak; guraso biek; ez aitak eta ez amak.

Nahi baduzu idatzi zure izena eta deitura: \_\_\_\_\_

1. Azpiko zerrenda ikusi ondoren, idatz ezazu alboan berba hori zure etxean esaten den bezala:

- |                     |                    |
|---------------------|--------------------|
| 1. Igandea:         | 2. Ilargia:        |
| 3. Apaiz:           | 4. Adibidez:       |
| 5. Azkar:           | 6. Aldapa:         |
| 7. Hautsi:          | 8. Gosaldu:        |
| 9. Dirurik gabe:    | 10. Udarea:        |
| 11. Gustatzen zait: | 12. Osatu:         |
| 13. Enara:          | 14. Nolako:        |
| 15. Buruko ilea:    | 16. Haur txikia:   |
| 17. Garaiz etorri:  | 18. Larru:         |
| 19. Garesti:        | 20. Lurrera erori: |

2. Jar itzazu azpimarratutako hitzak zure etxeko euskaran:

“Harritzen bazinen ere, ez zegoen etxetik (1) irten beharrik mundua norantz zihoan jakiteko. Irakasleak erlojuko orratzen kontrako direkzioan zebilela erakusten (2) zizun. Gustatzen (3) zitzaizun, gainera, lurraren jirabirari esker, zu lotara joaten zinenean amerikarrek (4) lanari ekin behar ziotela jakitea. Bai zure (5) aitonari nahiz zure (6) amonari, guztiz sinpatiko gertatzen (7) zitzaien iloba kalkuluak (8) ateratzen (9) aurkitzea: “Amonak 80 urte (10) dauzka; bere (11) anaiak 82. Lurraren bira bakoitzean egun bat pasatu bazaie, zenbat bira eman (12) ditu lurrak 80 urtetan? Aitonak bazekien kalkulagailu gabe kontuak ateratzen, baina urteei buruz hitz egiteak ez (13) zionez graziarik egingen, honela erantzun ohi (14) zion ilobatxuari: “Zenbat bira? Ai, ilobatxo, itzuliko balira!

1 \_\_\_\_\_ 2 \_\_\_\_\_ 3 \_\_\_\_\_

4 \_\_\_\_\_ 5 \_\_\_\_\_ 6 \_\_\_\_\_

7 \_\_\_\_\_ 8 \_\_\_\_\_ 9 \_\_\_\_\_

10 \_\_\_\_\_ 11 \_\_\_\_\_ 12 \_\_\_\_\_

13 \_\_\_\_\_ 14 \_\_\_\_\_

3. Laugarren solairuan bizi zara. Ikastolatik etxeratzerakoan, zeure solairuko pare-parean gelditu egin da igogailua blokeatuta. Jaurti dituzun oihu larriak entzutean, aita, ama eta eskailerakoak hurbildu dira. Idatz itzazu 15 esaldi haiei han bertan entzundakoak esaneko moduan. (Adibidea: “*Zauz gelgi papaori! Ebai ingozu kablia, ba!*”)

---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---

4. Ipin ezazu “Anbotoko Señorea” izeneko testua euskara batuan:

“Anbotoko señorea, or, Sasolara be kandela berdeakas da urtetano-tziela ta, bai, olangoak entzun nindusen. Ba, nos urtetan otzien, ba, olango detallerik esteuket akordurik, baye bakisu nok esan osten ori? Orren, Lusiano, suk esaiñun esotuko baye, au, koxea, Ermojenan, orren amen neba batek esan osten, bai, Sasolan urtetan otziela kandela berdeakas da kateape tarras”. Etxebarria (1991. 341)

5. Idatzi 10 hitz, aditz edo esaera etxean erabiltzeko balio dutenak eta ez ikastolarako:

1. \_\_\_\_\_ 2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_ 4. \_\_\_\_\_
5. \_\_\_\_\_ 6. \_\_\_\_\_
7. \_\_\_\_\_ 8. \_\_\_\_\_
9. \_\_\_\_\_ 10. \_\_\_\_\_

6. Hitz hauen artean, batukoa denari (bat.) ipini; bizkaierakoa denari (biz.) eta berba bera bizkaierakoa eta batukoa bada (biak) idatzi:

- Aitita:.....Alats:.....  
 Amaitu:.....Bukatu:.....  
 Zeozer:.....Atzamar:.....  
 Barik:.....Behargin:.....  
 Gizaldia:.....Txarto:.....

7. Batuan badago jar ezazu ondoan bizkaieraz. Adibidez, *dut* = *dot*. Edo bizkaieraz badago ipini batuan. Adibidez, *daukadaz* = *dauzkat*.

- Dintso:.....  
 Etorri jakozan:.....  
 Dute:.....Geuntsuzan:.....  
 Kanta dezagun:.....

8. Egizu bakoitzagaz esaldi bat, etxean erabiltzen duzuna edo entzuna:

- Baleuskuz:.....  
 Emongo neuskioz:.....



12. Igarkizuna: Sindulgo zilbot handia ez da bazkaltzera hamabietan joan, ezta ordubietan ere. Bien bitarteko orduan joan bada, zer ordutan joan da bazkaltzera?

.....

13. Zelan beteko zenuke hurrengo hutsune hau?

Zein jertse galdu zaizu? ..... jertseak galdu zaizkizu?

14. Hutsune honetan, bietarik zein tartekatu beharko litzateke, *bertoko* ala *bertako*?

Hemen Gernikan ..... produktuak saltzen dira.

15. Eman ezak/ezan erantzuna:

Zuk ezagutzen dituzun pertsonen artean, nork egiten du berba euskara batuan eta nork bizkaieraz?

.....

Zuk norekin egiten duzu bizkaieraz eta norekin batuan?

.....

Ikasteko zein liburu daukazu bizkaieraz?

.....

Orain artean, zer irakurri duzu bizkaieraz?

.....

Mila esker, bihotzez, zure erantzun aberatsengatik.

\* \* \*

**B. GALDEKETA**, Batxilerrera: batua, euskalkia, azpieuskalkia.

Izena eta deitura: \_\_\_\_\_

Zein ikastetxetan/eskolatan/ikastolatan egin zenituen OHOk ikasketak? \_\_\_\_\_

Lagun artean, herriko euskara, bizkaiera ikasia ala euskara batua erabiltzen dituzu?

Badakite euskararik zure gurasoek? \_\_\_\_\_

1. Idatz ezak/n *Txano Gorritxoren* ipuina euskara batuan edo bizkaieraz, hik nahi duan/dunan eran. Luzera: 20 lerro. Denbora: 20 minutu.

2. *Txano Gorritxoren* ipuina lehen batuan idatzi baduzu, itzuli orain bizkaierara edo alderantziz. 20 minutu.

3. *Txano Gorritxoren* ipuineko lehen zortzi lerroak zure herriko euskarara itzuli.

4.1. Jar itzazu azpimarratutako berbak zure etxean esaten diren moduan:

Haatik, nik uste izan arren, Miren ez da zure izeba.

---

4.2. Erantzun: Noiz ikasi duzu “hots” hitzaren esanahia, etxean ala eskolan edo telebistan?

---

5. Bete aditz hauetako hutsuneak, batuko aldea, bizkaiera literariokoa edo herrikoa osotuz:

BATUA    BIZKAIERA LITERARIOA                    HERRIKOA

naiz

haiz

da

gara

zara

zarete

dira

dot

dok/don(a)

dau

dogu

dozu

dozue

dabe

BATUA    BIZKAIERA LITERARIOA                    HERRIKOA

ditut

dituk/n



ditu

ditugu

dituzu

dituzue

dituzte

---

nintzen

hintzen

zen

ginen

zinen

zineten

ziren

---

dezaket

dezakek/n

dezake

dezakegu

dezakezu

dezakezue

dezakete

---

nadin

hadin

dadin

gaitezen

zaitezen

zaitezten

daitezen

6. Eman ezazu aditz honen parekoa euskara batuan:

“Gatxa da, baina ekarri lei”

\_\_\_\_\_

“Berandu, baina banatortzu”

7. Zelan esango zenituzke azpimarratutako adizkera hauek bizkaieraz edo batuan? Batuan badago bizkaierara edo alderantziz:

“Lagun diezaioket horraino, behintzat”

\_\_\_\_\_

“Erraza ez da baina izan daiteke”

\_\_\_\_\_

“Bai, konta diezaioke”

\_\_\_\_\_

“Ardura hartu, galdu ez deistazun”

8. Perpaus hauek bizkaierara moldatzeko, zer aldatuko zenuke?

“Goizean etorri den idazkari berria, zuzendariaren alaba zen”

\_\_\_\_\_

“Utz ezak/n baketan lorea, azkar irten dezan”

\_\_\_\_\_

Zein dabil larrua elurretan sartzen?

9. Perpaus hauetan batuan dagoena bizkaierara moldatu eta bizkaieraz dagoena batura:

“Edozer erosikeran prezioari begiratu behar jako”

\_\_\_\_\_

“Aurkitu dugun bezala utzi dugu logela”

10. Idatz itzazu elkarren parean, bizkaieraz eta batuan, asteko egunak eta hilabeteak:

Bizkaieraz

Batuan

11. Idatzi 10 berba, aditz edo esaera, etxean erabiltzeko balio dutenak eta ez institutu edo ikastetxerako:

1. \_\_\_\_\_ 2. \_\_\_\_\_  
3. \_\_\_\_\_ 4. \_\_\_\_\_  
5. \_\_\_\_\_ 6. \_\_\_\_\_  
7. \_\_\_\_\_ 8. \_\_\_\_\_  
9. \_\_\_\_\_ 10. \_\_\_\_\_

12. Berba hauen artean, batukoa denari (bat.) ipini; bizkaierakoari (bizk.) eta hitz bera bizkaierakoa eta batukoa bada (biak):

Aitita: \_\_\_\_\_ aldats: \_\_\_\_\_ amaitu: \_\_\_\_\_ buka-  
tu: \_\_\_\_\_ zeozer: \_\_\_\_\_ atzamar: \_\_\_\_\_ barik: \_\_\_\_\_  
behargin: \_\_\_\_\_ gizaldia: \_\_\_\_\_ txarto: \_\_\_\_\_

13. Zein da desberdintasuna bi perpaus hauen artean, batua eta bizkaiera kontuan hartuz gero?:

1. Amamak txakurrari buztana ebaki dio  
2. Amonak zakurrari isatsa moztu dio

Bata batua da eta bestea ez? \_\_\_\_\_ Biak dira batua? \_\_\_\_\_

---

Ala bata bestea baino batuago da?

14. Itzuli batura, bizkaierara edo etxeko euskarara hurrengo esaldiok:

– En las manos tengo diez dedos, pero, por desgracia, en los pies nueve.

---

– El hermano de Miren es pelotari.

---

– El joven vive de noche, porque es joven y está joven.

---

– El rayo ha caído a cinco casas y ha quemado las cinco.

---

15. Igarkizuna: Sindulgo zilbot handia ez da bazkaltzera hamabietan joan, ezta ordubietan ere; bien bitarteko orduan joan bada,

zer ordutan joan da bazkaltzera?

\_\_\_\_\_.

16. Zelan beteko zenuke hurrengo hutsune hau?

Zein jertse galdu zaizu? \_\_\_\_\_ jertseak galdu zaizkizu?

17. Hutsune honetan, bietarik zein tartekatu beharko litzateke? bertoko ala bertako?

Hemen Gernikan \_\_\_\_\_ produktuak saltzen dira.

18. Eman ezak/ezan erantzuna:

Zuk ezagutzen dituzun pertsonen artean, nork egiten du hitz euskara batuan eta nork bizkaieraz?

\_\_\_\_\_  
Zuk norekin egiten duzu bizkaieraz eta norekin batuan?

\_\_\_\_\_  
Ikasteko zein liburu daukazu bizkaieraz?

\_\_\_\_\_  
Orain artean, zer irakurri duzu bizkaieraz?

\_\_\_\_\_  
Mila esker, bihotzez, zure erantzun aberatsengatik.

\* \* \*

**C. GALDEKETA, Xalbador Ikastegirako, batua, euskalkia, azpieuskalkia:**

Izena eta deitura: \_\_\_\_\_

Zein ikastetxetan/eskolatan/ikastolatan egin dituzu orain arteko ikasketak? \_\_\_\_\_

Adiskideekin euskara batuan ala euskalkian mintzatzen zara?

Zein euskalkitan? \_\_\_\_\_

Badakite euskararik zure aitak eta amak? \_\_\_\_\_

1. Idatz ezak/ezan *Txano Gorritxoren* ipuina euskara batuan. Luzera, 20 lerro; denbora, 20 minutu.

2. Idatz ezak/ezan *Txano Gorritxoren* ipuina hire euskalkiko euskaran. 20 lerro, 20 minututan.

3. Bete aditz hauetako hutsuneak, batuko aldea, euskalkikoa edo herrikoa betez:

BATUA      BIZKAIERA LITERARIOA      HERRIKOA/ETXEKOA

Naiz

Haiz

Da

Gara

Zara

Zarete

Dira

\* \* \*

Ditut

Dituk/n

Ditu

Ditugu

Dituzu

Dituzue

Dituzte

\* \* \*

Dezaket

Dezakek/n

Dezake

Dezakegu

Dezakezu

Dezakezue

Dezakete

\* \* \*

Nadin

Hadin

Dadin

Gaitezen

Zaitezen

Zaitezten

Daitezen

4. Idatz itzazu elkarren parean, euskalkian eta batuan asteko egunak eta hileak:

Asteko egunak

Hileak

Euskalkian/Batuan

Euskalkian/Batuan

5. Eman iezaiozu deritzozun erantzuna:

Zuk ezagutzen dituzun pertsonen artean, nor mintzatzen da euskara batuan eta nor zure euskalkian?

---

Zuk zertarako erabili ohi duzu euskalkia eta zertarako batua?

---

Ikasteko, zein liburu daukazu edo eduki duzu lapurteraz, zubere-raz edo behenafarreraz?

---

Orain artean, zein irakurgai edo literaturako liburu irakurri duzu zure euskalkian?

---

## 2. ARIKETAK

Ondorioei dagokie izendatzea besterik ez bada, irakaskuntza esan- guratsua euskal diglosia irazian gauzatzeko materiala zer nolakoa izan daitekeen. Horretarako, ikasgelan euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkia erkatuta erakutsiko duen sistema da aproposa, azpian da- torrenaren erakoa:

Euskara Batua	Bizkaiera Literarioa	Lekuan Lekukoa
dute	dabe	deurie

Ikasleak dakien berbetatik abiatzeko, dakienetik ez dakienera, ho- nelako prozedurak lan daitezke:

1. *Ahal dot/dut* menpeko perpausetarako gorde. Adibiderako: Ahal dodanean; Ahal baduzu; Ahal izanez gero, eta abar.

2. Neska-mutilek etxetik dakarten eskema osotu eta sendotu, batzuk zutabe batekoakaz etorriko dira, eta beste batzuk bestekoakaz, edo bateko *nei* esaten, eta besteko *zeinke*, bietarikoak:

Neike	nei
Heike	hei
Leike	lei
Geinke	ginei
Zeinke	zinei
Zeinkie	zineie
Leikie	leie

3. Lehenago intransitiboa irakatsi, zeren orainaldiko potentziala eta hipotetikoa ederto baten bereizten baitira hemen:

Pontetziala. Orain		Hipotetikoa	
Euskara batua	Bizkaiera	Euskara batua	Bizkaiera
naiteke	naiteke	ninteke	neinteke
haiteke	haiteke	hinteke	heinteke
daiteke	daiteke	liteke	leiteke
gaitezke	gaitekez	gintezke	gaintezkez
zaitezke	zaitekez	zintezke	zeintezkez
zaitezkete	zaitekeze	zintezkete	zeintezkeze
daitezke	daitekez	litezke	leitezkez

4. Ikaslea irakaskuntza adierazkorra jaso ezik, gera dakioken eskema murrizta zuzentzeko eskema erakutsi eta 5. urratsean osotu.

	Euskara Batua	Bizkaiera	Eskolatikoa
<u>Potentziala. Orain</u>	Dezaket		
	dezakek/n		
	dezake		
	dezakegu		
	dezakezu		
	dezakezue		
<u>Hipotetikoa</u>	dezakete	Neike/nei	Ahal dot
		Heinke/hei	Ahal dok/dona
		Leike/lei	Ahal dau
		Geinke/ginei	Ahal dogu
	nezake	Zeinke/zinei	Ahal dozu
	hezake	Zeinkie/zineie	Ahal dozue
	lezake	Leikie/leie	Ahal dabe
	genezake		
	zenezake		
	zenezakete		
lezakete			

5. Bosgarren urrats honetan eskema osorik landuko genuke:

	Euskara Batua	Bizkaiera
Potentziala. Orain	Dezaket	daiket
	dezakek/n	daikek/n(a)
	dezake	daike
	dezakegu	daikegu
	dezakezu	daikezu
	dezakezue	daikezue
	dezakete	daikie



	Euskara Batuan.	Bizkaiera
<u>Hipotetikoa</u>	nezake	Neike/nei
	hezake	Heinke/hei
	lezake	Leike/lei
	genezake	Geinke/ginei
	zenezake	Zeinke/zinei
	zenezakete	Zeinkie/zineie
	lezakete	Leikie/leie

Eguneko klase ordua Gotzon Garateren atsotitzen bategaz, herri kanta zein ikaslearen amamak esaneko perpausaren batekin has daiteke, azpieuskalkian idatzi bada, euskalki literariora aldatzeko eskatuz eta euskara batura edo alderantiz. Esate baterako: "Berbiak berbia dakar"; "Pakean dagonai paken utzi"; "Txirikilia jokue da".

Gramatikako edozein atal lantzen denean euskara batuan, orduantxe, une berberean egin erreferentzia euskalkiari. Adibidez, aditz laguntzaileak ikustean, *izan*, \**edin*, \**edun*, \**ezan*, orduantxe bizkaierazko *egin* ere.

Lexikoan ere, azpieuskalkirako *ihusturi* Txorierrin; *oinaztu* bizkaiera literarioan; *tximista* euskara batuan:

Azpieuskalkia	Bizkaiera Literarioa	Euskara Batua
<i>ihusturi</i>	<i>oinaztu</i>	<i>tximista</i>

Euskara bat orokortu bitartean, indarrean iraun dezakeela euskalkien auziak erakusteko, ez dut Lekeitiori buruzko testu hau baino aproposagorik aurkitzen:

*To conclude, Lekeitio Basque does not appear to be in imminent danger of extinction. It certainly does not seem that it will be replaced in its functions by Standard Basque in the near future. Spanish poses a greater threat. But the danger to the survival of Basque in the form of the increasing presence of the Spanish language, brought in by tourism and improved communications, is being checked by the strong loyalty towards the Basque language*

*that speakers feel and by the fact that Spanish has been displaced from its former role as the sole vehicle in education and the mass media.* Hualde (1994: 5)

### 3. EUSKALKIAREN LEKUA ZURE IKASGELAN

“Sartzen zara ikasgelara eta mahairaino doan tartean zuzen-zuzen begirutzen diezue aurpegiatar, koaderno-liburuak ireki ostean arbelean idazteko: 1999-10-13. 14. klasea. *Berbiek berbie dakar*. Edo gipuzkerako lurraldean banenbil *Pakian dagonai pakian utzi*. Azpian jartzen diezu: egin atsotitz honen iruzkina: lehenengo bizkaiera literariora aldatu; ostean, adierazi esanahia eta batuan ezarri.

Ohituta daudenez, familia erdaldunetakoek txorierritarrengana josten dute argitasun bila. Horretara, etxekoa dakiten hamabiok protagonista bilakatzen dira etxekorik ez dazagutenean aurrean, bide batez guraso, aitaita-amamen berbakera prestigiatuz.

Gainbegiratzten dituzu testuak eta *Hitzak hitza dakar* papereratu dizute hainbatek. *Berba* zer dela eta baztertu duten itauntzen diezu, jarraian azalpenak emanik. Gipuzkerako lurraldean banengo, aise ikusi ahalko nuke euskalkiko *pake* euskara batura ere *pake* eraman dutela *bakere* ordez. Hots, Mendebaldean saiheste joera dena, gipuzkeran gainjartze bilakatzen dela.

Ohartzen zara horrez gain, bizkaiera literarioan jarri dizutenean, *berbia*, *berbie*, *berbi*, *berbea*, *berba* aldaki guztiak ipini dizkizutela, ezen gelan baitituzu Athleticen fitxatutako lekeitiarra, ondarroarra zein Tolosakoa. Hortxe sentitzen duzu irakaslea euskalkian alfabetaturik egotearen beharizana, Barakaldokoa izanik Ondarroara destina baitzakete edo norbera joan Arrigorriagatik Kanbora.

Klaseak aurrera dirau eta “Hizkuntzaren funtzioak” landuko dituzue Elgoibarko mintegikoan liburutik. Oraingoan familia erdaldunetakoak bilakatuko zaizkizu etxetikoa dakitenean irakasle, jakin badakizu eta euskara estandarra dela Euskal Herri osorako nahiz zientziarako hizkera.

Behin honezkero, pentsatu dukezu zeuk ere irakurle, ea euskara batua aski ez ote den. Jabetzen zara, dena den, artikulugile hau euskara biziaz ari duzula. Batu hutsa ikasi arren gazte hori euskaldunen arte-

ra joanik euskalkiaz aurkituko baita, baldin euskara erabili badarabil, eta Mikel Zaratek errepikatu ohi zuen legez, Arrieta herrixkan Bilboko Gran Vian egingo den euskara biziko baita.

Bestalde, ez duzu patiora bidaliko 17 urteko neska edo mutila halako mintzamoldez jolas dadin: “Utziko bazenit baloia, hain zoriontsu bilakatuko nindukezu, non adiskidantza etengabea finkatzeraino hel gintezkeen”. Alegia, idatzizko erregistroa idatzirako “dun” eta ahozkoa belarrirako! Eta inon egotekotan labelduta ahozkoan “zegok” euskalkia! Horrexegatik alaitzen zara Gotzon Garate irakasle-irakaslearen arestian aipatutako atsotitzen bidez, zein *Emaidazu mosutxue* kantaz, edo bertsoz, ikasgelan etxeko euskara batuarekin harremanetan jartzean. Atseгина senti zenezake –ez duzulakoan entzun– “Hao ixilik, papauri, osti bi hartu gure ezpadozak” aditzean.

Jarraian, hurrengo egunerako gaia ikas dezaten agintzerakoan, hiruri euskalkian berba egiteko eskatzen diezu, beste hiruri euskara batuan. Txintxo-txintxo onartzen dute, astakumea astama hain belarri soberakoz ikustera ohituta dagoen antzera.

Hala ere, gogoan duzu zelan lehenengoz etxeko euskara erabiltzera ausartu zen neska hura aldeanatzat jo zuten, Bilbo nahiz Txorierriko erdal familietakoek; nola mintzatu behar izan zinen Austriako alemanieraz, Frantziako *oil* eta *oc* hizkuntzaz; Irlandako ingelesaren gainean; andaluzala dela eta..., ohar zitezten hizkuntzek seme-alabak sortzea naturala zela.

Irakastordua euskara batuan gidatu duzu, etxekoa dakienarekin solas zuzena euskalkian gauzatuta. Beste behin, ordea, euskalkian garatuko duzu eguneko saioa, egoki baiteritzazu irakasleak jariorik oneneko hizkeran berba egin behar egiteari. Ahazteke, hizkera oro ikasgelaratzean estandarturik aurkitzen dela, eta, horrez gain, irakasleak euskara jasoan ongi jantzia behar duela izan.

Azalpenaren harian, ustea duzu –Ausubel-i esker zeureganaturik– euskara apendizai esanguratsuz, signifikatiboz landu behar dela ikasgelan, hau da, ikasketan eraginik inportanteena duen faktorea, ikasleak aurretik dakarren euskararen ezagutza dela.

Praktikak irakatsi dizu Euskaltzaindiko Jagon Sailean, Mendebalde Kultur Alkartean zein *3000 Hiztegian* zalantzak sortzerakoan, betiko euskaldunarengana jo duzula –Axular tarteko– forma jakin baten erabilera argitu guran, eta zuk, irakasle horrek –Gasteiz edo Tuteran

zenbait ikuturekin atondu behar da hemen proposaturiko zia boga-, ikasgelan bertan dauzkazula betiko euskaldunak.

Belarriak diotsu, gazteriari entzun ohi diozun berbakera armonia goxorik bakoia dela euskal kodearen orkestran, eta betiko euskalduna itzelezko laguntza duzula irakasterakoan.

Jabetu zara artikuluan plazaratu duzun bidean aitzinatzekeo material premia daukazula, teoria jendarteratu beharra, ikastetxeetako ICPak moldatzeko mengoa.

Pozten zara mezu hau 340 irakasle-arduradunengana, ikastaro bidez, iritsi delako, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza normaltzeko proiektuaren barruan Ikastolen Elkarteak antolaturiko prestakuntza ikastaroetan.

Oroitzapen gozo-gozoa geratzen zaizu antolatzaileen xalotasunaz, irakasleen harrera ederraz, eta finitzen duzu artikulua konbentziturik, zoazela zoazen lurraldetara, euskaltzale bikainak aurkitzen dituzula, eta, ondorioz, plazer zaizula –ez dagokizun arren– halakoei dagiten lanagatik eskerrona luzatzea”.

*Euskaldunon Egunkaria*

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.

Derion, 1999-X-15.